

# E U S K E R A

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak  
Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca  
Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque



## EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

1995, 1  
40. liburukia (2. aldia)  
BILBO

# EUSKALTZAINDIA

Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo

Argitalpen batzordea / Comisión de Publicaciones:

Burua:	Jean Haritschelhar
Kideak:	Juan Mari Lekuona Endrike Knörr J. A. Arana Martija Patxi Altuna Miren Azkarate Beñat Oihartzabal
Eragile eta idazkaria:	Ricardo Badiola Uriarte

© Euskaltzaindia

ISSN. 0210-1564

**Euskera**

ISBN. 85479

Legezko Gordailua BI-1.244-58

Fotokonposaketa: Rali. Particular de Costa, 12-14 - 48010 Bilbo

Elkar, E. Koop. grafikagintza. Autonomia, 71 - 48012 Bilbo

**Aldizkari** hau beste agerkariekin trukutzen da. Otoi, idatz Zuzendariari.  
Esta **Revista** admite el intercambio con otras publicaciones. Se ruega dirigirse al Director.

## AURKIBIDEA

### XABIER KINTANA URTIAGA EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua, <i>Xabier Kintana Euskaltzaindian sartzea</i> .....	13
Xabier Kintana, <i>Bilbao, euskararen bizitzan</i> .....	15
Jose Antonio Arana Martija, <i>Xabier Kintanaren sarrera-hitzaldiari erantzuna</i> .....	37

### III. HERRI-LITERATURA JARDUNALDIAK

Jon Iñarra, herriko alkatea, <i>III. Herri-literatura Jardunaldiak On Manuel Lekuonaren omenez</i> .....	85
Yves Beaupérin, <i>Au confluent du style oral et du style écrit, un découvreur, Marcel Jousse: sa vie, son oeuvre, son actualité</i> .....	87
Juan Mari Lekuona, <i>Manuel Lekuonaren metodologia ahozko literaturaren ikerketan</i> .....	109
Yves Beaupérin, <i>Les traditions de style oral: Naissance, mémorisation et transmission d'après les travaux anthropologiques de Marcel Jousse</i> .....	123
Emile Larre, <i>Ama hizkuntza biziko da. Ohar batzuk Iparraldeko begitik</i> .....	147
Patri Urkizu, <i>Artazuriketak eta kontagintza</i> .....	153
Jose M. Satrustegi, <i>Testu ihartuak euskal tradizioan</i> .....	161
Juan Manuel Etxebarria Ayesta, <i>Etno-ipuín eta esaunden bilketa</i> .....	173
Xabier Kaltzakorta, <i>Tartaroak</i> .....	181
Antonio Zavala, <i>Rafael Andolz</i> .....	203
Rafael Andolz, <i>Literatura oral en Aragón</i> .....	207

Jon Kortazar, <i>Aho tradizioko literatura eta ahozkotasuna</i> .....	213
Joxe Ramon Zubimendi, <i>On Manuel Lekuona: Haustura eragotzi zigun gizona</i> .....	223
III. Herri-literatura Jardunaldiak: <i>Ondorioak</i> .....	231
Jean Haritschelhar, euskaltzainburua, <i>III. Herri-literatura Jardunaldiak: Azken hitzak eta eskerrak</i> .....	233
Jon Iñarra, herriko alkatea, <i>III. Herri-literatura Jardunaldiak: Azken hitzak</i> .....	235

## EUSKALTZAINDIAREN ERABAKIAK

Euskaltzaindiaren <b>ARAUAK</b> .....	239
1. <i>Bat-batean, behinik behin, batik bat</i> .....	241
2. <i>Baitu, baikara, bainai, e.a.</i> .....	243
3. <i>Aurrealde, Atzealde</i> .....	245
4. <i>Hau guz(t)ia</i> .....	246
5. <i>Ene/nire, niri, e.a.</i> .....	247
6. <i>Usain, arrain, zain</i> .....	248
7. <i>Zenbakien idazkeraz</i> .....	249
8. <i>Zenbakien deklinabideaz</i> .....	253
9. <i>-Zio</i> .....	255
10. <i>Nornahi, nonahi, non-nahi</i> .....	256
11. <i>Nor/nortzuk, zer/zertzuk, zein/zeintzuk</i> .....	257
12. <i>Bat eta batzuk-en deklinabidea</i> .....	259
13. <i>Lerroz aldatzean marratxoak nola jarri</i> .....	262
14. <i>Adizki alokutiboak (hikako moldea)</i> .....	263
15. <i>Partitiboaren erabilera okerra</i> .....	324
16. <i>Zu izan ezik</i> .....	325
17. <i>Euskal alfabetoaren letren izenak</i> .....	326
18. <i>Ordinalen eta banatzaileen idazkera</i> .....	327
19. <i>Benetako, Ohiko</i> .....	329
20. <i>Betiko eta honen kideak</i> .....	330
21. <i>Arabera</i> .....	332
22. <i>Iritzi</i> .....	333
23. <i>Arazi</i> .....	334
24. <i>Ba- eta gabe-ren idazkera</i> .....	336
25. <i>Hitz elkartuen osaera eta idazkera</i> .....	338
26. <i>-Z gero</i> .....	345
27. <i>Hori eta, hori edo eta horrelakoen idazkera</i> .....	346

28. Aditzoinen forma .....	348
29. Diptongoz bukatzen diren izenen deklinabidea .....	351
<i>Batzar</i> hitza dela eta .....	353
Euskaltzaindiaren <i>Batzar</i> Agiriak:	
1994.eko urria .....	357
1994eko azaroa .....	361
1994eko abendua .....	363
1995eko urtarrila .....	369
1995eko otsaila .....	372
1995eko martxoa (Larrabeen (Legutianon), 1995eko martxoaren 31 ean eta apirilaren leian) .....	376
<i>Jarraipena</i> : 1995eko apirilaren leian .....	379

## TXOSTENAK

### ONOMASTIKA

<i>Biarritz / Miarritze</i> .....	385
Jose Luis Lizundia, Onomastika batzordekidea, <i>Mendateen zerrenda</i> .	387
Mikel Gorrotxategi, Onomastika batzorde-idazkaria, <i>Guizaburuaga / Gizaburuaga</i> .....	389
Antonio Berasategi, <i>Olaberria</i> izenaren erabilera dela eta .....	391

### LEXIKOGRAFIA

Michel Morvan, <i>Commentaire critique sur les "Materiales para un diccionario etimológico de la lengua vasca"</i> , ASJU XXIII-3, 1989, pp. 897-954 (Suite) .....	409
--	-----

### BIOGRAFIA

Jose Garmendia Arruebarrena, <i>Jose Antonio de Azpiazu, euskerólogo</i>	417
--	-----

## BERRIAK

### EUSKALTZAINDIA OHORETAN

#### Gipuzkoako Aldundiaren Urrezko Domina

Jose Javier Chapartegui, <i>Gipuzkoako Domina ematea Euskaltzaindiari</i>	431
Bilera Agiria .....	435

Antton Haranburu, <i>Urrezko Domina Euskaltzaindiari</i> .....	437
Eli Galdos Zubia, Gipuzkoako diputatu nagusia, <i>Euskaltzaindiari Gipuzkoaren Urrezko Domina</i> .....	443
Jean Haritschelhar, euskaltzainburua, <i>Gipuzkoako Urrezko Domina jasotzean</i> .....	447

**‘Sabino Arana’ kultura saria**

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua, ‘ <i>Sabino Arana</i> ’ kultura saria jasotzean .....	451
---	-----

**LUIS VILLASANTERI OMENALDIA**

**Luis Villasante Kortabitarte jaunari Bizkaiko Foru Diputazioak gorazarrea**

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua, <i>Luis Villasante Kortabitarte</i> .....	457
Jose Luis Lizundia, <i>Luis Villasante Kortabitarte jaunari Bizkaiko Foru Diputazioak egiten dion gorazarrea</i> .....	461
Luis Villasante Kortabitarte, <i>Bizkaiko Foru Diputazioak Luis Villasanteri omenaldia</i> .....	471
Jose Alberto Pradera, Bizkaiko diputatu nagusia, <i>Bizkaiko Foru Aldundiak Aita Luis Villasante Kortabitarte jaunari omenaldia</i> .....	477

**Luis Villasanteri omenaldia Gernikan**

Jose Antonio Arana Martija, <i>Aita Luis Villasanteri omenaldia Gernikan</i> .....	481
--	-----

**Iratzeder-i omenaldia Baionan**

Jean Haritschelhar-en mintzaldia, <i>Iratzeder-en omenaldian</i> .....	485
--	-----

**RESURRECION M.<sup>a</sup> AZKUE**

*Literatura-sariak.1994*

J.L. Lizundia, Ricardo Badiola Uriarte, <i>Ipuinak eta bertsoak</i> .....	491
---	-----

**HITZARMENAK / CONVENIOS**

U.P.V./E.H.U.-R.A.L.V./Euskaltzaindia .....	495
Bizkaiko Foru Aldundia - Euskaltzaindia:	
I.J. Etxebarria Etxeita, E.H.H.A. - CD-ROM .....	499
<i>Hitzarmena</i> .....	501
Jean Haritschelhar, euskaltzainburua, <i>Eskerronezko hitzak</i> .....	503

## KANPOKO HARREMANAK

Frantses Gobernuari <i>Euskaltzaindiaren Adierazpena</i> .....	507
Palabras del Presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia, Jean Haritschelhar, ante S.M. Juan Carlos I, con motivo de la Audiencia concedida a la Institución .....	509
Jean Haritschelhar, euskaltzainburua, Endrike Knörr, idazkaria, <i>Espainiaren Erret Akademiak Espainiako Gobernuburua den Felipe Gonzalez jaunari egindako gutuna dela eta Euskaltzaindiaren Adierazpena</i> .....	513
Jean Haritschelhar, presidente de la R.A.L.V./Euskaltzaindia, <i>Palabras del Presidente</i> .....	515
El secretario perpetuo de la Real Academia Española .....	519

## AURKEZPENAK

Patxi Salaberri Zaratiegi, <i>Eslaba aldeko euskararen azterketa toponimiaren bidez. Onomasticon vasconiae</i> , 11 .....	523
E. Knörr, <i>En la presentación de Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Pamplona/Iruña. Onomasticon Vasconiae</i> , 12 .....	527
Fernando Muñozguren Urkiola, <i>Eibarko hiri-toponimia. Onomasticon vasconiae</i> , 13 .....	531
Roberto Kerexeta, Esther Zarraua, Aitor Ogiza, <i>Eibarko hiri-toponimia</i> .....	535
Patxi Salaberri, <i>Eibarko hiri-toponimia liburua dela eta</i> .....	541
Miren Azkarate, <i>Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-IV (Juntagailuak) (Eglu-IV)</i> .....	545
<i>Oihenarten IV. Mendeurrena. Iker</i> 8 .....	547
Jose Antonio Arana Martija, <i>IX. Korrikaren aurkezpena</i> .....	549
Jose Antonio Arana Martija, <i>Azkue Biblioteka: Durangoko Azokan erakusketa</i> .....	551

## ADIERAZPENAK

<i>Declaración de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia acerca de la Resolución parlamentaria sobre la Ley Foral del Vasconce de Navarra y acerca del Decreto Foral regulador del uso del euskara</i> .....	555
Nafarroako euskararen Foru Legearen gainean Parlamentuak erabaki duenaz Euskaltzaindiaren <i>Adierazpena</i> .....	557
<i>Declaración de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia acerca de la Resolución parlamentaria sobre la Ley Foral del vasconce de Navarra</i> .....	558

Eusko Ikaskuntzaren eta Euskaltzaindiaren <i>Adierazpena</i> Iritzi Publikoaren aurrean 1994ko azaroaren 19an Nafarroako Justizia Nagusi T.G.ko Administrazioarekiko Auzi Aretoak emandako epaiari buruz .....	559
--	-----

<i>Declaración</i> de Eusko Ikaskuntza/Sociedad de Estudios Vascos y Euskaltzaindia/Real Academia de la Lengua Vasca ante la Opinión Pública Navarra en relación con la Sentencia de 19 de noviembre de 1994 de la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Excmo. Tribunal Superior de Justicia de Navarra .....	561
--	-----

### BESTE BERRI BATZUK

J.L. Lizundia, idazkariordea, <i>1995. urterako Euskaltzaindiaren egutegia</i> 1994.urtean, hileroko batzarretan izandakoen zerrenda .....	565
Karguak eta batzordeburuak .....	573

### HIL BERRIAK

Juan San Martin, <i>Antonio M.<sup>a</sup> Labayen Toledo</i> (1898-1994) .....	579
Jose M. Satrustegi, <i>Pedro Diez de Ulzurrun, sendagilea</i> (1924-1994) .....	585
Jose M. Satrustegi, <i>Nils M. Holmer</i> (1904-1994) .....	589
Juan San Martin, <i>Dr. Justo Garate Arriola</i> (1900-1994) .....	593
J.S.M., <i>T. Hernandorena</i> (1898-1994) .....	599

## EUSKALTZAINDIAREN AURKITEGIA ETA ORGANIGRAMA

Ordezkaritzak / Delegaciones / Délégations .....	603
Euskaltzainburugoa / Cargos académicos y ejecutivos .....	605
Egoitza / Sede .....	607
Euskaltzain osoak / Académicos de número / Académiciens titulaires ..	609
Euskaltzain ohorezkoak / Académicos de honor / Académiciens d'honneur .....	611
Euskaltzain urgazleak / Académicos correspondientes / Membres correspondants .....	613
Batzordekideen helbideak (Euskaltzain ez direnak) .....	621
Euskaltzaindiaren batzorde-organigrama .....	623
Aurkibidea 1994 .....	629



**XABIER KINTANA URTIAGA  
EUSKALTZAINDIAN  
SARTZEA**

*Bilbo, 1994-XI-25*



## XABIER KINTANA EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

*Egoitza, Bilbo, 1994-11-25*

*Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua*

Agintari ohoragarriak,  
Euskaltzainkideak,  
Andere-Jaunak,  
Agur.

“Erleak, hain gauza ttipiak eta flakoak bethatzen du mundua eztiz eztitzeko eta ezkoz argitzeko. Eta gaitz litzateke kontatzea nola gobernatzen diren erleak elkharren artean; nola duten bere erregea eta obeditzen duten; nola zaharrak kofauean barrena, etxeko lanen egiteko, egoiten diren; eta gazteak bere mantenuaren eta bizikaien garraion, kanpotik ari diren; nola duten bere athal-zaiña eta behar ere bai. Zeren eztiari, nola baita gozo, eta izena duen bezala, ezti, anhitz baitarraika, eta baitzaika aiher. Nola traillaitzen direnek, traillaitzen eztiren alferrak eta nagiak, ezten kolpez egotzten dituzten bere konpainiatik. *Expellunt ab alvearibus pigras* (Plin.). Eta nola bertzerik ere anhitz gauza egiten duten, eta guztiak hain ordenantza handiarekin, non baitirudi ezen eztela erregerik, bere erresuma hain ongi gobernatzen duenik, nola erleek bere erregearekin batean traillaillatuz, gobernatzen baitute berea.”

Nork daki? Behar bada, Axular-ek idatzi duen zati hau irakurtuz sortu zaio Xabier Kintana-ri erlezaletasuna. Erle langilearen pare bereganatu du gure Herriaren hizkuntza zaharra. Bereganatzeko irauli du lehenik ere baitan zeukan lur aberatsa, lur hartan erein, alorra jorratu eta zaindu uzta ederra eman zezan. Hala gertatu da. Ageri dira fruituak, mozkin nasaiak edozein arlotan: eleberrian, saiakeran, hizkuntzalaritzan, hiztegegintzan eta abar... Denek badakigu euskara batuaren alde egin dituen lanak Euskaltzaindiak sorturikako batzordeetan. Denek badakigu ere institutuetao euskal katedren lehenbiziko oposaketetan jalgi zela lehen, ohore guziekin, Xabier Kintana.

Euskaltzaindia den kofauaren barrenean sartzen zaigu Xabier Kintana, erle langilea. Ez da izanen erle zaharraren parekoa, etxeko lanetan bakarrik ari dena; are gutiago traillaillatzen ez diren alferren eta nagien idurikoa eta nehork ez du gure konpainiatik ezten kolpez egotziko. Segur naiz, ordea, gazteak be-

zala ariko dela mantenuaren eta bizikaien garraion emaitza joriak eskainiz. Euskaltzaindiari, bere baitan daukan ezta denen ezitzeko, gogoan daukan ezkoa guzien argitzeko.

Ongi etorri zuri Xabier Kintana!

## BILBAO, EUSKARAREN BIZITZAN

*Egoitza, Bilbo, 1994-11-25*

*Xabier Kintana*

***“Agustin Berreteaga  
adiskide ahantzezinari  
betiko oroitzapenaz”***

Jaun-andreok, senide, lagun eta adiskideok, agur guztioi.

Zuen adiskidetasuna eta, seguraski, pazientzia ere frogatzeko aukeratu dudan gai honekin, nolabait, aspaldiko zorra kitatu nahi nuke. Gizalegezkoa omen da nork bere gurasoenganako maitasuna agertzea, eta ni, dakizuenez, Bilboko seme nauzue. Ez ditugu aita-amak maitatzen, ordea, onenak, begikoenak edo hobezinenak direlako, geureak ditugulako baizik. Horregatik, nekez aldatuko genituzke geureak, trukean, inorenak hobesteko.

Eta nik neuk, Bizkaiko hiriburu den Bilbao honekin, halako zerbait sentitzen dut. Badakit berau ez dela Donostia bezain polita. Bistan dago ez duela Baionaren lasaitasuna, Donibane Garaziko inguru zoragarriak, Gasteizko aire eta zeru garbi atseginak, Iruñeari darion histori kutsu sarkor hori edo Mauleren garbitasun imitagarria. Geure inguruan industri kutsadura, zirkulazio zaratotsa, ibai zikina eta zirimiru etengabea pairatu behar izaten ditugu maiz, eta hala eta guztiz ere, Iparragirrerren hitzak are mugatuago erabiliz, “baina bihotzak dio”, bertan jaio garenontzat txoko paregabea da gure botxo hau.

Egon lasai. Ez natzaizue hemen hasiko, herri-minez, neure jaioterriaren ederrak goraiatzuten. Aitzitik, Ibaizabal bazterreko hiri honek euskal kulturari izandako garrantzia gogoratzeri nator, hizkuntzari dagokionean batez ere, hori gomutatzea batzuentzat interesgarri, beste batzuentzat seguraski argigarri eta zenbaitzuentzat agian ereduagarri izango delako esperantzan.

Norbaitek pentsa dezake, ordea, eta arrazoia luke, ez dela ene aldetik bat ere gizabidezkoa neure aurrekoa, hots, Eusebio Erkiaga euskaltzain zendua hemen aipatzeke uztea. Eta egia esan, ohitura izaten da, inoren lekua hartzean berriak zaharraren merezimenduak gogoratu eta publikoki aitortzea, eta Erkiaga jaunak, eduki, merezimendu franko zeuzkan horretarako. “Eginak ez du egin-

kizunik” diosku esaera zaharrak, are gutxiago ongi eginik dagoenean, eta duela bi urte, 1992.eko maiatzaren 22an, Bizkaiko Diputazioak Erkiaga jaunari ondo merezirik egin zion omenaldian, Karmelo Etxenagusia euskaltzain urgazleak haren bizitza eta literatur emaitzak zehatz-mehatz eta ezin hobeki azaldurik utzi zizkigun. Uste dudanez, haren biografia eredugarri eta lan ugarien zerrenda hori honez gero argitaratzeko bidean izango dira. Hori dela eta, alferlana litzateke, eta plagio barkezina gainera, orain ni haren hitzak zuen aurrean errepikatzen hasiko banintz. Horrela ba, puntu hau argitu ondoren, nakion bada neure gaiari, Bilbao hiriak euskararen bizitzan izandako garrantziari, hain zuzen.


### Lehen lekukotasunak

Bilbon argitaraturiko lehenbiziko liburua, 1596. urtekoa da, *Doctrina christiana en Romanze y Basquenze* deritzo, eta izenak berak dioenez, doktrina katolikoa ikasteko obra bat da, era horretan euskaraz egindako lehenengoa. Egilea Joan Perez Betolatzakoa zen, jatorriz arabarra.

Euskal letretan azaltzen zaigun lehen bilbotarra, aldiz, Rafael Mikoleta izan zen, 1611an jaioa eta apaiza izandakoa. Kuriosoa da, ene ustez, eta aldi berean, sinbolikoa ere bai, bilbotar batek idatzirik lehenbiziko euskal liburua, hain zuzen, gure hizkuntza ikasteko metodo bat izatea, *Modo breve de aprender la lengua vizcayna*, 1653an datatua, obra horrekin gure hiri honek bere jatorrizko hizkuntza berreskuratzeko izango zuen garrantziaren profetia egiten zelako. Liburu horri esker, jakin badakigu garai hartan Bilbon egiten zen euskara nolakoa zen, eta harrigarria bada ere, gauza batzuetan behintzat, baterago zetorren oraingo euskara batuarekin gaurko bizkaierarekin baino. Adibidez, *zellan* moduzko galdetzailearen ordez, *nolan* esaten zen Bilbon garai hartan, gure oraingo *nola* arruntaren antzera, hain zuzen.

Orduko bilbotarrek baina, bazekiten euskaraz eta dirudienez Mikoletak bere hizkuntza kanpotarrei irakasteko asmoz idatzi zuen bere liburua, horren eskueskribua non eta Londresko *British Museum*-en aurkitzeak argi erakusten digun bezala. Edonola ere, scripta manent zioten klasikoek, eta letra idatziaren irauteari esker gaurko bilbotar, bizkaitar eta euskaldun guztiongana heldu dira, denboraren tuneletik bezala, Bilbao zaharreko izen euskalduneko kale hauetan bertan bizi izandako herkieen berbaro urruna, batzuek ahantzerazi nahiko liguketena. Mikoletari zor diogu, beraz, hiri honen hizkuntz sustrai zaharrak go-goan gordetzea.

Eta elizgizonekin segitzeko, esan dezagun, mende berean, 1656an, Martin Otsoa Kapanaga mañariarrak beste doktrina bat argitaratu zuela Bilbon, *Exposición breue de la Doctrina christiana* izenekoa.



*Jean Haritschelhar, euskaltzainburua eta Xabier Kintana*

Bestaldetik, Alfonso Irigoien euskaltzainak argitaratu dituen datuei esker, badakigu Mikoletaren denboran, orain dela hirurehun urte, bilbotarrek, euskaraz berba egiteaz gainera, Donibane Lohizuneko merkatariei, haiekin izaten zituzten tratuetan, eskutitzak euskaraz egiten zizkietela (1).

Zenbait Gabon-kanta izan ezik, ez dugu datu askorik, nik dakidala behintzat, hurrengo mendeko bilbotarren hizkuntza nolakoa zen jakiteko, baina ezerk ez diosku euskara galdu zutenik, eta tarte horretan gauzak ez ziren, seguraski, asko aldatuko. Hortaz, ehun urteko salto handia egin beharko dut, XVIII. mendearen gainetik.

Baina aurrera segitu baino lehen, puntu bat argitu nahi nuke. Izan da, Espainiako Hizkuntz Akademiako kide den Gregorio Salvador jaun txit argia adibidez, Bilbao eta oro har Euskal Herri osoa, euskalduna izan baino lehen beti erdalduna izan dela esan duenik, horrela, akademikoak izan arren, batzuetan memelokeriak esatetik inor ez garela libratzen frogatuz; baina ez dut uste horrelakoen probokazio ergelak kontutan hartu behar ditugunik. Hala eta guztiz,

(1) Cfr. Alfonso IRIGOYEN: "Carta en lengua vasca dirigida en 1683 desde Bilbao por Fermín de Basauihuaso a Joanes de Callo a San Juan de Luz", *Euskera*, VII, pp. 259-269.

gure artean, Bilboren jatorrizko euskalduntasuna ukatzeraino heldu barik ere, inoiz, gaurko Bilbao erabat erdalduna dela esan da, eta Iruñea, Baiona edo Gasteizen pare aurkeztu nahi izan zaigu, hau da, erdal eremu baten erdian kokatua balego bezala eta euskal enbor biziarekin loturarik ez baleuka legez. Hori baina, ez da egia.

Joan den mendean hasita, azken karlistadatik hona batez ere, gure artera inguruko erdal herrietatik jende asko etorri da Bilbora bizitzera, eta etorkin horiek, beren kopuru handiarekin, eta beren zerbitzuan era eksklusiboz izan duten administrazio eta irakaskuntza espainolari esker, Bilboko bizimodua erdaldundu dute, urtegi bat egitean hara ekarririko urak haranaren sakoneko lehengo etxe jatorrak itotzen dituen bezala. Baina bere inguru osoa oraintsu arte euskaldun-euskalduna izan du Bilbok, bai Ibaizabalen ezker aldean eta bai eskualdean ere.

Ni neu Artxandapeko Uribarri auzategian jaio eta hazia naiz, eta gogoan dut ene haur denboran, orduko baserri eta txakolindegietan jendea normalean euskaraz mintzo zela, eta gaur ere bai, oraino zutik gelditzen diren etxeetan behintzat. Mendebaldean, berriz, Pagasarri aldeko baserrietako euskararen lekukotasunak bildu dizkigu duela gutxi Iñaki Gaminde azterlari trebeak (2). Hori dela eta txikitan euskaraz jakin ez dugun bilbotar askok, ezagun-ezagunak izan ditugu behintzat Emiliano de Arriagak (3), orain dela ehun urte, bere *Lexicón del bilbaino neto*-n metaturiko hitzak, *no dejar ni los hondakines, que txirene, sagutxu, quedarse neke, arraingarri, zaran, hestegorri*, etab. Bestalde, Adrian Zelaia jaunari aditua diot bere umezaroan Barakaldo inguruko baseritarrek ere euskaraz egiten zutela. Beraz, euskararekiko etengabeko lotura horrek oraintsu arte iraun du, eta hausketa ezin berriagoa da.

## Bilbao, euskaldunen elkargune

Gauza jakina denez, munduko hiri handi, portu eta merkatalgune guztiek erakartze indar berezia izaten dute inguruko herrisken gainean, eta gure Bilbao ere ez da salbuespena izan. Hori dela eta, Didako Lopez Harokoak fundaturiko hiri honetara aldirietako jende asko heldu eta bertan gelditu ziren. Horiek guztiok, jaiotzez bilbotarrak izan ez arren, Bilbok elkartu eta beren bizimodu eta emaitzak hementxe burutu zituzten heinean, neure hitzaldi honetan bertoko giroaren partaide eta moldatzailetzat jotzen ditut, jatorrizko bilbotarrek besteko eskubideekin gainera, gure hiriaren bilakabidean haien eskua ezin utzizkoa delakoan.

(2) Ikus Iñaki Gamindek oraintsu argitaraturiko *Bilboko Larraskituko euskaraz. Lexikoa eta testuak*. Bilboko Udala, Bilbao, 1994.

(3) Emiliano DE ARRIAGA: *Lexicón etimológico, naturalista y popular del bilbaino neto*, Bilbao, 1896.





*Xabier Kintana Urriaga*

Horietako bat, adibidez Jose Pablo Ulibarri Galindez Okondoko arabarra izan genuen (1775-1847), Abandoko zinegotzia eta elizate honetako ahalduna Bizkaiko Batzar Nagusietan. Joan den mendearen hasieran euskarazko irakas-kuntza bultzatu, euskarazko eskribu mordoia idatzi eta Euskal Akademia sortzeko lehen proposamena egin zuen. Hark sortu zuen, “eskola” esateko, *ikasola* hitza, geroago *ikastola* bilakatuko zena. Haren izena daraman Bilboko euskal-tegi batek berak ereindako euskal kezkek oraindik bizirik dirauela argi erakusten digu.

Joan den mendeko karlisten gerrateek, Mitxelenaren ustez egiazko askapen nazionalerako herri-borrokak izan zirenek, eta ondorengo foru galtzeak, orduko European zebilen erromantizismo giroaz nahasirik, euskal nazionalismoa itxuratu zuten.

Antzinateko denbora klasikoetatik argi ageri da hiriek zer nolako garrantzia izan duten, jendeak elkartu eta nazio-kontzepzioa eratzeke orduan. Ez da kasualitatea, nik uste, ekialdeko eta mendebaldeko hizkuntza askotan hiria eta Estatuak, (hebr. *madinah*, gr. *πολις*, alem. *Stadt/Staat*) bi-biak berba berarekin izendatzea. Izan ere, zibilizazio hitzak, latinezko *civitas* hitzetik eratorriak, argi erakusten digu kaleko gizaguneak izan direla historian zehar kulturaren egiazko hasierak. Eta horrek azal diezaguke euskaltzaletasunean eta gure nazio-sentimenduen eraketa intelektualean euskal hiriek eta kaletarrek, eta Bilbok bereziki, izandako garrantzia.

Euskaldunen sentimendu nazionalak, ordea, ez ziren joan den mendean “ezerezetik asmatu”, punta bateko eta besteko interesatu batzuek bestela sinesterazi nahi badigute ere. Kultura pixka bat duenak badaki, gutxienez, Etxeparek, Leizarragak, Oihenartek, Pozak, Axular eta Larramendik, zeinek bere erara, goraiapatua zutela “euskal nazioa”. Hemeretzigarren mendeko nazionalistei egiteko gelditzen zitzaien bakarria, beraz, lehendik zetorren sentimendua bideratu eta horren aplikazio politikoa ematea besterik ez zen.

Horien artean kokatu beharko litzateke, adibidez, Pedro Novia de Salcedo bilbotarra (1790-1865). Bizkaiko diputatu nagusi, foruzale, eta euskaltzalea izandako hau 1838an moldatzen hasitako *Diccionario etimológico del idioma bascongado* liburua, 1887an, egilea hil eta gero, Tolosan Lopezek argitaratu zuen. Ostera ere, badakusagu herriarekiko loturak euskararen aldeko jarrera bultzatzen zuela. Beraren inguruan zegoen giroaren adierazle, 1864an, Gernikako Batzarretan Bizkaiko maisuek euskaraz jakin beharra tratatu zen, eta euskarazko katedra bat sortzeko komenientzia ere bai —eta hitzez hitz irakurtzen dut orduko batzarraren akta—:

“teniendo sin duda muy presente el axioma de que allí donde concluye la lengua de los pueblos concluye su nacionalidad” (4).

Gogoan izatekoa da, aipaturiko urte horretan Sabino Arana ez zela oraindik jaio, eta, hala eta guztiz ere, bazela hemen abertzaletasun giro nabarmena, hizkuntza eta foruen inguruan bilbatua. Giro berberori, derradan bidenabar, mendearen azken aldean Fidel Sagarminagak, Bilboko alkate izandakoak, fundaturiko “Euskalerria” elkarte foruzalean mamituko zen.

Honela uler daiteke Bilbao liberal baina batera foruzale honek; Jose Maria Iparragirre gipuzkoar ospetsuari 1855ean, Madriletik itzuli zenean, egin zion harrera beroa. Horrek txunditurik eta haserre utzi zuen Bizkaiko gobernadorea, hura agurtzera etorririko euskaldun ugarien aurrean Gernikako Arbola, euskal himnoa kantatzen zuelarik, “adoratzen zaitugu arbola santua” esatean jende haiek bat-batean belauniko jarri zirelako; eta hargatik Madrilera deitu zuen, kitarra batekin hainbat herritar erakartzen zekien “arriskugarri” hura gartzela-

(4) Alfonso IRIGOYEN: *De re philologica linguae uasconicae III*, Bilbao, 1990, 293. orr.

ratzeko baimena eskatzeko. Hori dela eta, hemendik alde eta “Santander aldera”ko bidea hartu behar izan zuen Urretxuko kantariak.

## Hiru erraldoi sokatiran

Euskararen aldeko giroa bazegoen, beraz, Bilboko eskenatokian Resurrección Maria de Azkue lekeitiarra, eta Migel Unamuno eta Sabino Arana Goiri bilbotarrak agertu zirenean. Madriletik Estatuak bere administrazio-, soldadutza- eta irakaskuntza-guneetatik etengabeki hedatzen eta bultzatzen ziharduen erdal giro prestigiotsu hartan, baziren, korrontearen aurka, bertoko herri zapaldu eta ukatuaren alde boza goratzen zekitenak.

Deus gutxi esan behar dut Azkueren euskaltzaletasunaz. Haren gramatika, morfologia, folklore eta hiztegi lanak aski ozen mintzo dira beren aitaren faborere. Euskaltzaindi honek bera du fundatzaile. Haren *Diccionario vasco-español-francés* famatuan ondoko hiztegi guztiak oinarritu dira, eta Akademiak orain burutzen diharduen lexikografi lan erraldoiak, Koldo Mitxelena hasi eta orain Ibon Sarasolaren gidaritzapean segitzen duenak, Azkuerena izan zuen iturburu. Behialako gipuzkera osotuarekin eginiko saio hura ere euskara batzeko ahalegin goiztiarra besterik ez zen, ondorengoek, zuzentzeko eta osatzeko bada ere, kontutan hartua. Gehiegizko garbizalekeriaren eta hizkuntz manipulazioen arriskuak ere zuhurki salatzen jakin zuen Azkuek bere garaian.

Sabinoren eragina, bestetik, hortxe dugu: euskal ortografia finkatzeko urrats asko hari zor zaizkio, eta poesian bertsoak neurtzeko jarririko arauak ere bai, ondorengo olerkariak haintzat hartuak. Bestalde, ezin nagoke aitortu gabe Aranak euskal arlorako ekarriko emaitza baliosa. Askok, ni barne, Sabinoren purismoa kritikatu dugu. Baina guztiok geure garaiko umeak izaten gara, eta kontua ez da hark egindakoa gaizki ote zegoen, baizik eta ea, une eta giro hartan, gure hizkuntzaren ikerlanak hasirik ere ez zeudenean, gauzak hobeki egin zitezkeen ala ez.

Noski, Sabinok ezin jakin zitzakeen, guk gaur dakizkigun neurrian behintzat, euskarak hitz berriak asma-sortzeko zituen baliabide jator guztiak; gure ondorengoek guk baino gehiago eta hobeki jakingo duten arrazoi berberetatik. Baina halere, gure hizkuntza erdarapeko morrontza kaltegarritik ateratzen saiatu zen, borondaterik onenarekin eta ahal zuen modurik hoberenaz. Eta emaitza konkretuetan beti asmatu ez arren, haren helburua eta kezka behintzat ederki txertatu zuen bide beretik segitu dugunongan. Gaur, *idatzi*, *ikurrina* edo *batzoki* moduko hitz batzuk, Aranak lehen aldiz moldatuak, Euskal Herri osoan erabiltzen dira.

Baina Aranak euskal alorrean utziriko emaitza handiena, zalantzarik gabe, Azkuek berak aitortu zuenez, hizkuntzaren garrantzi teorikoa azpimarratu eta hori bere programako gainerako eskakizunekin batera jartzea izan zen, eta, gure

gizartean euskara erabat baztertzan eta mespreziatzen zen garai ilunean, hari esker gure mintzaira defendatzen zuen lehen talde politikoa antolatatu zuen, hau da, giza multzo eratu bat, alderdi trinko bat, erdalduntzeko erasoei beti aurka egiteko prest. Eta ideologia hori Bilbotik hasi zen zabaltzen, Sabinoren eragin politikoa bitartez.

Badakit, eta arrazoia ez dute falta, gure artean boz batzuk entzun direla euskarari halako edo holako ideologia abertzaleekin lotuegirik egoteak zer nolako kaltea dakarkion salatzen. Izan ere, Euskal Herritar ororen hizkuntza inoiz euskara izango bada, kolore guztietakoek haintzat hartu beharko dute bera, eta horrexegatik inork ez luke guztion hizkuntza erabili behar "beraren" bandera edo balio propio, berezi eta bakarra balitz bezala.

Ez nuke gezurrik esango, ordea, gure hizkuntza beti "hortxe", guztien aurrean, egon dela gogoratuko banizue; eta Mari Errauskin gizaixo horri nahi zuenak luza ziezaiokeen, lagungarri, eskua. Zergatik batzuek bai eta besteek ez dioten kasurik egin, norberak susma beza; baina ez da ustekizunetan aritzea, gaixorik eta hiltzear zegoenean norbaitzuek hura onartu, zaindu eta jaso ez balute, gaur euskara mintzaira hilen linboan legokeela pentsatzea.

Bat nator, hobe ez, orain arte maitasunez gorde dutenei esker bizirik dirauen euskara hori, hemendik aurrera zabaldu, hedatu eta, alderdikeriak alde batera utzita, guztiena egiteko gogo horrekin. Baina begien aitzinean eta eskuaren aldamenean zuten diamantearen balioaz konturatu ez edo eta hura ostikoperatzen ibilitakoek, lotsa eta zentzua balute behintzat, ez liokete besteri hartaz arduratu izana aurpegiratu behar, eta bai herri honi barkamena eskatu beren oraintsu arteko arduragabetasun itsuagatik.

Eta diodanaren erakusgarri, hortxe dugu azken hauteskundeetan, alderdi politikoei beren propagandan euskarari eman edo ukatu dioten tokia... non eta euskara, aspaldiko HAMALAU URTEOTAN ofiziala den herrialde honetan. Kontua da, nazionalista batzuek euskara arma politikotzat daukatela salatzen den bitartean, sarriegitan ahantzi egiten zaigula beste nazionalistek asmo berberarekin darabilteela erdara ere, eta mundu guztiak badaki, hizkuntza bakoitzak duen pisuagatik, min handiena zeinek egiten duen. Beraz, nori berea da zuzenbidea, gure zaharrek ziotenez.

\* \* \*

Baina natorren harira. Hirukote horretatik Unamuno gelditu zait aipagai. Seguraski batek baino gehiagok pitxi eritziko dio nik Migel Unamunokoa bilbotarra euskaltzale gisa aipatzeari, eta horrek argitasunen bat merezi du. Hasteko, esan behar da Unamuno, euskara nagusitan ikasirikoa zela, garai hartako euskaldun berria, hau da, Campion, Urkixo, Olabide, Arana Goiri eta beste batzuk bezalakoa. *Euskal Erria* aldizkarian Gernikako Arbolaren omenez artikulatxo bat idatzi zuen, eta Aita Santi Onaindiak don Migelen zenbait euskal

poema bildu zituen bere *Milla Euskal Olerki Eder* antologian; lantxo guztiotan bilbotarraren nahia eta ezina elkarren lehian azaltzen zaizkigu, adierazi nahi zuena ez baitator maiz bat berak zekien euskara urri eta inoiz okerrarekin.

Geroago lehian ibili zen Unamuno Azkue eta Aranarekin Bizkaiko Diputazioak jarririko euskal katedra lortzeko, eta horrek ederto erakusten du garai hartan ez zuela inondik ere euskara mespreziazten. Euskararen aurkako jokabidea ondoren garatu zuen, bizimodua atera beharrak hemendik kanpora, Madrila eta Salamancara, eraman zuenean. Han orduko hizkuntz aurreritzi okerrak bereganatu zituen, garai hartako arrazismo kolonialak nolabait hizkuntz arloran iraganikoak. Izan ere, alde batetik lehen mailako kultur hizkuntza dotore eta trebeak jartzen ziren (frantsesa, ingelesa, espainola, alemana...) eta bestetik herri atzeratu eta kolonizatuen bigarren mailakoak (adibidez, arabiera, zulu, indiera, vietnamiera, tagalog, ketxua, nawatl, bretoiara eta, noski, euskara bera ere bai), eta horiek, jakina, inperialisten ustez, ez zuten balio goi mailako kultura adierazteko, horiek suntsitzeko zerabiltzaten ahalegi guztiak, bide batez, justifikatuz (5). Unamunok, seguraski hori sinetsi zuen, edo sinetsi nahi izan zuen, horrela euskara ikasteko zerabilen borroka latza konpontzen zitzaiolako; aurreritzi horri esker, bere pentsaera gorena azaltzeko balioko ez zion mintzaira hura gehiago ikasi beharrik ez zuelako.

Edonola ere, Unamunori euskara alde batera uztea maiz aurpegiatu diogun arren, abandonismo horretan ez zuen erabateko arrazoirik falta. Garai hartan gure hizkuntza dialektotan banatua eta literatur eredu baturik gabea zen, kultur hitzen aukera egiteko bide argirik ezaz eta gehiegizko garbizalekeriaren zamapean, eta horregatik ez zegoen oraindik frantsesa edo espainolarekin lehian eroso ibili eta burua tente ateratzeko moduan. Landu beharra zeukan oraino. Unamunori, hortaz, lantze-bide horretan saiatu ez izana kritika diezaiokegu. Izan ere, euskarak halako intelektual prestigiotsuen premia zuen herri xehe maila apal hartatik irteteko, baina bera ez zen gai laguntza hori emateko. Hala ere, gure hizkuntzaz egin zuen diagnostikoa ez zegoen erabat oker.

Bere lan guztiak erdaraz idaztean, azken buruan, Sabino Aranak bezelatsu jokatu zuen, eta bata euskararen kontra eta bestea alde agertu arren, bi-biek erosoan zuten erdara batua erabili zuten. Baina Unamunok, euskarari egin zion kritika zela eta, bertoko euskaltzale askoren bihotzak haserrez sutu eta bera oker zegoela frogatzen saiatu ziren. Hortaz, "Bizitzaren sentimendu tragikoa"ren egileari hainbeste gustatzen zitzaizkion paradoxetako bat erabiliz, euskara mespreziaztean, jende asko bultzatu zuen haren defentsan, bera estimatu, landu, batu eta kulturarako egokitu arte. Bertoko jendearen izaera ezaguturik,

---

(5) Gogoan izan Espainiak Afrikan, Amerikan eta Ozeanian egindako kolonizazioaz oraintsu arte guztiok eskolako maisuei harroki entzundako "*les enseñamos nuestro idioma*" hura, behin eta berriro errepikatua. Horrek, noski, aldean gutxiespenezko "*porque la suya no valía para nada*" inplizitu bat zeraman, bertako jendeek hara espainolak heldu baino lehen elkarrekin ezin komunikatu ibili edo maia, azteka edo inken moduko goi mailako kulturak eraikitzeko gai izan ez balira bezala.

eta bere azken urteetako pasadizoen argitan (6), nik neuk, ausartegi agian euskararen aurkako jokabide horretan ez ote zuen prezeski kontrakoa nahi susmatuko nuke, Kirikiñok, Lizardik, Salbatore Mitxelenak, Txillardegik, Martin Ugaldek eta euskara lantzen eta batzen arituriko beste lagun askok behintzat gogoz hartu diote harrez gero Unamunori desafio-eskularra.

## Bilbao, han bere dongeak birao

Baina Bilbok, eguzki-distiren ondoan, baditu bere hodei ilunak ere eta, egizaletasunak beharturik, ez dizkizuet horiek ezkutatu nahi. Izan ere, gure hiri handietako jendeek sarritan metropoliarekiko erabili duten lilura eta txakur leialaren menekotasun hori ez da gaurkoa. “Gatzean gatzean baina ez Ibarguengorean” Erdi Aroko esaera zaharra, adibidez, garai hartako nobleen arteko ohiko mintzaira zein zen jakiteko lekuko ederra da. XVIII. mendean Larramendik Gipuzkoako hirietako zaldun erdaltzaleak salatzen zizkigun, orduko andre euskaltzaleak gorai patzen zituen bitartean. Eta Bilbon, administrazioa eta irakaskuntza espainieraz derrigorrez jarri zirenetik batez ere, lehenagoko sus-traiko joera horiek neurri handiagoan islatzen hasi ziren.

Gonbaraketak, maiz atseginak izan ez arren, askotan argigarriak dira, eta horregatik ez zaigu gaizki etorriko, adibidez, garai hartan Katalunian zer gertatzen zen gogoratzea. Diotenez, XIX. mendearen hasieran Bartzelonako burgesi dotoreago iruditzen zitzairen gaztelaniaz egitea, eta katalana morroiek in mintzatzeko besterik ez zuten erabili nahi. Erdararekiko lilura horrek, ordea, Madrileko burgesiak katalan “probintziano” haiekin botere politikoa erdibanatzeko bat ere gogorik ez zuela konturatu arte besterik ez zien iraun. Madrildarren mesprezio hari antzeko gaitzespenaz erantzun zioten eta espainolek utzi eta beren hizkuntza eta usuario propioetara itzuli ziren katalanak. Ondoren Renaixença etorri zen, gaurko Katalunia moderno eta errotik katalanaren oinarriak ezarri zituen mugimendua.

Bilbok, ordea, ez zuen holakorik izan. Eta hor gure nazionalismoak hizkuntzarekiko bestelako jokabidea izan zuela esan dezakegu. Abertzaleek euskara maila teorikoan gorai patu arren, ez zuten inoiz gehiegi praktikatu. Orduko bilbotar gehienek erdara besterik ez zekitela ikusirik, Aranek, bere herritar askok galdu berria zuten hizkuntza berreskuratzeari ekin beharrean, errazago eta ekonomikoago eritzi zion haien egoera erdaldundua eredarri jartzeari, euskara ez zekien baina euskal deituetan bere “arrazaren” jatorria garbi erakusten zuten “euskotarra”ren figura kanonizatuz.

---

(6) Ikus adibidez, neronek Jose Mari Uzelai pintatzaileagandik bildurikoa: *Nazioarteko Ipui-nak*, Donostia, 1980, 84-85. orr.



*Ezkerretatik eskumatara:* Xabier Kintana; Juan Mari Lekuona; Jean Haritschelhar, euskaltzainburua; Endrike Knörr eta Jose Antonio Arana Martija.

Politikariren batek oraindik ez badaki ere, euskaldun nazioaren izen historiko zahar eta jatorra Euskal Herria da, Azkuek, Kanpionek eta beste askok behin eta berriro gogoratua eta Euskaltzaindiak autonomi estatutuan errespetatzeko eskatu behar zuena. Hortaz, euzkotar eta Euzkadi, izen berriak ditugu, duela ehun urte Sabino Aranak asmatuak, batez ere euskaraz ez zekiten bilbotar erdaldundu haien lotsa estaltzeko. Izan ere, Sabinok, konturatu barik, haien antz eta irudira neurturiko nazio-eredua projektatu zuen, eta “euzkotarren aberria Euzkadi da” harekin *de facto* “Euzkadi euskara ikasi beharra sentitzen ez dutenen aberria da” esaten zuen, edo gordinago oraindik, euskara ikasi nahi ez dutenena.

Kontraesan garbia zegoen —eta dago— hor. Alde batetik bilbotar erdaldun horiek oso arro zeuden, “bertokoak” zirelako, eta erdal hizkuntza eta kultura, “kanpotarrak” zirela esaten zuten. Baina euskara ez zekiten eta zerabilten neurrian, bihotzez arrozkeria horien maitale, praktikatzaile eta goresle faktikoak ziren, kolonizatuak kolonizatzailearenganako omen duen Stockhomeko mirespen-sindrome gisako horrekin, hura leialki imitatzena bultzatzen duena.

Ondorioak larriak bezain bistakoak ditugu: Gure herriaren jatorrizko izenean hizkuntzak duen ezin utzizko garrantzia bigarren mailara pasa, euskal-

duntasuna norberak merezi gabeko deitura administratibo espainoletan oinarritu, gure ezaugarri nazional nagusia ez berreskuratzeko aitzaki ederra asmatu eta kanpoko jendeari, hizkuntzaren kasuan ez bezala, bertakotzeko oztopo gaindiezinak jartzea. Hizkuntza, ez dakigunean, ikasi eta lortu egiten da, baina arraza edo Rh negatiboa, ordea, ez.

Halere, praktikan euskara hain gutxi interesatzen zitzaion bilbotar burgesia horrek, uda ematera herrietara joaten zirenean, euskaldun baserritar eta arrantzaleen artean “kaletar usuario dotore erdaldunak” hedatzen zituen, baina bere nazio kontzientzia teoriko txarra garbitzeko edo, euskara “besteek” lantzea begi onez ikusten zuen, hura sinbolo nostalgiko eta sakratua balitz bezala. Euskara hori, bestalde, egunero erabiltzekoa ez zenez, erraz idealiza zezaketen, haren barruan azken muturreko garbizalekeria guztiak sartu arte.

Beraz, nahiz atsegina ez den, aitortu behar da Bilboko euskaltzaleen giroa, Hego Euskal Herriko beste anitz hiritakoa bezala, euskal abertzale erdaldunetz inguratua egon dela, eta horiek, normalean ukatzen ez zieten laguntza politikoaren ondoan, sarriegi arduragabetasun ia absolutua azaltzen zutela. Kasu gehienetan, eta honetan ere Krutwigen hitzei natxakie, haientzat euskara heraldika arloko zerbait zen, beren deituren misterioa azaltzeko, edo eta lema, izenburu eta eslogan kriptikoak moldatzeko besterik balio ez ziena.

Edonola ere, eta pertsona eta gizarte orotan izaten diren kontraesan guztiak gora behera, Bilbon euskararen aldeko mugimendua bizirik zegoen eta aurrera egiten zuen. Eta horrela, mende bat lehenago Ulibarrik nahi bezala, Bilboko diputatuak ziren Kosme Elgezabal eta Felix Landaburu jaunek Euskaltzaindiaren fundazioa proposatu zuten 1918.eko urtarrilean.

Bilbao, bestalde, eragin handiko agerkarien sorleku izan zen: *Ibaizabal* euskal aldizkaria eta, batez ere, *Euzkadi* egunkaria hor ditugu, garai hartako euskaltzaleatasunaren lekuko. Haien orrietan Kirikiño eta Azkue, bezalako idazleek ezaguterazi zizkiguten beren lanak.

Bilbon argitaratu zen, era berean, lehenbiziko euskal egunkaria, *Eguna* alegia, Augustin Zubikarai ondarrutarraren, Eusebio Erkiaga lekeitiarraren eta orduko beste lagun batzuen lanari esker; gerra giro hartan ezina ustegabeko egina, alegia.

## Gerraondoko giroa

Gerra etortzean, lehenbiziko Euskal Gobernu Autonomikoa Bilbon kokatu zen, baina orduko egoera larriagatik ez zuen astirik izan euskararen alde gauza handirik egiteko. Gero gerraondoa heldu zen, erbesteratze, gartzela eta errepresio ezagunekin.



Katakunbetako garaia izan zen hura. Erregimenak bere kanpoko eta barruko kolaborazionistekin, ongi jakin zuen itotzen hemengo euskal zantzo guztiak. Administrazioa, eskola, prentsa, irratia... dena oso ongi antolaturik zegoen euskal kutsurik txikienaren aurka jotzeko. Gure hizkuntza galerazirik eta multaz zigorturik zegoen orduan, Katalunia eta Galiziakoa bezala; eta, gauza kuriosoa, nik dakidanez behintzat, orduko erdal akademiak ez zuen inoiz txintik atera euskaldun, katalan eta galegoen hizkuntz eskubide zapalduen alde.

Bai, orain, demokrazi garaian euskararen delako “inposaketa”z gora-goraka ari zaizkigun horiek non ziren, adibidez, Emiliano López Becerra alias “Desperdicios” edo Calle Iturrino haien garaian, non eskolako eraztunen denboran? Nola ez dira lotsatzen, oraingo irakaskuntza sistemaren ustezko “abusutxoak” salatzen, berek aurreko gehiegikeria etnozida erraldoien aurrean ahoa, ondo pozik gainera, itxita zeukatenean? Zer esan, azkenik, gure herri-balioen mintegi ahul eta bakarrak izan diren ikastoletan oraingo terrorismoaren iturria ikusi nahi duten ero horiez? Ongi ixiltzen dute, adibidez, Espainiako eskola nazionalak hemengo jendearen kontzientzia deseuskalduntzen eta, erdal izpiritu nazional inperiala bultzatzeko, galego, katalan eta euskaldunekiko intolerantzia amorratuena ereiten hainbeste urtetan egindako lan negargarria, kanpoko eta bertokoen arteko ezinulertu eta ezinikusi gehienen sorburu nagusia horixe izan dela susmatu ere egin barik.

Lainope beltz horretan, ordea, tenpluaren aldarean ñir-ñir ari den olio-lanparatxo dardartiaren antzera, Erribera kalean, zur iluneko egoitza tristean, gure hizkuntzak ere bazuen bere argia iluntasunean. Azkuek, bere jarrera apartidistari esker, ixilkako lana egiten segitu zuen bakean. Euskaltzaindia, legetik kanpoko egoera hartan, haren arrimuan toleratzen zen, iraute hutsezko bizitza motelaz bazen ere.

Haren inguruan, pixkanaka, bertoko euskaltzaleak hasi ziren biltzen: Eusebio Erkiaga lekeitiarra, Federiko Krutwig getxotarra, Luis Villasante gernikarra, Bernardo Garro “Otxolua” mundakarra, eta Mikel Arruza eta Alfonso Irigoien bilbotarrak. Hauekin giro berria sortu zen. Euskaltzaindiak bere fundazioatik izandako helburuetako bat, hizkuntzaren batasuna alegia, berriro plazaratu zen, Krutwig euskaltzainaren eraginez batik bat, lapurtera klasikoaren inguruan.

Batasun hori, ordea, asmo berritzaile eta nolabait iraultzaileez planteatzen zen oraingoan. Mendearen hasieratik Eleizalde eta Kirikiño “kapeladunak” euskara kaletartu guran zebiltzan, hura baserritar eta arrantzale txapel-girotik kanpoan ere hedatzeko asmoz. Gerra ondoko batasun-gogoan, ordea, ez zegoen hizkuntza hiri-giroan sartu gura hutsa, horrekin batera euskara kultur eta zientzi arloetan erabiltzea baizik, hau da, Lizardik gerra aurrean nahi izandako oromintzo hura lortu nahia, euskara edozertarako hizkuntza bihurtzea alegia. Hortixek abiatu ziren oraingo euskara batuaren aldeko lehen pausoak. Eta merezimendu hori, nik uste, aitortu behar diegu euskaltzain horiei.

Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan Alfonso Irigoienek urte askotan ihardun zuen lanean Etxaide euskaltzainburuaren garaian, idazkariorde. Berari esker, gure mintzairaren beste agerkeria handiagoetarako baimenik lortzen ez zen garaian, herri-poesia, bertsolaritza, alegia, berriro ernetzen eta hedatzen hasi zitzaigun, eta bertsolari-txapeletak ere bai. Horrekin hainbat urtetan burua makturiko euskaldun jendeak berriz ere hartu zuen euskal arnasa eta itxaropena. Bestetik, ez dut uste gehiegikeria denik esatea, Euskaltzaindiak 1959an plazaratu zuen euskal hitzen definizioa, ordurarteko garbizalekeria bidea hautsi zuena, neurri handiz Alfonso Irigoien eta Aita Luis Villasanteren herri-bideko eraginari zor zaiola. Eta bi-biek badakite horrek zenbat kritika ekarri zien.



Xabier Kintana eta beronen aita: Benjamin

Euskaltzaindiaren itxurazko babespean, beste ekintza batzuk ere egiten ziren. Gogoan dugu, esaterako, hirurogeiren hamarkadan Txinpartak teatro taldearen lana, Manuel Ziarsolo "Abeletxe"ren zuzendaritzapean.

Alfonso Irigoienek Julia Berrojalbiz eta Tere Errotaetxeekin eginiko gestioei esker sortu zen gainera, Euskal Herriko gerra ondoko lehen ikastola legala 1965.ean, Resurrección María de Azkue izenekoa, hasieran Elkano kalean kokatu eta geroago Laurora aldatua. Horrek, gure irakaskuntzaren historian mugari garrantzitsua izateaz gainera, gainerako guztientzat zirrikitu eta bidea ireki zuen, ikastolen mugimendu sendoari hasiera emanez.

Tolosatik Labaien oraintsu hilak hala eskaturik, Irigoien bilbotar poeta gaztetxo bat ezagutzera joan zen, euskal bideetan laguntza eskaintzeko. Gabriel Aresti zeritzon, eta harrez gero maiz laguntza eskaini zion bertsolari-txapelketen epaimahaikide gisa.

Lehen, Bilbao, leku askotako euskaldunen bilgune zela esan badut, orain gaineratu beharra daukat anitz ideologiaren elkartoki ere bazela. *La Concordia* moduko kafetxeetan, adibidez, Irigoien eta Aresti Bilboko komunista eta sozialista espainolekin biltzen ziren, euskara eta elebitasuna zela eta, maiz haiekin eztabaida gogorak izanez. Borroka horiek guztiok, edonola ere, beti ere dialektikoak ziren, eta tolerantzi giro eta elkarren eragineko elkarrizketa horretatik abiaturik hasi zen gure artean agertzen ezker kutsuko literatura, gizarte-tematika, eta, beste bandakoen baitan, euskaldunen eskubideak eta euskal literatura onartzeko joera hazkorra.

Gabriel Arestiren literatur lanek izugarritzko eragina ukanen zuten orduko gazteen belaunaldian. *Maldan behera*, *Harri eta herri*, *Euskal Harria*, *Harrizko Herri hau* moduko obrek berrikuntza ugari zekarten hizkuntzaz, formaz eta mami-az. Mitxelenak berak esan duenez, liburu horietan Aresti, *avant le mot*, literatur euskara batuan idazten hasi zen, eta bere prosa, eta batez ere, bere poesiarekin euskal literatura beste maila batera igonerazi zuen.

Arestik gazteria ez zuen soilki, bere liburuen ederraz erakarri, tratua ere ona izaten baitzuen gazte-jendearekin. Ez gara gutxi harengandik adorezko hitzak jaso ditugunok. Bernardo Atxagak berak, duela gutxi, Santutxuko Karmelo ikastolan eginiko hitzaldi batean aipatzen zigun, non eta Bilbon hartu zuela berak euskaraz idazten hasteko lehen bultzada, eta noren eta Gabrielen eskutik, hain zuzen. Era berean, Oskorri musika-taldeak asko zor dio Bilboko poeta horri.

Jose Luis Alvarez Enparantza idazleak ere lotura hertsia ukan du gure hi-riarekin. Ingeniaritza-ikasketak hemen egin zituen denboran, berrogeita hamarren hamarkadan, Txillardegik bertoko giro euskaltzalea ezagutu eta Ekin taldea antolatu zuen, hizkuntzaz eta politikaz kezkatua. Hor, nik dakidala, A. Irigoien ere aritu zen.

Euskaltzaindiaren aretoetan, bestalde, euskarazko eskolak ere ematen ziren. Irakasleen arteko bat Xabier Peña zen, Tolosako semea, mendizale, euskaltzale zintzo eta euskara ikasteko liburu baten egilea. Askok bera irakasle izan genuen.

Bilboko euskal mugimenduaren beste pilare bat Gereñotar nebarrebak izan dira, Xabier famatuena izan arren. Gabriel Arestik Gereñotarrak biziki estimatu eta honela definitzen zituen: “Horiek inurriak bezalakoak dira. Ixil-ixilik, ekiniaren ekinez eta beti aurrera ari dira, lege-oztopo guztien kontra, eragozpen eta debekuen trabak etengabeki horzkadaz horzkada janez eta birrinduz, azkenean etxe osoa, termitak bezala, behera erorerazi arte”. Haiak bultzatu zuten *Txis-tulari* aldizkaria, Herri-irratiko euskal programak eta CINSA argitaletxea, horren bidez euskal ipuinak, liburuak, diskoak eta jolasak plazaratuz.

EDILI izan zen Bilbok sortzen ikusi zuen beste argitaletxe bat, Castor Uriarte zeritzon arkitekto eta euskal mezenas baten babesean. Hor ikastolen mugimenduaren alde hainbat lan egin duen Jesus Atxa Elorriotarra ezagutu genuen. Horren inguruan ibili zen, halaber, Jesus Idoeta abokatua, *Ama Lur* euskal filmearen bultzatzaile nagusienetako bat.

Bada garai hartako beste pertsona bat, gaur, bidegabeki, ia erabat ahantzia: Miguel Angel Astiz kazetari nafar euskaltzalea. Hark, erdaraz bazen ere, *La Gaceta del Norte*-ren orrialdeetatik, euskal ekintza guztiak barreiatzen zituen, gogo eta adore eskergarriaz.

Eta nola utz dezaket hemen aipatzeke aita Imanol Berriatua, Elantxobeko seme ospetsua? Frantziskotar euskaltzale langile eta zorrotz hau urte askotan Bilbon argitaratzen zen eta Angel Zelaieta zuzendari zuen *Anaitasuna* aldizkariaren zuzentzailea izan genuen, Euskaltzaindiko aditz batzordekidea, euskara irakasteko metodoen egile, Israelgo eredueta oinarrituriko euskara errazaren bultzatzaile eta irakasle suharra. *Anaitasunako* bere lanari esker euskararen batasunak bide luzea egin zuen, ez eta ez, soilki, Bilbao eta Bizkaiko eremuan, Euskal Herri osoan baizik. Asko gara geure burua haren ikasketzat daukagunok, eta zilegi izan bekit hemen harekiko ene esker oneko zorra kitatu nahi izatea.

Ezagunagoak aipatzearen, testu lehenetarikoak ditugu Jean Duvoisin (1810- 1891) kapitainak bilduak, antza denez 1832. urte inguruan, goarda lanetan zebilenean Baigorri aldean, 1883-84 urteetan Parisen plazaratuak, eta duela urte batzuek berriki Juan San Martinek berrargitaratuak (1987). Hona zer nolako sarrera ipinten dion *Baigorriko Zazpi Liliak* “Les sept fleurs de Baigorri et la reine des sept fleurs. La légende Basque”, izenpean osatu bildumatorioari (7):

(6) Jean-Baptiste ORPUSTAN: “Réalisme et fantaisie narrative chez A. Oyhénart: *Laur karbarien eresia* (Le récit des quatre cardeuses)”, *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*. Ed. J.A. Lakarra et al., Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1991, 201-216.

(7) *Revue des Basses Pyrénées et des Landes*. Paris, 1883, 373.

Beihalako egunetan, behin batez, Baigorriko jauregi zaharreen ziren artho-xuritzeak. Badakizue artho-xuritzeetara biltzen ohi dela inguruetako gazteria, eta holako bilkhuetan lakhet dutela kantu zaharren kantatzea eta noizbaiteko khonderen erreberritzea.

Halako solasak Baigorriko herjaunaren gogoko ziren; goan zen beraz artho-xuritzailleetara bere alaba andrearekin.

Han baziren zazpi neskatxa gazte deitzen zituztenak Herriko Zazpi-Liliak. Hekieri buruz hau erran zuen herjaunak:

Aurten, ene alaba andrearen ezkonarazteko gogotan naiz. Zuetarik zeinak-ere pollikienik erranen baitu kondera xahar bat, hainari dote on bat emanen diot ene alabarekin batean ezkontzeko bere hautuko gizon gazte batekin.

Eta kontalariak izan ziren Leizarazuku Gana, Urdozeko Madalena, Gera-xane Iriberrikoa, Extebeni Mokozaingoa Tartaroaren ixtorioarekin, Fermina Leizpaz-Jauregikoa, Martha Okhilenberrokoa, eta zazpigarrena Maria Etxauzekoa. Egiak badira ematen dizkiguten data-erreferentziak, ixtorioak XVIII. mendean bizi izan ziren atso-xaharrendandik entzunak zituzten, eta hauek? Noski, ez litzateke zail aitzinagoko mendeetan murgiltzea.

Nabarmetzen dena da, argi eta garbi, Duvoisinek menderatzen zuela kontakizunen antzea eta artea, eta argitaratzen dituenean gaztetan bildutakoak badakiela haientzat marko pollit bat prestatzen. Ordurako, hasia zen jadanik Jean François Cerquand († 1888) Paben Bordeleko Akademiaren inspektorea, biltzen eta argitaratzen *Légendes et récits populaires du Pays Basque*, deitu zituenak Pabeko *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts* delakoan (1874-1885).

Eta hona zer dioen Cerquand-ek hitzaurrean (8) kontu hauetaz:

Euskal Herriko ahozko literaturan atsotitzak eta kantuak izan dira orain arte argitaratutako monumentu bakarrak. [...] Haiek bezain herrikoi eta jatorrak diren beste monumentu batzu ez litezke ezagutzera eman? [...] Ez da erreza izan nere asmoa ulertaraztea: errientak ez dira gau beiletan ibiltzen, neguan lanpetuegi izaten direlako Eguneko eskolaren ondoan, gauekoa eman behar dute eta honez gain, Herriko Etxean ere lan egin behar, haiek bait dira frantsesez ongi mintzatzen eta irakurtzen duten bakarrak. [...] Gainera, oraingo gau beilak ez dira aintzinekoak bezala. Emigrazioa dela eta, familiak gero eta txikiagoak izaten dira, solasak eta eleketak ez dute lehenagoko eragipena...

Biltzaile izan ziren ere XIX. mende bukaera horretan —aitzindari izan zituzten, Michel, Chaho eta beste—, Wentworth Webster eta Julien Vinson. Lehenak, ingeles euskalzaleak, ingelesera itzuli eta Londresen plazaratu zituen *Basque Legends* delakoak (1877), berriki Xipri Arbelbidek (Kriselu, 1993) argitaratuak euskarazko jatorrizko testuak, norbaitek, ingeles, gaztelania edo

(8) Jean François CERQUAND: *Ipar Euskal Herriko Legenda eta Ipuinak*. Anuntxi Aranaren Transkripzioa. Txertoa argitaldaria, Donostia, 1985, 11.

frantzesetik itzuli baino lehenago. Bigarrenak, *Le folklore du Pays Basque* (1883) Parisen argitara eman zuen bilduma eder batean, hots, Nazio guztietako herri literaturak biltzen zituen kolekzioan, XV. tomoa osatuz, eta bertan tradizioak, ipuinak, kantikak, errefrauek, papaitak, epixtolak eta beste bilduz. Sarreran esaten digu ere, nola ipuinetarik anitz Websterrekin batera bilduak zituen Donibane Lohizunen, beste batzuek Cerquand-i hartuak eta bat Tolosan plazaratu *Tradiciones vasco-cántabras* liburuari (1866).

Tamalez, lehenago eman ziren erdaraz ixtorio hauek, euskaraz baino. Eta oraindik egun badira eskuzkribu zaharretan galzorian daudenak, eta *Eskualduna* aldizkarian (1887-1945) adibidez, sakabanaturik hamaika ixtorio, plaza-ratzea mereziko luketenak bilduma eder batean. Horretarako lehen pausuak, eman dizkigu Emile Larre jaunak zenbait errebistetako (*Almanakak, Gure Herria, Otoizlari...*) lanak miatzen eta zer non aurki dezakegun argitzen. Esker anitz.

Hala topa ditzakegu Jean Elissalde “Zerbitzari”k *Gure Herrian*, 1921-22. urteetan eman zizkigun 63 ixtoriotxo, “Artho Churitzetan”, titulupean emanak. Hauetako bat, ezkontza gaitzat duena kontatuko dizuet. Halaxe dio:

Mahain saildurat hurbilduak dira ezkontzeko amerikano zahar bat eta neskatxa gazte bat, izarra bezen ederra. Itsusi da errateko, bainan burhasoek alaba saldu diote amerikanoari bere sosarentzat.

Hurbiltzen zaiote aphez eta ezkontzako sakramenduaz erraten diozkate ezkont-geieri behar diren guziak.

Eta gero amerikanoari, ohi den bezala:

— Nahi duzu hartu...

Amerikanoak, laster-lasterra:

— Bai, jauna.

Aphezak orduan neskatxari:

— Nahi duzu hartu...

Neskatxak:

— Ori, jauna, nihork ez daut egundaino galde hori egin!

Ez zaie, noski, Larrek ongiasko dioen bezala, ez zuhurtziarik ez eta gatza izpirik falta Zerbitzariren ixtorioei, ez eta Piarres Lafitte “Ithurralde” izenez 1945. urtean argitaratu *Murtuts eta bertze... Artho churitzetako zombait ichtorio chahar* liburuan ageri direnei. Lafitteren ixtorio batzuek, ordea, *Matalas* bezalakoak adibidez, areago dira pertsonaia historikoei buruzko kontakizunak ixtorio xaharrak baino. Artazuriketen giroa, hobekien aurkezten eta pintatzen diguna Iparraldeko euskal kontalarien artean, Pierra Jaury, urdinabetarra dugu, Seminario handian ikasle zelarik, 1937. urtean, Eskualzaileen-Biltzarrak anto-

laturiko norgehiagokan lehen sariaren irabazlea. Hona bertatik ateratako zenbait zehaztasun eta xehekeria:

Abentuko gai hotz bat da ... nahiz eztiren orano gaiko zazpi orenak... Ikhusten ahal dira Urdinarbe Etcheberrilat buruz joaiten jente andana bat... Zer debru othe da gaur Etcheberrin? Zer den? Artho-xuritzia. Hortakoz dira khumitatu aizo eta adixkidiak, Phetiri Etcheberrien laguntzera gogo hunez joaiten... Etxeko jaunak emaiten deie ardu edatera, ogi eta gasna jatera... Nausiak so bat egin-eta, galthatzen deie: Eztuzieia bide hortan ikhusi Jan Pierra Biagutt?... Jan Pierra Biagutta da Urdinarbeko dritxokarik hoberena; bere begi okerrek, ttipi eta lodi bezain erriegingarri da. Hainbestenarekin sartzen da Biagutt... Ardu ñabar argiak tzuntzurra trenpu hunin ezarri deio, ezi beha zitie: Nahi deiziet a ixtoria ttipi bat ezaguterazi...

Kontatzen dizkie, bada, Altzurukuko apezarena, Barkoxeko laminarena, eta berari gertaturiko pasadizoak eta...

... Ixtoria hunen urhentzila artino, artho xurizaliak oro erriz ethenik dirade, begietarik nigarra juiten, beren sabeler etxeka, uduri lotsa diela hegaltatien... Hamekak eta erditako Etcheberriko arthuak xuriturik dira. Nahiz uda eta larrazken hatsarria gaixto izan dien, Etcheberri bozkariotan da badilakoz iragan urthian bezain beste artho....Jan Pierra zaharra eta Batixta gaztia badutza besapez, khanta orruaz...hotza bat ere bogatu gabe. Haien heotsak ezitia ttipi, ezi Garraibi zokhula artino txakurrak oro txanphaz hasazten dutie eta lozale hanitx ere iratzarrazten... Bena oren erdi baten buruko, ezta haboro ez khantarik ez zakhurrik ezagun.... Ixiltasun handienian, argizagiak zelutik argitzen dutu ejerki bazterrak, kharru ikharagarri batek, Etcheberriko arthuak beno hobeki xuriturik.

Zazpizatik hamaika t'erditara lau ordu luze ziren lanean eta zerbaitekin entretenitu behar. Halaxe dio bada, Lafittek (9), liho-kardatze, eta arto-xuritzetan ere jostatzeko egiten zirela alegiazko aharrak, bai bertsotan eta bai hitz lauz, gaia zer nahitaz hartzen zelarik: doteaz, gizon-gai baten hautatzeaz, etabar. Nola elkar-hizketa horiek Baxenabarren *disputak* deitzen zituzten, Nafarroan *errandoak* eta Ataunen *Zelemín* ta *Zelemón*.

Nikolas Ormaetxea "Orixe" k aipatu *Euskaldunak* liburuan hauetariko bat asmatzen digu, *Artazuriketa* kapitulu barnean. Hau Errekalden egiten dute, eta lanean ari diren bitartean honako entretenimenduez dastatzen dute:

1. Juan ehiztariak kontatuta basurdearen ixtorioaz.
2. Asmaketa edo papaita jolasaz.
3. Atxomotxa kontu-eder-kontariak errege baten alabaren eta bukaera zo-riontsua duen ixtorioaz.
4. Pititi Traketsek neska zahar bati buruzko kanta ezagunaz: *Ikusi nuanean /zure ille latza...*

(9) Piarres LAFITTE: *Euskal Literatura*. Patri Urkizuren edizioa. Erein, Donostia, 1990, 44.

5. Zenbait maite-eresi ondoren ama-alaben arteko lelo honetaz: *Ama, ez-kondu...*

6. Larraungo eta Uitziko *lectio epistolae* famatuez, eta

7. Errando batez.

Errando (< Fernando) honen funtsa ama-alabaren arteko eta senar-emaztearen arteko elkarrizketa zalapartatsuetan datza. Hona azken hauen arteko bi bertso:

Neure senar tontozko  
artojale aundizko  
zazpi talo bear ditu  
otorduan jateko.

— Neure emazte belendin,  
kata-usaia deragin,  
ortzak galdu ditun eta  
ire pertzak egin din.

Baina sesio guztiak azkenean neska-mutilen arteko dantza batekin bukatzen dituzte, eta Orixek bukatzen duen bezala:

Ez badute lotu norbait nai lukenarekin,  
urren-artazurizetan kenduko bere min.

Alegia, hurrengo artazuriketetan edo erromeriaren batean beharko dutela pareja bilatu eta aurkitu. Horrelako ixtorio eta elkarrizketa parregarria aipatzen digu Manuel Lekuonak *Literatura oral vasca* liburuan (10), esanez Oiartzunen jaso zuela ipuin kontalari eta imitatzaile jajoa zen *Aitona* izeneko baten ahotik zuela hogeita hamarren bat urte. Antzerkitxo denok ezagutzen duzue, batez ere Xabier Leteren bitartekaritza apartaz, baina hona ekarri nahi dut. Halaxe diote:

—Jaungoikuak egun on dizula, Andre Brijida,  
aspaldiyan etzaitut ikusi orren goiz jeikiya.  
Beti bezela derakarzkizu kolore gorriyak...

—Ez dira, bada, eman dizkidalako gosari-txikiyak...

...

—Buenas tías tengan ustedes: Senora, cómo lo pasa usted?

—Osasunakin. .gazelaniaz yo no sabe.

—Goizian goizik etorriya naz zutaz enkontratzerá...

—Prezisia da, ni zure alabakin ezkontzia.

—Nere alaba biyotzekua: aizan arapiko!  
Artzan kopa bat, kopa bat artzan, tratu egiteko;  
olako proportziyoric ez dun nola-nai galtzeko.

—Ama nere biyotzekua: ez naz orrekin ezkonduko.

—Zer aitzen dinat, arapiko? Ez yazela orrekin ezkonduko?

[...] goiko larrian bi ardi antzu ta iru artantxo;

(10) Manuel LEKUONA: *Literatura oral vasca*. Añamendi, Donostia, 1965, 148.

beko soruan baria abasto...

Ez al-da asko gu bizitzeko?

Noski, ezkontza-eskaera honetan hizkuntzen nahastean eta dotearen balioren ezteusan datza irrigarritasuna. Eta berdintsuak ziratekeen ere Ataungo *Zelemín ta Zelemon* jokoak.

Gaztelaniaz ere errefrau bat bada *celemín* hitzaz, adierazteko, emakumeen jazkera hantuste eta irrigarriak: *Por deseo de chapines, metí los pies en medios celemines. Dícese de las mujeres que queriendo ir bien compuestas, sin tener medios para ello se sirven de las cosas más extravagantes.*

Julian Alustiza "Aztiri" arta zuriketaz mintzo zaigularik ere kontaktzen digu (11) nola Zumarragako Urrutia baserriko *Txalto* aiton xaharrak hamaika pasadizo xelebren kontaktzen zituen. Errefrauak, papaitak, prefazio eta *lectio epistolae* berexiak, kantak, kontakizunak, antzerkitxoak, denek parte hartzen zuten garai bateko artazuriketetan, ahozko literatura bezala deitu izan den horretan, *lana, dibertsioa eta eskola, hiruok bateginik*, Juan Mari Lekuonak (12) esaten digun bezala, eta, noski, garai hartako funtzio berdinak ez bete arren, besterik bete dezakete egun.

Hona zer dioen, hain zuzen, Paul Delarue, trantses ipuin herrikoien azterzaileak hauei buruz (13):

Le conte de tradition oral a presque complètement perdu sa fonction esthétique et sociale qui était de récréer les asssemblées de paysans et d'artisans durant les longues veillées d'hiver, d'accompagner certains travaux sédentaires ou monotones...

Gaur egun ahozko tradizioan txertatutako ipuinek ia galdua dutela bere funtzio estetiko eta soziala, alegia, neguko arratsalde luzeetan nekazari eta artesauen auzo-lanbilerak arindu eta alaitzearena. Eta halaxe da, noski, ze nork daki egun, laborantzako tresneriak aldatuak direlarik, gazteen artean zer ziren artazuriketak? Inor gutxik, tamalez. Dena den, bilkura haietako izpiritua al daturik izan arren, bizirik irauten du kontu kontaktak, gizonak betidanik izan duen beharra baita, hau da bestearekin nolapait komunikatzekoa.

Eta bukatzeko lekukorik jatorrena datekeen esaera zaharra:

Elur, melur, ez nauk hire beldur,  
etxen baditiat arto eta egur.

Mila esker zuen arretagatik.

(11) Julian ALUSTIZA "Aztiri": *Euskal baserriaren inguruan*. Arantzazu Frantziskotar argitaletxea. Oñati, 1985, 112.

(12) Juan Mari LEKUONA: "Izaera eta ofizio bereziko pertsonaien erretaula *Euskaldunak poeman*", *Orixo. Mendeurrena* (1888-1988). IV. *Hitzaldiak*, Etor, 199, 398

(13) Paul DELARUE: *Le conte populaire français*. G.-P. Maisonneuve et Larre. Paris, 1985, T. I, 46.

## TESTU IHARTUAK EUSKAL TRADIZIOAN

*Oiartzun, 1994-12-30*

*José M. Satrustegi*

Izena duen guztia bada, esaten zuten euskaldun zaharrek, baina ez zuten nonbait asmatu esaten, berez izenik ez duen beste zer asko ere badela euskararen munduan. Honelako zerbait gertatzen da ahozko literaturan testu ihartuen gaiarekin. Bada herri-jakintzan ahoz aho errepikatutako zenbait esaldi trinko, testu zaharkitu eta soinu-errepikaldi asko literatura arloan aditzera emateko hitz propiorik ez dutenak.

Oiartzungo Lekuonatarren ildotik herri-literatura ahozko euskarritik zientzia mailara aldatzeko ahaleginetan ezinbestekoa da izen jator txukunarekin ematen saiatzea.

Horretarako bideak badira gainera. Erdara batura begiak itzultzea litzateke irtenbiderik errazena, “formulismo” edo antzeko zerbait esanez. Eta zilegi da noski besterik ezean. Hiztegi teknikoetan zientzia gaiak grekera jatorriko erroetan oinarritzen dira gehienbat, eta hori izan daiteke beste irteera bat. Garbizaleen munduan, bestalde, inolako tradizioirik gabeko hitz berriak sortzeko joera izan zen beste muturreko bide bat.

Erdi-biderik badago noski euskararen historia luzean. Eskuarteko aurkezgaiaren antzeko zerbait euskal hiztegiko baliapenen bidez esana bada noizbait, hitz berririk hutsetik asmatzen hasi gabe, emandako urratsei jarraituz bidea egiten joan daiteke ikerlea. Literatura gaietan bereziki gomendagarria iduri luke azken ereduak. Itxura zaharkituko hitz fosil-duei *hitz ihartuak* esaten bazaie, adibidez, *testu ihartuak* izenda daitezke hitz fosilduen multzoak. Lanaren izenburuari zor zitzaion azalpen hau.

Era askotako ihardurak azaltzen dira ahozko literaturan: Laburdura trinko ala testu inguru osokoak, haur jolas eta helduen gogoeta sakonak, esanguratsuak ala ulertezinak, mezudunak eta aho-soinu errepikapen hutsak.

Prozedurari dagokionez, testua eta aldakin nagusiak parekatuko dira lehenik, hitzen inguruko zantzu, mugimendu eta adierazpen jakingarriak emanez. Testuen jatorria eta mimo edo zeinuen esanahia azaltzea da lanaren helburua.

Asmoa ez da noski gaia agortzea, ibilkizun dagoen bideari abiada ematea bai-zik. Bultzada xumea tradizio aberatsaren oihan estuan.

## I. Haur-jolasen leloak

Jaiotzean hasten du gizonak hizkuntzaren bide luzea. Lehenbiziko anju eta balakuekin ernatzen ditu amak haurraren begi-belarriak. Esamesen mezua etorriko da gero hitz laburren errepikapenarekin, hala nola “aita”, “ama” eta antzekoak ahoskatuz.

### I.1. *Talo txin:*

Ingurumenaz jabetzen hasten denean haurra, hitza, doinua eta ekimena elkartuz ematen dira testu ihartuak. Gai oso xumeak dira gehienetan eta biziaren haritik hartuak.

*Talo txin* egiteko, besotako haurrari bi eskutxoak hartzen zaizkio esku banarekin eta txalo jotzeko imintzioa eginez esaten dira hitzok:

*Talo txin/malo txin*  
*qure haurrak/bost otxin.* (Luzaide)

Beste batzutan lehen hitza aldatzen dute: *Txalo txin*. Bertako hizkuntzaren arabera *bortz otxin* izan behar luke. Hitzen kidetasuna eta erritmoa dira, eskuen mugimenduarekin, jokuaeren euskarria.

Aldaera asko aurki daitezke han-hemenka. Sakana aldean, adibidez, opilaren gehigarria azaltzen da:

*Talo talo, txin*  
*katubek txikia (txitxia?) jan din,*  
*katukumiek olata*  
*Katalin bolaka.* (Arruazu)

Testu hauen iturria amaren eguneroko lanbidea zen. Haurrak ikusten zuen otordu bakoitzaren aurretik ama talo egiten, oreari zartaka oholaren gainean jotzen ziola eta, besterik gabe, txalo-festa bihurtzen da haurarentzat. “Opil haundia” eta katukumeak jandako “olata” zeinuen berezko adibideak dira, gari-irinarekin ere egiten baitziren opil apalak.

### I.2. *Marrau, marrau:*

Beldur piska bat aurrari emateko hitzak eta zeinuak ere badira batzutan joku hauetan. Pertsona helduak katuen atzaparrak balira bezala eskuak zabaldu eta haurtxoari aurpegia atzamarkatzeko keinua eginez, hitz hauek esaten dira:



*Marrau, marrau  
jantzak haur hau.  
—Gaur edo bihar?  
—gaur, gaur, gaur. (Luzaide)*

Haurra jateko aipamena modu askotan egin ohi da haur-hizkuntza mota honetan. Gogorra da benetan Urdiainen jasotakoa:

*Amak hil nau  
Aitak jan nau,  
nere arreba poxpolintxuak  
piztu nau.*

Ipuin luze baten amaierako hitzak dira. Egiptoko Osiris Jainkoa bere arreba Isisek puskaka bildu, hil-zapian inguratu eta piztu zuenaren antzera, ahozko literaturan aurkitutako mito baten oiartzuna da. Haurra gaztarora aldatzen deneko adierazpen ederraren mezua darama haurtxoaren heriotzak.

### ARRI, ARRI, MANDOKO!

Luzaide/Valcarlos  
(Garazialdea - BN)

Versión 2.<sup>a</sup>

A — rri, a — rri, man — do — ko!      Bi — har

I — ru — ñe — ra — ko.      Man — tik zer e — ka — rri —

— ko?      Za — pa — ta eta ge — rri — ko.      Hek o —

— ro no — ren — da — ko?      Gu — re hau — rra — ren — da —

— ko.

Arri, arri, mandoko!  
 Bihar Iruñerako.  
 Hantik zer ekarriko?  
 Zapata eta gerriko.  
 Hek oro norendako?  
 Gure haurrendako.

Arre, arre, mulito,  
 mañana a Pamplona.  
 ¿Qué vamos a traer de allí?  
 Zapatos y una faja.  
 ¿Todo para quién?  
 Para nuestro hijito.

Infor.: Facunda Camino, del caserío Argiña, hermana de Michel Camino, hijas de Eli-xabet Azket, de quien la aprendió. Loc. rec.: Luzaide/Valcarlos. Fecha: 17 de agosto de 1944. Clas.: infantil.

### ARRI, ARRI, MANDOKO!

Otsagi/Ochagavía  
 (Salazar - N)

Versión 3.<sup>a</sup>

A-rrí, a-rrí, man-do—kol bi-ar I—ru—ña—za—  
 -ko, e-tzi San-go—za—ra—ko. An-dik  
 ze—ka—rri—ko? E—rraz—tun bat e—ri—  
 -ko, bo-ne—ta bat bu—ri—ko, za—pa—  
 -ti—ko zan-go—ko.

Arri, arri, mandako!  
 Biar Iruñerako,  
 Etzi Sangozarako.  
 Andik ze'ekarriko  
 Erraztun bat eriko,  
 Boneta bat buruko,  
 Zapatiko zangoko.

Arre, arre, macho.  
 Mañana a Pamplona;  
 pasado mañana a Sangüesa.  
 ¿Qué vamos a traer de allí?  
 Un anillo para el dedo;  
 una boina para la cabeza;  
 unos zapatos para los pies.

Infor.: Juana Engracia Adot y Cambra. Loc. rec.: Ochagavía. Fecha: 23 de agosto de 1944. Clas.: infantil

### I.3. *Arre arre pottotto:*

Haurtoen munduko testu ihartuen beste lekukotasunik ere badago Euskal Herriko tradizioetan. Belaunetan haurra hartuz, salto-maltoka mugitzen dira hankak beste esaldi hauek errepikatzean:

*Arre arre pottotto*  
*biher Iruñerako*  
*etzi Tolosarako.*  
 —*Handik zer ekarriko?*  
 —*Saski bat bete xoxoko*  
 —*Noondako?*  
 —*Haur txiki honendako!* (Arruazu)

Etxeko nagusia merkatura joaten bazen zerbait saltzera ez zen esku hutsik itzultzen etxera. Bazekien hori haur hazitxoak eta zain zegoen etortzerako. Urtean zehar baliagarri zen gaia haurrarekin jolasteko. Oso zabaldurik dago leloa Euskal Herrian eta aldaerak baditu. Beasainen adibidiz ezagunago den oparia eskaintzen da haurrari:

*Arre arre mandako*  
*bihar Iruñerako*  
*etzi Tolosarako.*  
 —*Handi zer ekarriko?*  
 —*Zapata ta gerriko.*  
 —*Zeñendako?*  
 —*Gure haurraindako!*

Merkatu nagusien historia dago esaldi xume hauetan. Herri bakoitzak bere herrialdeko hiriburuak aipatzen ditu, hala nola Saraitzun:

*Arri arri mandoko*  
*bihar Iruñerako*  
*etzi Zangozarako*  
 —*Handik zer ekarriko?*  
 —*Eraztun bat eriko,*  
*boneta bat buriko,*  
*zapatiko zangoko* (Otsagi)

Inguruan merkatu handirik ez bada nabarmentzen, Iruñekoak betetzen du soil-soilik ametsen lekua.

*Arre arre manyoko*  
*bihar Iruñerako.*  
 —*Handik zer ekarriko?*

- Zapet eta gerriko.*
- Hek oro norendako*
- Gure haurrarendako* (Luzaide)

Azken lerroan haurraren izena aipatzen da gehienetan. Abestu egiten da belauen erritmoarekin neurtzen delarik doinua.

Merkatuko bidaia, bideko zamaria, eta haurrarendako oparia dira mezuaren euskarriak. Euskal baserrietako giroan murgildurik egon ohi da testu zahar hauen edukina. Gertakizun arrunten bidez pizten da haurraren festagai alai, horrela hasten delarik ama-hizkuntzaz jabetzen.

## II. Otoitz ttipiak

Luzaiden ikasi nuen kristau dotrinako otoitzez landa badela herri-jakintzako otoitz zerrenda. “Otoitz ttipiak” deitzen dituzte azkenok, eta “atso otoitzak” zirela esaten omen zuen bertan egondako apaiz batek.

Aspaldiko sineste zaharretan errotutako testu hondarrak dira batzuetan, eguzkiari goizean egin ohi zaionaren antzera: “*O iruzki saindia, eman zauzu biziko eta hileko argia*”. Edota arratsaldeko beste agurra: “*Adio Joanes haugi bihar muga onez*”.

Gehienetan, halere, kristau kutsuko aipamenekin nahaste-borraste ilunean galdurik egon ohi da mezuaren haria.

### II.1. *Ave Maria xuria:*

Ama Birjinaren izenean esaten da honako herri-otoitz ez hain ttipi hau Luzaideko bazterretxetan.

*Ave Maria xuria*  
*bost penitentzia*  
*lurrak dakar ogia*  
*xotxak ardan gorria.*

*Ilargia lukaria*  
*Parabisuko (g)iltzaria;*  
 —*Parabisuan zenbat ate?*  
 —*Zazpi ate.*  
 —*Hetaik hobenian sar nain,*  
*ezkerreat bihur nindain*  
*eskuineat zeina nindain.*

*Urzo xuria bidian gelditu:*  
 —*Urzo xuria zer dakarrak hor?*  
 —*Olibo ta krisma.*

—*Haugi; har eta batea nezak.*  
 —*Etziroket batea*  
 —*Zeren ez?*  
 —*Aren ez.*

*Hor daqo Jesukristo gure Jauna*  
*Erromako zubi puntan jarririk*  
*urrez urrestaturik*  
*zilarrez zilarrestaturik*  
*argizaia xuriz pintaturik*  
*elorri xuriz brodataturik.*

Hau gauian, hau hiruetan erraiten duenak eztu ariman bekaturik. (Ines Camino. *Martinenea*)

Otoitz honen zenbait atal, ogi eta ardoari dagokion aipamena barne, Iruñeko katedralean dagoen Ertaroko liburu baten larruzko azalean agertzen dira eskuz idatzitako zirriborro batzuetan. Harritzekoa bada ere, hainbeste urteren buruan eskuizkribua eta ahozko tradizioa bat datoz hitzetan eta berorien edukin ezkutuan.

Otoitz honen aldaketa asko jaso dut, nonbait oinarrizko debozioetan txeraturik zegoelako edo, oso zabaldurik baizegoen herrian. Kristau itxurako aipamen gehiago agertzen da bigarren aldaki honetan.

*Agur Maria xuria*  
*xuria zira eta ederra,*  
*purgatorioko arka*  
*Parabisuko eskalerra.*

*Ostia nun, kaliza han,*  
*eman du meza.*  
 —*Nun.*  
 —*Aldare berrian.*

*Musika in dakote*  
*Han zen San Juan,*  
*San Joseph ere bai,*  
*Hamabi apostoluak ere bai.*

*Elgarri erran diote:*  
 —*Anaia giten, gaur konfesa,*  
*bihar komeka.*

Hau asteko ortziraletan hiruetan erraiten duenak Purgatoriotik arima bat ateratzen du, beria salbatzen du. Eta hau aitu ta ikasten ez-tuenak azken orenian kastigu izain du. (Maia Barzelona. *Ardandegia*)

## II.2. *Kredo pinpirina:*

Elizaren sineste katolikoa aitortzeko erabili ohi den lehen hitzarekin abiatzen da Kristau teologiarekin zerikusi gutxi duen beste testu hau.

*Kredo Pinpirina  
bidian lokartu  
berroi aingeru  
ainbertze liburu  
hek oro Jesusekin akortu.*

*Jesusek eman zautan  
belarrezko kurutze bat  
arekin ibil nindain,  
gaixtuak aparta nitzan.*

*Obligazione saindu ori  
dakienak ez dakienai  
erakustea obligatia da.  
Ikasten ahal dinak  
ikasten ez badu  
Azken juizioko egunian  
Jainkuak galdeinen du. (Facunda Camino. Argina)*

Magia arloko hizjario aldrebesaren itxura daukate lehen begiradan. Izan ere, auskalo nola pentsatuko zuten garai bateko gizonek. Nahaste-borrasteari arrazoiren bat bilatzekotan, halere, erligio bi oso desberdinen topagunean sortutako burubide kurutzatuen emaitza dela suma daiteke. Kristau dotrinako izenak daude alde batetik: *Ave Maria* xuria, *Kredo* pinpirina, *Pater noster* txikia ere jaso dugu, eta katedraleko eskuizkribu hartan “*Salve*” delako otoitzaren esaldiak agertzen dira, hala nola “o clemens”, “o pia”, eta abar. “*Haec quator*” delako laukote hau da hamaseigarren menderaino kristau berrien heziketan landutako ikasgaien bilduma. Pertsonaren burubideak ez dira hitzak bezain erraz aldatzen eta sineste zaharretako erritoetan bilatu behar da aipamen bakoitzaren edukina.

Denborarekin Joango ziren sartzan zerrendan kristau santutegiko izenak, San Juan, San Joseph edo Hamabi apostoluak bezala. Ama Birjinaren goratzarre dira “Purgatorioko arka” (salbamen arka ote?), eta “Parabisuko eskalerra” bezalako aipamenak. Sakramentuen eragina ere badago bigarren testuan: “Ostia nun, kaliza han,/eman du meza... aldare berrian”.

Testu ihartuak ez dira beti iharturik egonak. Guk jasotako tankeran geratu dira ihar eta aldakaitz.

## II.3. *Sasi-latinkadak:*

Aldaera batzuen hizkuntz-jarraipena egitea ez da zaila. Kristau munduan, adibidez, dotrina berriaren mezu ezkutua eta mendez mendez ezagututako si-

neste zaharren sentiberatasuna bateratu egin ziren jainkozaileen bururakizunetan hirugarren maila bateko ulerbide guztiei atea irekiz.

Elizak bestalde latinaren errepikaldi arrotzean oratu izan zuen berandu arte bere ospakizun nagusien liturgia zeru lainotua gau beltzean murgilduz. Horrela herri xumearen begi-belarrientzat areagotu egiten zen fedegaien berezko ulerkaiztasun misteriotsua. Pertsona elizkoiak apezarengandik entzundako latinen antzeko hitzekin errepikatu ohi zuen erritua gero etxeokoein.

Adibide pare bat aski izango da esana zehazteko. Hauster egunean Luzaideko etxeoandreek hauts piska bat eramaten zuten elizatik baserrira eta etxeokoi buruan ipintzen zieten, “*Mementoris, Redentoris*” (Martíño, Gaindola) hitzen antzeko zerbait esanez.

Buruhauste handirik ez da behar jatorriko hizkuntz eredia sumatzeko: “*Memento homo quia pulvis es et in pulverem reverteris*” elizgizonen ahoan, eta “*mementoris redentoris*” sukaldeko liturgia laburtuan.

Ulergarriago gertatu zitzaizen Arnegiko eliztarrei Donetch apaiz ospetsuari neuk entzundakoa. Donibane Garaziko ihauterietan dantza lotua egina zuketan Mariaren alabei hautsa ezartzean “plaza saria”, esaten zien soil-soilik. Testu ihartua ez baina hizkuntza bizi eta bipilaren kimu polita.

Elizak otsailaren 2an ospatzen duen Ama Birjinaren garbikunde festari Gandelairu edo Kandelera eguna deitzen zaio aspalditik gure artean. Ohitura zaharrak eta kristau elizkizuna lotzen dituen euskarri errotua kandela piztua da. Arretaz ospatu izan da argiaren erritua Euskal Herriko baserrietan. Luzaiden, adibidez, etxeko guztiak sukaldean belaunikaturik zeinatu egiten dira. Gero etxeoandreak bela bedeinkatuarekin hiru aldiz inguratu burua eta hiru ezko sorta isurtzen dizkio bakoitzari besagainean. Bilo punta bat ere erretzen da.

Pertsonen aldia egin ondoren ganbarak bedeinkatzen dira. Logela bakoitzean sartu eta ohe burutako zuraren gainean botatzen dira argizagi tintin be-roak. Abereek ere jasotzen dute egunaren ezaugarria. Ikuluko itzulianazienda gorriek adarretan hartzen dute kandelaren ezko negarra eta txerrientzat heien hesola baten gaineko ertzean uzten da bedeinkapenaren ezaugarria.

Erritoan erabilitako testoei buruz ez dago inolako batasunik. Etxekoandre bakoitzak bere esaera berezia izan ohi du sukaldean. Finkatu gabeko testua dela esan daiteke. Itxura desberdineko adibide batzuen aukera egin dut Luzaideko ohituretan. Testuaren atzetik “Pot” hitza dator beti kandelari musua eman behar zaiola adierazteko:

- *Erregelan*. Pot (Maistria).
- *Errebisionian*. Pot (*Hiru aldiz*, Erreka).
- *Bela redenzionem, remisionem*. Pot. (Burushuri).
- *Lumen rebelazionem kentzionem*. Pot (Tolosha).

— *Domine relazion gloria kristi. Pot (Ttipittua).*

— *Lumen genzium ad revelazionem plebis Israel (Bidondo).*

Esaera hauen iturburua Jesus Haurra elizan aurkeztua izan zeneko Simeon agurearen hitzetan aurkitzen da, eta zehatzago aipamenaren pasarte honetan: “*Lumen ad revelationem gentium et gloriam plebis tuae Israel*” (Lc. 2, 32).

### III. Gaitzespenak

Indar ezkutuez inguraturik ikusten zuen bere burua garai bateko gizonak eta ustezko hitz ezabatzaileak erabiltzen zituen arerioen aurka. Benetan aberatsa da herri-jakintzan atal hau eta ezin da txosten batean labur bildu. Adibide bat azalduko dut.

#### III.1. *Deabruarena:*

Infernuko etsaia da kristau munduko erlijio heziketan gizonaren arerio nagusia. Anima apusturen batean galdu ondoren baldintza korapilatsua gainditu behar zuen hura berreskuratzeko. Emakumea izan ohi zen senarra deabruaren saretik ateratzen zuena.

“Hamabi apostoluen otoi-tza” da, gizon jantziak harturik, emazteak egin zuena.

— Adiskidia: errak bat, agindu zion deabruak.

— *Hi ehiz ene adiskidia; Jinkua-huk ene adiskidia: Bat bakarra gure Jainkua, gure ta mundu guziain Salbatzalia. Horixe-huk ene adiskidia, hi ehiz ene adiskidia.*

— Adiskidia: errak biga.

— *Hi ehiz ene adiskidia, Jinkua-huk ene adiskidia: Biak, bi Jerusalemeko aldariak. Bat bakarra gure Jainkua, gure ta mundu guziaren Salbatzalia. Horixe-huk ene adiskidia.*

Aldian aldiko aipamen guztiak hurrengo erantzunean atzeraka errepikatzea da garaipenerako baldintza, huts bat aski duelarik deabruak animaz jabetzeko. Testua bera da horrela jokuaren ardatza. Azterketa moduan eraturako erretolikak hamabigarren mailarainoko aipamenak itzulikatze horretan du zailtasuna.

Emakumeak bere aldetik beste itzulkari bat gehitzen dio hasierako hitzekin amaiera borobiltzeko: “*Hi ehiz ene adiskidia, Jinkua-huk ene adiskidia*”. Zailtasun honekin emakume garailea deabruaren epaile zorrotz bihurtzen da “ifer-nuko zolan leher-inarazteko”. Honela dio Luzaideko emakume argiak:

— Adiskidia, errak hamabi.



— *Hi ehiz ene adiskidia, Jinkua-huk ene adiskidia: Hamabiak, hamabi apostoluak; hamekak, hameka birginak; hamararak, hamar manamendiak; behatziak, behatzi ordenamendiak; zortziak, zortzi zeriak; zazpiak (zazpi sakramentuak); seiak, sei zeruko aingeru argiliak; bostak, bost Jesukristo gure Jau-naren zauriak; lauak, lau ebangelistak; hiruak, hiru Trinitatiak; biak, bi Jerusalemeko aldariak; bat bakarra gure Jainkua, gure ta mundu guziaren Salbatzalia. Horixe-huk ene adiskidia, hi ehiz ene adiskidia.*

— Hire emaztia erdi-huk?

— *Erdi-huk. Erdi behar baizin erdi-huk, Jinkuain graziakin erdi-huk.*

— Ertemaiak intie? (emazte arrañatziak).

— *Intie. In behar bai ziuzten intie. Ehik ifernuko zolat eta han leher ehik.*

Eta marruma haundi bat iten zilaik juan zuxun ifernuko zolan leher eitea. (Catalina Camino. Luzaide, "Buruxuri" 1963).

### III.2. *Ez dok hamahiru:*

Testu ihartuak beste ihardura batzuk beregana ditzake. Aipatutako esaera itzulikatu edo "retornada" delakoari dagokionez, Bizkaiko aldakian beste aha-lerin bat egiten du deabruak errepikaldi luze horretan gizona nahasteko.

— *Esaik hamahiru, itauntzen du.*

— *Eztok hamahirurik, erantzuten dio gizonak neurritz kanpoko eremuan ez sartzeko.*

Bat-batean pentsa liteke hori izan daitekeela "Ez dok hamahiru" izenaren jatorria. Kontuan eduki behar da, hala ere, hamahiru zenbakia berez dela Mendebaldeko kulturaren behintzat siniskeri kutsuko tabu nabarmena. Horrelakoetan ez da zilegi izena aipatzea ondore txarrik ez erakartzeko, eta deabruaren galderak ohizko erantzuna bultza zezakeen. Adibidez Luzaiden bertan "Adio" edo "adios" dioenari, "ez adiorik" erantzuten zaio. Maila bereko hitz debekuduna izan zitekeen hamahiru zenbakia ere.

## IV. Bertso ihartuak

Bizilegeko une eta ekintza guztietara egokitutako ihardurak badira herri literaturan. Errefrau edo atsotitzen altxor aberatsa, adibidez, harrobi agor-ezina da.

Eta bertso ihartuen atala aipatuko dut amaitzeko. Tabu delakoaren kora-piloa zeharkako esaldiekin mezua borobilduz gainditu daiteke. Herioa da horietako zer beldurgarri bat, eta "hil" hitza bere adierazgarria. Errege Salamonek

jakinarazia zuen, euskaldunon ustez, bere aita-amen hilberria ematen zion me-  
zularia hilen zuela.

Ordua iritsi zenean honela mintzatu zitzaion mandataria:

*Pazkuez hilondo*

*diotez hilberri;*

*zue aita-amak*

*ez gose ta ez egarri.*

*—Hil-tuk orduan?*

*—Herorrek esan duk; ez nik.*

Esanak esan, indar gaiztoen sareko hariren bat jauzi bada ere ez aipatze-  
koren bat haizatzuz, sorginkerien aurkako eskomikazioarekin amai daiteke txos-  
tena.

Oharra: Eskuko behatz lodia —potolo beldurtia— ondoko beste bi beha-  
tzen artean muturra sartuz esan behar dira hitzok:

*Pues, pues, aparta Satán:*

*nun buho, han zilo.* (Shaindu, 1958)

Edo antzeko beste hauek:

*Pues pues, aparta Satan,*

*Berroitamar ixtapetan* (urratsetan).

Ongi doakigula herri-literaturzaleoi.

## ETNO-IPUIN ETA ESAUNDEN BILKETA

*Oiartzun, 1994-12-30*

*Juan Manuel Etxebarria Ayesta*

Bide bat zelangoa den jakiteko, norbera bertatik ibililita eta ibiltealakorik ez dago egur eskarmentadua sugin ona izaten baita.

Nire neure Etno-ipuin eta esaunden bilketa bidearen hasikerako urtekera On Jose Migel Barandiaranek emon zidan, han Derioko Seminarioan, Ander Manterolak Bizkaiko ETNIKER taldean sartu ninduean.

Derioko Seminarioko Labayru-liburutegian egiten genituen bilerak Bizkaiko Etniker-kideok On Jose Migel Barandiaran batzarkide eta maixu genuela.

Handik lasterrera, Euskal Herriko Etniker talde guztiak bildu ginen Urkiolan eta orduan maixu bi aurkeztu zizkigun Ander Manterolak: On Jose Migel Barandiaran eta Don Manuel Lekuona.

Egurdarteko beharlekua amaitu eta bazkaltzeko plantatu ginenean, hauxe esan zidan Ander Manterolak mahai-buruko maixu nagusi biei adi:

—Aikorzan gure maixuak!

Eta halaxe zen izan be. Pozik zer nengoen ni maixu nagusi bion aurrean! Ez zen gutxiagorako.

Nik neuk, gehien bat, On Jose Migelen bidetik egin dut behar, baina Don Manuelen irakatsiak ahaztu barik.

On Jose Migelek sarri esaten zigun berari Wunt irakasleak emandako gomendioa, hauxe hain zuzen: “Zeure herria aztertu nahi baduzu, zeure herririk hara egin behar duzu”.

Nik neuk be beste hainbeste egin nuen. Nire neure lurraldera abiatu nintzen, jakina, Gorbeia aldera, nire neure ikerketak egiten.

Nire ipuin eta esaunden bilketa era honetara hasi nuen:

—Nik, Ander Manterolari kontatu nizkion nire auzoko Simon Goyoagak (g.b.) umetan kontaktutako ipuin batzuk. Horretara badinost Anderrek:

—Hi, mutil, horiek ipuin horiek mitologiakoak dituk, On Jose Migel ibili, ibili duk Gorbeia inguruan, baina ez dizkik horiek ipuinok bildu! Zergatik ez dizkiok grabatzen Simoni eta transkribitu, orduan *ETNIKER* aldizkarian argitaratu?

Orpoetan har barik joan nintzen beharleku horretara eta egin be egin Ander maixuaren esana.

Harrezkero, hauetan hogeitau urteotan ehundaka ipuin edo eta esaunda bildu ditut eta eurentariko batzuk argitaratu be bai *Etniker* aldizkarian eta neure Dok-torego Tesian, hau da, “Zeberio haraneko euskararen azterketa etno-linguistiko”n.

Ipuin eta esaunda bilketa hau, Zeberíon hasi nuen, nire neure herrian. Baina, handik, hortik hemendik, Gorbeia inguruko herrietara ere abiatu nintzen agortezineko ipuin-iturri horretatik ahal denik eta gehien hartzeko.

Arakutatuko herriak hauexek dira: Zeberío, Orozko, Ugao, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Basauri, Zaratamo, Galdakao, Bedia, Lemoa, Igorre, Arantzazu, Artea, Villaro, Zeanuri, Dima, Otxandíano eta lurralde aparteko lez, Gorbeia bertako artzainen bizilekua.

\* \* \*

Metodologia aldetik, grabazio-tresna egokiaz gain, berriemaileagan Ebo-kazioa lortzea da derrigorrezkoa emaitza onak lortzeko.

Gure adinekoek asko eta asko dakite, baina sarritan, ebokazio faltaren eraginez zer kontatu ez dakitela aurkitzen dira.

Horretarako, lehenengo eta behin, Giro lasai eta ona aurkitu edo egin behar da eta gero hasi galderantzunetan.

Nik neuk, On Jose Migel Barandiaranek etnografiarako egindako inkesta erabiltzen dut hasteko, hots, “Guia para una encuesta etnografica” eta gero nire neure intuiziozkoak erabili tokian tokiko egoera ikusiaz.

Esate baterako, “Tabu” izan diren gaiei buruzko galderak ezin dira edozeinen aurrean egin, errespetoagatik baino ez bada ere. Hauelango gaietarako berri-emaile egoki edo konfiantzazkoak aurkitu behar dira bilketa zertarako den adieraziz.

Behin ipuin edo esaundok magnetifonoz jasoz gero, transkribitu egiten ditut, baina zehatz-zehatz, fonologia mailan, eta behar bada, fonetikako oharrak jarritz zehaztasun bidean.

Gehiago oraindik. Euskal Herria euskalki, azpieuskalki eta aldakiz beterik dagoenez, etno-testu huts-hutsak emonez gero, euskeraren aldaki hori ezagutzen ez dutenentzat gatz egiten da ulertzea, euren belarriak euskera mota ho-

rretara ohitu barik daudelako eta irakurrita ere ezer gutxi ulertuko luketelako. Horregatik, nik neuk transkripzio fonologikoaren ondoan, jaso den euskalkiko eredu literario-etimologikoa ere emoten dut, era horretara, hobeto ulertu eta aberasgarri izan dadin.

Behin horraz gero, eta euskaldunon munduaren berri haragora ere eroateko, laburpen gisa baino ez bada ere, erdaraz ere ematen dut, alde batetik, On Jose Migel Barandiaran eta R.M. Azkuen antzera eta bestetik, Julio Camarenak berak emondako aholkua jarraituz.

Era honetara lan eginez gero, ikerketa interdisziplinarraren barruan, batez be, arlo bi hauetarako balio du nire neure bilketak: Bata, etnografiarako eta bestea linguistikarako.

Etnografiako lan zehatz eta fidagarri bat behar beharrezkoa da horren ondorengo ikerketa linguistiko oinarrizko bat egiteko. Iturriko ura garbia eta den-den bezalakoa ez bada, handik edaten duena ere kutsaturik agertuko da eta datozenentzat ere kutsatze bide bat litzateke.

Ipuin eta esaunda bilketa arlora berrien berriz etorriz, eta ia hogeitau urteotako lana laburbilduz, hona hemen besteak beste, Gorbeia inguruko herrietan aurkitutako ipuin gaien sailkapen tematikoa:

*Anbotoko Señorea*; Jentilak; Lamiñak; Sorginak; Deabrua; Parte Txarrekoak; Arimak; Didaktiko-Moralak; Animaliak; Landareak; Sexu-kutsukoak; Eguzkia; Ospakizunak; Barregarriak; Bizikera zaharrak; Sineskerak; Eleiz-kutsukoak; Azeguna; Igarkizunak; Lapurrenak; Superstizioak; Gertakizunak; Kondenatuak; Superlegor koba; Entzuteak; Istorioak.

Euskera bizi honen altxor honetan, hainbat eta hainbat gauza eder aurki daiteke etno-linguistika arlo bikoitz honetan.

Denak aipatzea luzeegia litzatekeenez, hiztegiaren alorra aipatu nahi nuke literatura idatziak ez baitu jaso euskeraren izate osoa.

Argitaratu berri dudan *Gorbeia inguruko etno-ipuin eta esaundak* liburuan, inongo hiztegitan agertzen ez diren berrehun hitzetik gora jaso ahal izan ditut.

Gauzak honela, galdera sakon bat datorkit ateari josten bihotzaren erdi-erdira. Zein? eta hauxe: Zer egin literatura idatzian agertzen ez diren ahoko berba hauekin? Nire ustez, hartu dauden-daudenetik, jakina, beren beregi etno-testurik hara, eta sartu hiztegi zein beste edozein idaztitan, era horretara aberastuko dugulako gure etorkizuneko euskara.

Hau guztiau esan ondoren, zer hobea gorik Gorbeia inguruan jasotako ipuin bat, etno-testu fonologiko, bizkaiera literario eta batuan emotea baino.

## ITARGIA, EGUZKIA ETA MUNDUA

Ipuin edo esaunda hau, Zeberioeko Patxi Etxebarriari entzuna da. (*Gorbeia inguruko etno-ipuin eta esaundak* neure liburutik hartua). Nik neuk egindako itauna hauxe zen: Nondikakoak dira ilargiaren ilunguneak?

Aikomen erantzuna:

(Transkripzio fonologikoan)

Aldi beten, nosik ona estakigule, eguskie t'itargie andra-gixonak i sirean, da, Martiko idergibarriko gaulendien eguskie sartzamendire nos elduko daoela, badiñotzo eguskiek arrokeris beterik:

Ikustona Mundue, egunean baño egunean ederrago!

Bai, ikusiko etxoapa!

Ba, ori edertasun ori naure argi ta beroari esker dona gero!

Bai, eta ni naure gaubetako iñontzari, ala, iñontzak etxopatio esetarako!

Ori entzun botzen ba se, asarratuten yako eguskie, artzean dau esku biepete txinger gori bere barruti ta plast! arpegi arpegire bototzesan txingerrok itargieri eta erreunes bete bekokitik okotzeranoko gustie. Untxe t'untxe be esaun daus aik erreunak, aitudea baño estao itargieri idergi betea danean.

Baye, eguskie ain ikustauen berde, bildursartu inde egoan itargie eta karran asi yakon sein eguskiek e bearrestanen bat in. Eguskie orduen atzerikara gañetu yakon mirue arrari letxe eta odolak ur eiteko gitxien faltan.

Yoan da yoan bata bestearen atzean, ilgora, idergi bete, ta ilbera gustien eragoyon eguskiek itargie kuxetan.

Itargien arnasestue eta magalotza iños ikusi bakoak sirean eta bere burue olan ikusirik, badiño berekitan: gesubeten gañetu bea yatak eguski armin kokino ori, baya etxok o berea ingo lelengoa!

Eguskie orpoetan ar bari(k)tx(y)oakon atzerikara eta ogeta sortzigarren egunean ie ie kuxau inik aukela, estotzo itargiek e bere burua gordetan!

Eguskiek orduen, susien, aurreak artutzesan da egunetxoan egunek etorri, itargie atzerikara ikustauen eta badiño bere artean: burue non gorde yostan baño estok orrek andra galerorrek!

Orduen, atzera in esin auen les, arin eragoyon eragon be itargie barriro atzerikara kuxetako, d'orretarako denodu gustiegas eta inisitue baño arinago ibilite be, beste ogeta sorki egun bear ixin ausen, baye itargiek ostera be bere burue gorde, batepaki non!...

Gaur be undiño or yabikus eguski-itargiok, bata bestearen atzean, egunes beroa ta gaubes iñontza dariola.

(Gaurko bizkaiera literarioan)

Aldi baten, noizik hona ez dakigula, eguzkia eta itargia andra-gizonak ei ziran, eta, Martiko idergibarriko gaulendian eguzkia sartzamendira noiz helduko dagoala, badinotso eguzkiak harrokeriaz beterik:

Ikusten dona Mundua, egunean baino egunean ederrago!

Bai, ikusiko ez joat ba!

Ba, hori edertasun hori neure argi eta beroari esker dona gero!

Bai, eta nire neure gauetako inontzari, ala, inontzak ez jok balio ezertarako!

Hori entzun ba eutson ba ze, haserretuten jako eguzkia, hartzen dau esku biak bete txinger gori bere barrutik eta plast! aurpegi-aurpegira bota eutsozan txingerrok itargiari eta errenez bete bekokitik okotzerainoko guztia. Oraintxe eta oraintxe be ezagun dauz haiek erreunak, aditutea baino ez dago itargiari idergi betea danean.

Baina, eguzkia hain ikusten eban berde, bildursartu eginda egoan itargia eta karran hasi jakon zein eguzkiak behar ez danaren bat egin. Eguzkia orduan atzerik hara gainetu jakon mirua harrari letxe eta odolak ur egiteko gitxiren faltan.

Joan eta joan bata bestearen atzean, hilgora, idergi bete, eta hilbehera guztian eragoion eguzkiak itargia koiuten.

Itargiaren arnastua eta magalotsa inoiz ikusi bakoak ziran eta bere burua holan ikusirik badino berekitan:

gesu baten gainetu bear jatak eguzki armin kokorio hori, baina ez jok berea egingo lehenengoan!

Eguzkia orpoetan har barik joakion atzerik hara eta hogeita zortzigarren egunean ia-ia koiu eginik eukala, ez deutso itargiak bere burua gordetan!

Eguzkiak orduan, zuzian, aurreak artu eutsozan eta egunak joan egunak etorri, itargia atzerik hara ikusten eban eta badino bere artean: burua non gorde deustan baino ez dok horrek andra galera horrek!

Orduan, atzera egin ezin eban lez, arin eragoion eragon be itargia barriro atzerik hara koiuteko eta, horretarako denodu guztiaz eta inizitua baino arinago ibilita be, beste hogeita zortzi egun behar izan ebazan, baina itargiak ostera be bere burua gorde, batek badaki non!...

Gaur be oraindino hor dabilkuz eguzki-itargiok bata bestearen atzean, egunez beroa eta gauetz inontza dariola.

(Euskara Batuan)

Aldi baten, noizik hona ez dakigula, eguzkia eta ilargia andra-gizonak ei ziren, eta, Martiko idergibarriko gaulendian eguzkia sartzamendira noiz helduko dagoela, badinotso eguzkiak harrokeriaz beterik:

Ikusten duna Mundua, egunean baino egunean ederrago!

Bai, ikusiko ez diat ba!

Ba, hori edertasun hori neure argi eta beroari esker duna gero!

Bai, eta nire neure gauetako inontzari, ala, inontzak ez dik balio ezertarako!

Hori entzun ba zion ba ze, haserretzen zaio eguzkia, hartzen ditu esku biak bete txinger gori bere barrutik eta plast! aurpegi-aurpegira bota zizkion txin-gerrok ilargiari eta erreunez bete bekokitik okotzerainoko guztia. Oraitxe eta oraintxe ere ezagun ditu haiek erreunak, aditzea baino ez dago ilargiari ilargi betearen denean.

Baina, eguzkia hain ikusten zuen berde, beldursartu eginda zegoen ilargia eta karreran hasi zitzaion zein eguzkiak behar ez denaren bat egin. Eguzkia orduan atzerik hara gainetu zitzaion mirua harrari letxe eta odolak ur egiteko gutxiren faltan.

Joan eta joan bata bestearen atzean, hilgora, ilargi bete, eta hilbehera guztian eragoion eguzkiak ilargia harrapatzen.

Ilargiaren arnasestua eta magalotsa inoiz ikusi bakoak ziren eta bere burua honela ikusirik badino berekitan: gesu baten gainetu behar zaidak eguzki armin kokorio hori, baina ez dik berea egingo lehenengoan!

Eguzkia orpoetan har barik zihoakion atzerik hara eta hogeita zortzigarren egunean ia-ia koiu eginik zeukala, ez dio ilargiak bere burua gordetan!

Eguzkiak orduan, zuzian, aurreak hartu zizkion eta egunak joan egunak etorri, ilargia atzerik hara ikusten zuen eta badino bere artean: burua non gorde didan baino ez duk horrek andra galera horrek!

Orduan, atzera egin ezin zuen lez, arin eragoion eragon ere ilargia berriro atzerik hara koiuteko eta, horretarako denodu guztiaz eta inizitua baino arinago ibilita ere, beste hogeita zortzi egun behar izan zituen; baina ilargiak osteraren bere burua gorde, batek badaki non!...



Gaur ere oraindino hor dabilzkigu eguzki-ilargiok bata bestearen atzean, egunez beroa eta gaez inontza dariola.

\* \* \*

Aikomen ba, Gorbeia inguruko ipuin edo esaunda bat etorkizuneko euskerara bideratuta.

Lehenago aipatu dudan helburu bikoitza gogoraturaz, aikomenzan disziplina bakoitzari dagozkion bitargi batzuk:

Etnografia ikuspuntutik, ilargiaren ilunguneak azaltzen dira alde batetik eta hilabetearen zikloa bestetik, herri-jakituria edo mito bidez, jakina.

Linguistika ikuspuntutik, begira ipuintxo honetan bakarrik, zenbat elementu interesgarri agertzen den etorkizuneko euskeraren aberasgarri.

Batzuk bakarrik aipatzearen, horra hor: lexikoa( gaulendia, sartzamandia, inontza, itargi, bildursartua, eragon, armin, kokorio, etab. Iuze bat).

Aditz jokoak: hitano-ko femeninoa -NA morfema eta guzti egiten da.

-ETAN atzizkiaren erabilera ugaria da: (gordetan, kantetan, olgetan...).

Esaldiak: esaldi bereziak agertzen dira: esaterako: "...bildursartu eginda zegoen itargia eta karran hasi zitzaion ZEIN eguzkiak behar ez denaren bat egin", "Burua non gorde didan baino ez duk horrek andra galera horrek", etab.

Esandako guztia borobilduz, bizirik dugun euskera ederra behar den lez jaso, aztertu eta etorkizunera bideratzen ez badugu, ezingo dugu bete herri esaera hau:

"gurasoak dena dio zor umeari".

Kasu honetan, guk geuk, etorkizunari.



## TARTAROAK

*Oiartzun, 1994-XII-30*

*Xabier Kaltzakorta,  
"Mikel Zarate" Iker Mintegia*

Artikulu honetan aspaldidanik buruan darabilan gai baten berri emango dizuet, tartaroen berri, alegia. Batek baino gehiagok pentsatuko du zer diren euskaraz tartaroak, zein eskualdetan agertzen diren agertzen direnean, zein ize-  
nekin eta Euskal Herritik kanpora ere agertzen denez zein den jatorria eta abar. Lan honen luze-laburrari bagagozkio esan behar dugu, aurren-aurrenik, beste lan luze eta osotuago baten laburpena dela. Lan luzeago horretako asmoa bi-  
koitza dugu, batetik, orain arte argitara gabeko eskuizkribu batzuk agertzea eta, bestetik, ahozko eredu berriak ere argitaratzea. Esan gabe doa eskuizkribuetan zein ahozko eruedetan delako tartaro edo tartaroen eredu desezagun batzuk agertuko ditugula.

### TARTAROA ADIERAZTEKO IZEN GEHIAGO

Lehenengo eta behin esango dugu elkarren antzeko bi izen agertzen direla bata Tartaro eta bestea Tartalo. Dakigunez lehenengoa da zabalena dabilena eta bigarrena bizkaieuskarakoa ere izan arren ez dugu aurkitu Bizkaiko *corpus*-ean Gipuzkoakoan baizik (1). Hirugarren aldaera bat ere agertzen da Torto hain

---

(1) Esate baterako Bernardo Garrok "Otxoluak" itzuli zituenean Bizkaiko euskarara Jean Barbierrin ipuin eta esaundak Tartaro sistematikoki Tartalo jartzen du Bizkaiko euskarari: "Tartaro(L), Tartalo(B): Erriaren adimenez Izadian sorturiko erraldoi antzekoak. Ez ziran gizonak, bai, oster, gizonaren arerioak. Baña gizonak, arteziz eta amarru bidez, azkenean beti garaille urtetan eban aekanik. Izadiko indarrakanik urtetan dauan era beratan, beti ez baiña... "Tartaroak". "Basa Jaunak" eta abar. Izadiko indar eskutukoak gizon itxureaz baiño ez dira (Seres fabulosos representativos y personificación de las fuerzas ocultas de la naturaleza, a las que el hombre domina con su maña y astucia."

*Ixtorio-Mixerio* Igone Etxebarriak prestatutako edizioan 202 or. Sutondoan 1989.

Badirudi, hizkuntzari gagozkiola, solo eta soro bezalako hitz bikoteak harturik, lehena zahar-  
rragoa dela eta bigarrena hizkuntzaren egokitze legeak agindurik sortua. Ikus. Mitxelena-  
ren *Fonetika histórica vasca* 312 or. Baina gure kasuan alderantziz gertatzen denez beste era bateko hitzen indarra ere kontuan hartu behar dugula, esaterako, talo, txalo... Bizkaiko leku batzuetan, Markinaldean, batzuetan karta jokoko bateko urrearri *talo* esan ohi zaio, bestetan inoiz *tartalo*...

justu. Hirugarren hau on Jose Miel Barandiaranek bere *Mitologia* hiztegian dakarrena da. Honatx definizio eta guzti:

Torto.-Este es el nombre del genio maligno de un solo ojo, antropófago, que también es conocido con el nombre de Tartalo. De él se habla en los relatos más aterradores de los hogares de Goyerri sobre todo, si bien es conocido igualmente en otras comarcas del país. Secuestra a jóvenes que se ponen a su alcance y los devora. (...) El mito de Torto se halla localizado en varios lugares de Vasconia. En Atáun, por ejemplo, se señala la cueva de Muskia, como escenario de las crueldades del cíclope. Otro de los lugares que se citan como morada de **Torto** o **Tártalo** es **Tartaloetxeeta**, planicie del alto de la montaña Saadar, donde se halla la supuesta casa del cíclope o Tartaloetxe, que es un dolmen (2).

Bestaldeko tradizioan, ostera, Tartaro bakarra zein bat baino gehiago izan narrazio berean, artikuluaekin erabiltzen da gehienetan (3).

Baina aipatutako hitzak ez dira bakarrak, William Rollok (4) Markinaldean bildutako aldaera ALARABE da, nahiz eta berak *Alarabie* bildu (5).

Gaur egun argiro dakusagunez Alarabie delakoa Alarabe hitza artikulua-ekin baino ez da, hots, *luzie* eta *gosie* Markinaldeko euskaran *luze* eta *gose* hitzak artikulua erantsita diren bezalaxe. Honetaz ohartu *zen* Mitxelena eta ohar zorrotz bat idatzi zuen (6).

Badago beste izen bat ere Tartarora adierazteko Begibak(h)arra delakoa, hain zuzen. Badira euskal mitologian erraldoi gehiago ere, esaterako, EULIZKI baina ez da Tartarora bezala gizajalea, gizonen laguntzailea baizik (7).

(2) BARANDIARAN, Jose Miguel: *Obras completas*, tomo 1, 224 or.

(3) MICHELENA, Luis: "Contra Lekobide", ASJU XX-1, 1986, 291. or. eta *Sobre historia de la lengua vasca II*. San Sebastián, 1988, 851. or. Así nuestro Basajaun, singular o plural, ha superado la prueba que le exigía Baroja, vacilante todavía: los testimonios demuestran con superabundancia que no es una creación de Musiu Chaho, sino que tiene tanta consistencia como Tartalo, por ejemplo, siempre que éste vaya adornado de artículo.

Artikuluarekin gehienetan erabiltzeak ez du esan nahi gure ustez beti hala erabiltzen denik. Esate baterako Casenevek bildutako Tartaro-ren aldaera batean artikulurik gabe aurkitu dugu.

(4) ROLLO, William: *The Basque dialect of Marquina*. Amsterdam: H.J. Paris, 1925.

(5) Honatx hitzez hitz kontaeraren izenburua: *Alarabie, gigantian eta gison-jatallian ipuñe*. Esan behar dugu, bidenabar bada ere, J.M. Satrustegik ez duela ongi bildu Markinako, edo nahiago baduzue Xemeingaineko erraldoiaren izena ABALARI esaten baitu ALARABIE edo ALARABE esan beharrean. Honatx hitzez hitz: "El cíclope vasco se llama *Tártalo*, también *Torto*, *Anxo* y *Alabari*. Tiene un solo ojo en la mitad de la frente y es de instintos feroces. Se alimenta de carne humana". *Mitos y Creencias*. San Sebastián, 1983. Hirugarren argitaraldia, 152. or.

(6) MITXELENA, Koldo: Tartalo es tartaloa "el tartaro" y alarabi (véase p. ej. W. Rollo: *The Basque Dialect of Marquina*) alarabie "el alárabe". BAP, 1960, 378-379. or.

(7) Eulizki delakoaren ezaugarriak ikusteko ikus bedi, nahi izatera, ene artikulua xumea, KALTZAKORTA Xabier: "Bizkaiko herri-ipuin idatziak" in *Euskera-XXXVII* (2.aldia), 477-496. or.

## Tartalo, tartaro eta Alarabe hitzen etimologia

Nondik ote dator Tartaro/-lo hitza? Galdera hau orain baino lehenago egina izan da. Eta erantzunak bat baino gehiago izan dira. Tartaro eta begibakarren artean bereizkuntza egin nahi izan duenik ere. Esaterako, Chahok uste zuen euskaldunek lehen inbasioaldiko zeltei edo keltarrei tartaroak deitzen ziela eta ziklopei beguibakhar (8).

Narrazio baten berri ere ematen du errotari baten seme batek fortuna egiten duela Tartaroei igitai, katu eta oilar bat saltzen dizkiela dioenean (9). Tartaro hitza erdaratik (hots tartaro, tartare) datorrela, hots, Tartariako bizilagunen ize-netik, ikertzaile batek baino gehiagok uste izan du, esaterako Cercand-ek (10) eta uste hau bortizki astindu zuen Julien Vinson-ek (11). Baina hala ere Vinson-ek berak huts bera egiten duenean *Les basques et le Pays Basque* liburuan D.J.A. Coelho portugalدارrak Vinsonen iritziari erruki gabe eraso zion (12) eta

---

(8) CHAHO, Augustín: *Voyage en Navarre pendant l'insurrection des Basques*, Paris, 1836. "Les Basques donnent le nom de Tartaro aux Celtes de la première invasion et qu'ils désignent encore par celui di Beguibakhar, qui est l'équivalent parfait de Cyclope", 77. or.

(9) Op. cit. l'histoire de ce fils de meunier, qui fit fortune en vendant aux Tartares une faucille, un chat et un coq. 77. or.

(10) Falta texto.

(11) VINSON, Julien: "Mytologie Basque". *Revue de Linguistique et langues comparés*, Tomo 8, 124. or. En traduisant par "tartare" au lieu de "Cyclope" M. Cerquand nous paraît avoir méconnu le caractère de tout une classe de légendes.

(12) COELHO, D.J.A.: "En la interesante obrita *Les basques et le Pays Basque* (Paris, Cerf. 1882) dice Mr. Vinson, uno de los mas conoedores de ese pueblo, que los *tártaros* de la tradición vasca, especie de ciclopes tan estúpidos como robustos, fueron sin duda denominados *tártaros* del propio modo que en otras partes se llamaron *ogres* (ongres hongrois) á otros seres temibles de la leyenda. Esas figuras imaginarias —continua el citado autor— se sustituyen mutuamente y se ven también usadas por los moros en los cuentos que más atractivos encierran para los hombres de la ciencia.

Así que el nombre del *tártaro* basco, provendría del nombre del pueblo asiático *tátaros* que en las lenguas europeas se corrompió en *tártaros*. No sé de ningún otro hecho que nos haga presumir que la fama de ese pueblo llegase hasta la región pirinaica en tradición popular. Aún más; la explicación del señor J. Vinson es inaceptable. Una persona de sus conocimientos debiera estar mejor informado acerca del origen del nombre de *ogres*; para ello no era preciso más que abrir el *Diccionario de la lengua francesa* de E. Littré, s. v. donde se lee:

"Ant. español *huergo*, uerco; español moderno *ogro*, ogre *huerco*, triste; italiano, *orco*; napolitano *huorco*, anglosajón *orc* demonio infernal; del latín *orcus* infierno, Dios del infierno segun Díez (*orcus* segun Maury, es una palabra etrusca).

Supuso también que *ogre* vendría de *húngaro*, a consecuencia de las invasiones de *hongres*, *húngaros* o también *oigurs*, que tuvieron lugar en el occidente de Europa durante la Edad media. Sin embargo la forma de la palabra en las lenguas románicas, no se presta a tal interpretación."

*Ogre* no tiene pues, nada que ver con los *húngaros* ni pueden considerarse de origen mongol los cuentos en tales seres figuran, hipótesis ya trasnochada, que ultimamente ha vuelto a desenterrar el señor Dr. T.L. Braga, presentándola como nueva.

La explicación de ogre derivándolo de orcus, nos hace ver en el *tártaro* vasco, el nombre latino *tártarus* sinónimo de *orcus* palabra que servía para designar también la divinidad infernal (*pater tártarus*) "O tartaro dos bascos". *Revista de Vizcaya*, 1886, Tomo I, Cuaderno 5, 1 de enero,

lehen aldiz dio latineko *tartarus* infernuko jaungoikoa delakotik datorrela erderazko *ogro* hitza *orcus* infernutik edo infernuko jaungoikoa delakotik datorren bezalaxe. Erromatarrek greziarrei hartutako jaungoiko izenak dira dudarik gabe. Coelho-ren azalpen hau interesgarria da joan den mendean berean emandako azalpen argigarri hau, mende honetan euskal inongo autorek indartsuki berretsi ez duelako (13).

Begien bistakoa da Grezia eta Erromako mitologietako bi izenekin antzekotasun edo are berdintasun handia duela Tántalo (14) eta Tartaro rekin. Lehena Zeus eta Plutoren semea da eta infernuetara kondenatua izan zen. Infernuetan samarainoko uretan sartua egon zen eta edan nahi zuen bakoitzean ura aldendu egiten zitzaion. Bazeukan beste sofrikario handi bat ere: buru gainean zintzilik zuen adarra fruituz beteta zegoen, eta, besoa jasotzen bazuen fruitua hartzeko, adarra zakarki urruntzen zitzaion. Tántalo pertsonaia da eta Tártaro, ostera, lekua da. Munduko lekurik azpirengoa da infernuaren beraren azpian dagoena. Hades-etik (hots, infernutik) Tartaroraino dagoen tartea zerutik lurrerainokoa bezain handia da. Ziklopeak Tartaroan lurpeturik egon zirenez gero, horrexegatik leku-izenak eman dio gurean pertsonaiari izena. Gure narrazioetan, ziklopeak bat baino gehiago izan arren guztiek hartzen dute esaunda berean tartaroen izena. Euskal narrazioetan Tartaro eta Tartalo agertzen zaizkigunez gero lehena izango genuke jatorrizkoa, latinari hurbilago dagoena, eta bigarrena ostera

---

Año 1, número 5, 160-161. Erdarazko itzulpenak guk erabili duguna *Revista de Vizcaya*, 1886, 161-163. or.

(13) Lisboako Unibersitateko irakasleak emandako artikulua hondarreko azalpenari honako ohar hau gaineratu zion artikulua itzultzaileak: “*El Tartaro, Erebo, Orcos Tenaro*, etc. se llamaba en la mitología griega al infierno, mansión que se suponía situada en la extremidad de la Tierra y del mar. Encima del Tártaro estaban los cimientos de la Tierra y según Hesiodo un yunque dejado caer desde la superficie terrestre tardaría 10 días en llegar al Tártaro. Era un recinto sombrío con pavimento y puertas de metal, duras como el diamante y de tal consistencia que no las podían romper los dioses. En él residían los condenados que debían sufrir tormento.”

(14) “Tántalo pasa generalmente por ser hijo de Zeus y de Pluto, hija ésta de Crono o incluso de Atlante. Reinaba en Frigia, o en Lidia, en el monte Sípilo. Era muy rico y amado por los dioses, que lo admitían en sus festines. Se había casado con una de las hijas de Atlante, La pléyade Dione. Pero se le conocía también otra esposa, Eurianasa, hija del dios-río Pactolo. Ciertos mitógrafos mencionan también a Clitia, hija de Anfídámante, y a Estérope, otra pléyade.

Sus hijos son Pélope y Niobe, a los cuales se añaden a veces Bréteas, Dásילו y otros varios. De él, por mediación de Pélope, descienden los Tantalidas Tiestes, Atreo y finalmente, Agamenón y Menelao.

Las acciones que le atribuyen los autores a través de su vida son bastantes insignificantes; habría sido perjuro por no entregar a Hermes el perro de Zeus, que le había confiado Pandáreo (v. este nombre). Este crimen le habrá sido encerrado en el monte Sípilo antes de ser precipitado en los infiernos (v. más adelante). Otra aventura lo ponía en relación con Ilo, fundador de la primera Troya. Parece ser que Ilo lo expulsó de Asia Menor después de las desgracias de su hija Niobe. Finalmente, otro episodio presenta como el raptor de Ganimedes (v. este nombre).

*Tántalo* es célebre en la mitología sobre todo por el castigo que hubo de sufrir en los Infiernos, del cual ya se da una descripción en la Odisea, en el “Descenso a los Infiernos”, uno de los pasajes más recientes del poema. Sin embargo, los autores no estaban de acuerdo”.

lehenaren aldaera, bokal arteko -r->-l- bihurtzen baita zenbait kontestutan (15).

Alarabe delakoaz Mitxelenak eta Juan Gorostiagak (16) garbiro esan zituzten Arabe hitzak aurrean artikulua duela agertzen dela, hots, alarabe, eta gizon handi eta beldurgarria dela.

## BASAJAUNA ETA TARTAROA

Euskal mitologian, edo Vinsonek zioen eran euskal Olimpo pobrea, bada izaki bat, mito bat izatasuna edo izatea bera ere ukatu nahi izan diotena. Basajauna izan da, lehenengoz Chahok (17) aipatu zuenez gero, batek baino ge-

---

(15) MICHELENA, Luis: *Fonética Histórica Vasca*, 2 edición, corregida y aumentada, 315. or.

“6.5. Otros casos de permutacion de ly r(d) entre vocales son debidos a todas luces a disimilación, ya que hay una fuerte tendencia a evitar las proximidad de r Y R en la misma palabra, se trata acaso de una tendencia no muy antigua, porque donde menos se acusa es en roncalés, vizcaíno y variedades meridionales”. Gure kasuan, uste dugunez, Tartaro > Tartalo eman du disimilazioz. Ez dugu uste talo bezalako hitzek indar handiegirik izan dutenik. Badago, bestalde, txikikeriatxo bat aipatzeak berak ere axola handirik ez duenik. Karta jokoan errege urreari Bizkaian berean hainbat hitz adierazgarri erabili ohi da, Tarrantoline, talo eta abar. Azken talo delako hori ez ote da tartaloren laburdura?

(16) GOROSTIAGA, Juan: “El fondo primitivo de la lengua vasca”, F.L.V. 1982, 116. or. Uste dugu interesgarria dela pasarte honatx:

“Leyendas de Marquina de Vizcaya. Monstruo de “un solo ojo” que cuando llueve lo levanta y se guarece bajo él. Inferido con el cíclope “de un solo ojo” tiene traducción vasca de EULIZKI (Eul-residuo de EURI “Lluvia” cf. EUL-ANTZA en la misma Marquina), pero la etimología popular le ha convertido en “mosquero” tragador de moscas, pues agachándose sobre sus dos pies” colocados en las montañas vecinas traba las barcas, como si fueran moscas (EULI “mosca”).

La palabra proviene directamente del español ALARABE —no de ALARABI en árabe mismo—; la forma ALARABIE de Marquina supone un ALARABE-A y no ALARABI-A, como mal se interpreta.

De tales monstruos también hablaron los grecolatinos, pero esta vez se trata no de marinos de mares africanos, sino de Wikingosque asomaron sentados por un solo pie. EL HURACAN de los Mayas es de “un solo pie” como el TEZCALIPOCA de los Aztecas también de un solo pie, mientras que el “terremoto” era “de dos pies”.

Adam de Bremen recoge en estos relatos nórdicos y dice también como Hispanos (¿árabes?) y Griegos acudían a las islas de los oráculos como Kurlandia. Nótese que también en Grecia el genio de la lluvia es “el árabe”.

(17) CHAHO, Augustin: “..Les plus populaire de ces mythes pyrénéens est le Seigneur-Sauvage (Bassa-Jaon), sorte de monstre à face humaine, que le Basque place au fond des noir abimes ou dans la profondeur des forêts. La taille de Bassa-Jaon est haute, sa force prodigieuse; tout son corps est couvert d’un long poil lisse qui ressemble à une chevelure; il marche debout comme l’homme, un baton à la main, et surpasse le cerf en agilité. Le voyageur qui précipite sa marche dans le vallón, ou le berger qui ramène son troupeau à l’approche d’orage, s’en tend-il appeler par son nom répété de colline en colline? C’est Bassa-Jaon. Des hurlements étranges viennent-ils se mêler au murmure des vents, aux gémissements sourds des bois, aux premier éclats de la foudre? C’est ebcire Bassa-Jaon. Un noir fantome illuminé par l’éclair rapide, se dresse-t-il au milieu de sapins, ou bien s’accroupit-il sur quelque tronc d’arbre vermoulu, en écartant les longs crins á

hiagok euskal mitologiako izakia izan ote den dudatan jarri dutena. Gauzarik harrigarriena da, batez ere basajaunaren izatasuna jarri dela zalantzatan Chahok Tartarora, lamiak (18) eta abar aipatzen baditu ere. Kontua da euskal tradizioko izakiekin batera izaki asmatuak ere erabili zituela adibidez Maitagarri eta Aitor euskal aitalehena. Beti aipatu izan da Pio Barojaren testigantza (19) (*La leyenda de Jaun de Alzate*, 1922) edo duda, baina Pio Barojak baino lehenago Julien Vinsonek berak ere (*Le folk-lore du Pays Basque*, 1883) zalantzatan jarri zuen (20). Gerora beste zenbait autorek ere, Unamonok (21), esaterako ildo betretik jokatu zuten.

Izatea edo izatasuna diogunean ez gara ari benetako edo egiazko mitoak izan diren eztabaidatzen, hots, Euskal Herriko basoetan egiazko basajauna bizi, esistitu, izan denik, hori besterik baita. Esaten ari garena da nahiz eta gaur egun askok eta askok-gehienek edo denek-egiazkotzat baino alegiazkoagotzat hartu, kontakizunak berak ia izan diren. Lamin-sorginetan inork gutxik sinetsi arren sorgin-laminen gaineko istorio eta ipuin multzoa izan badela inork zalantzatan jartzen ez duen bezalaxe. Basajaunaren izatasuna zalantzatan jartze hori, batetik, Chahok egin zuen narrazio misterioetatik datorke, eta, bestetik, Europako beste kulturetan ere antzeko mitoa egotetik izango luke oinarria (22). Badago beste konturik ere Ba-

---

travers lesquels brillent ses yeux étincelants? Bassa-Jaon. La marche d'un être invisible se fait-elle entendre derrière vous, son pas cadencé accompagne-t-il le bruit de vos pas? Toujours Bassajaon...". *Voyage en Navarre pendant l'insurrection des Basques 1830-1835*.

(18) Lamiak izanik hedaturaz Euskal Herri osoan ugarien aurkitu diren numenen kontaktizunak Vinsonen lamiaren izatasuna ere zalantzatan jartzen du. Ikus ondoren datorren oin oharra.

(19) BAROJA, Pío: *La leyenda de Jaun de Alzate*, 1922: "No sé si tengo realidad objetiva, si existo en el mundo de los fenómenos, como diría un discípulo del profesor Kant, o si soy un engendrado de la fantasía de Musiú Chaho. No me aceptan en ninguna reunión de espíritus vascos; se rien de mí porque no puedo presentar documentos de identificación".

(20) VINSON, Julien: "Las ensoñaciones o fantasías de Chaho y de sus imitadores no tienen ningún fundamento, y dudo incluso de que el hombre salvaje, basayaun o basajaun, «señor u hombre salvaje», cuyo pie izquierdo deja en el suelo una huella redondeada; que las lamigna, machos o hembras pertenezcan a una vieja mitología euscara. Cuanto más estudio a los vascos, más me convengo de que no existen en ellos rasgos de una raza antigua, poderosa y civilizada, que habría habitado con sus colonias la totalidad de Europa occidental. Semejante decadencia resultaría completamente inadmisibile". *Literatura popular del País Vasco* erdal itzulpena Iñaki Urdanibia egina, Editorial Txertoa, 10. or.

(21) UNAMUNO, Miguel de: *Crítica del problema sobre el origen y prehistoria de la raza vasca*, OC, IV, edición de Manuel García Blanco, Madrid, Escelicer, 1966, 114. or.

"En las lamiñac o lamiac no debemos ver más que el latín *lamia*. Bien dice Michel que este nombre "no representa nada de vivo, nada de real al espíritu de los aldeanos vascos, que mencionan las lamiñac como nosotros mencionamos a Júpiter o Minerva".

¿Qué diré de Basa-Jaon? Chaho veía en él una reminiscencia del orangután. La idea es peregrina y atrevida, pues dudo que los vascos conocieran al simio antropoide, pero mucho se le parece aquel que con un palo recorre los bosques del Pirineo, que ruge cuando retumba el trueno y se pasea por las espesuras al compás de la tempestad. Pero debo advertir que tal creencia no es general en el pueblo vascongado, y nada nos autoriza a suponerla aborigen y propia de él."

(22) Jakina Augustín Chahok adibidez *Maitagarri* delako amandrea *Luzaide* artzainaz mai-



sajaunaren kasuan, hau da, Tartaroak ez bezala Basajaunak badu bere emazte, ezkontide, edo bikote edo ez dakigu nola arraio esan, hots, Basanderea. Alemanian esaterako *waldmaennlein* eta *waldmeiblein* (23) ditugu euskal ereduan bezala Basajauna eta Basanderea adierazteko. Kontua da gaur egun Basajaunaren esaundak izan direla ondo baino hobeto dokumentatuta agertzen zaizkigu, eta, Jon Juaristik (24) *homo sylvestris* edo *homo sylvaticus* baten euskal ordaina ikusten du, eta Mitxelenak (25) ere behialako Pio Barojaren iritziaren kontrako arrazoiak ematen ditu. Basajauna narrazio mitikoetan ezezik haur jokoetarako egin ohi ziren kui hustua ere adierazteko erabili izan zen Duny-Pétre-k (26) dioenez, ikertzaile

temintzen denean Jon Juaristik dioenez Diana eta Endimion-en amorioa berritzen du. Ikus *El linaje de Aitor. La invención de la tradición vasca*, 97. or.

(23) *waldmaennlein* delakoak basoko gizon ttikia esan nahi du eta *waldweiblein* delakoak basoko andere ttikia. Ohar hau REICHER, Gil G.: *Les légendes basques dans la tradition humaine* librairie d'Amérique et d'orient Adrien Maisonneuve II, rue Saint-Sulpice, Paris (6) 61. or.

(24) JUARISTI, Jon: *El linaje de Aitor. La invención de la tradición vasca*, Taurus, 1987, 97. or.

“Pero el *Basa-jaon* o “señor del bosque”, a quien se hace mención poco después, no parece ser producto de la fantasía de Chaho, sino la versión vasca del mito europeo del *homo sylvestris* u *homo sylvaticus*. Chaho lo compara con el orangután javanés, como lo hiciera en 1641 el médico holandés Tulp. Los rasgos y colosalismo y fiereza con que lo describe coinciden con los que la tradición folklórica vasca atribuye a los gentiles (*jentillak*), raza fabulosa que desapareció poco después del nacimiento de Cristo”.

(25) MITXELENA, Luis: “Contra Lecobide” lehen aipatu artikuluan.

“Así nuestro Basajaun, singular o plural, ha superado la prueba que le exigía Baroja, vacilante todavía: los testimonios demuestran con superabundancia que no es una creación de Musiu Chaho, sino que tiene tanta consistencia como Tartalo, por ejemplo, siempre que éste vaya adornado de artículo”.

(26) DUNY-PETRE, Pierre: “Xirula-Mirula, L'enfant basque, depuis le bebe jusqu'à l'adulte” in *Anuario de Eusko Folklore*, tomo 34-1987, 112. or.

“Basa Jauna, est un amusement qui se pratique pendant les longues soirées d'automne, lorsque la nuit tombe rapidement sur les montagnes. Mais il gaut aussi disposer d'une belle citrouille.

Parmi les récoltes de la ferme basque, les enfants prélèvent un potiron bien ron. Celui-ci, dans sa position normale, est surmonté habituellement par un trognon de “queue”. A l'aide d'un couteau, on découpe circulairement, autour de cette queue, une calotte qui représentera le couvercle du récipient réalisé en vidant la citrouille...(ez dugu joko guztia jarriko nahi izatera jo bedi aipatu artikulura”.

Interesgarria da Basajaunaren mitoa hitz hauetan laburtzen baitu artikulua honetan:

“Basa Jauna, “le Seigneur sauvage” Personnage fantastique de l'ancienne mythologie basque. On pourrait le comparer aux divinités piennes que sont les Faunes et les Sylvains. Il présente également certaines analogies avec le dieu Pan des Grecs, car son domaine est essentiellement rustique.

D'après les légendes connues, le Seigneur sauvage des Basques ne règne vraiment sur les montagnes et les bois que pendant la nuit. Il peut aussi se manifester dans l'ombre des cavernes, dans la brume ou le crépuscule. En tout cas, malheur à l'imprudent qui s'attarderait dehors le soir afin de se livrer à un travail rémunéré.

Mais les bergers réussissent à s'attirer les bonnes grâces du terrible Basa Jauna, en lui laissant régulièrement un peu de nourriture devant la cheminée de leur cabane, avant d'aller dormir. Ainsi, le Seigneur Sauvage veillera toute la nuit sur les troupeaux, de même que sur l'outillage laissé dehors”.

honek du berariazko lan luze bat: euskal Basajaunaren esaunden itzulpen bat, eta Europa zein mundu osoko beste homo sylvaticus batzuen antzekotasunak aztertuz (27).

Norbaitek behin honez gero galdetuko du ea zergatik jarri ditugun puntu honetan elkarrekin Basajauna eta Tartaroa, arrazoiaren berri oraintxe emango dugu: behin baino gehiagotan nahasten direlako eukal kontaeratan, eta honezaz ikertzaile bat baino gehiago ohartu da (28). Esaterako Cercand-ek bere bilduman dakarren 52. zenbakidun kontaeraren izenburua frantsesez “Le tartare aveugle” da, baina kontaera irakurriz gero ez da Tartaroa itsutua dena, Basajauna baino eta horrexegatik Vinson-ek “Le Basa-jaun aveuglé” jarri zuen. Badago beste zerbait euskal eremutik kanpora. Denok dakigu euskal Tartaroaren ordaina nolabait adieraztearren Asturisen eta Euskal Herri eraldaldunean ere bai behintzat, Ojancano edo Ojarancano dela eta begibakarra izateaz gainera gorpuzkeran Basajaunaren itxura handiagoa du Tartaroarena baino (29). Hori gutxi balitz, Basajaun-basandre bikotea bezala, Kantabrian bada Ojancano-Ojancana bikotea.

Guzti horren arrazoia argia dela iruditzen zaigu: kontaerak bildu ditugunean (historikoki joan den mende amaieratik hasita gaur egun arte) (30) mentalitate zaharra, edo erdaraz esaten den bezala, primitiboa ahulduxea zegoelako da. Horren adibiderik garbiena beharbada Alzola Gerediagak bildu zuen Irunaldeko kontaera da non ziklopea esateko “Malkorrako minazuloko sorgiña” esan baitzioten, hots, hemen nahasmendua bortitzagoa da Tartaroa sorginarekin nahasten baita.

(27) DUNY-PETRE, Pierre: “*Basa Jauna*” le seigneur sauvage, dans les *Légendes Basques*, ez da agertzen editorialerik bestaldekoa da itxura guztien arabera.

(28) Adibideak erruz eman daitezke, esaterako, DUVERT, Michel: “A propos du mythe basque” in *Ikuska* nouvelle collection-année 1994-3èmen trimestre-n.º 7, 98. or.

“Tartaro est Typiquement un ogre et un cyclope, on le confond souvent avec *Basa-jaun*. Il prolonge chez nous l’archétype du polyphème dont Homère se fait l’écho dans “*L’Odyssée*” bien sur ce nom évoque le “tartare”. Ce cycle de récits est souvent associé à la bague mystérieuse donnée à son captif et qui dit: “Hemen nago, hemen nago” (Je suis ici, je suis ici”, de telle sorte que ce dernier ne pouvant la retirer se coupe le doigt, jette le tout dans une rivière où se précipite Tartaro aveuglé, qui y périt. Ce personnage est très voisin de l’ogre; ils habitent nos peurs et nous pouvons nous en débarrasser en le tuant comme n’importe quel mortel dépourvu de jugement”.

(29) GARCIA LOMAS, G. Adriano: *Mitología y supersticiones de Cantabria*, Caja Cantabria, 67-68.

“Segun la tradición montañesa, tenía barbas (Ojancano) con la aspereza de cerdas de jabalí que le llegaban a las rodillas, y que por ir siembre corito (desnudo) le tapaban sus partes pudendas, al par de servirle de verdadero peto; agilísimo como el corzo y resbaladizo como el águila”.

(30) Cercand-enak hartzen baditugu aintzindari ohart bedi 1874 ean hasi zela argitaratzen.

## GREZIAKO MITOLOGIAKO KONTAERA

*Odiseako* IX. kantuko 233-565 (31) pasarteetan kontatzen da nola Ulises bere gizonekin sartu zen harpe batean. Pasarte edertasun handikoa da eta autoren askok itzuli dute bai mitologia hiztegietan (32), eta, baita pasarte horrezaz egin diren azterketetan. Ni neu Cercandek (33) erabili zuen laberpenaz baliatuko naiz.

(31) HOMERO: *Odisea*, Biblioteca clásica Gredos, 48 Jose Manuel Pabón-en itzulpena, 233-244. orrialdeetan agertzen da pasarteak.

(32) GRIMAL, Pierre: *Diccionario de Mitología griega y latina*. Editorial Paidós, 440-441 or. Hona kontaearen muina.

Polifemo Posidon eta Toosa ninfaren semea da, eta Toosa delakoa Forzis-en alaba. Homerok erraldoirik ikaragarriena, basatiena dela dio. Artzaina da eta artaldeak ematen dion esne eta fruetatik bizi da eta harpe bat da bere bizilekua. Sua ezagutu arren haragi gordina jan ohi du. Badazagu ardoa, baina noizean behin edan ohi du eta ez dio ardura moskorren ondorenak. Ezin da esan lagungina ez denik, zeren nahigabeak hartzen duenean beste Ziklopeei hots egiten die baina ez da gauza bere nahigabe edo ondikoaren berri esateko...

Ezaguna da Ulises bere lagunekin batera atzitu izan zenean, guztira hamabi lagun, Ziklopeak bere kobazuloan sartu zuela. Polifemok bere lagunetarikoz zenbait irentsi zituenean Ulisesi agindu zion azkenengo jango zuela honek berekin ekarri zuen ardo gozoa eman ziolako. Gauean ardoaren eraginez Ziklopea harri eta horma lo zegoela, Ulises-ek eta bere lagunek taket eskerga bat zorrotz eta sutan gogortu ondoren erraldoiaren begi bakarrean sartu zuten. Biharamun goizean artaldea larrera ateratzean, grekoek, aharien sabelari oraturik harpeko harratea iragan zuten, non, Ziklopeak itsuturik, kobazulotik ateratzen ziren ahariak azutzen baitzuten. Ulises-ek, libre zegoela, untzia itsasoan zela, oihuka bere berri eman zion Ziklopeari, trufaz. Kontua zen orakuloak lehenago aziatu zuela eroiak Zizlopea itsutuko zuela. Erradoi ikaragarriak, gainatua izan zelako haserrearen, untzia kontra harkaitz handiak jaurti zituen, baina ez zuten ontzirik jo. Hemendik dator Poseidon-en Ulises-en kontrako haserre. Poseidon Ziklopearen aita baitzen.

Ez gara ariko lantxo honetan greziako mitologiako aipamen guztien zerrenda eta zertzeladak ematen, Teocrito-k, Ovidio-k, Euripidis-ek, Hesiodo-k eta abarrek zer dioten.

(33) CERCAND, François: "Légendes et récit populaires du Pays Basque" epigrafean "Légendes du Tartare" in *Bulletin de la société des sciences, lettres et arts de Pau*, 1874-1875 (VIII), 262-263. or.

"Ulysse, errant, aborde dans le pays des Cyclopes avec douze de ses compagnons. Il pénètre dans une caverne dont le maître est absent. Le maître, sur le soir, arrive conduisant un troupeau de moutons, ferme, d'un rocher, l'entrée de sa demeure et vaque à ses occupations. Sa vue seule a terrifié les Grecs. C'est un géant, ayant un seul oeil sur le front. Sa voix retentit comme un tonnerre, sa force paraît invincible. Il aperçoit les étrangers à la lueur du foyer. Il entend sans pitié leurs supplications et en immole deux à sa faim. Il dort bien repu. Le lendemain, il en dévore deux encore, sort avec son troupeau, et clot sa caverne.

Cependant, les Grecs tiennent conseil. Ils aiguisent un pieu d'olivier, en durcissent la pointe au feu. Le Cyclope rentre le soir, dévore dux Grecs. Quand il est repu, Ulysse s'approche de lui et lui offre une outre d'un vin dont l'excellence adoucit son humeur: "Comment t'appelles-tu? dit-il à Ulysse. Personne est mon nom-Personne! je te mangerai le dernier; tel sera mon don d'hospitalité". Sur cette plaisanterie, il s'endort dans l'ivresse.

Alors, les Grecs font rougir au feu le pieu d'olivier et l'enfocent dans l'oeil du Cyclope endormi. Il se relève en poussant des cris affreux. Les Cyclopes voisins accourent: «Qui t'a fait du mal?-Personne.-Supporte donc ton mal en patience». Ils s'en retournent là-dessus.

Polypheme, déçu, s'assied à l'entrée de sa caverne et se dispose à faire sortir son troupeau en retenant les Grecs prisonniers. Mais Ulysse a attaché chacun d'eux sous un bélier flanqué de deux autres. Lui-même se suspend à la toison du chef du troupeau. Tous se'échappent ainsi et

Ulises batetik bestera itsasoz itsaso untzian dabilela, lehorrera jaitsi da, Ziklopeen lurrera, bere hamabi lagunekin. Ugazabarik ez dagoen harpe batera sartu da. Ugazaba, arratsean, artalde batekin sartu da delako harpera, eta harritzar batez hartu du sarrera eta bere eginkizunetara lotuko da. Ugazaba ikuste hutsak lastu ditu Grekoak: Erraldoi bat da, bekokian begi bakarra duena. Boza ostotsa bezain beldurgarria da, eta haren indarra ikaragarria da. Erraldoiak suntuoan ikusiko ditu atzerritarrak. Erruki gabe entzungo ditu haien erreguak eta bi gizon irentsiko ditu bere gosearen asegarri. Harri eta horma egiten du lo. Biharamunean beste bi gehiago irentsiko ditu, bere artaldearekin aterako da eta kobazuloa harritzar batez hertsiz.

Bitartean, Grekoek zerbait egin beharra dute, olibondo taket edo enbor bat zorrotzu, eta sutan gogortu dute. Ziklopea gauean harpean sartu eta beste bi gizon irentsi ditu. Asebate denean Ulises gerturatu eta zahagi bat ardo gozoa eskaini dio eta umore ondu denean erraldoiak diotso:

—“Zer izen duzu?”

—“*Inor ere ez da nire izena*”-Ulises-ek erantzun.

—“*Inor ere ez!* zu jango zaituz azkenengo, hori izango da zukanako harrrera ona.”

Hitz hauek esan ondoren erraldoia, hordirik, lo zerraldo gelditu da.

Orduan, Grekoek olibondo taketa sutan goritu eta Ziklope lokartuaren begi bakarrean sartu dute. Garrasi ikaragarriak eginez altxatu da erraldoia eta auzoko Ziklopeek lagun egitera etorri zaizkio:

—“Nork egin dik min?”

—“Inork ere ez!”

—“Orduan leher hadi heure minean!”

Eta atzera etorri diren bidetik doaz Ziklopeak.

Polifemo, etsiak harturik, harpeko harratean eseri eta bere aharitaldea atera nahi du Grekoak gatibu hartu nahirik. Baina Ulises-ek bere lagunetariko bakoitza ahari baten sabelari oratuta beste bi ahari alboan dituela atera erazi ditu. Ulises-ek bere burua aharitaldeko buru den aharitzarraren sabelpean lotu du. Modu horretan denek ihes egin dute eta untzira joan dira ahari batzuekin. Itsa-

---

regant leur navire avec une partie des moutons. Une fois en sureté, Ulysse appelle Polyphème, lui reproche sa barbarie envers des suppliants. Le géant, irrité, jette vers lui un rocher qui, dépassant le but, ramène le navire au revage. Ulysse recommence ses outrages: «Si l'on te demande qui t'a aveuglé, tu répondras que c'est Ulysse, le fils de Laërte, qui demeure dans Ithaque». Polyphème passe de la violence aux caresses: «Reviens, fils de Laërte, pour que je te fasse les présents d'hospitalité. Poseidon, mon père, t'accordera, à ma prière, un hereux retour». Mais Ulysse le repousse avec dédain: «Poseidon, ton père, ne te rendra pas la vue». Le géant derécine une montagne, la jette dans la mer, et le flot pousse Ulysse loin de la cote inhospitalière”.

soan behin libre daudela Ulises-ek Polifemori honen harrera txar eta esker gaiztoa aurpegiratu dizkio. Erraldoiak, haserrearen, harriztar bat jaurti eta untzia lehorrera hurbil arazi du. Ulises-ek orduan Polifemo laidoztatuko du:

—“Inork galdetzen badik nork itsutu hauen, hik erantzungo diok Ulises dela, Laërte-ren semea, Itakan bizi dena”. Polifemo-k orduan indarkeriatik lausengura pasatuko da:

—“Zatoz, Laërte-ren semea, hospitalitateak agintzen duen harrera, jera eta abegi ona egin diezazudan. Poseidon-ek, ene aitak, lagunduko dizu neure errezuz zeure itzuleran.”

Baina Ulises-ek erantzungo dio destainez:

—“Poseidon-ek, zeure aitak, ez zaitu argituko.”

Erraldoiak, mendi bat erroitik aterarik itsasora egozten du, eta uhinek Ulises-en untzia urren eragiko du eskergaiztoko itsasertzetik.

\* \* \*

Odiseako pasarte hau era askotara laburbil daiteke, baina atal inportanteenak harturik honela laburbil daiteke Cercand-en erara:

1. Ziklopearen bizilekua harpea da.
2. Ziklopea beti da erraldoia.
3. Begibakarra da Ziklopea.
4. Gizajalea da esaunda guztietan, gerrenean sartu eta jaten ditu gizonak.
5. Eroia gizon bat da.
6. Eroiak lagunak ditu.
7. Eroia lagunak banaka-banaka jaten ditu erraldoiak.
8. Erraldoia itsutu egiten du eroiak.
9. Eroiak ihes egiten du ardilaru batez babesturik.

Eskema honen arabera aztertzen ditu Cercand-ek berak biltzen dituen Tartaroaren lau aldaera eta mundu osoko beste hamar. Cercand-ek egindako azterketa jakingarriaz gain Van Gennep-ek (34) eta Hackman-ek (35) egindako eskemak hartu dituzte oinarritzat. Euskal Herriko zenbait ikertzailek ere. Esan

(34) VAN GENNEP, Arnold: *Religions, mœurs et légendes*, Paris, Mercure 1933, 3. edizioa.

(35) HACKMAN, Oscar: *Die Polyphemsage in der Volksüberlieferung*, Helsingfors, Akadem. Abhandl., 1904.

Liburu honetan egileak 221 esaunda aztertzen ditu, esan dugunez Cercand eta W. Webster-enak ere bai.

dezagun, bidenabar, Van Gennep-ek oinarritzat hartu zuela bere lanean Hackman-en lana, eta bi hauek euskal esaundak ere aztertu zituztela, Cercand eta W. Webster-enak, hain zuzen, itzulpenez hornituak zirelako. Euskal ikerlarien artean beharrezkoak dira Julio Caro Barojaren bi lan (36), Maria Teresa Navarro-rena (37) eta Jose Ignacio García Armendáriz (38). Caro Barojak Homero-ren pasartearen laburpena Hackman eta Van Gennep-en arauera honelaxe egiten du:

- A) Ziklopea.
- B) Munstro gizajalea.
- C) Hordikeria.
- D) Sasizena.
- E) Jokutria.
- F) Ziklopeak ahariari egiten dion berba erauntsia.
- G) Biraoak eta araoak.

Behin eskema hau egin ondoren hiru multzo desberdintzen ditu:

1. Digantea itsutu egiten du eroiak, baina ez da agertzen sasizena (*outis* edo inor(k) ez).
2. Sasizenaren aldaera (*Nik neuri* gehienetan).
3. Aldaera finlando-letho-estonioak.

Talde hauen arabera euskal kontraerak lehen taldekoak dira, sei aldaera biltzen ditu (78-83 zenbakidunak) eta bigarren taldean lau (162-165 zenbakidunak).

Zer gertatzen da euskal kontraeretan? Denok dakigunez digantea ez da inoiz horditzen heroiak ardorik eskaintzen ez diolako eta ez dago sasizenik heroi itsutzailaren aldetik. Euskal kontraera guztietan jokutria zertxobait aldatu egiten da: heroiak aharitzar baten sabelari bere burua oratu beharrean ardilarru bat gainean duela egiten du ihes. Baina badago kontraera klasikoan ez dagoen beste zerbait: behin heroiak kobazulotik kanpora dagoela diganteak eraztun hiztun bat ematen dio eta heroiak, biziko bada, atzamarra moztu beharko du. Behin atzamarra moztu ondoren heroiak itsasora edo osin handi batera jaurti eta bertan

---

(36) CARO BAROJA, Julio: *Algunos mitos españoles*, Madrid, ed. del Centro, 1974, hirugarren edizioa 85-92. or. eta *Mitos vascos y mitos sobre los vascos*, editorial Txertoa, San Sebastian delakoan "sobre el cíclope", 67-75. or.

(37) NAVARRO SALAZAR, M.T.: "Dos versiones del mito de Polifemo: Roncal y Pisa" in *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, Año XIV, n.º 39, 1982, 421-446. or.

(38) GARCIA ARMENDARIZ, J.I.: "Cíclopes y ojancos" in *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, Año 45, 1985, 95-110. or.

hilko da erraldoia. Bi ezaugarri hauek garrantzi handikoak dira: sasizena eta eraztuna. Azter ditzagun astirozki.

## SASIZENA ETA ERAZTUNA

Esan dugu sasizena ez dela inoiz ematen Tartarodun kontraeretan, hau da, Ulises eta Polifemo-ren kontraeran beharrezkoa zena ez da ematen gure kontraera digante gizajalea dutenetan. Noiz agertzen da orduan? Lamina gurinzale edo koipezalea duten ipuinetan. Argudioa bi hitzetan laburbil daiteke:

*Emakume bat egon ohi da sutondoan beranduan goruetan, eta gauero-gauero lamia bat tximinian behera jaitsi eta koipea edo gurina eskatzen dio. Emakumeak, beldurrarren, eskatutakoa emango dio, harik eta senarrari zer gertatzen zaion kontatu arte. Senarra emakumearen lekuan jartzen da, eta betiko lamia konturatu egiten da gorularia ez dela betikoa, eta zer izen duen galdetuko dio. Gorulari berriak "nik neuri" erantzutean sutan daukan koipe beroa jaurtiko dio aurpegira. Lamia erre (edo itsutua) etxetik ateratzean nork egin dion galdetuko diote lamia lagunek eta berak "nik neuri" erantzun. Orduan besteek ez diote jaramonik egingo.*

\* \* \*

Honen arrazoia, goian hartutako hariari jarraituz, Caro Baroja-ren ustez argia da: Euskal Herrian jentilak Tartaroarekin nahasten dugu. Ohart bedi, esaterako, Bizkaiko kontraeretan Tartaroaren izenetako bat *jentila* dela huts hutsik. Eta, era berean, laminak ere Tartaroarekin nahasten ditugu.

Analogia honetaz aspaldidanik ohartu ziren euskal ikertzaileak eta Cercand-ek zioenez lamia itsutu edo erreten kontraerak digante gizajalearen aldaerak baino ez dira, honatx berdintasunok:

- a) Lamia: izaki sobrenatural bat da, koipezalea edo jatun handia.
- b) Gizona: Indar gutxiagoko baina buru argiagokoa da.
- c) Itsutzea edo erretzea ustekabean gertatzen da. Izipirituak indarra azpiratzen du.

Baina galdera nagusia hau litzateke: Nola banatu da gizajale engainatuaren kontraera bi kontraera hain desberdinetan? Cercand-ek prest du erantzuna, erraldoi gizajalea, denboraren joanean, karikatuzatzen egiten da lamia ttipi, koipezale bihurtzeraino eta heroia —guk uste dugunez— etxeko jaun xume bat bihurtzeraino.

Guzti honen kontrara, badago kontaera bat non Jentil eta artzain bat ageritzen diren. Artzainak jentila engainatzen du eta sasizena darabil, hots, *nik neuri*. Kontaera hau Odisea liburuan agertzen denetik hurbilago legoke (39).

Izentzat “*nik neuri*” delakoa erabiltzea Espainiako lur eremuan bakarrik euskal kontaeretan erabiltzen da, nahiz eta Eskozian ezaguna izan Thompson-en K602 motiboa da zehazki (40).

Eraztun hitzunari dagokionez motibo oso ezaguna da D1610.8, edo D1612.2.1, eraztunak ihesleari esan erazten dio ohiuka “hemen nago”, H160.1, mutilazioa, hots, atzamarra ebakitzea (41).

## EUSKAL KONTAERAREN OINARRIAZ

Begien bistakoa da euskal ziklope begibakarrak eta Greziako Polifemo delakoak antzekotasun handiak dituztela. Antzekotasun horrezaz euskal lehen ikertzaileak ohartu ziren, eta hainbat galderari erantzuna eman nahi izan zioten, esaterako, euskaldunok Greziatik hartu ote dugu mitoa edo alderantziz Greziarrek euskaldunengandik hartu ote dute? Euskaldunek zein greziarrek lehenagotik zegoen sustratu komun batetik hartu ote zuten? Zeintzuk dira euskal zikloparen eta Greziakoaren berdintasunak eta desberdintasunak?

Zenbait autorentzat ez dago inolako zalantzarik, esaterako, Xabier Azurmendik dio euskaldunak Erromako armadan egon zirenez gero, handik ekarriko zutela kontaera (42). Beste zenbaitek, Reicher-ek (43), kasurako, ez daki eus-

(39) ARRATIBEL, Jose: *Kontu zaarrak*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1980, 155-156. or.

(40) CAMARENA LAUCIRICA, Julio: “Las peculiaridades de la cuentística” in *Euskera-XXXVII* (2.aldia), 414. or.

“Un último texto que podría mover a equívoco es el titulado “Gentile ta artzaia”, en el que un pastor usa de un nombre equívoco antes de agredir a un ser perteneciente a una raza mítica, treta ésta que forma parte de varios tipos de cuentos. Pero no es ninguno de ellos el que le cuadra: el relato, del que en España parece que sólo se conoce versiones vascas, es exactamente el motivo Thompson K602. (Niña) hada lesionada por un hombre que dice que su nombre es “Yo mismo” de contenido claramente mitológico que, según el folklorista, también es conocido en Escocia”.

(41) Zehaztasun hauek gorago aipatu artikulutik hartuak dira. Hona Camarenen ematen diuen zehaztasun gehiago (94) oharrean:

“Véase JOHANES BOLTE und GEORG POLIVKA: *Anmerkungen zu den Kinder-und Hausmärchen der Brüder Grimm*, 5 vols. (Leipzig: Dieterich'sche Verlagsbuchhandlung, 1913-1932), III, p. 372. Posteriormente, en cuanto el espacio italiano, el motivo figura en una versión toscana que fue catalogada como tipo D'ARONCO 1139, 5(d) y los motivos 3-5 del tipo 953 (versión literaria CALVINO: *Op. cit.* a la fiaba 115, es común a las versiones abruzas y también a una pisana. De acuerdo con LO NIGRO, el elemento del anillo mágico ya se halla en el Dolopathos de JOHANNES DE ALTA SILVA, del siglo XII, donde un ladrón salva a sus tres hijos de la muerte narrando a su reina tres historias, una de las cuales es la leyenda del gigante cegado”.

(42) AZURMENDI, Xabier: “Zegamako kontuk” in *Egan*, 1993-1, 154. or.

“Edonork ipuin hauen iturria Odisean aurkitu lezake.



kaldunek atzerritarrengandik edo atzerritarrek euskaldunengandik hartu ote duten. Gaur egun uste izateko da mundu osoan barraiatua den kontaera honen oinarriak non dauden zail dela asmatzen. Beharbada ahaleginik sendoena, edo kontuan hartzekoena, Hackman-ena dateke, zeinek uste baitzuen Grezian edo Asia Menor delakoan sortu zela eta gerora Europa osora barreiatu zela.

## TARTAROAREN ITSUTZAILEAREN EZAUGARRIAK

Tartaroen esaundetan gatibu hartutako batek itsutu ohi du ilenti suzko edo gerren batez Tartaroa bera. Ulisesez olibondo taket batez itsutu ohi du Polifemo. Kontua da, ez dagoela euskal kontaeretan heroiairen ezaugarri finkorik, kontaera batetik bestera aldatzen baitira heroiairen ezaugarriak.

Bizkaiko tradizioan Tartaroari jentila huts hutsik esaten zaio eta itsutzaileari Perutxu edo pastore bat (44), hau da, modu zehazkabea. Markinako tradizioan, esaterako bi jentil modu ezagutu ziren bata ona, hots, Eulizki, eta beste bat gaiztoa, Alarabie, artikulatu eta guzti. Bigarren hau Tartaroaren ordain bera da, hau da, kozabuzuloan bizi den artzain gizajale bat.

Barandiaranek bildutakoan Antimuño (45) da Torto itsutzen duena. Xabier Azurmendik bildutako esaundetan jentilaren itsutzailera feriano bat da ta Tartaroaren izena gizon handi (46).

---

Polifemoren ipuina dugu noski Bi Ferianoena, Homero handiak Odisearen IXgarren kantuan ain egoki abestu ziguna.

Homeroren ipuinak nola iritxi ziren Zegamako mendietara?

Zalantzik gabe Erromako armadatik.

Erromako armadan gure arbasoek partaidea izan genituen”.

“Ya en el Imperio hay grupos de vascos que militan, en calidad de tropas auxiliares, en el ejército romano: quedan noticias, por ejemplo, de una ‘Cohors O goda Vardullorum civium romanorum equitata milliaria’ que permanece acuartelada en □ Escocia, en el mismo peligroso limes durante casi ciento cincuenta años”. (*Guipúzcoa en la Edad Antigua*, 19. or.). BARANDIARAN, Ignacio-ren aipua.

(43) REICHER, Gil G.: *Les Légendes Basques dans la tradition humaine*, Librairie d’Amérique et d’Orient, 1946, 56-57. or.

“A l’aide des caravaniers qui venaient, bien avant l’ère chrétienne, chercher en Euskarie l’ambre, l’or et l’argent? Peut-être est-ce contraire. Ces caravaniers auraient-ils pris en Euskarie cette légende pour la transporter dans le monde méditerranéen? Je ne pense guère car on ne sent pas dans cette histoire vibrer l’âme de la race basque”.

(44) Juan Manuel Etxebarriak bildutako esaundetan jentilaren itsutzailera Orozkoko pastore bat da 15.3, batean, bestean Perutxu 19.9, eta, hirugarren batean Ameriketako jentile itsutzen duena pastore tuerto bat 25.12. Ohartzekoa da Alfonso Irigoyenek Aulestin bildu duen esaunda batean ere jentila itsutzen duena Perutxu dela.

(45) Antimuño biltzaileak berak zehazten duenez Zegamako baserri bat da eta handikoak dira protagonistak. Nolabait leku-izena pertsonaia izena da, Tartaro leku-izena digante izen bihurtzen den bezala.

(46) AZURMENDI, Xabier: “Zegamako kontuk” in *Egan* 1993-1, 151. or.

Zuberoako aldaera batean haur ipuinen tankera hartzen du kontaerak. Bi haur etxeko ogia jatez aspertuta, munduz mundu doaz. Halako batean Tartaroak harrapatu eta bat jaten du. Lotan dagoela beste haurrak Tartalo itsutu egiten du gori dagoen gerren batez.

Cercand-en kasuan 52 (*Le Tartare et les deux soldats*) heroia soldadu bat da. 53 (*Le tartare aveuglé*) kristau bat da heroia. Ohargarria da kasu honetan Tartaroak ikusten duenean kristaua pozez gainezka jartzen da kristaukia (khiristiquia) jango duelako, 54 (*Le Tartare et l'enfant*) haurtto bat da heroia. 55 (*Le Tartare et Petit-homme*) zortzi haurretan gazteena *guiçon-itipi* da heroia. Cercand-en kontaera guzti hauetan ohargarriena da Tartaroa dirudienez kristauen kontrakoa dela, edo kristauak jatea maite du, beraz badago oposizio argi bat kristau/ez kristau, nahiz eta Bizkaiko kontaeretan ez bezala, jentil hitza inoiz ez erabili.

Ohartzekoa dateke kobazulora edo Tartaroaren etxera, heroiarekin batera lagun gehiago ere sartzen direla, esaterako, bi (52), bakarra (53), bakarra (54), zortzi (55).

## TARTAROA, BIZILEKUA, LAGUNTZAILEA

Ezaugarririk behinena erraldoia edo digantea izatea da. Esan beharra dugu euskal esaundetan agertzen diren mito, numen eta pertsonaiek ez dutela kontatzaile edo informantearen aldetik halako deskripzio gehiegizkorik. Deskripziorik handiena Cercand-ek damaiguna da 53 (*Le Tartare aveuglé*):

*Tartaroua çuçon guiçon handi bat beçala; begui bat baicic etciçon eta houra borontiaeren erdian. Indar handi bat baciçon eta etcioçon jatecouetan deusera khiristiquia, beçain hounic. Hen urrina senditcen çiçon hurruntic eta atçamayteco cer nahi eguiten. Bortin çiçon bere egonguya, oyhan handi baten bazterrin.*

Digante honek duen bereizkarririk nabarmenena bekokiaren erdian begi bakarra izatea da, horrexegatik Tartaroaren beste izen bat aski ezaguna *begi-bak(h)arra* da. Badira beste ezaugarri batzuk, baina beti ematen ez direnak, esaterako, bata artzaina izatea da, bestea gizon jale edo jatailea (47), hirugarren bat ergela izatea, eta abar. Begi bakarra izateak izaki beldurgarri baten aurrean jartzen gaitu, badago beste izaki erraldoi bat urteak egun beste begi dituen (48) eta begi-bakarra zein begi askokoa izatea biak dira era berean beldurgarri.

(47) Gizon jatailea izatea Markinako esaundan agertzen da, ohart bedi aurrerago jarri dugun Rollo-k bilduriko esaundaren izenburuan "Alarabic, gigantian edo gison-jatallian ipuñe" Olen.

(48) Olentzaroz ari gara dudarik gabe. Orixek honela deskribatu zuen:

"Begi-gorri ba dator Aiton Olentzero/urteak egun ainbat begi ta bat geiago;/gurdia aiñeko sabel, arpegi dana ago.../Nondik nora sortu zan jakin bage nago". *Euskaldunak* poema Zarautz'en 1950, 186. or.

Tartaroaren bizilekuaz harrigarria badirudi ere gehienetan ez da bizi harpe batean etxe batean baizik, hala dator Cercand (52), (53) (54) (55), nahiz eta etxe hori oihanaren bazterrean egon. Ez dakit euskal kontaeren ezaugarri berezia den, baina Tartaroa ez da bakarrik bizi. Cercand-en arabera emaztea izan dezake (53), edo neskatoa (55).

## TARTAROA GIZAJALEA EZ DENEAN

Orain arte geure lantxo honetan egin dugun Tartaroaren lotura Odisea-ko pasarte ezaguna nolabait oinarri harturik egin dugu, eta horri eskeini diogu aha-legendik bereziena. Hala eta guztiz ere euskal kontaera bildumatan dauden Tartarodun kontaera asko ez dira Polifemo eta Ulisesen gertaera famatua berritzen dutenak. Esan dezakegu digante generiko baten zakuan hainbat eta hainbat kontaera desberdin sartzen direla. Maiztasunari bagagozkio, lehen lekuan legoke (Polifemo-Ulises) berritzen duten saila, baina bigarren lekuan aurreko sailarekin inondik inorako zerikusia ez duen beste sail bat legoke. Bigarren sail honetako kontaerak askozaz luzeagoak eta trinkoagoak dira gertaeren hariari dagokionez. Hitz bitan laburbiltzekotan, hona ahalegintxo bat:

*Senar-emazte batzuek bi edo hiru seme dituzte. Lehena etxetik doa mundua korritzera eta nagusi baten morroi jarriko da. Agintzen dizkion lanak egiten ez baditu larrutik pagatuko du. Lan zailak dira: a) basora joan eta gurdi bete egur oker ekartzea, b)jura edatea botilatik buxona kendu gabe, eta abar. Morroiak ezin lortuko du eta bizkarreko larru pusketa bat galdu eta etxera joango da. Etxeratzean bigarrena edo hirugarrena (betiere anaietatik azkena) nagusi beraren morroi jartzen da eta lan guztiak ondo egingo ditu. Nagusi honek ezin burutu duenean morroi azkar honekin beste nagusi krudelago eta ikaragarriago batengana bidaliko du: Tartaroarengana. Bidean doala hiru andrearekin egiten du topo eta hiru andre hauek zerbait emango diote eta gero hiru launtzaile horien bitartez Tartaroa bera menderatuko du.*

Haurrentzat zaki beldurgarria dela barregarria edo baino gehiago argi ikusten dugu Pio Barojaren pasarte honetan:

“También nos hablaban en Nochebuena de Onentzaro, gigante con los ojos encarnados, con un pez en la mano, a quien se le decía:

—Onentzaro, begui gorri,

nun arrapatudec array ori?

—Bart arratzian amaiquetan,

Zurriyolaco arroquetan.

(Onentzaro, el de los ojos encarnados, ¿dónde cogiste ese pez? Ayer noche, a las once, en las rocas de Zurriola.)

La criada de casa nos decía también que a los chicos sucios, que no se lavaban ni se peinaban y llegaban a tener piojos, los llevaban a la playa de Zurriola, les hacían una cuerda con el pelo, y Onentzaro los arrastraba por la arena al interior del mar”. BAROJA, Pío: *Memorias*, Ediciones Minotauro, Madrid, 1955, 28. or.

Orain arte ikusitakoaren arabera kontaera hau besterik da, ipuin miresgarri bat da bete betean. Ipuin hori Aarne-Thomson-en katalogoaren arabera, Aa-Th 1000 da eta hainbat aldaera daude Euskal Herrian (49). Tankera honetako ipuinak Cercand-engandik hasi eta gaur eguneko bilketarik oraintsukoenera ditugu. Cercand-en ipuina 60 (*Le méchant et le valet avisé*) dugu. Tankera honetako da baita ere Arratibelenaz gainera, Darricarrere-ren beste bat (50). Harrigarrietako bat Juan Manuel Etxebarriaren “Jentila eta Perutxo dugu” (51), kontaera berean (Polifemo-Ulises) 1137 (Erraldoi itsutua, Polifemo) eta puntu honetan aztertzen ari garen (1000) beraz bi tiporen gehitze bat izango litzateke. Badira beste ipuin miresgarri gehiago ere Tartarora agertzen direnak bat bakarrik esateko 328 tipo garbia Webster-en “Tartaro eta Petit-Perroquet” dugu.

## LABURPEN ETA ONDORIO GISA

Gure lantxo honetan (Polifemo-Ulises) Odisea-ko kontaera ezagunaren euskal ahozko ordainak aztertu nahi izan ditugu. Ahozko ordainotan gehienetan Tartarora dugu protagonista, baina ezaugarri berezi batzuekin. Zeintzuk izan diren ezaugarri bereziok eta euskal kontaeren *corpus* bat aurreratu nahi izan dugu. Meheago irun daiteke eta adibide gehiago eman daitezke bai argitaratutakoetan (guk geure uste apalean gehientsuenak esanak daude) eta baita argitaragabeetan ere. Argitaragabeak eginkizun den lan baterako utziko ditugu, sarreran esan dugun bezala. Azkenik esan behar dugu Tartaroren inguruan kontaera oso desberdinak biltzen direla, nahiz eta sail ugariena (Polifemo-Ulises) gertaerei egokitu. Gainerakoen berri emango dugu hurrengo bateko lanean. Azken puntuan oso bestelako argudioak bilbatzen direnez Tartaroren inguruan

---

(49) Hona Julio CAMARENA-k aipatu artikuluan dioena, 446. or.: “Pero dejemos más adelante las particularidades. Continuando con la idea de la universalidad. Se trata del cuento “Morroi Azkar bat” (Arratibelena, que se desarrolla añadiendo secuencias al tipo Aa-Th 1000, “Contrato de no enfadarse”, cuento en el que un amo y su criado acuerdan una relación laboral durante un año y, a cambio, como pago, el que se enfada ha dejarse arrancar por el otro una tira de piel del lomo. Al tipo, que goza de amplísima difusión, se van uniendo sucesivamente otros según las diversas tretas que uno y otro se gastan. Pues bien; uno de los episodios de la versión que comentamos es aquél en el que el dueño de la finca manda a su criado meter bueyes, carreta y carga por el agujero de la puerta reservado a las gallinas. El pícaro criado cumple tan extravagante tarea cogiendo un hacha y despedazando los bueyes, haciendo añicos la carreta y partiendo la carga. Este pasaje, que reúne por sí solo las condiciones de potencial autonomía suficientes como para constituir un tipo diferenciado, ya fue detectado por Pujol en tres versiones catalanas, a raíz de lo cual propuso la incorporación de un nuevo número-índice al catálogo general. En este nuevo tipo tendrían cabida no sólo las secuencias que comentamos del cuento vasco, sino también las correspondientes a otros dos precedentes de zonas muy próximas: la cántabra y la asturiana”.

(50) DARRICARRERE, J.B.: “Eresiak eta hipuinak nausi lan-gosea eta bere mutileri bizkarreko larruaren khentzailea” in *RIEV*, 1907, I, 320-323. or.

(51) Aipatutako lana ETXEBARRIA, Juan Manuel: *Gorbeia inguruko etno-ipuin eta esaundak*, Labayru ikastegia, 1995, 190-195. or.

esan behar dugu euskal ahozko kondagintzaren ezaugarririk nabarmenenetako bat dela izaki mitikoei ipuin argudioak eranstea (52).

## EUSKAL HERRIKO TARTARODUN KONTAEREN CORPUSA (Hurbilpen bat)

### Euskarazkoak

#### 1. BIZKAIEUSKARAZ

ROLLO, William: *The Basque dialect of Marquina*, Amsterdam: H.J. Paris, 1925.

Batez ere d) Alarabie, gigantien eta gison-jatallian ipuñe.e) “Eulisk” gigantie.

ETXEBARRIA, Juan Manuel: *Gorbeia inguruko etno-ipuin eta esaundak*, Larratz ahozko literaturaren bilduma-2. Labayru Ikastegia, 1995.

“Jentilla eta Perutxu”, 190-195. or.

“Jentilla: Ameriketako pastore tuerto indartsua”, 224-225. or.

Bi narrazio erraldoidun hauezaz landa badira hainbat narrazio jentildunak.

GANDIAGA, Bitoriano: “Arantzazuko folklore gaien biltzeaz” in *Euskera-I*, 1956, 206-231. or.

Badago Tartaloaren gaineko kontaeratxo txiki bezain berezia, 229. or.

#### 2. GIPUTZEUSKARAZ

AZKUE, Resurrección María: *Euskalerraren Yakintza*, II. liburukia, Euskaltzaindia eta Espasa-Calpe. “Tartalo”, 335-336. or. eta Luzaideko aldaera bat “Lamina bat eta Homeroren Kyklops (ciclope)”, 214-217. or.

ARRATIBEL, Jose: *Kontu zaarrak*, Editorial la Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1980, “Gentille eta artzaia”, 155-156. or.

Hemen ez da agertzen erraldoi gizajalerik baina agertzen den artzainak,

(52) Honen berri argia ematen du Camarenak aipatu artikuluan, 430 or.:

“En fin, “jentillak”, “Herensugue”, la personificación de la noche (“Gaueko”), el “basajaun”, el “Tartalo” y, si se hubiera continuado un repaso de argumentos compartidos, las “lamiñak” “sorguñak” “galtxagorriak”, ..., es decir, gran parte del universo mítico antiguo vasco ha desfilado por este trabajo, poniendo en relieve dos hechos dignos de ser resaltados: por una parte, la proliferación de indicios que señalan una tendencia comparativamente intensa de la tradición oral vasca a atribuir argumentos cuentísticos a antes de su propia mitología y, por otra, la coexistencia a nivel de comunidad, en sentido amplio, de dos desarrollos, ficticio el uno, el otro verídico, de un mismo modelo compositivo e, incluso, en algunos casos, de un mismo argumento”.

Ulises-ek, Polifemo-ri bezalatsu bere izena *inor* esan beharrean *neuk neuri* diotsu.

BARANDIARAN, Jose Miguel: "Tartalo" in *Obras Completas*, Tomo II, "El gentil de Muskia" "Mutrikon bildutako kontaera bat", 27-29. or.

AZURMENDI, Xabier: "Zegamako'kontuk'" in *Egan* 1993-I, 151-188. or.

Hasierakoak dira garrantzizkoenak:

"Bi feriano" da guri dagokigun erraldoi gizajalearen istorioa. Baina badira Tartalo pertsonaiatzat hartzen duten beste kotakizun batzu ere:

"Jentilak", "Garagartzako Jentilak", "Urtzulaitako txoria" "Tartaloren idi-para" "Jentila", "Sadargo jentila", 151-154. or. bitartean.

### 3. LAPURTARREZ

DARRICARRERE, J.B.: "Nausi lan-gosea eta bere mutileri bizkarreko larrua-  
ren khentzailea" in *RIEV*, 1907, I, 320-323. or.

WEBSTER, Wendworth: *Ipuinak-1* eta *Ipuinak-2*, Xipri Arbelbideren edizioa, Klasikoak Euskal editoreen elkarte 56. eta 57. zenbakiak. Ipuin hauek lehenago joan den mendean ingelesezko itzulpen batean agertu ziren *Basque legends* eta bi edizio izan zituen. 1877 eta 1879an. Ingelesetik egindako erdarazko itzulpen bat ere badago, *Leyendas vascas*, Miraguano ediciones, Madrid, 1989. Merezki du ingeles itzulpena zein erdarazkoa ipuinez gainera azterketa sakonak ere agertzen direlako.

Guri dagokigun gaiean kontakizun hauek agertzen dira interesgarri: *Ipuinak-1*ean "Tartarua", 3-5. or. "Tartaro eta Petit Perroquet", 123-129. or. eta *Ipuinak-2*ean, "Tartaro", 35-41. or. eta "Tartaro", 145-201. or.

CERCAND, Jean François: "Legendes et récits populaires du Pays Basque" in *Bulletin de la société des sciences, lettres et arts de Pau*.

Zenbaki hauetan daude euskal narrazioak frantses itzulpen eta azterketekin 1874-1875 (VIII), 233-289. or., 1875-1876 (IX), 183-260. or., 1876-1877 (X), 450-531. or., 1881-1882 (XV), 101-204. or.

Lau kontakizun tartarodun agertzen ditu Cercand-ek eta azterketa go-goangarria ere bai. Azterketa eta kontaeren itzulpena 1876-1877 (X), 450-475. or. Eta euskal testua 500-510. or.: 52 "Le tartare aveugle"; 53 "Le tartare aveuglé"; 54 "Le tartare enfant"; 55 "Le tartare et le petit-homme"; eta Tartaroaren esaundarekin zerikusia duen laminadun kontaerak: 56 "La Lamigna aveuglée"; 57 "La Lamigna aveuglée"; 58 "La lamigna aveuglée"; 59 "La lamigna aveuglée".

Esan beharra dugu Cercand-ek Iparralde osoko kontaerak hartzen dituela, edo beharbada zehatzago, hitz eginez Zuberoakoak ditu ugarien.

BARANDIARAN, Jose Migel: "Bosquejo etnográfico de Sara" in *Obras Completas*, Volumen VI, 89. or. Tartaroduna da baina hemen ez da gizajalea.

DUVOISIN, Jean: *Baigorriko zazpi-liliak*, Juan San Martin-ek prestatutako edizioa, Elkar argitaldaria, 39-49. or.

Tartaroaren eta Birtartaroaren errekreazio literarioa da. Lehen narrazioan Tartaroa begibakarra da eta Ganetxiki hendaiarrak habaila batez Tartaroa itsutzen du. Dabid eta Goliat-en kontaeraren ordaina da. Bigarren narrazioan Birtartaroa Margarita delako neska eder batez maitemintzen da, baina honek ezezko borobila ematen dio. Birtartaroa mendian bera erortzen den harritzar batek hiltzen du.

#### 4. BEHENAFARTARREZ

BARBIER, Jean: *Légendes du Pays Basque d'après la tradition; texte français et texte basque*. Illustrations de P. Tillac, Paris Delagrave, 1931.

Testuak ikutuxeak dira. guri dagokigun gaiean lehenago argitaraturik zuen kontaera bera agertzen digu:

“Ichtorio-Michterio, Tartaroa”, *Gure Herria*, 1921, I, 181-184. or.

Kontaera honen akabuan beste era batera ere kontatzen dela dio, baina laburpentxo bano ez du ematen.

#### 5. ZUBEROTARREZ

CASENAVE-HARIGILE, Jean: “Mitologia y Magia” in *Ikuska* nouvelle collection-année 1994, n.º 8, 63-67. or.

Tartaroren kontaera tiki bat dakar 73-74. or. Tartaroren itsutzaileak haur ttipi bi dira.

ALVAREZ EMPARANTZA, Jose Luis “Txillardegi”: “Zubererazko transkribaketa bat”. *FLV*, año XII, 1980, 27-37. or.

Badago Basajaunaren gaineko kontaera bat. Basajaun honek Tartarok bezala begi bakarra du bekokiaren erdian.

#### ERDARAZKOAK

(Euskal Herri euskaldun zein erdaldunean bilduak baina erdaraz argitaratuak)

SATRUSTEGI, J.M.: *Mitos y creencias*, Sendoa argitaldaria. Hirugarren edizioa, 152-156. or.

Oso bersio ona eta aberatsa da agertzen dena eta, dirudienez, euskaratik erdarara itzulita dago. Euskal bersioa Pio Berasategi zegamarrak emana da eta tamala da euskaldunontzat euskal aldaera jatorrizkoa argitara gabe egotea.

ESTORNES LASA, Bernardo: *Cuentos roncaleses, poemas y otras cosas navarras*, San Sebastián, Auñamendi, 1980, 112-115. or.

Erdaraz emana da, baina idazleak euskaraz entzun omen zion bere amonari. Agertzen dira, hala ere, hitz eta esaldi batzuk euskaraz, baina, gehiena, erdaraz emana dagoenez gero, sail honetan sartu dugu.

GARCIA ARMENDARIZ, Jose Ignacio: "Cíclopes y ojancos", *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, año XVII, n.º 45, 1985.

Nafarroa erdaldunean, Mendabian, bildutako aldaera polit-berezia dakar.

ALZOLA GUEREDIAGA, Nicolas: "Valetin Berriochoa, F.S.O.": "Temas mitológicos en la literatura oral euskerica bidasotarra actual" in *BRSVAP*, año XXII, San Sebastian, 1967, 79-83. or.

Hor badago narrazio bat euskarazkoaren itzulpena "Malkorrako minazuloko sorgiña" eta, erdarara "El gigante monoftalmo" itzuli du. Erraldoi gizajalearen kontatera da.

## FRANTSESEZ

REICHER, Gil G.: *Les Légendes Basques dans la tradition humaine*, Librairie d'Amérique et d'orient, 1946, 56-58. or.

Ondo ulertu badut, hiru tartaro agertzen diren ipuintxo bat dakar.

VINSON, Julien: *Le folk-lore du Pays Basque*, 1883. Erdarazko itzulpena *Literatura popular del País Vasco*, Editorial Txertoa, 50-54. or.

Vinson-ek Cercand-en lanetik edan zuen, batez ere, baina berak bildutako kontaerak ere baditu, Cercand-ek ez bezala itzulpenarekin bakarrik.



## RAFAEL ANDOLZ

*Oiartzun, 30-12-1994*

*Antonio Zavala*

Rafael Andolz y yo nos conocimos al inicio del curso 1948-1949, en el que por vez primera llegó a Loyola un grupo de estudiantes aragoneses.

Entre ellos hubo uno que al poco tiempo dio mucho que hablar. No era para menos. El buen maño había tenido la ocurrencia de ponerse a aprender euskera. Se había encontrado con un pueblo que hablaba otro idioma y no quería que éste fuese una barrera.

Empezó a manejar gramáticas y libros. Todo rato libre era bueno. En los recreos, si coincidía con vascos, no había otro tema de conversación. Ese fue precisamente el comienzo de nuestra amistad, porque también a mí me mareaba con sus consultas.

Más aún: se unió a los que salíamos a enseñar catecismo por el contorno. El viaje de ida y vuelta él lo convertía en clase de euskera. Y en el punto de término se encargaba de los más pequeños y les enseñaba: *Aita gurea, zeruetan zaudena...*

Una de las veces, en la escuela de Elosiaga, después de la catequesis, nos quedamos un rato charlando con el maestro, también vasco, pero lo hicimos en castellano. A la vuelta, el forastero, el maño, nos reconvino:

—Ante de los chicos no habléis en castellano, porque desprestigiáis su lengua: el euskera.

De Loyola pasamos a Oña. Allí, nuestra amistad se vio reforzada por una afición común: las excursiones. Guardo recuerdos de haber ascendido juntos a las cimas de los montes Obarenes, de haber explayado la vista en los amplios horizontes de la Bureba, de haber visitado los valles de Tobalina, Valdiviello y Caderechas; de haber paseado entre las paredes rocosas del desfiladero de la Horadada, donde el río Oca se une con el Ebro.

Pero la excursión que más grabada tengo es la que hicimos un día de San Isidro a Villanueva de los Montes. Durante la misa, Rafael y yo cantamos algunos devotos motetes. Ya fuera, para animar la fiesta, cantamos a dúo una

jota. Pero entonces, para responder a nuestro envite, dos mozarrones ancharon sus piernas y echaron al viento una jota de ésas que levantan las tejas. Aquella vez el amigo Rafael y yo quedamos mal. Porque lo de los mozos era jota y no lo nuestro.

De modo que el 15 de mayo del año de gracia de 1952, en el atrio de la iglesia de Villanueva de los Montes, provincia de Burgos, *caput Castellae*, quedó demostrado que, para ser buen jotero, es mejor ejercitar la garganta al aire libre arreando a bueyes o mulas, que no calentarse los cascotes encerrado en un aula estudiando filosofía escolástica.

Después, Rafael tomó el camino del seminario, se hizo mosén y se estrenó como tal en Almedúbar, en la patria nada menos que del gran Pedro Saputo.

Un día de verano, residía yo entonces en San Sebastián, cuando recibí una carta suya:

“Oye: con los mocetes de aquí quiero organizar una excursión a Donostia. Pregunta a tus jefes si podrían dejarnos una clase para pasar la noche.”

Mis jefes dijeron que sí y una tarde allí se nos presentó un autobús cargado de mañicos. Lo primero, ir a ver el mar, que pocos de ellos conocían. Llegamos al Paseo Nuevo, las olas rompían contra las rocas y despedían nubes de espuma que mojaban la cara. En ésas, uno de los mocés exclamó:

—Chicó, ¡qué saladica es el agua!

El buen baturrico acababa de descubrir que el agua del Cantábrico es distinta a la del río Gállego.

Después, pasaron varios años sin vernos. Pero cuando me trasladé a Javier, en seguida me puse contacto con Rafael, que residía en Huesca, como capellán y profesor de religión de un instituto, y dedicado a sus otras múltiples actividades.

Desde entonces, unas veces era él quien venía a Javier, y visitábamos las comarcas aragonesas lindantes con Navarra, como la Canal de Berdún o la Valdonsella. Y otras me iba yo a Huesca y Rafael hacía de cicerone enseñándome la Catedral con el recinto donde tuvo lugar el episodio de la Campama, o San Pedro el Viejo o la ermita de Salas; o me llevaba a que al Somontano, Sobrarbe o Ribagorza.

En estas visitas, tuve el honor de entrar en su local de trabajo: un piso, en frente de aquel en que vive, y del que no puedo testificar si tiene paredes. Porque no vi más que estanterías repletas de libros que subían desde el suelo hasta el techo. Rafael se disculpó:

—Es que es el único vicio que tengo.

Luego detalló:

—Ahora que aquí no hay libros más que de dos clases: libros de cura y libros sobre Aragón.

En los años que no nos habíamos visto, Rafael había publicado su *Des-honor del Aragonés*, con un léxico tan rico que no explica si no se toma en cuenta que se trata no tanto de regionalismos como del sedimento de una auténtica lengua romance, la fabla o fablas aragonesas, que en sus reductos pirenaicos luchan por sobrevivir; fabla de la que el amigo Andolz se había hecho asimismo experto.

Después ha publicado otros libros cuyos títulos bastan para hacer ver que su denominador común es la investigación y salvaguarda del alma del pueblo: *El humor aragonés*, *El bandido Cucaracha*, *Puchimán de Loarre*, *El cura de Sarabillo*, *El gigante de Sallent*, *Curanderos, pilmadores y sanadores del Alto Aragón*, *La aventura del contrabando en Aragón*, *Hechos y dichos del guiñote*, *Leyendas del Pirineo* y, en prensa, la trilogía *El nacer*, *El casamiento* y *La muerte en Aragón*.

Aparte, mantiene por todo Aragón una imparable actividad de conferenciante, de la que no doy detalles, por no haber tenido el gusto de oírle.

Colabora en la prensa local con un artículo dominguero, en una sección llamada durante años *Cuando hablan las piedras*; pero que ha cambiado de nombre por el de *Cuando callan las piedras*.

Si hasta las piedras le dan materia y tema, tanto cuando hablan como cuando callan, algún malicioso podrá pensar que así cualquiera. Pero por poco que leyera estos trabajos, reconocería que nuestro amigo ha tenido que patear palmo a palmo toda la amplia, brava, grandiosa y bella geografía oscense, en una labor de campo que no omite ningún monumento, ruina o vestigio, y en la que se han empleado miles de horas oyendo a sus gentes, tanto las que viven bajo los neveros del Pirineo, como los que moran en los secarrales de los Monegros.

Estos artículos forman toda una enciclopedia del alma de su tierra, mérito reconocido con algún premio y por el que dudo haya nadie más indicado para hablarnos de su literatura popular: amplísima materia de la que él ha seleccionado, según información particular y si no entendí mal, el tema de las leyendas, en su relación con la historia, la Montaña, la brujería, el talante aragonés...

Temo haberme alargado. Es que quería hacer ver quién es el que va a dirigirnos la palabra: Rafael Andolz, gran conocedor de las cosas de su pueblo y leal amigo de nuestra tierra vasca, como yo lo soy de la suya aragonesa.



## LITERATURA ORAL EN ARAGON

*Oiartzun, 30-12-1994*

*Rafael Andolz*

Jaun-Andreak:

Erriaren gauzak ikasteko zaletasuna, orian berrogei urte, zuen Euskal Erri arrigarri ontan, jaio zitzaidan.

Ni orduan Loiolan bizi nintzan, eta an Azpeitiko baserritarrekin lenengo, eta Getariko arrantzaleekin gero, artu-eman batzuk izan nituen.

Eta bene-benetan esaten dizuet: ezin degu Euskadi ezagutu, maitatu gabe. Bai; bereala sartzen zaigu biotzean.

Baña arrigarria da ori: jende berri bat eta lurralde berri bat ezagutzen badituzu, zerorren jendea eta lurraldea ere geiago maitatuko dituzu.

Geroztik, sarritan itzegin det erriko jendearekin, eta onek asko daki. Nik artzain batekin ordu betean geiago ikasi det, Sorbona'n urte betean baño.

Nere lagun Antton Zabala'k itzaldi bat zuentzat eskatu zidanean, bereala baietz erantzun nion, zuen gauzak zenbat maitatzen ditudan esan nai detelako, eta bai ere zuek gure gauzak maitatzeak zenbat poztutzen nauen.

Orregatik, eskerrik asko biotz-biotzez.

\* \* \*

Supongo que caen ustedes en la cuenta de que al organizar estas charlas sobre la literatura oral, están haciendo historia. Estamos cerrando un capítulo precioso de la Historia de la Literatura, casi al mismo tiempo que lo hemos empezado. Por lo que se refiere a mi tierra, puedo asegurar que dentro de veinte años ya será imposible investigar esta faceta del alma popular porque el hilo conductor de nuestras tradiciones se habrá cortado.

De aquí la prisa que nos está urgiendo a todos para recoger las últimas boqueadas de esta manifestación oral. Siempre digo que cada abuelico que se nos muere es una biblioteca que se quema.

La Literatura oral, claro, no se escribió: se escanció boca a oído en las largas veladas del invierno en torno al hogar entre el humo de la leña seca y el vapor que salía del puchero, cuando el abuelo era ya todo recuerdos y los nietecicos todo orejas. Hoy, el televisor astilló definitivamente los bancos de la cocina y ya no queda nadie que cuente ni nadie que escuche.

Algún que otro “quijote” vamos por los pueblos (los que quedan, porque más de 200 de nuestro Altoaragón se han vaciado en 30 años), vamos tratando de recoger las migajas de esas leyendas y cuentos y coplas. Pero ya no es igual: ni siquiera cuando encuentras al viejo que hable. No es lo mismo contarle un cuento a una grabadora que a un nietecico con la boca abierta y los ojos redondos como medias naranjas, absortos de admiración.

Y lo poco que se nos filtra nos sirve para adivinar lo muchísimo que irremediamente se nos ha perdido. Y ¡ay, amigos! cuando perdemos nuestras tradiciones, nuestra lengua, nuestras creencias, estamos perdiendo la esencia de nuestro pueblo y hasta estamos renunciando a ser pueblo mismo para convertirnos en mera pasta humana, igual en todas las latitudes, calcados los unos a los otros según el modelo que los medios de comunicación nos imponen tínicamente.

Quiero ofrecerles un muestreo, por fuerza muy corto por la premura de tiempo, sobre nuestra literatura oral tal como la he recogido.

En primer lugar la *Historia hecha leyenda*: Y aclaro que, contra toda lógica, cuando hay una contradicción entre la historia y la leyenda me quedo con ésta. La historia nos nace con el cronista. Pero el cronista era un hombre al servicio del rey que cobraba no por relatar con fidelidad los hechos sino por agradar al monarca. La leyenda en cambio nace del pueblo que observa los hechos y los trasmite de generación en generación aunque los vaya adornando con su poesía e imaginación. El pueblo es poeta.

Es el caso del “Y si no, no”. Lo he oído muchas veces y no aparece en ningún protocolo de coronación. La leyenda nos dice que antes de coronar al rey la Nobleza se reunían ante él y el Justicia Mayor del Reino le leía la cartilla: “Recordad, Señor, que cada uno de nosotros vale tanto como Vos y que todos juntos valemós más que Vos. Por tanto, si juráis guardad nuestros Fueros seréis coronado rey, y *si no, no*”.

Nos explica el valor de la independencia, el *orgullo* tan típicamente aragones. (En la tierra llana la gente saluda inclinando la cabeza; el montañés, no: lo hace levantando la cabeza).

En esta clave hablaríamos de la leyenda de la “Campana de Huesca”, la del “Salto de Roldán”, la del Señor de Plan (nuestro Fuenteovejuna).

\* \* \*

Otro capítulo: Las *Leyendas de las montañas*. Nuestras gentes no han leído

los clásicos griegos y latinos de cuando los dioses y los héroes se disputaban el dominio del mundo, pero sintonizan con ellos. Casi todas nuestras montañas y picachos tienen su leyenda: el Aneto, el Perdido, Formigal...

La Leyenda de Formigal. Culibilla era la hija de dos picos famosos, los dioses Anayet y Arafita que, aunque nobles, eran muy pobres.

Por entonces abundaban las hormigas blancas y Culibilla las quería mucho y todos los días les daba de comer y se entretenía jugando con ellas.

Un día, el dios-pico Balaitús se enamoró de ella. Pero Culibilla había decidido ya que nunca se casaría y lo rechazó.

Balaitús, que era tan poderoso como caprichoso pensó en raptarla y fue en su busca. Cuando Culibilla se vio perdida, gritó:

—“¡A mí las hormigas!”

De todos los rincones y agujeros salieron miles y miles de hormigas blancas que cubrieron a la diosa con su cuerpecillo: el monte se volvió blanco. Balaitús, asustado, huyó.

Entonces la hermosa Culibilla, profundamente agradecida a sus amigas, se clavó un puñal en el pecho para guardar dentro a todas las hormigas: es el agujero de la Peña Foratata.

Los que suben a su cima y escuchan atentamente en el agujero aún oyen los latidos del corazón de Culibilla.

Esta es la leyenda de Formigal. Formigal ya sabéis que quiere decir en aragonés “hormiguero”. Pero en vano intentaréis encontrar en todo el valle ni una hormiga blanca. Ya no queda ninguna. Todas las guarda dentro de su corazón la bella y desgraciada diosa Culibilla.

*La brujería y la leyenda.* Siempre que en España se habla de brujas, enseguida se piensa en las meigas gallegas o en las sorguiñas vascas. Sin embargo todos nuestros pueblos han estado llenos de *bruxas* que ahora se han refugiado en las leyendas y cuentos abundantísimos en nuestra geografía. La más conocida es la historia de *la mejor mula*.

En una casa del pueblo, la más rica, todos los años cuando la gente se iba a la Misa del Gallo en Nochebuena, al volver se encontraba con que había muerto la mejor mula de la cuadra. Y eso un año y otro.

Un año el mozo mayor decidió quedarse en la cuadra para ver qué pasaba, mientras los otros iban a misa.

Se acostó en la pesebrera con un garrote al lado y el candil alcance de la mano. Se quedó dormido. Pero a media noche le despertó un rebullicio entre los animales. Encendió el candil y a su luz vio que encima de una mula —la mejor que tenían entonces— había un gato negro. Le lanzó el garrote con toda su alma y no lo mató porque sólo le dio de refilón. El gato pudo escapar y aquel año no murió ninguna mula.

Pero a la mañana siguiente la abuela de la casa ya muy mayor y que no había ido a misa apareció con la pierna rota.

*Los personajes hechos leyendas.* Son personas reales, históricas, pero mitificadas por el pueblo y cuando el pueblo las mitifica por algo lo hace. Existe una gama variadísima. Desde el Bandido Cucaracha que roba a los ricos para dar a los pobres, pasando por el pícaro, como Puchamán de Loarre, al estilo de Fernando Amezketarra) que resuelve todos los problemas del lugar o el Cura de Saravillo, mosen Bruno Fierro, ejemplar típico de cura rural de final del siglo pasado, pescador y cazador furtivo, contrabandista, que exconjuraba las tormentas mandándolas a Gistain y protagonista de una leyenda con visos históricos que define a la gente de mi tierra.

Una noche de auténtico infierno se le presentan en su casa dos personajes pidiendo ayuda. Necesitan pasar a Francia urgentemente y han oído que el único capaz de pasarlos es mosen Bruno. Vienen calados hasta los huesos por la lluvia y la nieve.

El cura se juega la vida para llevarlos a la frontera esquivando a los carabineros y por los pasos más peligrosos. Allí los deja a salvo, y sin preguntar nada de nada. Ellos se dan a conocer. Son el General Prim y su ayudante que huyen de España.

—Algún día volveré y mandaré en España. Y todo se lo deberé a usted.

Al año siguiente, efectivamente Prim manda en la nación, cuando mosen Bruno se entera de que un hermano suyo está condenado a muerte en Madrid, siendo inocente. El va a la Corte y a empellones consigue entrar en el despacho del General. El lo reconoce en seguida, lo abraza y le escucha y le promete resolver el asunto. Inmediatamente escribe y le va entregando una carta para el Alcaide la Prisión, para el Ministro de Gracia y Justicia, para...

Pero mosen Bruno conforme le va entregando las cartas las va rompiendo:

—“Ya me parecía que no eras tan hombre como yo. Si aquella noche que llegaste a Saravillo te hubiera despedido yo con una carta para el sargento de carabineros y otra para el Pedro el pastor y otra... ¡aquí estarías tú!”

Se dio media vuelta y se marchó. Prim lo llamó confundido y admirado:

“¡Cura y montañés tenía que ser usted, para salirse con la suya!”

Suspendió todas sus audiencias y marchó con el cura al Penal.

\* \* \*

*El talante aragones hecho leyenda.* El chiste define a los pueblos. En Aragón abunda el chiste popular que siempre se cuelga a personajes determinados, es sobre todo chiste hecho más que contado y convive con otras muchas manifestaciones de nuestro temperamento: las coplas, las mazadas, los refranes (que con frecuencia ridiculizan al refrán...)



El aragonés es muy parco en palabras y ha aprendido a encerrar todo un mundo de ideas y fórmulas brevísimas. El más importante es la copla que canta en sus jotas con cualquier motivo y en cualquier ocasión y ¡hay que ver lo que cabe de amor, de amistad, de humor, dentro de los estrechos límites de una copla de cuatro versos de arte menor. Siempre me ha conmovido la definición de la amistad que hace una copla: no se puede decir más con menos palabras:

El amigo verdadero  
es lo mismo que la sangre,  
que siempre acude a la herida  
sin esperar que la llamen.

Abunda la copla humorística porque la alegría y la sorna son indudables características de nuestro pueblo:

Mi abuelo me dio un consejo  
que jamás olvidaré:  
“más vale un pellejo e vino  
que un pellejo de mujer”.

El día que yo nací  
ya lo decía mi abuela:  
“si este chico tiene suerte  
vivirá hasta que se muera”.

Cuando se murió mi abuela  
a mí no me dejó nada  
y a mi hermana la dejó  
asomada a la ventana.

Trece novios has tuvido  
y con éste van catorce  
el que se case con tú  
trebajadica te coge.

Las *mazadas* son las respuestas contundentes, cargadas de lógica, que no admiten réplica y que llenan nuestras conversaciones y es necesario recoger como expresión oral de un carácter. Como la contestación que Toñín, el carretero de Almudévar a su madre cuando le preguntaba a la hora de almorzar: “¿cómo te hago el huevo?”

y él contestaba:

“con otro!”.

Como la conversación rapidísima en el ascensor de mi casa con Carlitos:  
—“¿Dónde vas, Carlitos?”

—“A la escuela”.

—“Muy bien, hijo mío: y ¿qué haces en la escuela?”

—“¡Esperar a que salgamos!”.

O la que sorprendí al señor Lorenzo con su nieto. El nieto tiraba de la mano a su abuelo arrastrándolo:

“¡Corre yayo, que llueve...!” Y el abuelo:

“¿Y para qué vas a correr, hijo mío? ¡Si más allá llueve también!”

Ya lo ven ustedes. Me limito a acercarme al pueblo, a escucharlo y luego emborronar fichas y cuartillas. Yo no sé si alguien me leerá, pero lo que se escribe ya no se pierde: ahí está. Mi compensación la encuentro pensando en que algún día, en el futuro misterioso, alguien, como Orixe en *Euskaldunak* caiga en la cuenta de que existió un pueblo... “Erri bat izan zan...”.

Milla esker.

## AHO TRADIZIOKO LITERATURA ETA AHOZKOTASUNA

*Oiartzun, 1994-12-30*

*Jon Kortazar*

### 1. AHO TRADIZIOZKO LITERATURATIK AHOZKOTASUNERA

#### 1.1. Aurre eztabaida

Ahozko produkzioari eman behar zaion izenarekin hasi ohi da guri dagokigun eztabaida hau.

Erakusten dugun ikagaiak “Aho tradiziozko literatura” du izena, eta hitz horietan kontzeptu letraduna sartzen dugu berez letrarik gabekoa den arloan. Hori dela eta, gaur egun egin ohi diren ikerketei jarraiki, nahiago izaten da “ahozkotasuna” kontzeptua erabiltzea.

Halere, eta gaia mugatzeko edozein ahalegin egin baino lehen, komeni zaigu deitzeko bi modu horiek argizetik abiatzea, eta bien artean egon daitezkeen desberdintasunak ikustea. Berez, aho tradiziozko literatura esatea ez da batere zehatza, eta ez dauzka bere barnean tradiziozkoak ez diren beste ahozkotasun moduak. Orduan, “aho tradiziozko literaturaz” ari garenean, zertaz ari garen adierazi beharko genuke. Horko bi kontzeptu —literatura eta ahozkotasuna— elkarren kontrakotzat hartu izan dira kritika landuaren tradizioan. Hala ere, horko hirugarren kontzeptua ez da alde batera uztekoa, “tradizioarena” alegia, horren arian baitatuz ahozkotasunari buruzko ikerketa berrien ekarpenak.

Ahozko literaturatzat hartzen dena, herriak sorturikoa eta ahoz eta ez idatziz igorritakoa izan ohi da. Herriak eta ez kultura arloko eliteek sortutzat jotzen da; herri-kultura horrek ahozko produkzioa gutu estetiko jakin batez egin ohi du. Beraz, folkloreak eta herri-jakituriaren emaitza berbala izango litza-teke. Bestalde, literatura hitzak berekin badarama ere “littera” edo letra kontzeptua, ontzat ematen da esanahiari eremu zabalago bat ematea hitzezko produkzio estetiko mailan, ezen produkzio herrikoiak ahozkoak baitira, eta ez letradunak. Horri buruz, Paul Zumthor-ek (1991, 25) honela egiten du “literarioaren” eta “ahozkoaren” arteko desberdintasuna: “arlo honetan «literarioztat» hartzen dudana duela bi mendetik honantz harturiko konnotazioen oihar-

tzunetan (sic) oinarritzen da: alegia, instituzio bati dagozkionetan, balio espezializatu etnozentriko eta kulturalki inperialistekin osaturiko sistema bati dagozkionetan”.

Horrenbestearaino iritsi gabe, esan daiteke, Erromantizismotik abiatuta, “Goi mailako kulturaren” idatzizko produkzioaren eta behe mailako klaseek sorturiko “ahozko literaturaren” arteko bereizketa bere mugak galtzen hasten dela. Zenbait gizarteren barruan bi tradizio kultural zeuden: ikasi batzuren “tradizio nagusia” eta gainerontzekoen “tradizio txikia” (Burke, 1991,62). Azken batean, esan daiteke “literatura” kontzeptuak bi esanahi arlo leuzkakela: bata, estua, letrari egokituia, eta zabala bestea, mintzairarekin sorturikoarekin elkar-tzen duena bera, hala idatzizkoa izan, nola ez idatzizkoa izan.

Halere, idatzizkoa eta ahozkoa hain adierazpen ezberdinak direna kontuan harturik, gaur egun, batez ere ifarramerikarren giroan, nahiago dute “ahozko-tasanaz aritzea, ezez ez ahozko literaturaz”.

Honi buruz, Walter J. Ong-ek (1987 ,20) dio: “Jakitunen artean testuek duten agintea nabaria egiten da gauza batean: gaur arte, ahozko artea, den bezala agertzeko, ez da sortzen kontzepturik, hori era zehatzean ulerteraziko duenik, eta are gutxiago era dotorean, idatzizkoari heldu gabe (zein konszienteki, zein inkonszienteki). Eta hori horrela gertatzen da, nahiz eta idatzizkoaren aurretik milaka eta milaka urtetan ahozko forma artistikoak osatu, harekiko batere loturarik gabe”.

## 1.2. Definizio baterako

“Ahozko literaturari” buruz definizio anitz eman da. M. Eliade, adibidez, “noizbait norbaiten ahotik irtendako zerbait kolektibitateak gorde duenean” esanez mintzatzen da produkzio estetiko horri buruz.

Orokorki, oralitatetzat har dezakeguna da, balio estetikoak ikuten diogun hitzezko produkzio guztia, ahoz igorria eta giza-elkarte batean dirauena, errepika bakoitzean birsortuz. Edo, Manuel Lekuonak zioen bezala: “Idatzizkotik aparte dagoen izate literario guztiari deitzen diogu ahozko literatura”.

Hala eta guztiz ere, edozein definiziok arazoak dakarzkigu, zeren definitzen zail den oinarri batetik abiatzen baita, balio estetikitik alegia. Baina, bestalde, gainera, ahozkotasanak berekin dakar beste zenbait kontzeptu, berarekiko loturarekin, eta berezi ezinak gainera, eta horiek ere azaldu beharra dago, aho tradiziozko literaturak esan nahi duenaren ikuspegi orokor bat eduki ahal izateko.

### 1.3. Tradizioa. Tradizioa eta igorpena

Franci Lee Utley-k honako kontzeptu hauen bidez definitzen du literatura folklorikoa: ahozkoa, igorpena, iraupena, kumunitatekoa. Utley-rentzat igorpena eta tradizioa sinonimoak izanik ere, esan liteke igorpena kontzeptu orokorragoa dela, tradizioa zerbait diakronikoagotzat hartzen den bitartean. Iraupena, berriz, Utley-rentzat, testu fosilizatuaren irauneraztea litzateke. Ahozkotasunaren kontzeptu modernoan ezaguna da testuak aldakorrak direna, eta igorpen ekintza bakoitzean aldakiak sortzen direna. Komunitatekoa esaten duenean, Utley-k esan nahi du testuak komunitarioki sortzen direla. Hipotesi horren aurrean, gaur onartuagoa dago M. Pidal-ena, zeinek elkarrarteko egiletza tradizionala hartzen baitu oinarritzat, diakronikoki, testua komunikatzen duelarik; baina testu hori, jatorrian ez da tradizionala. egile kultu edo erdi-kultu batena baizik.

Ahozko literaturari buruzko ikerketa modernoetan, tradizio kontzeptua izan da arreta eta ardura handienak erakarri dituena. Benetan kontzeptu giltzarria da ahozkotasunaren fenomenuaz jabetzeko.

Tradizioa da ahozko literaturaren bizitzeko era, hots, igorpen etengabeko katea sortuz.

Jan Vansinaren (1967, 33) liburu ezagun batean, honela definitzen da tradizioa: “Ahozko tradizioak ahoz kontaturiko lekukotza guztiak dira, lehenaldiari dagozkienak. Horrek esan nahi du ahozko eta kantuzko lekukotzak bakarrik hartu behar direla kontuan”. Jan Vansinak hor indefinizio bat egiten du, zeren tradizioa deskribatzea agindu ondoren, benetan “ahozko tradizioez” arduratzen baita.

Zumthor-ek (1991, 33), zehatzago, dio:

“*Performance*-a (liburuaren itzultzaileak islaketarekin identifikatzen du termino hori; beharbada, ordea, ahozko produkzio osoari dagokio) ekintza konplexua da, eta horren bidez mezu poetiko bat hemen eta orain igorria eta irentsia da une berean... *Performance*-a logikoki desberdinak (ez beti, baina) diren operazio serie baten erdigunea dela esan daiteke. Nik bost aurkitzen ditut, zeinak poemaren izatearen uneak bailirateke:

1. produkzioa,
2. igorpena,
3. harpena,
4. iraupena,
5. (orokorrean) errepikapena (...).

Badirudi arazoaren datuen sinplifikazioa egiten dena, baina bere justifikapen metodologikoa hortik datorren ondorio batean oinarritzen da; izan ere,

gertakizunen historiak egiten duen antzera, bereizteko aukera ematen baitu poesiaren ahozko *igorpenaren* (2 eta 3 eragiketak) eta ahozko *tradizioaren* artean (1, 4 eta 5)”.

Tradizioa komunitatean irauten duen mintzaira produkzioaren formalizapena da. Igorpena mezu estetikoaren komunikazioari bakarrik dagokio, igorlearen eta hartzailearen artean, eta baliteke ez berriro gertatzea.

Honek ondorio garrantzitsu batera garamatza ahozko literaturaren ikerketa eremuan: bi ahozko literatura mota daudela esatera:

alde batetik, tradiziozkoa, gero igortzen dena, komunitateak berea egiten duena;

bestetik, ez tradiziozkoa: komunikazio estetikoa behin bakarrik egiten da eta, agian denborarekin tradizionaltzea gerta baliteke ere, hasiera batean ez dago errepikapenik.

Hemendik atera daiteke herri-literaturaren eta ahozko literaturaren arteko oinarritzko berezitasuna.

Jon Juaristik, argitara gabeko lan batean, bereizketa egiten du herri-literaturaren, alegia termino orokorrago baten (zenbait autorek, eta tartean Joaquín Marco, nahiago du termino hori inprimaturiko literaturaz —«de cordel»— hitzegiteko erabili) eta ahozko literaturaren artean, zeina bitarteko inprimaturik gabe igortzen baita, eta honi literatura folklorikoa ere deitzen dio, eta bertan tradiziozko literaturaren eta ez tradiziozkoaren artean bereizketa egiten du. Tradiziozkoak diakronikoki irauten du komunitatean ahoz aho igorritz. Ez tradiziozkoa, ordea, une bateko ekintza batean gertatzen da; ez dago errepikapenik, ez dago tradiziorik. Bertsolarien produktu asko arlo honetan sartu beharko genituzke: behin bakarrik kantatuak izateko egiten dira. Euskal pastoralak ere hemen sar genituzke, ez baitira tradizionaltzen (ez dira memorian sartzen, ez ikasten, ez osoki errepikatzen).

Bereizketa honek bigarren arazo bat dakar: herri-literaturaren igorpena ahozkoa izan liteke, edo beste komunikazio bidetan zehar sortu: inprentak, orri solteen bidez (euskal testuinguruan, bertso-paperak) *colportage* literaturaren bidez, gaur egun irratia bidez, diska grabaketan bidez; guztien bidez igor daiteke herri-literatura. Horrela, Walter J. Ong-ek (1987, 20) dio: «lehen mailako oralitatea» deitzen diot idatzizko edo inprimatzeari buruzko inongo ezagutzarik ez duen kultura batekoari. «Lehen mailakoa» da, «bigarren mailakoa»ri kontrajarririk, zeina gure teknologia handiko kultura honetan gertatzen baita, oralitate herri bat sortuz, zein telefonoaren, zein irratia-aren, zein telebistaren, zein beste aparatu elektronikoen bidez, eta hauek izango badira, aurretik idazkera eta inprimaketa dago”.

Paul Zumthor ere bereizketa horren alde dago (1991, 37): “Lau mota idealetara laburtzea proposatzen dut egoera posibleen aniztasun handi hori:

— *Lehen mailako* oralitea edo *garbia*, «idatzizkoarekin» inongo harremanik gabea; idatzizkotzat hartzen dut begiratzeko erabiltzen den sistema zehazki kodifikatua eta hizkuntzaren bidez adieraz daitekeena.

— Idazketarekin batera bizi den oralitatea eta, elkarbizitza horren arabera bi eratara ager daiteke: edo ahozkotasan nahasi moduan, idatzizkoaren eragina kanpoan, era urrian eta berandu geratzen denean, edo bigarren mailako oralitate moduan, zeina idatzizkotik abiatuta berregiten baita eta hau ahotsaren gainetik, zein erabilpenean zein imajinazio arloan, nagusi den ingurune batean; (...)

— Eta, azkenik, bitarteko mekanikoen menpe dagoen oralitatea; beraz, denboran edo espazioan diferitua.

Edozein eratara, badirudi oralitate kontzeptua, edo literatura folklorikoa-rena edo herrikoiarena, dela Europa Modernoan behe mailako klaseen produkzio berbal eta estetikoari buruz aritzekoa, eta horren barrenean bereiz daitezke aho tradiziozko literatura (baladak, poema lirikoak, narrazioak), honela definitua izan delarik: “tradizionalak izango dira «betidanik» herriaren oroimenean, idatzizko laguntzarik gabe, gordetzen diren eta denboran zehar bizi diren(ak)” (Biguri, 1990, 64) eta bapatean igortzen den literatura (bertsolaritza eta pastoralak), tradiziozkoak gabeak hauek —eta ez du esan nahi herrikoiak ez direnik—; horien igorpena idatziaren menpe legoke (hau garbi ikusten da pastoraletan, ez horrenbeste bertsolaritzan).

Tradizio kontzeptuari “tradizio asmatua” kontzeptua gehitu zaio (Eric .J, Hobbawun, 1988. 13-25); hau gizarte modernoetan kontzeptu egokia baldin bada, ez horrela gizarte tradizionalak dagokienean. “En aquest sentit la ‘tradicció’ de distinguir clarament del ‘costum’ que domina las anomenades societats ‘tradicionals’ (Hohsbawum, 1988, 14). Bigarren bereiztasun batek ere bereizten du gure ikerketa arlotik: asmatuak tradizioak izan daitezke objektu ez hitzezkoak, baizik eta ideologikoak edo sozialak.

Dena den, balio du behintzat oralitate ikertzaileari adierazteko oralitate arloan tradizio desberdin asko badaudela (adibidez badirudi garai hauetan bertsolarien generoak agintzen duela euskal ahozkotasanaren eremuan), eta tradizio arloan bertan ere bai (euskal baladatan eboluzio aro desberdinak bereiz daitezke).

#### 1.4. Oralitatearen erretorika

Oralitateak bere arau erretorikoak osatu izan ditu, eta horietatik gehienak memoriaren lagungarri izateko sortuak dira, Ong-ek dioenez, ezen oroimenean gordetzen ez den oro galdu egiten baita. “Ahozko kultura batean, ezagutza lortu ondoren. behin eta berriz errepikatu beharra dago, ez galtzekotan: formulazko pentsakera eredu fijoak oinarritzkoak ziren jakituriarentzat” (1987, 82).

1. Oralitatearen erretorikaren oinarritzko ezaugarria bere izaera formulistikoan datza; formulak erabiltzen dira, esanahi jakineko esaldiak, horrela kontakizuna begiz jota bezala aurreratzen delarik. Baladei buruz ariko garenean bezala, formulak ahozko literaturan “hitzak” bezalakoak dira.

Formula horiek testua oroitzen laguntzen dute. Badago baladentzako formularik —beharbada aztertuenak izan dira—, badago herri-ipuinak hasteko eta amaitzeko formularik.

Milman Parry-ren tesia, hark definitu baitzuen lehen aldiz “‘hexametro’-aren eraiketan hitzen eta hitz formen aukeraketaren menpekotasuna” (Ong, 1987, 28 eta hurrengoak; Adam Parry, 1971, XIX), da oralitateak badituela bere arau propioak. Horrela Homerorengan neurriak hitzek erabilpena baldintzatzen zuten. Homeroren epitetoa, ikerlariak onarturiko ahozko konposaketaren lehen formula, ikerketa bide berrien erakusle izan zen. Parry-ren aurkikuntzatik ondorio garrantzitsuak datoz: Homero, gaurko beste ‘rapsoda’ herrikoiek bezala, aurretik sorturiko materialekin aritu zen lanean, komunikazio ekintza bakoitzean birsortuz, “Homero-k aurrez osaturiko materialak elkartu zituen” (Ong, 1987, 30). Formula horiek behin eta berriz errepikatzen ziren gaien inguruan biltzen ziren.

2. Oralitatearen baliabiderik garrantzitsuenetako bat hirukoiztearen formula litzateke: bai ekintzei dagokienez, bai pertsonaiei, bai esaldiei, bai objektuei; hiru bider agertzen dira.

3. Parry-ren ikerketen ondoren oralitatearen ikerketak osatu duen ondoriorik garrantzitsuenetako bat “egitura irekia” kontzeptua izan da.

“Tradiziozko sorkuntza igorpen ekintzetan gertatzen den testuaren aldaketa etengabetik dator” (Juaristi, s/d, 14). Honek esan nahi du, ezen kanta bat esaten edo kantatzen den bakoitzean, esataria egitura mental bat birsortzen eta orainera ekartzen ari dela hitzez, hori testuaren hezurdura argumentaltzat har genezakelarik, “memoriazko sintesi bat” (Alan Bold).

Esandakoari nabarduraren bat eranstea komeni da. Esatari herrikoiak ez du testuaren hezurdura ikasten, baizik eta linguistikoki antolaturiko testu hat. Baina horrek ez du kentzen testu zaharren birsorketa gertatzen denik. Esperientziak erakusten du esatari batek ez duela beti era berean esaten testu bat, denbora desberdinetan Aldaketak eta aldakiak sortzen dira, eta honela ikusten da testua irekia dagoela bi haritan: esatariaren sormenaren harian eta hartzailearen eraginaren harian. Bertsolariek batzutan formula bera erabiltzen dute, dauden herriaren izena hesterik aldatu gabe.

Esan daiteke, aho tradiziozko literaturan, esatari edo narratzaileak hitzek antolaturiko testua ikasten duela, eta hor aldaketak sartzen dituela. Eskema irekiak buruz ikastea ez tradiziozko literatura folklorikoari gehiago dagokio. Adibidez, ‘pastoralier’-ak argumentu hezurdura ez mehatz bat ikasten zuen, eta



gero dramatikoki berregiten zuen. Hala eta guztiz ere, ez dago pentsatzerik tradiziozko literaturako aldakiak “estilistikazko mikroegiturari” bakarrik dagozkionik; ezagutzen dira baladen aldakiak, egitura narratiboa errotik aldatu dutenak, edo esanahia ere bai, eta hala ere baladazko gai berberaren barruan dirautenak.

### 1.5. Oralitatearen psikodinamika

Oralitatearen erretorika sortzean, oralitate horren psikodinamika bat dagoen seinale. Ong-ek dioenez (1987, 38 eta hurr.), eta ohar hauetan haren ondo-ondotik ibiliko gara, oralitatea teknologia bat da: errealtatea interpreta-teko modu bat, munduari aurre egiteko baliabide bat.

Idazkera ezagutzen ez duten ahozko kulturetan, mintzamenezko baliapide batzuk sortzen dira, idazmenaren eremuan hezi direntzat zailak ulertzeko.

Walter J. Ong-ek honako ezaugarri hauek seinalatzen ditu oralitatearen psikodinamika definitzeko.

1. Hitz artikulatuaren indarra. Aladinoren esaldi majikoak lapurren leizeko atea irekitzen du; metafora zehatzena izan liteke ikusteko zein balio ematen zaion hitzari ahozko munduan. Hizkuntza ekintza modu bat da eta inguruko jokabidea eta izadiaren martxa aldatzen du. Hona, hitzei ematen zaie bertute majikoa: hitzek sendatu, osatu, alaitu... egiten dute; azken batean, ize-nek gauzei indarra ematen diete.

2. Memoriaren garrantzia. Oralitatearen eremuan, oroitzea da jakiteko bide bakarra, oroipena da bizirik irauteko baliapide bakarra. “Oroit dezakeena bakarrik daki batek”, dio Ong-ek. Testurik gabeko kultura bat oroitzuz bizitzera kondenaturik dago, ahazturikoa ezin baita berreskuratu. Baina kanta bat gal daitekeen bezala, sukalde formula bat ere gal daiteke. Horregatik da hain garrantzizkoa memoria, ez bakarrik literatura sorketarako, bizitzeko ere bai.

Oroitzeko beharrezkoak dira formulak, memoriaren prozesuari lagunduko liokeen edozer gauza. Horregatik dira hain errepikatzaile eta formulistiko ahozko literaturak.

3. Oralitatearen bi oinarri hauetatik abiatuz, adierazpide modu bat sortzen da, eta era laburrean azalduko dugu.

4. Sintaxia. Oralitateak nahiago ditu bata bestearen ondorengo perpau-sak) koordinazioz lotuak, eta ez menpeko perpau-sak.

5. Pilatzea hobeto, aztertzea baino. Memoriaren lagungarria da, ezen formulak ez baitira, maiz, hitz hutsak, hitz multzoak baizik: paralelismoak, termino kontrajarriak edo epitetok.

6. Jaio haundiko adierazpidea. Oralitatearen adierazpide modua erredundantziaz joasia egon ohi da; idatzizkoa, berriz, lineala izan daiteke. Ahozko komunikazioak nahiago du itzulinguruka ibiltzea, ezen diskurtsutik eta burutik kanpo ez baitago ezer ere, eta esandakoa degertu egiten baita ahoskatu ondoren; horregatik joan behar du polikiago pentsamenduren adierazpenean.

7. Gordetzaila eta tradiziozalea. Ezagutza galzorian dagoenean, ahozko kulturak denbora asko pasa behar du kontzeptuak errepikatzen. Horrela ikasten zen erdiaroko ekoletan. Hortik dator zaharrekiko begiramena, ezagutzaren gordailu baitira. Idazkerak, ordea, berriaren alde egiten du, aurkikuntza berrien alde.

8. Esperientziatik hurbil. Idazmenak bultzatzen dituen kategoria analitikoak kanpo utzirik, jakitea eta jakite hori komunikatzea bizi esperientziaren oso hurbilean jartzen dira. Ahozko kulturetan ez dago zerrendarik: genealogiak harreman pertsonalek kontakizun dira. Arrazoi berarengatik, ez dago ahozko kulturetan ofizioak ikasteko tratadurik, egunean-egunean ikasten baitira, beste pertsonetikiko harremanean.

Esperientziak duen garrantziak darama askotan ahozko literatura metonimia erabiltzera: abstrakzioa edo sentipena zehaztapenen bidez adieraztera, hots, barne mundua adierazteko objektua izendatzen da.

9. Ñabardura agonistikoak. Ahozko literatura agonistikoa da, burruka-zalea. Ahozko adierazpen asko eta asko erronkak dira. Igarkizunak ez dira joko hutsak, entzuleari erronka egiteko moduak baizik. Euskal Herrian bertsolarien arteko erronken tradizio luzea daukagu.

Bestalde, ahozko produkzio anitz biren arteko burrukan antolatzen dira, eta testuinguru honetan pastoralala izango litzateke adibiderik argiena.

10. Enpatikoa da. Kantariaren eta entzulearen arteko identifikazio nahiko argia dago. Bertsolaritza oso adibide ezaguna egiten zaigu euskal testuinguruan.

11. Homeostatikoa da. Ahozko testuak inguruko gizarte aldaketekin batera aldatuz joaten dira. Orainaldirako baliorik ez duten oroipenak galdu egiten dira. Orainaldi etengabe honetan arkaismoak laster galtzen dira. Baina hori ez dagokio hitzari bakarrik: adierazitako egierak orainaldiko errealitatearen arabera aldatuz joaten dira. Horri buruz, Ong-ek Nigeriako Tiv herria aipatzen du; han genealogiak aldatu egin dituzte, nahiz eta komunitateko liskarrak konpontzeko erabiltzen diren. Berrogei urte atzeragoko genealogia horiek erregistroek garbi adierazten dituzte aldaketak. Tiv herrikoek esan zuten erregistro idatziak oker zeudela.

12. Egoerazkoa eta ez abstraktua. Edozein pentsakera kontzeptual berez abstraktua izanagatik ere, ahozko kulturetan ikusten da nola kontzeptuak egoe-rei lotuak egoten diren. Horrela, Luria-k, 1931-1932 urteetan Uzbekistan-go

pertsona alfabetatu gabeen artean galdekizunak egin zituen ikerlari errusiarrak, erakutsi zuen nola ahozko kultura batean pentamendua gurea bezalako den, baina nola funtzionatzen duen kategoria desberdinekin. Horrela, Luriak ezau-garri hauek ezarri zizkien ahozko kulturako pertsoneri:

12.1. Forma geometrikoak objektuen izenen bidez ezagutzea: platera bo-robila esateko, adibidez.

12.2. Objektuen klasifikapena egoeraren arabera egiten da eta ez kate-gorien arabera Horrela alfabetatu gabeei (ahozkoei, dio ,Ong-ek) lau objektu zerrenda erakustean: “mailua, zerra, aizkora, enborra”, ez zuten tresnaren eta ez-tresnaren arteko bereiztasunik egiten, eta egoerari buruzko pentsamoldean irauten zuten.

12.3. Ahozko kulturaren dauden pertsonen arazoak izaten dituzte pentsa-kera silogistikoarekin eta harilkatuarekin aritzeko.

12.4. Objektua definitzeko arazoak. Luriak zuhaitz bat definitzeko es-katzean, adibidez, horrela erantzuten zioten: “hortxe bat, ikusi zerorrek”.

12.5. Elkarrizketatuak larritu egiten ziren autoazterketa eskatuz gero. Ho-rrela, haietako batek nor zen galdetuta, egundoko erantzuna eman zuen: “Zer esan dezaket nire bihotzari buruz?”

Galdetu besteei. Haiek hitzegin dezakete nitaz”.

## 1.5. Ahozko generoak

Ahozko literaturaren edozein bildumatan, genero literarioak berezi ohi dira. Orokorrean, literatura kontzeptua oralitate eremura eramatea onartu on-doren, hiru genero haundiren inguruan egiten da bereizketa: narraziozkoa, li-rikoa eta dramatikoak.

Narraziozkoan tradiziozko kontakizuna legoke (ipuinak, leiendak) eta ba-lada eta erromantzerok, hauek konta-poemak baitira.

Lirika generoak kantu liriko herrikoiak eta paramiologia edukiko lituzke barnean.

Dramatikoak, berriz, ihauterietako antzespenak eta Eguberrietako autoak.

Tradiziozkoak ez diren generoetan bi genero aipa daitezke euskal tradi-zioan: bertsolaritza, bai narraziozkoa, bai dialektikoa, bai lirikoa, eta pastoral antzespenak.



## ON MANUEL LEKUONA: HAUSTURA ERAGOTZI ZIGUN GIZONA

*Oiartzun, 1994-12-30*

*Joxe Ramon Zubimendi*

Arratsalde on, Jaun-Andreok!

On Manuel Lekuona Etxabeguren (Oiartzun, 1894-1987)

Lan-mahaiaren aurreko apalategian dauzkat zenduaren *Idazlan Guztiak*; alegia, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Kardaberaz Bazkunak argitaratutako liburuak. Sorta mardula, alajaina! Bat, bi, hiru... hamaika!

Bai, hamaika liburu trinko behar izan ziren On Manuel zenak idatzitakoen bilduma azaltzeko. Eta beste liburu bat, hamabigarrena, aurkibideetarako: hiru-hundik gora orrialdeko zerrenda luzea, aurkibideetarako bakarrik. Ez zen langile makala; ez horixe! Eta oraindik ba omen ditu —eta ez gutxi ere— argitara gabeko ohar eta lan baliosak.

Harrigarria da landu zituen gaien ugaritasuna: Ahozko Literatura, Eusko Etnografia, Artea, Historia, Euskeralogia, Antzerkia, Haur-kantak, Gabon eta Eliza-kantak, *Zigor* izeneko operaren libretoa...

Izatez, apaiza genuen On Manuel; lanbidez, irakaslea: Gasteizko Apaiztegiko katedratikoa, Arkeologia Sakratuko katedratikoa, Euskarazko katedratikoa eta Hebraierazko katedratikoa. Gainera, adituek diotenez, berebiziko dohaiak eta jakituria zituen arte-kritikari bikaina izateko (gogoratu, *El Greco* ospetsuaren koadro bi aurkitu zituela: Gatzagan, bata; Iraetan, bestea).

Zer genuen, baina, On Manuel Lekuona: XX. mendeko euskalduna, ala XV. mende bukaerako florentziar gailena? Esango nuke, zinez, oparo uztartu zituela bere baitan Errenazimentua eta Euskal Pizkundea. Esango nuke, beraz, goi mailako euskal humanista zela; eta humanista, On Joxe Migel Barandiaran zenak azaldu zigun ikuspegiaren arabera:

“En la personalidad espiritual del vasco hay una concepción del mundo y del hombre basada en el reconocimiento de un ser que nos trasciende, y a la que han ido incorporándose las concepciones mágicas y animistas. El vasco ha guardado a través de los tiempos y de las influencias su propio y original

sistema de valores, con unos derechos, unos deberes y una responsabilidad, o sea: es todo el sistema jurídico y moral en el cual están insertos todos los valores del hombre. Este sistema de valores, basado en la mencionada concepción del mundo y del hombre, es el elemento más importante de una etnia, porque es el más característicamente humano. Y en eso descansa el humanismo.”

[J.M. Barandiaran, *Hablando con los vascos*, 32. or.]

Koldo Mitxelenak honela zehaztu zuen *humanismo* hitzaren adiera:

“... aquí hay una cierta manera un tanto exclusiva de entender el humanismo, que a mí no me gusta. Entienden a menudo por humanismo algo difuso entre lo poético y lo artístico, casi hasta lo cursi; desde luego que acientífico. Estamos de acuerdo, claro, en que la ciencia es esencialmente humana, porque, que se sepa, el hombre es el único animal que ha producido ese producto que es la ciencia, y, por lo tanto, la ciencia es un producto humano, y el humanismo no puede estar reñido con la ciencia, ni la ciencia con el humanismo.”

[Koldo Mitxelena, *Hablando con los vascos*, 101. or.]

On Manuel Lekuonak ederki uztartu zituen bere baitan Errenazimentua eta Euskal Pizkundea: haren emaitzen zerrenda ikusi besterik ez dago. Bestalde, ederki uztartu zituen humanismoa eta zientzia ere: metodologia zorrotzeko langile trebea zen, aditu zuhurra, jakintsu gozoa eta gizalegeko gizona.

Nik ez dakidan latinezko *Omnibus artibus, commune vinculum* delako esaera egoki datorchio haren iharduerari; ardatz beraren inguruan antolatu baitzituen lan guztiak. Ederki ezagutzen zuen, inondik ere, jakintzaren eta artearen alor ezberdinek elkarrekin duten zerikusia edo barne-lotura. Baita fruitu emarazi ere!

Isilka bezala eragotzi zigun, beraz, haustura nagusi bat: humanismoaren eta zientziaren arteko haustura; teknikaren eta espezializazioaren lilurapean gaudenontzat, izan ere, eredu bikaina baita On Manuelek eragin zuen jakintzaren ikuspegi aberatsa eta aberasgarria: intelektual euskaldunaren eredu.

\* \* \*

Ozenago eragotzi zigun, ordea, hausturarik nagusiena: kultur ikuspegiari dagokiona. Eta eskerrak ozenki salatu zuen kultur ikuspegi aristokratikoa! Zertan ote lirateke gaur egungo euskalgintza eta bertsolaritza, baldin eta On Manuel Lekuonak ez balu frogatu izan Ahozko Literatura ere lehen mailako kultur agerpidea dela?

Hona hemen haren idatzietatik hartutako pasarte bat:

Hay una propensión muy generalizada a juzgar con un cierto aire de conmiseración, si ya no de verdadero desdén, todo lo que no está consignado por escrito.

No cabe duda de que la escritura es un gran medio para el adelantamiento cultural de la Humanidad; pero no es el único, ni mucho menos. El hombre iliterato tiene también su cultura, y hasta cultura muy adelantada en algunos aspectos, como, por ejemplo, en las Ciencias Morales, en el arte de la expresión oral del pensamiento —expresión exacta—, en las artes de la Elocuencia, y en las artes de carácter dinámico como la Danza y la Música.

Esas consideraciones nos permiten comprender la posible categoría y altura de las producciones de la Literatura Oral. Producciones que —dentro de su módulo *sui generis*— son de verdadero valor literario. Prueba de ello es que la Literatura actual trata de imitar con loco empeño algunas de ellas.

[Manuel Lekuona, *MLIG* 1. lib., 546. or.]

Esan beharra dago —ez baita huskeria— On Manuel Lekuonak aurea hartu ziola Lévi-Strauss delako antropologo ospetsuari jende xumearen kulturgingitzaren aldeko argudioetan.

Horretarako, ahokotasunaren literatura balioak adierazteko, era askotako arrazoiei eman behar izan zien buelta. Entzun, zenduaren hitzok:

Bai musikaz, bai hitzez benetan zoragarriak dira gure artzain-kantak (...) Baina neroni entzunik nago A. Donostia lantua jotzen *Arranoak bortietan* aztertzean; eta lantua joaz nola esaten zigun lastima handia dela kanta hegalarri eder horretan, arranoaren hegada gaingirozkoa pintatu ondoren, olerkariak giro horri ez eustea, eta jaistea, gero esaten dituen huskeriatara.

*Ni ere, lehen, andereki  
ebiltan, kanberetan.  
Orai, aldiz, ardura-ardura  
nigarra dizut begietan.*

Aita Donostiak, bere garaiko giroari jarraikiz, bukeria sentikor horri nolanhiko huskeria zeritzon.

Azkuek ere zenbait kantu erdara-kutsukori egiten dizkion muxinak oso ezagunak dira. Horrelako giroa zegoen orduan. Gaur gauzak beste era batera irizten ditugu: hitzari baino pentsamenduari hobeto begiratuaz.

[Manuel Lekuona, *MLIG* 1. lib., 13-14. or.]

Baina pentsamenduari dagokionean ere alorrek ongi bereizi beharra zegoen, baldin eta *canon* klasikoak denak irentsiko ez bazituen. Sendoak, irmoak dira On Manuelen hitz hauek:

Yo expresamente digo e insisto en que los fenómenos de nuestra peculiar Literatura están completamente al margen de toda la Poesía Clásica, y que es necesario examinarlos y analizarlos a la luz de otra Poética muy distinta de la clásica.

[Manuel Lekuona, *MLIG* 1. lib., 561. or.]

Zuzen zegoen, eta —behingoz, bederen— arrazoiak zerbaiterako balio izan zuen, On Manuel berberak adierazi zuenez:

Mis observaciones de los años 1930 y 1935 sobre las aparentes incoherencias y la mentalidad mágica de nuestras *kopla zaharrak*, etc., hallaron en su día un eco de buena acogida, como solución al problema de tipo estético que plantea nuestra Literatura Oral. Una acogida de gran satisfacción aun entre aquellos que antes apreciaban como verdaderas aberraciones tales aparentes incoherencias, los cuales, en vista de mis explicaciones, vieron que el problema entraba en los estadios de una posible seria investigación y estudio científico.

[Manuel Lekuona, *MLIG* 1. lib., 560. or.]

Horrelaxe eragotzi zuen, zorionez, euskal tradizioarekiko haustura. Eta honelaxe laburbildu zuen usadioaren eta ahokotasunaren garrantzia:

El vasco se mueve, se ha movido siempre, dentro del estadio oral, consuetudinario. Nuestra cultura ha sido eminentemente oral. La escritura, para nuestro pueblo, es algo posterior, algo postizo.

[Manuel Lekuona, *MLIG* 1. lib., 543. or.]

On Manuel Lekuonak garaipen bikaina lortu zuen euskal kulturarentzat: ahaleginaren ahaleginez, asmoz eta jakitez, txapeldun gertatu zen denon onerako. Esango nuke berebiziko poza hartu zuela horrekin. Begira zer zioen:

En el terreno de la Euskeralogía tengo un haber muy importante: el haber salvado la vida del Bertsolarismo Vasco con mis estudios sobre el tema; dando igualmente vida a todo lo referente a la producción poética de carácter oral.

[Manuel Lekuona, *MLIG* 12. lib., 102. or.]

\* \* \*

Dagoeneko aipatu dizkizuet On Manuel Lekuonak eragotzi zizkigun bi haustura nagusiak: bata, humanismoaren eta zientziaren artekoa; bestea, kultur ikuspegiaren eta herri-jakintzaren artekoa. Gaur egun ere, ordea, On Manuel zenaren beharra sumatzen dut euskalgintzan daukagun haustura-arrisku bat eragozteko: batasunaren eta egokitasunaren arteko haustura, alegia.

Euskararen geroa, bistan da, oraingo euskaldunon esku dago. Etorkizun hori eskueran eta tirabidean dugunez, gogoeta labor bat ekarri nahi dut plazara, norbaitek aintzakotzat hartu nahi balu ere.

Ohar bat, hasteko: Euskaltzaindiaren aldeko nauzue ni; baina aldekoa ezta, nahitaez, menpeko.

Bere baitan auzi nagusi bat erabaki beharrean ikusten dut Euskaltzaindia. Alegia, zer egin behar ote du gerora begira: *Jarrai*, besterik gabe, ala *Ekin eta jarrai*, bere ikurritzak dioen bezala?



Euskaltzaindiari dagokio euskararen untzia gidatzea. Ongi deritzot. Baina, arraunlarietakoa naizenez, ez deritzot ongi noraezean bezala ibiltzeari, euskara biziaren kaltetan. Kapitain itsua da gramatika; baina, halere, bera daukagu nagusi. Diruaz esan ohi dena egoki datorkio gramatikari ere: *Morroi ona da, baina nagusi txarra*.

Badakit ezinbestekoa dugula euskararen gramatika aztertu, jorratu eta hartaz baliatzea; baina larria deritzot aspaldi luze honetan eman zaion garrantziari. Badirudi, adibidez, *geniezazkizueketen* eta gisako aditzak ikasi gabeak ez dakiela euskaraz... nahiz eta erdaraz nekez hitz egiten duen euskaldun peto-pettoa izan! Eta alderantziz; *euskañolez* mintzo den filologo askotxo baitabil gure artean. (Erdaraz pentsatutako euskarari deitzen diot *euskañola*; sasi-euskara eta euskara gordinaren amari, alegia.)

Idien aurretik ala gurdiaren atzetik joan behar du Euskaltzaindiak? Bide-erakusle ala kontu-hartzaile? Eta atzetik joatea erabakiko balu, zein izango genuke gidari hizkuntza gaietan? Nor bere kasa? Bakoitza bere aldetik? Nork uztartuko lituzke idiak? Nork batuko luke orga? Ba ote da halako itzainik, ideologia kontrajarrien arteko amildegia gaingidituko lukeenik? Ba ote da halako akuilatzailerik, Gasteiz, Iruñea eta Akitaniako gobernuai onez onean eta denei norabide berean eragingo liekeenik? Ez, noski.

Ez, ez da halakorik, Euskaltzaindia besterik; izan ere, Euskaltzaindiaren itzala ezinbestekoa baita horretarako.

Euskaltzaindiak bikain jokatu du orain arte: ongi mereziak ditu, beraz, ospea eta itzala. Euskaltzaindia gogotik ari da lanean gaur egun ere: horra, adibidez, Gramatika batzordekoen ihardun txalogarria. Hortaz, nik ez diot eskatzen gehiago egiteko; baizik eta besterik ere egiteko. Hitz batean esateko, hauxe eskatzen diot Euskaltzaindiari: euskal estiloaren araberako komunikazioa ziurtatzeko bideak aztertu eta finkatzeko. Alegia, euskara egokia hartzeko eredutzat.

Esandakoaren harian, On Manuel Lekuonaren hitz batzuk aipatu nahi ditut:

Batasuna hizkuntzaren bentaja "bat" da; baina, askotan, bentaja nahasia, konplikatua, beste bentaja batzurentzat kaltegarri gerta daitekeena.

Hizkuntzak badu batasuna baino lehenagoko eta beharragoko gauzarik, bentaja handiagorik: adibidez, argitasuna. Hizkuntzak argia izan behar du, ezaguna, herrikoa: ahal balitz, hitza ahotik irten orduko, herriak entzutean, berehala ulertzeko modukoa.

Hizkuntzak badu beste bentaja bat ere, ez txikia: jatoritasuna (halako jario gozo bat; gozoa eta garratza denbora berean: grazia). Modismoak dira, batez ere, hizkuntzari jatoritasuna ematen diotenak: hots, gramatika arruntetik kanpora sortzen diren esaerak.

Batasuna lortzeko biderik errazena, berriz, gramatika arruntaz mintzatzea da; baina gramatika arruntaz mintzatu behar horrek lehenengo baztertzen di-

tuen gauzak, hain xuxen, horiexek izan ohi dira: modismoak. Eta horixe da hizkuntzari bere jatortasuna galerazten dion bidea.

—Zer egin, orduan? —esango duzue—. Jatortasunari jarraituz, batasuna alde batera utzi? Ala, batasunari jarraituz, jatortasuna utzi alde batera?

Ez bata eta ez bestea. *Beltzak eta txuriak / mendian ardiak* —dio gure kopla herrikoi batek—. *Zuk ere ez daukazu / bentaja guztiak*.

Ez da munduan ezer eta inor bentaja guztiak dituenik. Bentaja bat bestearekin osatu beharra dago: beltza, txuriarekin; txuria, beltzarekin.

Batasunak ere ez dauka bentaja guztiak; baina bera, bere baitan, bentaja bat da. Eta Liturgiaren hizkuntza argitasunez, jatortasunez eta batasunez osatu beharra daukagu. Liturgiaren izaerak eskatzen du: Liturgiaren izaera komunitarioak.

[Manuel Lekuona, *MLIG* 12. lib., 88-90. or.]

On Manuel zenak Liturgiaren hizkuntzaz esandako hitzak ziren horiek. Baina esango nuke denoi ere guztiz baliagarri zaizkigula adierazpen zuhur horiek; argitasun eta jatortasun premian ikusten baitut euskara batua.

Hizkuntza gauza bizia da; eta ezinbestekoa zaigu ahozko euskarak dituen bizigarriak aztertu, azaldu eta erabiltzea, baldin eta euskarak bizitasunik izango badu komunikabide, eskola eta abarretan.

Bizitasuna galtzen duenean, hizkuntza galdu egiten da. Hil aurretik, ordea, agerian izaten ditu gaixotasunaren ezaugarriak; ahulezia, batez ere.

Zertan ezagun du euskarak —euskara batuak— osasun eta osotasun gabezia? Hona hemen ezaugarrietako batzuk; hona hemen, txanda librean, sindromea adinako zantzu edo sintoma-multzoa: erabilpen urria, inkomunikazioa, euskalkiak baztertzea, gaztelerarekiko morrontza, kultur ikuspegi aristokratikoa, euskal estiloa gutxiestea... Bada hor, beraz, kezkatzeko ez ezik larritzeko ere adina zio.

Gainera, behinola ez bezalako behar gorria sumatzen dut gaur egun; izan ere, eta orduan ez bezala, ahozkotasuna nagusitzen ari baita, berriro ere, munduko lurralderik aurreratuenetan.

Irrati, telebista eta abarren eraginez, hizkuntzaz baliatzeko era berri bat nagusitu da komunikazioan: erdi ahozkotasuna. Zer da, baina, erdi ahozkotasuna? Ba, entzuleentzat idatzitako hizkuntza: idatzi, ahoz aldarrikatu eta berraz idatzitako, alegia. Horixe egiten dute irrati-telebistako kazetari eta esatariak, hizlariak, irakasleak eta abarrek. Eta horixe bera egiten dugu, gero eta gehiago, gainerako hiztun eskolatuok: buruz idatzi ahalean, buruan idatzita dakusaguna ahoskatu. Baita bertsolari gazte askok ere, Pello Esnalek jakinarazi zidanez.

Zorionez, ordea, euskarak abantaila izugarria dauka erdi ahozkotasunak jontzen digun erronka horri aurre egiteko: ahozko tradizio oso aberatsa; ahozko-

tasunean baitugu erdi ahozketasun horretara egokitzeko giltza. Eta zer-nolako giltza —urrezkoa!— ahozko euskarak damaiguna! (Bidenabar, euskalkiak eta batua egokiro uztartuko genituzke. Badakizue: *Beharra, eragile on*). Ez ahaztu, bestalde, euskal prosa heldu gabe egoteak zenbat behaztopa eragin dizkigun hizkuntza idatziaren agintaldian.

Zoritxarrez, ordea, aski ezezagunak zaizkigu ahozko euskarak mendez mende landu dituen komunikaziorako teknikak eta baliapideak: Euskaltzaindiak ez ditu aztertu, eta gure unibertsitateetako jakitunek ere ez. Zoritxarrez.

Zorionez, ez da beranduegi.

Ekin eta jarrai On Manuel Lekuonak erakutsi zigun bidetik!



### III. HERRI-LITERATURA

#### ONDORIOAK

Jardunaldi hauen antolaketan eskuhartu duten guztiak eskertu ondoren, pozarren adierazi nahi du Euskaltzaindiak Jardunaldi hauen helburuei buruzko bere iritzi baikorra.

Batetik, Oiartzungo seme eta euskaltzainburu izan zen Manuel Lekuonari eginiko gorazarretzat dauzka Euskaltzaindiak III.Herri-Literatura Jardunaldiok, oiartzuar handiaren mendemuga honetan, euskal ahozketasunean hark izan zuen aintzindaritza aitortu eta goiraipatuz.


Bestetik, begi onez ikusi ditu Euskaltzaindiak ahozketasunaren ikerkuntzan gaur egun lanean ari diren etxeko eta auzo herrietako hainbat ikerlariren lanak. Ikustentzutekoen uholdeak ahozko altxor aberatsa erabat suntsitu behar duela dirudien honetan, biziki eskertu eta suztatu nahi ditu Euskaltzaindiak, garai batean Manuel Lekuona bezala, gaur egun giza-izpirituak sorturiko edertasun hori guztia jaso eta ondorengo belaunaldiei helarazten saiatzen ari diren ikerle eta ahozkolari guztiak.

Zentzu honetan, hirugarrenik, oso aberasgarritzat dauzka Euskaltzaindiak Jardunaldiotan eskuhartu duten txostengile eta gainerako hizlarien artean trukatua ahal izan diren ahozketasunari buruzko hainbat iritzi eta egitasmo, ondorengo ikerketarako lagungarri izango direlakoan.

Eta, azkenik, III. Herri-Literatura Jardunaldiotan agertutako iritzi eta txosten guztiak ahalik eta lasterren argitaratuko ditu Euskaltzaindiak, aurrerantzean ere ahozketasunari dagokion ikerketak jarraitzaile berri eta saiaturik izan dezan gure artean.

Esker mila eta agur t'erdi.

Oiartzunen, 1994ko abenduaren 30ean

A collection of handwritten signatures in black ink. From left to right, there are several distinct signatures, some overlapping. The names listed in the caption below correspond to these signatures.

Jose Mari Iriondo,  
Alfonso Irigoyen,  
Manu Etxebarria.



### III. HERRI-LITERATURA: Azken hitzak eta eskerrak

*Oiartzun, 1994-12-30*

*Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua*

Esker anitz hurrengooi:

1. Literatura batzordea (J.M. Lekuona batzordeburua).
2. Herri-Literatura azpibatzaordea (Antonio Zavala, arduraduna).
3. Oiartzungo Alkatea (Jon Iñarra), Kristina Brit (alkatearen idazkaria).



*Ezkerretik eskumara:*

Pello Esnal; Jean Haritschelhar, euskaltzainburua; Jon Iñarra, Oiartzungo alkatea; Juan Mari Lekuona.

4. “Manuel Lekuona Biblioteka”ko arduradun bi hauek:
  - Ana Alvarez,
  - Enrike Lekuona
5. Jardunaldi hauetan parte hartu duten hizlariak (Frantziakoak, Aragoi-koa, Madrilekoa eta Euskal Herrikoak).
6. Txostengileak.
7. Bertsolarien Elkarte.
8. Jardunaldi hauen grabaketa egin duten grabatzailea eta bideogilea.
9. Entzule izan diren guztiak.



### III. HERRI-LITERATURA JARDUNALDIAK

#### Azken hitzak

*Oiartzun, 1994-12-30*

*Jon Iñarra,  
herriko alkatea*

Honezgero esan beharrak esanak daude.

Urte hasieran Manuel Lekuonaren mendeurrenari hasiera eman genion.

Urtean zehar, besteak beste, ekintza hauek izan ditugu:

- Euskadiko XI. antzerki-topaketa:
- *On Manuel Lekuona eta bere teatroa* liburua.
- Oiartzungo XIII. bertso astea, maiatzean.
- Manuel Lekuonaren ikaslanak Jardunaldiak ekainean.

Xanixtebanetan:

- ‘Manuel Lekuona’ bideoa.
- ‘Manuel Lekuona eta bere garaiko artelanak’ erakusketa.
- III. Herri-literatura Jardunaldiak.

Eta honekin bukaera ematen diogu Manuel Lekuonaren mendemugari.

Besterik gabe, mila esker eta Urteberri On.



# **EUSKALTZAINDIAREN ERABAKIAK**



# EUSKALTZAINDIAREN ARAUAK



1



## 1

**BAT-BATEAN,  
BEHINIK BEHIN,  
BATIK BAT (\*)**

*Bat-batean* XVII. mendearen erdialdeaz gero erabiltzen da Iparraldean eta XVIII.aren erdialdeaz gero Hegoaldean. Esapide horrek badu aldaera bat, *bet-betan*, XVIII. mendearen hasieraz gero Iparraldean erabiltzen dena. Lehen aldaerari dagokionez, literaturan erabili izan diren grafiak *bat batean* eta, batez ere, *bat-batean* dira. Gaur egun askotan ikusten den *bapatean* idazkera ez da 1930 ingurua arte agertzen eta ez da 1970 ingurua arte ia erabiltzen. Bestalde, ez da inoiz Iparraldeko tradizioan azaltzen. Orobat, *bet-betan* aldaerari dagokionez, ez da ia idazkera *p*-dunik literatura tradizio guztian. Euskaltzaindiak hitz elkartuak idazteko eman dituen gomendioen arabera, *bat-batean* da esapide honi dagokion idazkera.

*Behinik behin* esapidea Zuberoakoan izan ezik gainerako literatura tradizio guztietan erabiltzen da, nahiz Hegoaldean maizago agertzen den. Idazkera *p*-dunak, ia gipuzkerazko testuetan soilik geratzen dira, XIX. mendearen bigarren erdialdeaz geroz, eta oro har *behinik behin* da tradizio hoberena duen idazkera, are XX. mendean. Bestalde, azken urte hauetan euskara batuak grafia *p*-dunetan erabat baztertua ekarri du, antza denez.

*Batik bat*-i dagokionez, ez du aurreko esapideak duen literatura tradizioa, ez baita ia 1930 arte azaltzen testuetan, eta Hegoaldekoa soilik baita. Esapide honetan, bestalde, badirudi ia hasieratik bertatik grafia *p*-dunak *p* gabeak adina erabili direla, are eruduzko idazleen artean. Euskara batuan ere bi formak, *batipat* eta *batik bat*, ageri dira, nahiz bietan lehena gehiago. Dena den, *batik bat* grafia erregularragoa da, horrelako egitura duten gainerakoekin eta hitz elkartuei buruz emandako gomendioekin konparatuz.

---

(\*) *Oharra*: ikus *Euskera* 1992, 2, 37. liburukia (2. aldia) 721. orritik aurrera.

**Beraz, Euskaltzaindiak hau erabakitzen du: idatz dadila euskara batuan *bat-batean* (eta halaber *bet-betan*), eta ildo beretik *bat-bateko* eta *bat-batekotasun*; orobat, idatz dadila euskara batuan *behinik behin* eta *batik bat*.**

Honekin batera, Euskaltzaindiak gogorarazi nahi du esapide hauen ahoskerak betiko legeen arabera egitea ongi dela (*batipat*, adibidez).

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1994ko urriaren 28an onartua)



## 2

**BAITU,  
BAIKARA,  
BAINAIZ (\*)**

*Bait* partikula (*beit* zubereraz, testu zaharrenetan izan ezik) aditz laguntzailearen edo trinkoaren aurre-aurrean kokatzen da. Iparraldeko tradizioan eta Hegoaldeko Nafarroako testuetan, zenbait salbuespen baztergarri alde batera utzirik, aditzari atxikirik agertzen da beti, lehenengo testuetatik gaurdaino.

Sartaldean, *bait* gutxiago erabiltzen da, baina aski ohikoa da XVIII. mendean gero literatura gipuzkeran eta mende honetako zenbait idazle bizkaitarren; *bai* aldaera batez ere mende honen lehen erdian erabili zen, mendebalean, jakina.

Mendebaleko testu zaharretan *bait* atxikirik agertzen da Mendiburu eta Ubillosengan, baina marrazkoz loturik Iturriagarengan eta berezirik Iztuetaarengan. Dena dela, *bait* atxikirik agertzen duten agerraldiak nagusi dira, alde handiz XIX. mendearen bigarren erdialdean. Mende honetan ere 1900-1970 epean *bait* atxikia da sartaldean gehien erabiltzen dena: *Orotariko Euskal Hiztegia*-ko datuetan, 1900-1950 epean, *bait* atxikiaren 653 agerraldi daude, 10 *bait* bereziarenak eta 34 *bait* marrazkodunarenak, eta 1950az geroko testuetan, 1161 *bait* atxikiarenak, 390 *bait* marrazkodunarenak eta 93 *bait* bereziarenak. Ikusten denez, *bait* bereiz idaztea guztiz berria da (azken 25 urteotako kontua, batez ere) eta Hegoaldeari soilik dagokiona. Gainera, idazkera berri horrek ez du usadio zaharra baztertu Hegoaldean, *bait* atxikia ere ikusten baita, batez ere ereduzko idazleen artean.

Bestalde, *bait*-en erabil moldea ezin da parekatu ezezko esaldietako ez partikularenekin: ez bereiz XVIII. mendearen erdialdeaz gero aurkitzen da Iparraldeko nahiz Hegoaldeko testuetan, eta erabat ohikoa da XIX. mendearen bukaerarako.

*Bait* atxikirik idazteari hainbatek ikusten dion eragozpenik larriena, aditzari lotzean gertatzen diren letra ezabatzeak edo aldaketak dira. Baina lotura legeok aski errazak dira:

<i>baitu</i>	<i>baikara</i>
<i>bainaiz</i>	<i>baihaiz</i>
<i>bailuke</i>	<i>baitzuen</i>
<i>baitabiltza</i>	<i>baitator</i>
<i>baitoaz</i>	<i>baikentozke</i>
<i>baikintuen</i>	<i>bainator</i>
<i>bainenbilen</i>	<i>baihaiz</i>
<i>baihintzen</i>	<i>bailitorke</i>
<i>baillizateke</i>	e.a.

(\*) *Oharra*: Arau honek lehendik harturiko erabakia zehazten/aldatzen du. Ikus *Euskera* XVII, 1972, 168-173. orr.

Literatura tradizioko usadioa ez da ezin aldatuzko legea, baina tradizioko batasuna hausteko arrazoiek pisuzkoak izan behar dute, kalteak onurak baino handiagoak izan baitaitezke bestela. Hortaz, Euskaltzaindiak hau erabakitzen du:

***Bait* partikula, kasu guztietan, aditzari atxikia idatz dadila: *bain*aiz, *baikara*, *baitoaz*, e.a., eta ez *\*bai(t) naiz*, *\*bai(t) gara*, *\*bai(t) doaz*, e.a.**

Bibliografia: *Orotariko Euskal Hiztegia*, s.v. *bait*.

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1994ko urriaren 28an onartua)

## 3

**AURREALDE,  
ATZEALDE**

Era honetako lehen hitzak (*gain, goi, azpi, behe, barne, barru, barren, aurre, atze, aitzin, gibel, kanpo*) Axularrengan agertzen dira, *aitzin alde, gibel alde, gainalde* eta *barrenalde*, hain zuzen. Harrez gero *aitzinalde* eta *gibelalde* aski ohikoak dira literatura tradizioan eta ildo beretik *aurrealde* (Lardizabal, Soroa, D. Agirre...), *atzealde* (Iztueta, Lardizabal, Uriarte...), *azpialde* (Duvoisin, Txirrita...), *barnealde* (Iraizoz...), *barrenalde* (Pouvreau, Arrue...), *barrualde* (D. Agirre, Azkue...), *behealde* (Agirre Asteasukoa, Iztueta, Apaolaza...), *gainalde* (Mendiburu, Duvoisin...), *goialde* (Kardaberaz, Iztueta, Arrese Beitia...), *kanpoulde* (Duvoisin, Uriarte, J. Etxepare, Etxeita...) e.a.

Mende honen erdialdera edo, *k*-dun formak (*barrukalde, atzekalde*...) hasi ziren Hegoaldeko euskara idatzian agertzen, *barruko alde, atzeko alde* esapideen batze baten ondorioz. Joera hau asko hedatu da azken urteotan, nahiz eta tradizioko formak ez diren desagertu, batez ere idazle ereduakoen artetik.

Hortaz, Euskaltzaindiak gogorarazten du, euskara idatzian, *aurrekalde, atzekalde, barrukalde, gainekalde, azpikalde, goikalde, behekalde, kanpokalde* bezalako forma berri eta batasun hauleak ez direla egokiak euskara batuan, eta hau erabakitzen du:

**Erabil daitezela, oraintsu arte egin den bezala, esapide osoak: aurreko alde, atzeko alde, barruko alde, gaineko alde, azpiko alde, goiko alde, beheko alde, kanpoko alde e.a., edota forma atzizkidun jatorrak: aurrealde, atzealde, barrualde, gainalde, azpialde, goialde, behealde, kanpoalde e.a.**

Honek ez du esan nahi horretarako tradizio mintzatua dagoenean *aurreko alde, atzeko alde* formak *aurrekalde* eta *atekalde* ebakitzea gaitzesten denik.

Bibliografia: *Orotariko Euskal Hiztegia*, s.v. *aitzinalde, atzealde, aurralde, azpialde, barnealde, barrenalde, barrualde, behealde*.

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1994ko urriaren 28an onartua)

*Aurrealde, atzealde*

## 4

## HAU GUZ(T)IA

Erakusle bat *guzti* hitzarekin egokitzen denean, euskal testu zaharretako joskeran erakuslearen ondoren etortzen zen beti *guzti*, eta *hau guztor*, *hau guztiau* bezalako moldeak alde batera utzirik, *guzti*-k artikulua eta erakuslearen kasu atzizki bera hartzen zuen, adibidez:

*Ethorriko dirade gauza hauk guziak nazione hunen gainera* (Lç Mt 23,36).

*Liburu hau guztia duk bi partetan berezten* (Etxeberri Z MD/ 5).

*Egun a guztia bapere bekatu gabarik emoteko* (Añib EL2 90).

*Teresak konbentu barri oneek guztiok [...] eginda, bialdu zituban bere semiak eta alabak Pranzijara* (Bartolome II 296).

Orobat erakuslea izenordain gisa ari denean:

*Baina haur guzia egin izan da konpli litezenat Profetén Skripturák* (Lç Mt 26, 56).

*Orietan guzietan bat banaka konsiderazio andiarekin pensatuaz* (O. de Arin 70).

*Au guzia dakizula, zorakeria oriekiñ zabilza?* (Agirre A III 530).

*Ez oraino horiekin guziekin etzuku merezi zeruko zoriona* (Duhalde 172).

Geroago, Hegoaldean, *guzti hau*, *guzti haietan* bezalako joskerak agertzen hasi ziren. Lehen agerraldia, XVIII. mendean bakarra, antza denez, Ubillosena da: *Zer esan nai du guzi onek?* (199). XIX. mendean eta XX.aren lehen erdialdean gero eta gehiago ikusten dira joskera hauek, eta azken urteetan, jakina denez, gutxi dira joskera zaharrari eusten diotenak. Azpimarratu behar da aldakuntza hori Hegoaldean soilik gertatu dela, eta ondorioz, puntu honetan tradizio zaharrean zegoen batasuna hautsia gertatu dela. Hortaz,

**Euskaltzaindiak gogorarazi nahi du *hau guz(t)ia*, *bide hartan guz(t)ian*, *horiekin guz(t)iekin* eta *kidekoak hobestekoak* direla batasunaren izenean. Eta orobat *gauza hauek guz(t)iak* eta honen *kidekoak*. Beraz, *hau guz(t)ia* eta *guz(t)i hau* esapideen artean, *lehena da* hobesten dena. Eta berdin gertatzen da *bide hartan guz(t)ian* / *bide guz(t)i hartan*, *horiekin guz(t)iekin* / *guz(t)i horiekin* eta *hauen antzeko bikoteetan*. Denetan lehen aldaera da *hobestekoak*.**

**Hala ere, *hau guz(t)ia* eta *hori guz(t)ia* formekin batera *hau guz(t)iau* eta *hori guz(t)iori* ere oso bidezkoak dira (ez, ordea, \**gizonau* bezalakoak, jakina). Halaber, *hauek guz(t)iok*, *horiek guz(t)iok*, (*gauza*) *hauek guz(t)iak*, *horiek guz(t)iak* eta *haiek guz(t)iak* formak.**

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1994ko urriaren 28an onartua)

## 5

**ENE/NIRE,  
NIRI**

Euskal pertsona-izenordainen deklinabidean batasuna lortzeko, punturik korapilotsuena, forma indartuen arazoa alde batera utzirik, *ni* izenordainaren *noren* kasuari dagokiona da. Euskalki guztietako testu zaharretan kasu horren forma *ene* zen, bizkaieratik zubererara:

*Arren, ene andra Milia Lasturko, / Mandatariak egin deust gaxtoto* (TAV 3.1.5).

*Ene begiakaz biotzeen artean / Errenkore andiak erne zitean* (TAV 3.1.22).

*Zeren sobera bekatü egin baitüt pensamentüz, hitzez eta obraz: ene faltaz, ene faltaz, ene falta handiz* (FPrS 1676, 9).

XVII. mendearen amaieran *nere* forma agertzen da, goi-nafarrerazko testu batean, eta hurrengo mendean urte bertsuetan azaltzen da Lapurteraz (1733) eta gipuzkeraz (1739). Geroago, baina mende berean, *nire* forma agertzen da bizkaieraz. Harrez gero, *nire* eta *nere* nagusituz doaz Hegoaldean *ene* forma zaharraren kaltetan, gaur egun, batez ere, zenbait esapide fosildutan (*ene!* e.a.) erabiltzen dena. Iparraldean, aldiz, *ene*, *nere* bezain erabilia da, ahoz nahiz izkribuz.

Mende honetan, *nire* aldaeraren aldeko joera nabaria gertatu da Hegoaldean. Joera hori aurreko belaunaldietan hasi zen nabarmentzen, Azkuek bere "Gipuzkera osotuan" *nire* forma proposatu zuenez gero, eta erabat normala da Orixegan eta bere belaunaldiko beste hainbat idazle ez bizkaitarrengan. Bestalde, jakina denez, *nire*-ren aldeko joera hori areagotu da euskara batuan. Orobat, ezin ahaztuzkoa da, batasunaren ikuspuntutik, Bizkai aldeko hainbat idazlek *nire* aldaerari dion atxikimendua.

*Neri*-ri dagokionez, forma berria da, XIX. mendearen erdialdean *nere*-tik analogiaz sortu zena, eta harrez gero batez ere gipuzkerazko idazleek (ez, dena dela, guztiak) erabili dutena; *niri*, aldiz, euskalki guztietan (zubereraz izan ezik) agertzen da lehen testuetatik hasita. Kasu honetan zahartasuna eta hedadura kontuan harturik *niri* da hobestekoa. *Neri*-ren arrazoi berberengatik *eni* formak, batez ere zubereraz erabili dena, baztergarria dirudi.

**Hauxe da, hortaz, Euskaltzaindiaren erabakia: *ni* izenordainaren *noren* kasuan *nire* erabil dadila (eta, jakina, *niretza*, *nirekin*), eta orobat *ene*, maila jasoan bederen; *nori* kasuan *niri* erabil dadila.**

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1994ko urriaren 28an onartua)

## 6

**USAIN,  
ARRAIN,  
ZAIN**

Bada euskaraz hitz-sail bat euskalki batzuetan *-ain* bukaera, beste batzuetan *-a(i)ñ* eta beste batzuetan *-ai* duena. Horien artean gehien erabiltzen direnak *usain*, *arrain*, eta *zain* eta honen eratorriak (*artzain*, *diruzain*, *ertzain* e.a.) dira. Literatura euskalkieci dagokionez, bizkaicraz, lapurteraz eta zubereaz, eta Baztango eta Nafarroa Behereko testuetan, palatalizazioa gorabehera, *-ain* da hitz horietan betidanik azaltzen den forma; gipuzkeraz eta Goi Nafarroako testuetan, aldiz, *-ai* da lehen testuez gero beti agertzen den aldaera.

1968an euskara baturako ontzat edo eman ziren irizpideen arabera Bizkaian eta Iparraldean erabiltzen diren formak dira, bat datozenean, hobestekoak. Bestalde, harrera aski ona izan dute harrez gero idazleen artean *-ain* amaiera duten aldaerek, azterketa guztiek adierazten dutenez. Salbuespen bakarra *gotzain* da, *gotzai* baino gutxiago erabilia izan dena; nolana ere, Bizkai aldean *gotzain* aldaera aski erabilia dela kontuan harturik, badirudi ez duela merezi *gotzai*-ren kasuan salbuespenik egitea.

*Dohain*-i dagokionez, ez da Bizkai aldean erabili den hitza; hala ere, Iparraldean Leizarragaz gero erabilera zabala izan duenez, Euskaltzaindiaren iritziz honetan ere ez da egoki salbuespenik egitea.

Ez da kasu bera *orain* gramatika-hitza, zeren honetan Bizkai-Gipuzkoetan beti *orain* erabili baita; orobat, aldaera hori ikusten da Iparraldeko zenbait idazle zaharregan, Leizarraga eta Etxeberri Ziburukoarengan, esaterako, eta, beraz, badirudi hori dela hobetsi behar den aldaera.

*Mahai*-ri dagokionez, aldiz, *-n* gabeko forma da zabalduena, Hegoaldeko literatura tradizio guztiak hartzen dituena. Bestalde, Iparraldeko tradizioan ere ez da ezezaguna, Materregan, Axularrengan eta, mende honetan, Jean Etxeparerengan bederen aurkitzen baita.

**Hortaz, hau da Euskaltzaindiaren erabakia: *-ain* eta *-ai* aldaerak dituzten hitzetan *-ain* formak erabil daitezela; hau da, *arrain*, *usain*, *zain*, (eta honen eratorriak diren *artzain*, *atezain*, *diruzain*, *itzain*, *ertzain*, *gotzain* e.a.), *dohain*, eta orobat, *orain* idatz daitezela euskara batuan; baina beste sail batekoa denez gero *mahai*, eta ez *mahain*, idatz dadila.**

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1994ko urriaren 28an onartua)

## 7

## ZENBAKIEN IDAZKERAZ

Zenbakiak letraz idazteko orduan eredu desberdinak aurkitzen dira, ez bakarrik euskararen kasuan, baizik beste hizkuntza anitzetan ere. Euskaltzaindiaren ustez, puntu honetaz gomendioren bat proposatzeko orduan bi gauza hartu behar dira kontuan: batetik, idazleen usuarioa eta ohitura literatura tradizioan, bai mendebalean bai ekialdean; bestetik, azken urteotan, euskara bera ikastetxe, komunikabide, banketxe eta abarretan baliabide bezala sartu denetik, esparru berri horietan egin den aukera ere. Eta hona zergatik: Euskaltzaindiak, jakina denez, beti idazle klasikoan usuarioari ematen dio lehenentasuna. Alabaina, zenbakiak idazkerak, bide bat nahiz bestea aukeratu, ez dirudi euskaraz halako aparteko garrantzirik duen. Ez, behintzat, hitz hau edo bestea hautatzeak izan lezakeenaren adina. Horregatik izan du gogoko azken urteotako usuarioa ere. Hezkuntzan, batez ere, erabaki honen premia sentitzen denez, egoki da proposamena egitea.

Zenbakiak kontua dela eta, zenbait zehaztapen egitea komeni da:

1) *Zero* eta *huts*, biak erabiltzen dira, nahiz ez diren gauza bera: *bost eta huts, huts eta huts, zero bider zero berdin zero*, e.a.

2) *Hiru* eta *lau* zenbakiak bi sistema erakusten dituzte deklinatzeko orduan.

3) *Bost* zenbakiaren aldaera *bortz* da, Iparraldeko zenbait hizkeratan erabilia. Hala ere, Nafarroa-Beherean parterik handiengan eta Zuberoan *bost* esaten da.

4) *Hogei* zenbakiaren eta *ehun* zenbakiaren artean dauden zenbakiak idazkeraren tradizioa aski nahasia ageri da, ekialdea eta hegoaldea nor bere bidetik ibili baitira. Ekialdean *hogei eta zazpi* idatzi izan da XVIII. mendearen erdialderaino; gero, *hogei ta zazpi, hogei-ta zazpi, hogeita zazpi* eta *hogeitazazpi* bezalakoak aurki daitezke. Kontura gaitetzen, dena dela, *hogeitazazpi* bezalakoak ageri diren arren ez dela *hogeitamar* bezalakorik idazten, halakoetan beti bereiz jartzen baita: *hogeita hamar*. Mendebalean *hogei eta zazpi* ereduak ere aurkitzen dira. XIX. mendearen erdialderaino *hogei ta zazpi* zen nagusi eta hori da erabiliena 1950-1970. urteen artean ere. Tartean *hogeita zazpi* bezalakoak ere ikusten dira. Azken urteotan *hogeitazazpi* da gehien zabaldu dena (cf. *Maiztasun hiztegia, EGLU, HABE*, e.a.).

5) *Hogei* eta *berrogei* zenbakiak anizkoitzetan Hegoaldean beti *ogei* erabili izan da; ekialdean *hogei*, baina *hogoi* XVII. mendeaz geroztik, salbu Zuberoan, non *hogei* erabiltzen baita egun ere.

6) 60 eta 80 adierazteko *hirurogei* eta *laurogei* ageri dira forma nagusi bezala. Ekialdean ere *hirurogei* bezalakoak erabili izan dira historian, baina XVIII. mendetik *hiruretain hogei* (*hiruretain hogei*, berriagoa) eta *lauretan hogei* (*lauetan hogei*). Kontuan izan, jakina, *hogoi* horrek ere sortzen dituen aldaerak.

7) *Mila* zenbakitik gorakoan artean ere ohiturak ez dira berdinak, *eta* juntagailua sartu ala ez: *mila Ø bortz ehun eta berrogei eta hamabortza zuan; mila Ø bost eun ogei ta bi toneladako; mila Ø bost eun laurogei ta emeretzigarren urtean; mila eta ehun gizon; mila eta bederatzireun da ogei ta bostgarren urtian; mila Ø sei ehun eta berrogei eta bigarreanean; mila Ø sei eun ogei ta ama-bigarren urtean; mila ta zazpieun; mila ta zortzi eun*, e.a.

Beraz, datu hauek guztiak kontuan izanik, hona hemen Euskaltzaindiaren erabakia zenbakien idazkeraz:

0	zero, huts
1	bat
2	bi
3	hiru
4	lau
5	bost (bortz)
6	sei
7	zazpi
8	zortzi
9	bederatz
10	hamar
11	hamaika
12	hamabi
13	hamahiru
14	hamalau
15	hamabost (hamabortz)
16	hamasei
17	hamazazpi
18	hemezortzi (hamazortzi)
19	hemeretzi
20	hogei
21	hogeita bat
22	hogeita bi
23	hogeita hiru
24	hogeita lau
25	hogeita bost (hogeita bortz)
26	hogeita sei
27	hogeita zazpi
28	hogeita zortzi
29	hogeita bederatz
30	hogeita hamar
31	hogeita hamaika
32	hogeita hamabi
33	hogeita hamahiru
34	hogeita hamalau
35	hogeita hamabost (hogeita hamabortz)
36	hogeita hamasei
37	hogeita hamazazpi
38	hogeita hemezortzi (hogeita hamazortzi)
39	hogeita hemeretzi
40	berrogei
41	berrogeita bat
42	berrogeita bi
43	berrogeita hiru
44	berrogeita lau
45	berrogeita bost (berrogeita bortz)
46	berrogeita sei
47	berrogeita zazpi
48	berrogeita zortzi
49	berrogeita bederatz
50	berrogeita hamar
51	berrogeita hamaika
52	berrogeita hamabi
53	berrogeita hamahiru
54	berrogeita hamalau
55	berrogeita hamabost (berrogeita hamabortz)
56	berrogeita hamasei
57	berrogeita hamazazpi
58	berrogeita hemezortzi (berrogeita hamazortzi)
59	berrogeita hemeretzi



60	hirurogei (hiruretan hoge)
61	hirurogeita bat (hiruretan hogeita bat)
62	hirurogeita bi (hiruretan hogeita bi)
63	hirurogeita hiru (hiruretan hogeita hiru)
64	hirurogeita lau (hiruretan hogeita lau)
65	hirurogeita bost (hiruretan hogeita bost)
66	hirurogeita sei (hiruretan hogeita sei)
67	hirurogeita zazpi (hiruretan hogeita zazpi)
68	hirurogeita zortzi (hiruretan hogeita zortzi)
69	hirurogeita bederatzi (hiruretan hogeita bederatzi)
70	hirurogeita hamar (hiruretan hogeita hamar)
71	hirurogeita hamaika (hiruretan hogeita hamaika)
72	hirurogeita hamabi (hiruretan hogeita hamabi)
73	hirurogeita hamahiru (hiruretan hogeita hamahiru)
74	hirurogeita hamalau (hiruretan hogeita hamalau)
75	hirurogeita hamabost (hiruretan hogeita hamabost)
76	hirurogeita hamasei (hiruretan hogeita hamasei)
77	hirurogeita hamazazpi (hiruretan hogeita hamazazpi)
78	hirurogeita hemezortzi (hiruretan hogeita hemezortzi)
79	hirurogeita hemeretzi (hiruretan hogeita hemeretzi)
80	laurogei (lauretan hoge)
81	laurogeita bat (lauretan hogeita bat)
82	laurogeita bi (lauretan hogeita bi)
83	laurogeita hiru (lauretan hogeita hiru)
84	laurogeita lau (lauretan hogeita lau)
85	laurogeita bost (lauretan hogeita bost)
86	laurogeita sei (lauretan hogeita sei)
87	laurogeita zazpi (lauretan hogeita zazpi)
88	laurogeita zortzi (lauretan hogeita zortzi)
89	laurogeita bederatzi (lauretan hogeita bederatzi)
90	laurogeita hamar (lauretan hogeita hamar)
91	laurogeita hamaika (lauretan hogeita hamaika)
92	laurogeita hamabi (lauretan hogeita hamabi)
93	laurogeita hamahiru (lauretan hogeita hamahiru)
94	laurogeita hamalau (lauretan hogeita hamalau)
95	laurogeita hamabost (lauretan hogeita hamabost)
96	laurogeita hamasei (lauretan hogeita hamasei)
97	laurogeita hamazazpi (lauretan hogeita hamazazpi)
98	laurogeita hemezortzi (lauretan hogeita hemezortzi)
99	laurogeita hemeretzi (lauretan hogeita hemeretzi)
100	ehun
101	ehun eta bat
102	ehun eta bi
200	berrehun
300	hirurehun
400	laurehun
500	bostehun (bortzehun)
600	seihun
700	zazpichun
800	zortzichun
900	bederatzichun
1000	mila
1200	mila eta berrehun
1201	mila berrehun eta bat
1984	mila bederatzichun eta laurogeita lau
1.000.000	milioi bat
10.000.000	hamar milioi
1.000.000.000	mila milioi (miliar bat)

Oharrak:

— *Hemezortzi* jartzen den leku bakoitzean *hamazortzi* ere jarri behar da, bigarren aukera gisan.

— *Ehun eta bat* zenbakian ez da beharrezkoa *eta* hori oso-osorik ahoskatzea eta mintzairan arabera *eta, ta* edo *da* bezala ahoska daiteke.

— *Mila* zenbakitik gora *eta* kenduko da ondoren datozen ehunekoetan ere agertzen bada: *mila eta berrehun*, baina *mila berrehun eta bi*; *mila eta laurehun*, baina *mila laurehun eta bi*.

— 2 zenbakia adierazteko *bi* jarri den arren, puntu honetaz aurrerago mintzatuko da Euskaltzaindia, aukera bat baino gehiago baitago euskalkien artean (*biga, bida*, e.a.). Bestetik, noiz erabil daitezkeen forma hauek ere zehaztu beharra dago.

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1994ko urriaren 28an onartua)

## 8

**ZENBAKIEN DEKLINABIDEAZ**

0. Zenbakiaren deklinabideak ez du aparteko arazorik plazaratzen, *hiru* eta *lau* zenbakiaren kasuan ez bada. Hori dela eta, hauekin zer gertatzen den aztertuko da ondoko lerroetan.

1. *Hiru* eta *lau* zenbakiak bi sistema erakusten dituzte deklinatzeko orduan: batetik, zenbakiak izendatzeko erabiltzen ditugu hitz horiek (metahizkuntzan): “Hau *hiru* da, eta beste hori *bosta*”; “Neskatxa horrek *zazpiak* beti handiak egiten ditu, baina *hiruak* eta *lauak*, aldiz, txiki-txikiak”, e.a. Kasu hauetan, ikusten denez, beste edozein izen sintagma bezala deklinatzen dira *hiru* eta *lau*, hain zuzen ere, izenak direlako. Hortaz, mugagabea, singularra eta plurala bereiziko dira, ondoko adibideotan bezala: “Zein *hiruren* azpian pintatu behar da laukia?” (mugagabea); “*Hiruaren* eta bostaren artean *laua* jarri behar duzu” (sing.) eta “*Hiruen* kolorea ez da lauea bezain polita”. Izen honek *adiskide* edo *zuri* hitzen paradigma bera segituko du.

2. Hala ere, zenbakiari buruz zuzenean ari ez garenean, hots, “Bi neska etorri dira eta *biak* txikiak” bezalako testuinguruetan, gauzak bestela gertatzen dira, halakoetan, izenak ez direnean alegia, “Hiru neska etorri dira eta *hirurak* txikiak” edo “Lau zerri saldu ditu eta *laurak* gizenak” bezalako esaldiak oso erabiliak baitira Hegoaldean batez ere. Beste hiztun askok, ordea, ez du bereizketa hori egiten: “Hiru neska etorri ziren eta *hiruak* txikiak” bezalako esaldiak oso arruntak dira.

Bereizketa egiten dutenen artean (*hiru* eta *hirurak* bereiziz esan nahi da) aukera bi daude, mugagabea eta plurala, kontzeptualki bederen, ondoko adibide honetan ikusten denez: “Lan hau *hiruren* artean egin behar da”. Zer izan daiteke *hiruren* delako hori? Jakina, *hiru* lagun horiek ezezagunak baldin badira, orduan mugagabearen aurrean gaude (*askoren artean* esango bagenu bezala); aldiz, ezezagunak baldin badira, orduan mugatua da (*adiskideen artean* bezala). Bereizketarik egin behar da hemen formalki ere mugatu eta mugagabearen artean, *hiruen* (mugatua) eta *hiruren* (mugagabea), esaterako, proposatuz?

Emandako adibidean badirudi *hiruren* dela onartu behar den forma mugagabea (*adiskideren* esaten den moduan). Hortaz, forma mugatua *hiruen* izango da, *hiruren* bera onartu nahi ez baldin bada. Tradizio hau mantendu duten hiztunen arabera, ordea, badirudi *hiruren* bezalakoak direla erabiliak izan direnak aldaera mugatuan, kasu batzuetan bederen: “*Hirurak* dira”, “*hirurekin* egon naiz”, e.a. Beraz, badirudi bat datozela hor mugatu plurala (*hiruren*) eta mugagabea (*hiruren*).

Gauzak leku-denborazko kasuetan eta datiboan aldaturik suertatzen dira, idazleek bereizketak egin baitituzte: “*Hirutan* egon naiz Mirenekin eta *hiruretan* ukatu dit kontu hori”. Badirudi kasu hauetan bereizketa gertatu dela. Mugagabea *hirutan* baita, ikusten den moduan. Kontua da, ordea, plurala *hiruretan* (jarri den bezala eta tradizioz handiena duena) nahiz *hiruretan* izan daitekeela (gaur egun ekialdean erabiltzen den moduan).

Datu hauck guztiak kontuan izanik, Euskaltzaindiak uste du *hiru* zenbatzailea salbuespentzat jo behar dela euskal deklinabidean eta horregatik hauxe erabakitzen du:

- 1) *Hiru* izena denean, bokalez bukatzen diren gainerako beste edozein sintagma bezala deklinatuko da: *hiru, hirua, hiruak* (abs); *hiruk, hiruak, hiruek* (erg), e.a.  
 2) Izenordain baten funtzioa duenean (alegia, sintagma osoa berak bakarrik osatzen duenean), honelaxe deklinatuko da:

Hiru	
mugagabea	plurala
<i>hiru</i>	<i>hirurak</i>
<i>hiruk</i>	<i>hiruek</i>
<i>hiruri</i>	<i>hirurei</i>
<i>hirurik</i>	—
<i>hirutan</i>	<i>hiruretan</i>
<i>hirutako</i>	<i>hiruretako</i>
<i>hirutatik</i>	<i>hiruretatik</i>
<i>hirutara</i>	<i>hiruretara</i>
<i>hiruren</i>	<i>hiruren</i>
<i>hirurekin</i>	<i>hirurekin</i>
<i>hirurentzat</i>	<i>hirurentzat</i>
<i>hirurez</i>	<i>hirurez</i>

- 3) Hau *hiru* zenbakiari bakarrik dagokio eta ez hamahiru, hogeita *hiru*, berrogeita *hiru* eta gainerakoei, hauen pluraleko deklinabidea hamahiruak, hogeita *hiruak*, berrogeita *hiruak*, e.a. baitira.

Adibidea: Atzoko *hirurak* etorri ziren, baina beste hamahiruak etxean gelditu ziren.

3. *Lau* zenbakiaren kasuan Euskaltzaindiak hau erabakitzen du:

- 1) *Lau* izena denean, bokalez bukatzen diren gainerako beste edozein sintagma bezala deklinatuko da: *lau, laua, lauak* (abs); *lauk, lauak, lauek* (erg), e.a.  
 2) Izenordain baten funtzioa duenean (alegia, sintagma berak bakarrik osatzen duenean), honelaxe deklinatuko da:

Lau	
mugagabea	plurala
<i>lau</i>	<i>laurak</i>
<i>lauk</i>	<i>laurek</i>
<i>lauri</i>	<i>laurei</i>
<i>laurik</i>	—
<i>lautan</i>	<i>lauretan</i>
<i>lautako</i>	<i>lauretako</i>
<i>lautatik</i>	<i>lauretatik</i>
<i>lautara</i>	<i>lauretara</i>
<i>lauren</i>	<i>lauren</i>
<i>laurekin</i>	<i>laurekin</i>
<i>laurentzat</i>	<i>laurentzat</i>
<i>laurez</i>	<i>laurez</i>

- 3) Hau *lau* zenbakiari bakarrik dagokio eta ez hamalau, hogeita *lau*, berrogeita *lau* eta gainerakoei, hauen pluraleko deklinabidea hamalauak, hogeitalauak, berrogeitalauak, e.a. baita.

4) Analogiaz sortu diren *zazpirak*, *zortzirik* eta horrelakoak bigarren mailan utzi beharko lirateke euskara idatzian, hauek bokalez bukaturiko izenak bezala deklinatzen baitira: *seiak, seietan, seietatik*, e.a.

Adibidea: Atzoko *laurak* etorri ziren, baina beste hamalauak etxean gelditu ziren.

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1994ko urriaren 28an onartua)

## 9

**-ZIO**

Euskarak latinetik eta latin-hizkuntzetatik harturiko maileguen artean *-tione* atzizkiak axola berezia du, euskal hitzei ere gehi baitakieke, *amorrazio*, *begitazio* eta kidekoak emanez.

Atzizkiak zenbait aldaera ditu euskalkien arabera. Literatura tradizioan nagusiak hauek dira: *-zino* edo *-ziño* bizkaieraz (*-zino* zenbait idazle lapurtar klasikotan ere agertzen da, eta bizkaierazko zenbait testu zaharretan, baita ere *-zinoe*); *-zio* gipuzkeraz, goi- nafarreraz, eta Aezkoa eta Zaraitzuko hizkeretan, eta *-zione* Iparraldeko euskalkietan, Baztanen (baita ere *-zio*, Echeniquek bederen) eta Errokarin. Azken hogei bost urteetan euskara batuaren eraginez horietako bi aldaera dira ia erabat gailendu direnak: *-zio* Hegoaldean eta *-zione* Iparraldean. Beraz, badirudi euskara baturako hautaketa bi aldaera horien artean egitea dela bidezkoena, eta soziolinguistikazko arrazoien kariaz Hegoaldean erabilia dena hobestekoa dela.

Hortaz, Euskaltzaindiak *-zio*, *-zino*, *-ziño*, *-zinoe* edo *-zione* aldaeren artean *-zio* aldaera (hots, *amorrazio*, *begitazio*, *debozio*, *instalazio*, *integrazio*, *zibilizazio*, *administrazio*, *segizio*, *barkazio*, *bezalako* formak) hobesten du euskara baturako.

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1994ko azaroaren 25ean onartua)

## 10

**NORNAHI,  
NONNAHI,  
NON-NAHI**

*Nor, zer, zein, non, nora, nola* eta gainerako galdetzailak *nahi* partikularekin elkartzen direnean sortzen diren esapideak bereiz idazten ziren Hego nahiz Iparraldeko testu zaharretan. Gero, batez ere Hegoaldean, baina baita ere Iparraldean, hedatuz joan ziren idazkera marratxodunak eta, XVIII. mendean gero oro har, bi osagaiak batean elkarturik biltzen zituenak. Mendean honetan, nahiz hiru idazkerak (*non nahi, non-nahi, nonahi*) ikus daitezkeen, hitz grafiko bakarria erakusten dutenak asko hedatu dira, euskara batuzko testuetan bereziki.

Forma horien artean badira bi, *zein* eta *non* lehen osagarritzat dituztenak, arazo nabari bat dakartenak. Izan ere, mende honetako testuetan *zeinahi* eta *nonahi* motako idazkerak ageri dira, nahiz *n* bakarreko grafia hauek ez diren erabat hedatu. Bestalde, Iparraldeko testuetan *non-nahi* eta are *non nahi* idazkerak dira batez ere erabiltzen direnak. Orobat, *-nn-* grafia bitxi gertatzen da euskal ortografi tradizioan. Alde hauek guztiak kontuan hartuz badirudi batasuna bideratzeko modua *-n-* eta *n-n* idazkeretatik jotzea dela.

Beraz, hau da Euskaltzaindiaren erabakia: galdetzaille batez eta *nahi* partikulaz osaturiko esapideak hitz bakar batean idatz daitezela: *zernahi, nornahi, nornahik, nolanaahi, noranaahi* e.a. Aldiz, lehen osagaia *n-z, t-z* edo *k-z* bukatzen bada, hitz batean (*nonahi, zenbanaahi, nondinaahi, nonahitik*), edo marratxo baten bidez bereziak (*non-nahi, zenbat-nahi, nondik-nahi, non-nahitik*) idatz daitezke.

Ikusten denez, erabaki hau idazkera soilari dagokio. Hortaz, *norinaahi* edo *nornahiri*, esaterako, *zein* hobetsi, eta kideko auziok, hurrengo batean erabakitzeko uzten ditu Euskaltzaindiak.

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1994ko azaroaren 25ean onartua)

## 11

**NOR/NORTZUK,  
ZER/ZERTZUK,  
ZEIN/ZEINTZUK**

*Nor, zer* eta *zein* galdetzaileak mendebaleko literatura tradizio batean, *-tzuk* atzizki pluralgilea dutela agertzen dira. Azken molde horiek ez dira, ordea, horrela erabiliak izan beste literatura tradizioetan:

*Ezen bazakian hatseandantik lesusek zein ziraden sinhesten etzutenak* (Lç Io 6, 64).

*Zer dira üdüri hurak?* (Bp I 69).

*Zein dira Gizunaren laur Ürrenbüriak?* (CatS 35).

*Nork düte Ordenen eta Tonsüraren emaiteko züzena?* (CatLan 158).

*Nortzuk dira borondatezko pobreak?* (Cap 83).

*Aen ofizioa leelengoak eta prinzipaleak, zeintzuk izan zirean?* (Cap 22).

*Zertzuk*-i dagokionez, ordea, kontua nahasiagoa da. Testu zaharrenetan badirudi *zer* besterik ez dela agertzen:

*Ze gauza dira induljenziak?* Cap 67 (kideko joskera 39, 60, 70 e.a.-tan).

*Zer dira fedeko artikuluak?* Cap 26 (kideko joskera 82.ean).

*Zertzuk*-en lehen agerraldiak hurrengo mendeak dira:

*Zertzuk dira angeruak?* Olactxca 51.

Eta XIX. mendea bizkaitar klasikoen artean ere, *zertzuk* baino askozaz gehiago erabiltzen da *zer*:

*Zer dira erreguelduak? Aupatsak esan gurako dozu.* Mg PAb 119.

*Zer dirian bigiraak.* LB Olq 105.

Azken urteotan, bizkaierazkoak soilik ziren *nortzuk*, *zeintzuk* eta arago *zertzuk* aski hedatu dira euskara idatzian Hegoaldeko zenbait idazleren artean.

**Euskaltzaindiak, kontuan harturik forma atzizkidunak (*nortzuk, zertzuk, zeintzuk*) literatura tradizio jakin bati lotuak daudela, hau erabakitzen du: *nor, zer* eta *zein* formei lehenetasuna ematea. Ez ditu, ordea, atzizki pluralgileak dituzten formak inola ere gaitzesten. Orokorki duten izaera markatua aitortzen zaie soil-soilik, eta modu horretan -forma markatu gisa esan nahi da- aurkezten, bai eta onesten ere.**

**Edonola ere, forma hauen deklinabideko paradigmak hauek dira: *nortzuk, zertzuk, zeintzuk* (abs), *nortzuek, zeintzuek, zertzuek* (erg), *nortzuei, zertzuei, zeintzuei* (dat), e.a.**

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1994ko azaroaren 25ean onartua)



## 12

**BAT ETA BATZUK-EN DEKLINABIDEA**

*Bat* hitzak, leku-denborazko ez diren kasu-atzizkietako bat hartzen duenean, deklinabide mugagabearen arabera hartzen du. Hauek dira, beraz, formak:

*bat*  
*batek*  
*bati*  
*baten*  
*batekin*  
*batentzat*  
*batez*

Dena dela, *beste* hitzaren agerraldi mugatu baten eraginpean dagoenean, ez bestela, *bat*-ek deklinabide mugatuko formak, hau da:

*bata*  
*batak*  
*batari*  
*bataren*  
*batarekin*  
*batarentzat*  
*bataz*

hartzeko joera agertzen du literatura tradizioan. Testu zaharretan beti gertatzen zen hori. Gaur egun bi kasu bereizi behar dira: a) *bat* bakarrik agertzen denean, eta b) determinatzaile gisa —hots, izen baten ondoren— agertzen denean.

*Bat* bakarrik agertzen denean eta *beste* hitzaren agerraldi baten eraginpean dagoenean, gaur egun ere forma mugatuan gertatzen da, batez ere Hegoaldean, eta badirudi horrelakoak gomendatu behar direla euskara baturako:

*bata ona da baina bestea txarra,*  
*batak edo besteak irabazi, berdin zait,*  
*batari nahiz besteari emateko,*  
*batarengan eta bestearengan.*

Determinatzaile gisa agertzen denean, aldiz,

*Estimaten du egun bata bercea bainoago* (Lç Rom 14, 5)

bezalako joskerak zaharkituak gertatzen direnez dagoeneko euskalki guztietan, badirudi horrelako joskerak gomendatu behar direla euskara baturako:

*saltzen duzula gauza bat bestearen lekuan,*  
*kaie baten erdia eta bestearen beste erdia.*

Leku-denborazko kasuei dagokienez, *beste*-ren agerraldi mugatu batek eragiten dien perpause-tan, *batean*, *bateko*, *batara*, *bateik* erabili dira Iparraldean nahiz Hegoaldean: *etxe batean nahiz bestean* e.a. Orobat *-(e)kin*-en ondoan: *zeruko sailduekin batean* e.a.

*Beste*-ren agerraldi mugatu batek eragiten dituen perpausak alde batera utzirik, literatura tradizioa bitan banatua agertzen da testurik zaharrenetan: Iparraldean Etxeparek eta Leizarragak, *batetan*, *batetako*, *batetara*, *batetarik* formak erabiltzen dituzte beti, baina Hegoaldean, Bizkaitik Erronkarira, ez da inoiz *batean* (bizkaieraz *baten*), *bateko*, *batera*, *batetik* (*edo baterik*) besterik ikusten. Bestalde, XVII. mendean bertan, Iparraldean *batean*-en saileko formak hasten dira agertzen: Etxeberri Ziburukoak, Argainaratsek eta Gazteluzarrek ez dute ia bestelakorik erabiltzen, eta Axularrek maiztasun berearekin erabiltzen ditu bi sailak. Hurrengo mendean areagotuz doaz *batean*-en saileko agerraldiak, eta hemeretzigarren mendean erabat nagusi agertzen dira. Zuberoako euskalkia da *batetan* saileko formei eusten dien bakarra.

Mendabalean duen hedadura kontuan harturik, mugagabean, *batean* zabalagoaren ondoan *baten* ere ontzat ematen da. Gogoan izan, hala ere, tradizioan *horrekin batean* gisako esakerak ageri direla eta ez *\*horrekin baten* bezalakoak.

**Hortaz, literatura tradizioaren bilakaera hau gogoan harturik, leku-denborazko kasuei dagokienez, forma hauek erabakitzen ditu Euskaltzaindiak euskara baturako (kontuan izan *bata*, *batak* eta halakoak *beste* hitzaren agerraldi mugatu baten eraginpean bakarrik erabiltzeko direla):**

Mugagabea	Mugatua
<i>bat</i>	<i>bata</i>
<i>batek</i>	<i>batak</i>
<i>bati</i>	<i>batari</i>
<i>baten</i>	<i>bataren</i>
<i>batentzat</i>	<i>batarentzat</i>
<i>batekin</i>	<i>batarekin</i>
<i>batez</i>	<i>bataz</i>
<i>batean, baten</i>	<i>batean</i>
<i>bateko</i>	<i>bateko</i>
<i>batera</i>	<i>batera</i>
<i>batetik</i>	<i>batetik</i>

Eguerdiatz ondoko ordua adierazteko, *ordu batean* edo *ordu batetan* erabiltzen da, euskalkien arabera. Puntu hau, orduak oro har adierazteko emango duen gomendioan erabakiko du Euskaltzaindiak.

\* \* \*

*Bat* hitzak, plurala, *-zu* atzizkiaren bitartez egiten du. Dena dela, kasu-atzizkiak hartzean ez dute euskalki guztiek berdin jokatu literatura tradizioan.

Lehen arazoa NOR eta NORK kasuei dagokie. Badirudi bereizkuntza hori pluralean egiten duten euskalkietan, *batzu*-ren kasuan ere, gehien bat bederen, egiten dela. Hortaz, euskara batuak absolutibo eta ergatiboaren arteko bereizte hori gorde beharko luke. Nolanahi ere, kontua da bereizkuntza hori ez dela beti era bercean egin: Leizarragak *batzu/batzuk* erabiltzen zuen, Etxeberri Ziburukoak eta Axularrek *batzuk/batzuek*, eta gaur egun Iparraldean (ez haatik Zuberoan) erabiltzen dena, *batzu/batzuek*, ez zen XIX. mendearen bukaera arte finkatu. Bereizketarik egiten ez duten euskalkietan, bizkaieraz *batzuk* erabili izan da bietarako, eta gipuzkeraz, *batzuek*. Zertzelada hauek guztiak kontuan izanik, badirudi Axularen-eta sistema hobetsi beharko litzatekeela.

Bigarren arazoa gainerako kasuei dagokiena da. Hauetan bada euskalki guztietan *batzui*, *batzuen*, *batzuetan* saileko formak erabiltzeko joera nabarmen bat: salbuespenak gutxi dira, eta batez ere Iparraldeko autore zahar batzuegan, ez guztiengan eta ez kasu guztietan, aurkitzen dira: adibidez, Leizarragak *batzuen* eta *batzuren*, biak erabiltzen ditu, bereizkuntzarik gabe, agidanaz, baina *batzui*, inoiz ez *batzuri*. Hortaz, badirudi formalki mugatu pluralak diren erak hobetsi behar direla euskara baturako.

Hortaz, forma hauek erabakitzen ditu Euskaltzaindiak *batzuk*-en deklinabideari dagokionez:

*batzuk*  
*batzuek*  
*batzuei*  
*batzuen (batzuengan, batzuengana,*  
*batzuengandik, batzuen baitan, e.a.)*  
*batzuekin*  
*batzuez*  
*batzuentzat*  
*batzuetan*  
*batzuetako*  
*batzuetara*  
*batzuetatik (-tarik)*

*Batzuak* gisako erak, *bat*-en kasuan ez bezala, aski bakan eta oso idazle gutxitan agertzen dira eta beti *beste*-ren agerraldi mugatuaren eraginpean, noski. Hortaz, badirudi horrelako formak baztergarritzat hartu behar direla euskara batuan.

\* \* \*

**Bibliografia:**

A. IRIGOYEN, "Deklinabideaz", *Euskera XXIV* (1978), batez ere 752.hh. orr.  
 K. MITXELENA, *Orotariko Euskal Hiztegia, bat eta batzu* sarrerak.

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1994ko azaroaren 25ean onartua)

## 13

**LERROZ ALDATZEAN MARRATXOAK NOLA JARRI**

Hizkuntzetan bi irizpide nagusiz baliatzen dira idazleak lerroz aldatzean hitza ezinbestean zaitu behar dutenean eta, hortaz, marratxoa jarri behar dutenean: marratxo hau morfemak kontuan harturik jartzen da edo marratxoa silabak bereziz jartzen da.

Euskararen kasuan, morfemak hartuko balira kontuan, honela banatuko lirateke hitzak: *zakurr-a*; *due-la*; *dute-n*; *gizon-ik*; *maitasun-a*, e.a.

Morfemen ordeztu silabak hartzen badira, berriz, honako hau geratzen da: *za-ku-rra*; *du-e-la*; *du-ten*; *gi-zo-nik*; *mai-ta-su-na*, e.a.

Ikusten den bezala, zein den aukeratzen den irizpidea, ondorioak ere aski desberdinak dira, nahiz batzuetan bat etor daitezkeen bi irizpideak: *ke-a* hitzean, esate baterako.

Morfemak hartuko balira kontuan badirudi arazo handiak sor litezkeela: itxuragabekeriak (*du-zue-n*; *de-n-a*); morfemak non hasten diren eta non bukatzen zehaztea ez da gauza erraza (*gizon-e-k*; *g-en-bil-tza-n*; *Andoni-re-kin*) e.a. Gainera, bistan denez euskal idazle eta hiztunek askoz ere garbiago dute silabaren intuizioa morfemarena baino.

**Euskaltzaindiak hitzak silabaka zatitzea gomendatzen du.**

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1994ko azaroaren 25ean onartua)

## 14

**ADIZKI ALOKUTIBOAK (HIKAKO MOLDEA)**

Oharrak:

1) Lehen-lehenik erran beharra da aditz alokutiboen parte bat baizik ez duela finkatu Euskaltzaindiak, hikako moldeari doakiona, hain zuzen ere. Zukako adizkera alokutiboek, ekialdeko euskalkietan bereziki erabiltzen direnek, batu gabe segitzen dute, beraz, oraino.

2) Euskaltzaindiaren lana adizkeren formaren finkatzea izan da, eta ez da sartu erabilera arazoetan. Jakina denez, korapilo asko ditu erabilerak, bai morfositaxiaren aldetik, bai eta, are gehiago, gizarteko baliagarritasunaren aldetik ere.

**Aditz laguntzaileak**

Adizkera alokutibo batuen eratzeko, eztabaidakako adizkera batuen formetan oinarritu da Euskaltzaindia, aldi bakoitzean alokutibotasunak dakartzan mudantzak kontuan harturik, noski.

Jokabide desberdinen artean hautuak egiterakoan, erdibideko jokabideei eman zaie lehentasuna, bai eta sinpletasunari eta argitasunari ere. Horrela tradizioa kontuan harturik, baina mintzairaren bizitasuna ahanzi gabe eratu nahi izan dira paradigmak, orohar aitzineko urratsetako egiteko moldeari jarraiki izan zaiolarik.

Egin diren hautu garrantzi handikoenak:

- Erro aldaketa izaten den kasuetan, sail bateko paradigma guzietan agertaraztea; horrela,

- NOR bakarreko *izan*-en adizkera alokutiboentzat *-u-* erroa onartu da, aldi guzietan eta *ke*-dun formetan ere bai:

adibidez, *dateke* → *dukek*, eta ez *datekek*; *litzateke* → *lukek*, eta ez *litzatekek*.

- (NOR-) NORK sailako *edun*-en adizkera alokutiboentzat *-i-* erroa onartu da, aldi guzietan, eta pertsona guzietan:

adibidez, *nau* → *naik*, eta ez *n(i)auk*.

Azken kasu honetan NOR pluralaren morfema gisa *it* hobetsi da (*zki* baino):

adibidez, *ditu* → *ditik* eta ez *dizkik*.

- Lehen silaban *-i-* ez da onartu (ez orainaldian, ez eta erro aldaketarik gabeko formetan ere):

adibidez, *natzaio* → *natzaioak*, eta ez *niatzaioak*.

- Indize alokutiboa ergatiboarenaren ezkerrean ematea (eta ez haren eskuincan) onartu da, salbu morfema ergatiboa *-te* denean:

adibidez, *diagu*, eta ez *diguk*, baina *ditek* eta ez *diate* (edo *die*).

- *Izan*-en ez-oraineko NOR bakarreko 3. pertsonako adizkera alokutiboentzat, 2. pertsonako indizea atzizki gisa dakarten formak hobestea (aurrizki gisa daukatenak baino):

adibidez, *zen* → *zuan*, eta ez *huen*.

- Pertsona aurritzirik ez duten orainaldiko adizkeretan *d* → *z* aldaketa onartu da erro-aldaketarik ez dakarten adizkera alokutibo ergatibodunetan:

adibidez, *dezake* → *zezakek*, *dio* → *ziok*, baina *du* → *dik* (eta ez *zik*).

**izan****NOR bakarreko saila****ORAINALDIA**

naiz	nauk	naun
da	duk	dun
gara	gaituk	gaitun
dira	dituk	ditun

**ORAINALDIA [+KE]**

naizateke	naukek	nauken
dateke	dukek	duken
garateke	gaituzkek	gaituzken
dirateke	dituzkek	dituzken

**IRAGANALDIA**

nintzen	ninduan	nindunan
zen	zuan	zunan
ginen	gintuan	gintunan
zinen	zituan	zitunan

**IRAGANALDIA [+KE]**

nintzatekeen	nindukcan	nindukenan
zatekeen	zukean	zukean
ginatekeen	gintuzkean	gintuzkenan
ziratekeen	zituzkean	zituzkenan

**ALEGIAZKO [+KE]**

nintzateke	nindukek	ninduken
litzateke	lukek	luken
ginateke	gintuzkek	gintuzken
lirateke	lituzkek	lituzken

## izan

## NOR-NORI saila

## ORAINALDIA

natzaio	natzaioek	natzaion
natzaie	natzaiekek	natzaioen
zait	zaidak	zaidan
zaio	zaioek	zaion
zaigu	zaiguk	zaigun
zaie	zaiek	zaien
gatzaizkio	gatzaizkioek	gatzaizkion
gatzaizkie	gatzaizkiekek	gatzaizkioen
zaizkit	zaizkidak	zaizkidan
zaizkio	zaizkioek	zaizkion
zaizkigu	zaizkiguk	zaizkigun
zaizkie	zaizkiekek	zaizkien

## ORAINALDIA [ + KE ]

natzaioke	natzaiokekek	natzaioeken
natzaieke	natzaiekekek	natzaiekenen
zaidake	zaidakekek	zaidaken
zaioke	zaiokekek	zaioeken
zaiguke	zaigukekek	zaigukun
zaieke	zaiekekek	zaieken
gatzaizkioke	gatzaizkiokekek	gatzaizkioeken
gatzaizkieke	gatzaizkiekekek	gatzaizkiekenen
zaizkidake	zaizkidakekek	zaizkidaken
zaizkioke	zaizkiokekek	zaizkioeken
zaizkiguke	zaizkigukekek	zaizkigukun
zaizkieke	zaizkiekekek	zaizkiekenen

## IRAGANALDIA

nintzaion	nintzaioan	nintzaionan
nintzaien	nintzaiean	nintzaiean
zitzaidan	zitzaidaan	zitzaidan
zitzaion	zitzaioan	zitzaionan
zitzaigun	zitzaiguan	zitzaigun
zitzaiean	zitzaiean	zitzaiean
gintzaizkion	gintzaizkioan	gintzaizkionan
gintzaizkien	gintzaizkiean	gintzaizkienan
zitzaizkidan	zitzaizkidaan	zitzaizkidan
zitzaizkion	zitzaizkioan	zitzaizkionan
zitzaizkigun	zitzaizkiguan	zitzaizkigun
zitzaizkien	zitzaizkiean	zitzaizkienan

## IRAGANALDIA [ + KE ]

nintzaiokeen	nintzaiokean	nintzaiokean
nintzaiekeen	nintzaiekean	nintzaiekean
zitzaidakeen	zitzaidakean	zitzaidakean
zitzaiokeen	zitzaiokean	zitzaiokean
zitzaigukeen	zitzaigukean	zitzaigukean
zitzaiekeen	zitzaiekean	zitzaiekean
gintzaizkiokeen	gintzaizkiokean	gintzaizkiokean
gintzaizkiekeen	gintzaizkiekean	gintzaizkiekean
zitzaizkidakeen	zitzaizkidakean	zitzaizkidakean



zitzaizkiokeen  
zitzaizkigukeen  
zitzaizkiekeen

zitzaizkiokean  
zitzaizkigukean  
zitzaizkiekean

zitzaizkiokenan  
zitzaizkigukenan  
zitzaizkiekenan

**ALEGLIAZKO [ +KE ]**

nintzaioke  
nintzaieke  
litzaidake  
litzaioke  
litzaiuke  
litzaieke  
gintzaizkioke  
gintzaizkieke  
litzaizkidake  
litzaizkioke  
litzaizkiguke  
litzaizkieke

nintzaiokek  
nintzaiekek  
litzaidakek  
litzaiokek  
litzaiukek  
litzaikek  
gintzaizkioket  
gintzaizkieket  
litzaizkidaket  
litzaizkiokek  
litzaizkiguket  
litzaizkiekek

nintzaioken  
nintzaieken  
litzaidaken  
litzaioken  
litzaiuken  
litzaieken  
gintzaizkioken  
gintzaizkieken  
litzaizkidaken  
litzaizkioeken  
litzaizkiguken  
litzaizkieken

**\*edin aditz laguntzailea<sup>1</sup>****NOR bakarreko saila****ORAINALDIA [+KE]**

naiteke	naitekek	naiteken
daiteke	daitekek	daiteken
gaitzke	gaitzkek	gaitzken
daitezke	daitezkek	daitezken

**IRAGANALDIA [+KE]**

nintekeen	nintekean	nintekenan
zitekeen	zitekean	zitekengan
gintezkeen	gintezkean	gintezkengan
zitezkeen	zitezkean	zitezkengan

**ALEGI AZKO [+KE]**

ninteke	nintekek	ninteken
liteke	litekek	liteken
gintezke	gintezkek	gintezken
litezke	litezkek	litezken

<sup>1</sup> Menperagailurik gabe ager daitezkeen adizkeren forma alokutiboak baizik ez dira zerrendatzen hemen, erran nahi baitu *ke-*dunak. Euskara zaharrean, iraganaldiko *-ke* gabeko formak ere menperagailurik gabe erabil zitezkeen, baina aspaldi honetan hilak baitira erabiler horiek, ez dira araberako alokutiboak ematen paradigma batuetan.

\***edin** aditz laguntzailea

## NOR-NORI saila

## ORAINALDIA [+KE]

nakioke	nakiokek	nakioken
nakieke	nakiekek	nakieken
dakidake	dakidakek	dakidaken
dakioke	dakiokek	dakioken
dakiguke	dakigukek	dakiguken
dakieke	dakiekek	dakieken
gakizkioke	gakizkiokek	gakizkioken
gakizkieke	gakizkiekek	gakizkieken
dakizkidake	dakizkidakek	dakizkidaken
dakizkioke	dakizkiokek	dakizkioken
dakizkiguke	dakizkigukek	dakizkiguken
dakizkieke	dakizkiekek	dakizkieken

## IRAGANALDIA [+KE]

nenkioken	nenkiokean	nenkiokenan
nenkieken	nenkiekean	nenkiekenan
zekidakeen	zekidakean	zekidakenan
zekiokeen	zekiokean	zekiokenan
zekigukeen	zekigukean	zekigukenan
zekiekeen	zekiekean	zekiekenan
genkizkiokeen	genkizkiokean	genkizkiokenan
genkizkiekeen	genkizkiekean	genkizkiekenan
zekizkidakeen	zekizkidakean	zekizkidakenan
zekizkiokeen	zekizkiokean	zekizkiokenan
zekizkigukeen	zekizkigukean	zekizkigukenan
zekizkiekeen	zekizkiekean	zekizkiekenan

## ALEGIAZKO [+KE]

nenkioke	nenkiokek	nenkioken
nenkieke	nenkiekek	nenkieken
lekidake	lekidakek	lekidaken
lekiok	lekiok	lekioken
lekiguke	lekigukek	lekiuguken
lekieke	lekiekek	lekieken
genkizkioke	genkizkiokek	genkizkioken
genkizkieke	genkizkiekek	genkizkieken
lekizkidake	lekizkidakek	lekizkidaken
lekizkioke	lekizkiokek	lekizkioken
lekizkiguke	lekizkigukek	lekizkiuguken
lekizkieke	lekizkiekek	lekizkieken

**\*edun**

(NOR) -NORK saila

**ORAINALDIA**

nau	naik	nain
naute	naitek	naiten
dat	diat	dinat
du	dik	din
dugu	diagu	dinagu
dute	ditek	diten
gaitu	gaitik	gaitin
gaituzte	gaitiztek	gaitizten
ditut	ditiat	ditinat
ditu	ditik	ditin
ditugu	ditiagu	ditinagu
dituzte	ditiztek	ditizten

**ORAINALDIA [ +KE ]**

nauke	naiek	naiken
naukete	naiketek	naiketen
duket	dikeat	dikenat
duke	dikek	diken
dukegu	dikeagu	dikenagu
dukete	diketek	diketen
gaituzke	gaitizkek	gaitizken
gaituzkete	gaitizketek	gaitizketen
dituzket	ditizkeat	ditizkenat
dituzke	ditizkek	ditizken
dituzkegu	ditizkeagu	ditizkenagu
dituzkete	ditizketek	ditizketen

**IRAGANALDIA**

ninduen	nindian	nindinan
ninduten	ninditean	ninditentan
nuen	nian	ninan
zuen	zian	zinan
genuen	genian	geninan
zuten	zitean	zitenan
gintuen	gintian	gintinan
gintuzten	gintiztean	gintiztentan
nituen	nitian	nitinan
zituen	zitian	zitanan
genituen	genitian	genitinan
zituzten	zitiztean	zitiztentan

**IRAGANALDIA [ +KE ]**

nindukeen	nindikean	nindikenan
ninduketen	nindiketean	nindiketentan
nukeen	nikean	nikenan
zukeen	zikean	zikenan

genukeen zuketen	genikean ziketean	genikengan ziketenan
gintuzkeen gintuzketen	gintizkean gintizketean	gintizkenan gintizketenan
nituzkeen zituzkeen genituzkeen zituzketen	nitizkean zitizkean genitizkean zitizketean	nitizkenan zitizkenan genitizkenan zitizketenan
ALEGIAZKOA [+KE]		
ninduke nindukete nuke luke genuke lukete	nindik nindiketek nik likek genikek liketek	nindiken nindiketen niken liken geniken liketen
gintuzke gintuzkete	gintizkek gintizketek	gintizken gintizketen
nituzke lituzke genituzke lituzkete	nitizkek litizkek genitizkek litizketek	nitizken litizken genitizken litizketen

\*-i- aditz laguntzailea  
(NOR)-NORI-NORK saila

ORAINALDIA<sup>2</sup>

dit	zidak	zidan
dizkit	zizkidak	zizkidan
didate	zidatek	zidaten
dizkidate	zizkidatek	zizkidaten
diot	zioat	zionat
dizkiot	zizkiotat	zizkionat
dio	zioat	zionat
dizkio	zizkiok	zizkion
diogu	zioagu	zionagu
dizkiogu	zizkiogagu	zizkionagu
diote	ziotek	zioten
dizkiote	zizkiotek	zizkioten
digu	ziguk	zigun
dizkigu	zizkiguk	zizkigun
digute	zigutek	ziguten
dizkigute	zizkigutek	zizkiguten
diet	zieat	zienat
dizkiet	zizkieat	zizkienat
dje	ziek	zien
dizkie	zizkiek	zizkien
diegu	zieagu	zienagu
dizkiegu	zizkieagagu	zizkienagagu
diete	zietek	zieten
dizkiete	zizkietek	zizkieten

## ORAINALDIA [+KE]

didake	zidakek	zidaken
dizkidake	zizkidakek	zizkidakenen
didakete	zidaketek	zidaketen
dizkidakete	zizkidaketek	zizkidaketen
diokat	ziokeat	ziokenat
dizkiokat	zizkiokeat	zizkiokenat
dioke	ziokek	zioken
dizkioke	zizkiokek	zizkioken
diokegu	ziokeagu	ziokenagu
dizkiokegu	zizkiokeagagu	zizkiokenagagu
diokete	zioketek	zioketen
dizkiokete	zizkioketek	zizkioketen
diguke	zigukek	ziguken
dizkiguke	zizkigukek	zizkigukenen
digukete	ziguketek	ziguketen
dizkigukete	zizkiguketek	zizkiguketen
dieket	ziekeat	ziekenat
dizkieket	zizkiekeat	zizkiekenat
dieke	ziekek	zieken
dizkieke	zizkiekek	zizkieken

<sup>2</sup> Erro aldaketarik jasaten ez duten aditz laguntzaile ergatibodunetan, z- hobetsi da *d-* baino, 3. pertsonako absolutiboa duten (edo absolutiborik gabekoak diren) orainaldiko adizkeretan. Gisa horretan, ergatiboa 3. pertsonakoa dutenean forma alokutibo horiek hikako forma zuzenari bereziko dira: *Hik egia esan didak*, baina *Hire enuzteak egia esan zidak*; *Hik egia esan didan*, baina *Hire senarrak egia esan zidan*.

diekegu  
dizkiekegu  
diekete  
dizkiekete

zickeagu  
zizkiekeagu  
zieketek  
zizkieketek

zickenagu  
zizkiekenagu  
zieketen  
zizkieketen

## IRAGANALDIA

zidan  
zizkidan  
zidaten  
zizkidaten  
nion  
nizkion  
zion  
zizkion  
genion  
genizkion  
zioten  
zizkioten  
zigun  
zizkigun  
ziguten  
zizkiguten  
nica  
nizkien  
zien  
zizkien  
genien  
genizkien  
zieten  
zizkieten

zidaan  
zizkidaan  
zidatean  
zizkidean  
nioan  
nizkioan  
zioan  
zizkioan  
genioan  
genizkioan  
ziotean  
zizkiotean  
ziguan  
zizkiguan  
zigutcan  
zizkigutcan  
nican  
nizkiean  
ziean  
zizkiean  
geniean  
genizkiean  
zietean  
zizkietean

zidanan  
zizkidanan  
zidatenan  
zizkidatenan  
nionan  
nizkionan  
zionan  
zizkionan  
genionan  
genizkionan  
ziotengan  
zizkiotengan  
zigunan  
zizkigunagan  
zigutcanan  
zizkigutcanan  
nicanan  
nizkienan  
zienan  
zizkienan  
genienan  
genizkienan  
zietengan  
zizkietengan

## IRAGANALDIA [+KE ]

zidakeen  
zizkidakeen  
zidaketen  
zizkidaketen  
niokeen  
nizkioken  
zioken  
zizkioken  
genioken  
genizkioken  
zioketen  
zizkioketen  
zigukeen  
zizkigukeen  
ziguketen  
zizkiguketen  
niekeen  
nizkiekeen  
ziekeen  
zizkiekeen  
geniekeen  
genizkiekeen  
zieketen  
zizkieketen

zidakean  
zizkidakean  
zidaketean  
zizkidaketean  
niokean  
nizkiokean  
ziokean  
zizkiokean  
geniokcan  
genizkiokcan  
zioketean  
zizkioketean  
zigukean  
zizkigukean  
ziguketean  
zizkiguketean  
niekean  
nizkiekean  
ziekean  
zizkiekean  
geniekean  
genizkiekean  
zieketean  
zizkieketean

zidakengan  
zizkidakengan  
zidaketenan  
zizkidaketenan  
niokeengan  
nizkiokenan  
ziokenan  
zizkiokenan  
geniokenan  
genizkiokenan  
zioketengan  
zizkioketengan  
zigukengan  
zizkigukengan  
ziguketengan  
zizkiguketengan  
niekeengan  
nizkiekeengan  
ziekeengan  
zizkiekeengan  
geniekeengan  
genizkiekeengan  
zieketeengan  
zizkieketengan

## ALEGIAZKOA [ +KE ]

lidake	lidakek	lidaken
lizkidake	lizkidakek	lizkidaken
lidakete	lidaketek	lidaketen
lizkidakete	lizkidaketek	lizkidaketen
nioke	nioket	nioken
nizkioke	nizkiokek	nizkioken
lioke	lioket	lioken
lizkioke	lizkiokek	lizkioken
genioke	geniokek	genioken
genizkioke	genizkiokek	genizkioken
liokete	lioketek	lioketen
lizkiokete	lizkioketek	lizkioketen
liguke	liguket	liguken
lizkiguke	lizkiguket	lizkiguken
ligukete	liguketek	liguketen
lizkigukete	lizkiguketek	lizkiguketen
nieke	nieket	nieken
nizkieke	nizkiekek	nizkieken
lieke	lieket	lieken
lizkieke	lizkiekek	lizkieken
genieke	geniekek	genieken
genizkieke	genizkiekek	genizkieken
liekete	lieketek	lieketen
lizkiekete	lizkieketek	lizkieketen



**\*ezan aditz laguntzailea<sup>3</sup>**(NOR-)NORK saila<sup>4</sup>**ORAINALDIA [ +KE ]**

nazake	nazakek	nazaken
nazakete	nazaketek	nazaketen
dezaket	zezakeat	zezakenat
dezake	zezakek	zezaken
dezakegu	zezakeagu	zezakenagu
dezakete	zezaketek	zezaketen
gaitzake	gaitzakek	gaitzaken
gaitzakete	gaitzaketek	gaitzaketen
ditzaket	zitzakeat	zitzakenat
ditzake	zitzakek	zitzaken
ditzakegu	zitzakeagu	zitzakenagu
ditzakete	zitzaketek	zitzaketen

**IRAGANALDIA [ +KE ]**

nintzakeen	nintzakean	nintzakenan
nintzaketen	nintzaketean	nintzaketenan
nezakeen	nezakean	nezakenan
zezakeen	zezakean	zezakenan
genezakeen	genezakean	genezakenan
zezaketen	zezaketean	zezaketenan
gintzakeen	gintzakean	gintzakenan
gintzaketen	gintzaketean	gintzaketenan
nitzakeen	nitzakean	nitzakenan
zitzakeen	zitzakean	zitzakenan
genitzakeen	genitzakean	genitzakenan
zitzaketen	zitzaketean	zitzaketenan

**ALEGIAZKOA [ +KE ]**

nintzake	nintzakek	nintzaken
nintzakete	nintzaketek	nintzaketen
nezake	nezakek	nezaken
lezake	lezakek	lezaken
genezake	genezakek	genezaken
lezakete	lezaketek	lezaketen
gintzake	gintzakek	gintzaken
gintzakete	gintzaketek	gintzaketen
nitzake	nitzakek	nitzaken
litzake	litzakek	litzaken
genitzake	genitzakek	genitzaken
litzakete	litzaketek	litzaketen

<sup>3</sup> Menperagailurik gabe ager daitezkeen adizkeren forma alokutiboak baizik ez ditugu ematen, erran nahi baitu *ke*-dunak. Euskara zaharrean, iraganaldiko *-ke* gabeko formak ere menperagailurik gabe erabil zitezkeen, baina aspaldi honetan hilak baitira erabilerara horiek, ez ditugu araberako alokutiboak ematen paradigmaten.

<sup>4</sup> Erro aldaketarik jasaten ez duten aditz laguntzaile ergatibodunetan, z- hobetsi da *d*-baino, 3. pertsonako absolutiboa duten (edo absolutiborik gabekoak diren) orainaldiko adizkeretan. Gisa horretan, ergatiboa 3. pertsonakoa dutenean forma alokutibo horiek hikako forma zuzenatarik bereiziko dira: *Hik lan egin dezakek*, baina *Hire emazteak lan egin zezakek*; *Hik lan egin dezaken*, baina *Hire senarrak lan egin zezaken*.

## (NOR-) NORI-NORK saila

ORAINALDIA [+KE]<sup>3</sup>

diezadake	ziezadakek	ziezadaken
diezazkidake	ziezazkidakek	ziezazkidaken
diezadakete	ziezadaketek	ziezadaketen
diezazkidakete	ziezazkidaketek	ziezazkidaketen
diezaioket	ziezaiokeat	ziezaiokenat
diezazkioket	ziezazkioket	ziezazkiokenat
diezaioke	ziezaiokek	ziezaioken
diezazkioke	ziezazkioket	ziezazkioken
diezaiokegu	ziezaiokeagu	ziezaiokenagu
diezazkiokegu	ziezazkiokeagu	ziezazkiokenagu
diezaiokete	ziezaioketek	ziezaioketen
diezazkiokete	ziezazkioketek	ziezazkioketen
diezaguke	diezaguket	diezaguketen
diezazkiguke	diezazkiguket	diezazkiguketen
diezagukete	diezaguketek	diezaguketen
diezazkigukete	diezazkiguketek	diezazkiguketen
diezaieket	diezaieket	diezaickenat
diezazkieket	diezazkieket	diezazkiekenat
diezaieke	diezaiekek	diezaieken
diezazkieke	diezazkiekek	diezazkieken
diezaiekegu	diezaiekeagu	diezaiekenagu
diezazkiekegu	diezazkiekeagu	diezazkiekenagu
diezaiekete	diezaieketek	diezaieketen
diezazkiekete	diezazkieketek	diezazkieketen

## IRAGANALDIA [+KE]

ziezadakeen	ziezadakean	ziezadakenan
ziezazkidakeen	ziezazkidakean	ziezazkidakenan
ziezadaketen	ziezadaketean	ziezadaketenan
ziezazkidaketen	ziezazkidaketean	ziezazkidaketenan
niezaiokeen	niezaiokean	niezaiokenan
niezazkiokeen	niezazkiokean	niezazkiokenan
ziezaiokeen	ziezaiokean	ziezaiokenan
ziezazkiokeen	ziezazkiokean	ziezazkiokenan
geniezaiokeen	geniezaiokean	geniezaiokenan
geniezazkiokeen	geniezazkiokean	geniezazkiokenan
ziezaioketen	ziezaioketean	ziezaioketenan
ziezazkioketen	ziezazkioketean	ziezazkioketenan
ziezagukeen	ziezagukean	ziezagukenen
ziezazkigukeen	ziezazkigukean	ziezazkigukenen
ziezaguketen	ziezaguketean	ziezaguketenan
ziezazkiguketen	ziezazkiguketean	ziezazkiguketenan
niezaiekeen	niezaiekean	niezaiekenan
niezazkiekeen	niezazkiekean	niezazkiekenan
ziezaiekeen	ziezaiekean	ziezaiekenan
ziezazkiekeen	ziezazkiekean	ziezazkiekenan
geniezaiiekeen	geniezaiiekean	geniezaiiekenan
geniezazkiekeen	geniezazkiekean	geniezazkiekenan
ziezaieketen	ziezaieketean	ziezaieketenan
ziezazkieketen	ziezazkieketean	ziezazkieketen

<sup>3</sup> Erro aldaketarik jasaten ez duten aditz laguntzaile ergatibodunetan, z- hobetsi da d-baino, 3. pertsonako absolutiboan duten (edo absolutiborik gabekoak diren) orainaldiko adizkeretan. Gisa horretan, ergatiboa 3. pertsonakoa dutenean forma alokutibo horiek hikako forma zuzenatarik bereziko dira: *Hik ekar diezadakek liburua*, baina *Hire emazteak ekar diezadakek liburua*; *Hik ekar diezadaken liburua*, baina *Hire senarrak ekar diezadaken liburua*.

## ALEGIAZKOA [+KE]

liezadake	liezadakek	liezadaken
liezazkidake	liezazkidakek	liezazkidaken
liezadakete	liezadaketek	liezadaketen
liezazkidakete	liezazkidaketean	liezazkidaketenan
niezaioke	niezaiokek	niezaioken
niezazkioke	niezazkiokek	niezazkioken
liezaioke	liezaiokek	liezaioken
liezazkioke	liezazkiokek	liezazkioken
geniezaioke	geniezaiokek	geniezaioken
geniezazkioke	geniezazkiokek	geniezazkioken
liezaiokete	liezaioketek	liezaioketen
liezazkiokete	liezazkioketek	liezazkioketen
liezaguke	liezagukek	liezaguketen
liezazkiguke	liezazkigukek	liezazkiguketen
liezagukete	liezaguketek	liezaguketen
liezazkigukete	liezazkiguketean	liezazkiguketenan
niezaieke	niezaiekek	niezaieken
niezazkieke	niezazkiekek	niezazkieken
liezaieke	liezaiekek	liezaieken
liezazkieke	liezazkiekek	liezazkieken
geniezaiieke	geniezaiiekek	geniezaiieken
geniezazkieke	geniezazkiekek	geniezazkieken
liezaiekete	liezaieketek	liezaieketen
liezazkiekete	liezazkieketek	liezazkieketen

**\*iro-****NOR-NORK saila****ORAINALDIA**

dirot

diro

dirogu

dirote

ziroat

zirok

ziroagu

zirotek

zironat

ziron

zironagu

ziroten

**IRAGANALDIA**

niroen

ziroen

geniroen

ziroten

niroan

ziroan

geniroan

zirotean

nironan

zironan

genironan

zirotenan

**ALEGIAZKOA**

niro

liro

geniro

lirote

nirok

lirok

genirok

lirotek

niron

liron

geniron

liroten

## Aditz trinkoak

Bost arazori buruz eman zuen Euskaltzaindiak bere iritzia, eta komeni da, hortaz, laburzki aipatzea hori hemen.

### 1. Adizkera batuak euskara batuko adizkeretarik abiatuz moldatzea.

Puntu hau hiru zentzutan ulertu behar da:

- Euskara batuan onartu ez ziren adizkeren forma alokutiboak ez dira sartu zerrendetan. Adibidez, *ekarri* aditzaren kasuan *-ke* morfema agertzen da maizenik Iparraldeko idazle zaharren lanetan, eta Urtek adizkera alokutiboak eskaintzen dituenean, beti araberako formak eskaintzen dizkigu: *ziakharkeat*, *ziakharzkeat*, etab... Adizkera hauek, ordea, ez ziren sartu euskara batuko paradigmatan, eta, beraz, hemen ere ez dira agertzen dagozkien molde alokutiboak. Arrazoi beragatik euskara batuan onartu ez ziren adizkera trinkoentzat ez da forma alokutiborik proposatzen. Horregatik *daraio*, *ni-gorra*, edo *zizekan* bezalako adizkeren dagokien formarik ez da kausituko ondoko paradigmatan, aditz horien paradigma trinkoak ez baitira agertzen euskara batuko zerrendetan. Esan gabe doa, norbaitek adizkera haiek erabili nahi izanez gero, beti egin ditzakeela, eta dagozkien molde alokutiboak ere, halaber, beherexeago itxuratzen den jokabide batuaren araberakoak era ditzakeela.

- Proposaturiko formak euskara batuan onetsi formetarik abiatuz eratu dira. Adibidez, *dakizki* adizkera onartua izan bazen, eta ez *dakitzat*, *dakidaz*, edo *dakit*, adizkera alokutiboa oinarri horretan eratu da, *zki* pluralgileari lehentasuna emanez.

- Euskara batuan onartuak izan diren adizkera guztientzat molde alokutiboa proposatu da. puntu hau ere eztabaidagarria gertatu da. Alabaina, adizkera trinkoen paradigma edo forma batzuk oso guti erabiliak dira, eta horrelakoetan jokabidea usarioan finkatzeko biderik ezin aurkituz geratu da batzordea behin baino gehiagotan. Kontuan izanik, halere, adizkera alokutiboak erregela morfosintaktiko batzuen bidez sortuak direla, delako erregelak aplikatu dira orduan. Funtsean, alokutiboez kontu eduki gabe ere, adizkera askoren kasuan gertatu da jadanik hori, adizkera trinkoen paradigmeci behatuz berehala ohar daitezkeen bezala. Lehenago bide horretarik ibili behar izan bazuen Euskaltzaindiak, hala-hala oraingoan ere.

- Adizkera trinkoci dagozkien homengo zerrendak Euskaltzaindiak lehenagotik onartueta finkatuak dira; bat kendu, ez gaineratu gabe. Duela hogei urte edo, euskara batuan ontzat emandako oinarritzko adizkera trinkoak, berenez, forma alokutiboa agertzen dira, beraz, zerrendetan, salbuespenik gabe, eta oinarritzko forma horiek gisa hartan erabiliak izan diren edo izan ez diren, behatu gabe jokabide alokutiboa hartzen ahal duten neurrian, noski. Haatik, gogoan har bedi adizkera horietatik batzuk, hala nola, adibidez, *eutsi* da *ekin* aditzei dagozkienak menderaigailu batekin (*-e)n* eta *-(e)la*, *bait-*, *ba-*) erabiltzen direla, eta horrelakoetan forma alokutiboek ez dutela tokirik.

### 2. Lehen silabaren forma.

Adizkera alokutiboetako lehen silaban ager daitezkeen aldakuntzei buruz, hiru puntu bereziki ikustekoak ziren, elkarri lotuak nolabait, baina azaltzeko berex ematen ditugunak:

- Pertsona indizearen ondoan *i*-ren sartzea edo ez sartzea: *niagok* vs *nagok* edo *negok*;

- Orainaldian *a*-ren ordez *e* onartzea edo ez: *n(i)agok* vs *negok*;

- Orainaldiko adizkeretan *d-* edo *z-* ematea, aurretik pertsona indizerik ez dagoenean: *d(i)agok* vs *zagok* edo *zegok*.

Hiru aukerak bazituzten alde onak eta txarrak.

- Lehen puntuari buruz, derragun tradizio zaharrenak eta ekialdeko euskalkienak *i*-ren onartzera bultzatzen zutela. Ordea, azken aldiko joera bestelakoa izan da, eta aire arkaikoa hartzen dute gaur egun, orainalditik kanpo, *-i*-rekilako formek (*nienthorrean*, *gieundekek*). Lapurdiko tradizioan aspaldi du jadanik, lehen pertsonekin bereziki *-i* hori ez dela agertzen (Elizanburuk: *nagok* eta *noak*), eta *ke*-dun formetan, bai eta iraganaldikoetan ere, are lehenagokoa da *i* gabeko erabilpen hori (Urtek: *niagok*, eta *niathork* baina *nengoan*, *nagokek* eta *nathorkek*). Horiek guztiak gogoan izanik, bai eta sabaikaridura horren lekukotasuna atxiki duten mendealdeko asko euskalkitan izaten duen itxura berezia ere (*natxabillek*, etab.), *i* gabeko formak simpleago, eta gaurko egoeran egokiagotzat jo ditu Euskaltzaindiak.

- *Nagok* vs *negok* kontuan, bi erabilerak bizi izanik gaur egun, lehen forma hobetsi du Euskaltzaindiak, eztabadako formari hurbilago baita bestea baino, eta tradizio zaharrenari jarrairik, bai ekialdean, eta bai mendebaldean kausitzen baita.

- Orainaldian lehen edo bigarren pertsonarik aurrizki gertatzen ez den adizkerentzat, bi parte ditu Euskaltzaindiak egiten duen proposamenak. Lehenik, *d-* baztertuz, *z-*ren aldeko hautua egiten du. Bigarrenik, *z-* hobetsirik ere, ez du aukeratzeko agertzen ziren bi moldeen artean, biak berdin ontzat ematen baititu (*zagok* edo *zegok*).

Zahartasunari begiratu gero, *dia-* moldea zen, segurenaz ere lehen tokian heldu zena. Ordea, aspaldi zabaldu zen \**di* → \**zi* aldaketa, eta gaur egun hedatuena dira *z-*reliko formak. Horregatik hobetsi ditu Euskaltzaindiak azken forma hauek, ber denboran, kasu honetan ere *i-*ren kentzea onartzen zuela.

*Za-* / *ze-* bikotearen aurrean, haatik, ez du hauturik egin Euskaltzaindiak, bi moldeak maila berean libro utzirik molde paradigmatico batean (esan nahi baitu, jokabide bat hautatu ondoan hari jarraiki behar zaiola). Lehenaren alde jotzen du Iparraldeko erabilerak, bai eta paradigmaren erregularitasunak ere. Ordea, bigarren moldeak indar handia hartu du euskarak indartsuenik dirauen erdialdeko euskalkietan, eta maiztasun handieneko adizkera izanik, Euskaltzaindiak ontzat eman du beste forma hau ere bestearen ondoan.

3. Alokutiboaren pertsona indizea kontsonante batekin bukatzen den aditz erro bati lotzerakoan zer egiten den.

Hemen hiru bide agertzen ziren nagusiki:

- indize alokutiboa zuzenean lotzea: *nabilk* (*nabil*), *zakark* (*dakar*), *natork* (*nator*) ...;

- *e-* bat lotura gisa sartzea: *nabilek* (*nabil*), *zakarreat* (*dakart*), *natorren*, (*nator*) ...;

- euskalki batzuetan erroari loturik agertzen den *-a-* uztea: *nabilak* (*nabil*), *natorrak* (*nator*).

Kontuan har, bestalde, buruhauste bera iraganeko adizkeretan ere agertzen zela. Zein hauta: *ze-bilnan* (erante zuzena), *zebilenan* (*-e-* loturazkoa), *zebilanan* (*-a* erroari erantsirik utziz)?

Euskaltzaindiaren hautua *-e-* loturazkoaren aldekoa izan da.

- Egia da 2. pertsonako indizea alokutiboa ez denean (komuntadura sintaktiko zuzenari dagokionean, hots), loturarik ez dela agertzen euskara batuko adizkera arruntetan (*darabilk*, *dakark*), baina kontu hauetan, hain zuzen, iduri luke indize alokutiboak jokabide berezia izan dezakeela: *niathorrek* ematen zuten bai Leizarragak, bai Ithurryk, eta halakoa da gaur egun ere euskalki askoren jokabidea.

- *-a-* loturazkoaren enplegatzea baztertua izan da, forma zuzenetan aukera hori bazterturik gelditu baitzen euskara batuan (*nabil*, *darabilk* eta ez *nabila*, *darabilat*).

4. Alokutiboaren pertsona indizea, *-z* pluralgileari lotzerakoan, ea *-z* soilik kontuan hartuko den (eztabadakako formatan bezala) ala *-za* forma.

Azken arazo hau aski mugatua da, zortzi formatan baizik ez baita agertzen (beti ere euskara batuko adizkeretarik abiatuz gero, noski): *goaz*, *doaz*, *gatoz*, *datoz* eta hauei dagozkien iraganaldiko formak.

- Euskaltzaindiak horrelako kasuetan, bai orainaldian, bai iraganaldian, *-za* forma hobestea erabaki du, alde batetik, hedadura zabalena zuelakoan, eta, beste aldetik, eztabadakako adizkeren oinarria atxikiz ere horrela egin zitekeela uste izan duelako (pluralgilea *-z(a)* izanik).

5. Indize alokutiboaren tokia indize ergatiboaren eratzean.

Aditz laguntzaileen kasuan bezala, ergatibodun formatan indize alokutiboa beti indize ergatiboaren ezkerrean ematea hobetsi du Euskaltzaindiak adizkera trinkoentzat ere (*zakiagu*, beraz, eta ez *zakiyuk*). Jokabide hau, alokutiboa kasu guztietan ontzat eman du, indize alokutiboa aditz erro kontsonantikoei lotzen ere: *zakarreagu* eta ez *zakaryuk*.

Salbuespen bakarra, aditz laguntzaileekin bezala, *-te* 3. pertsonako ergatibo pluralgilea da, haren kasuan indize alokutiboan eskuin aldean emateko erabaki baitu Euskaltzaindiak: *zakitek* (eta ez *zakiate* edo *zakie*).

## Egon

## NOR bakarreko saila

## ORAINALDIA

nago  
dago  
gaude  
daude

nagok  
zagok, zegok  
gaudek  
zaudek, zeudek

nagon  
zagon, zegon  
gauden  
zauden, zeuden

## ORAINALDIA [+KE]

nagoke  
dagoke  
gaudeke  
daudeke

nagokek  
zagokek, zegokek  
gaudekek  
zaudekek, zeudekek

nagoken  
zagoken, zegoken  
gaudeken  
zaudeken, zeudeken

## IRAGANALDIA

nengoen  
zegoen  
geunden  
zeuden

nengoan  
zegoan  
geundcan  
zeudean

nengonan  
zegonan  
geundenan  
zeudenan

## IRAGANALDIA [+KE]

nengokeen  
zegokeen  
geundekeen  
zeudekeen

nengokean  
zegokean  
geundekean  
zeudekcan

nengokenan  
zegokenan  
geundekenan  
zeudekenan

## ALEGIAZKOA [+KE]

nengoke  
legoke  
geundeke  
leudeke

nengokek  
legokek  
geundekek  
leudekek

nengoken  
legoken  
geundeken  
leudeken

## Egon

## NOR-NORI saila

## ORAINALDIA

nagokio  
nagokie  
dagokit  
dagokio  
dagokigu  
dagokie  
gagozkio  
gagozkie  
dagozkit  
dagozkio  
dagozkigu  
dagozkie

nagokiok  
nagokiek  
zagokidak, zegokidak  
zagokiok, zegokiok  
zagokiguk, zegokiguk  
zagokiek, zegokiek  
gagozkiok  
gagozkiek  
zagozkidak, zegozkidak  
zagozkiok, zegozkiok  
zagozkiguk, zegozkiguk  
zagozkiek, zegozkiek

nagokion  
nagokien  
zagokidan, zegokidan  
zagokion, zegokion  
zagokigun, zegokigun  
zagokien, zegokien  
gagozkion  
gagozkien  
zagozkidan, zegozkidan  
zagozkion, zegozkion  
zagozkigun, zegozkigun  
zagozkien, zegozkien

## ORAINALDIA [+KE]

nagokioke  
nagokieke  
dagokidake  
dagokioke  
dagokiguke  
dagokieke  
gagozkioke  
gagozkieke  
dagozkidake  
dagozkioke  
dagozkiguke  
dagozkieke

nagokiokek  
nagokiekek  
zagokidakek, zegokidakek  
zagokiokek, zegokiokek  
zagokigukek, zegokigukek  
zagokiekek, zegokiekek  
gagozkiok  
gagozkiekek  
zagozkidakek, zegozkidakek  
zagozkiok, zegozkiok  
zagozkigukek, zegozkigukek  
zagozkiekek, zegozkiekek

nagokioken  
nagokieken  
zagokidaken, zegokidaken  
zagokioken, zegokioken  
zagokiguken, zegokiguken  
zagokieken, zegokieken  
gagozkioken  
gagozkieken  
zagozkidaken, zegozkidaken  
zagozkioken, zegozkioken  
zagozkiguken, zegozkiguken  
zagozkieken, zegozkieken

## IRAGANALDIA

nengokion  
nengokien  
zegokidan  
zegokion  
zegokigun  
zegokien  
gengozkion  
gengozkien  
zegozkidan  
zegozkion  
zegozkigun  
zegozkien

nengokioan  
nengokian  
zegokidaan  
zegokioan  
zegokiguan  
zegokiean  
gengozkioan  
gengozkiean  
zegozkidaan  
zegozkioan  
zegozkiguan  
zegozkian

nengokionan  
nengokienan  
zegokidanan  
zegokionan  
zegokigunan  
zegokienan  
gengozkionan  
gengozkiean  
zegozkidanan  
zegozkionan  
zegozkigunan  
zegozkianan

## IRAGANALDIA [+KE]

nengokiokean  
nengokiekean  
zegokidakean  
zegokiokean  
zegokigukean  
zegokiekean  
gengozkiokean  
gengozkiekean

nengokiokean  
nengokiekean  
zegokidakean  
zegokiokean  
zegokigukean  
zegokiekean  
gengozkiokean  
gengozkiekean

nengokiokenan  
nengokiekenan  
zegokidakean  
zegokiokenan  
zegokigukean  
zegokiekenan  
gengozkiokenan  
gengozkiekenan



zegozkidakeen  
zegozkiokeen  
zegozkigukeen  
zegozkiekeen

zegozkidakean  
zegozkiokean  
zegozkigukean  
zegozkiekean

zegozkidakenan  
zegozkiokenan  
zegozkigukenan  
zegozkiekenan

## ALEGIAZKOA [+KE]

nengokioke  
nengokieke  
legokidake  
legokioke  
legokiguke  
legokieke  
gengozkioke  
gengozkieke  
legozkidake  
legozkioke  
legozkiguke  
legozkieke

nengokiokek  
nengokiekek  
legokidakek  
legokiokek  
legokigukek  
legokiekek  
gengozkiokek  
gengozkiekek  
legozkidakek  
legozkiokkek  
legozkigukek  
legozkiekek

nengokioken  
nengokieken  
legokidaken  
legokioken  
legokiguken  
legokieken  
gengozkioken  
gengozkieken  
legozkidaken  
legozkioken  
legozkiguken  
legozkieken

**Etorri****NOR bakarreko saila****ORAINALDIA**

nator  
dator  
gatoz  
datoz

natorrek  
zatorrek, zetorrek  
gatozak  
zatozak, zetozak

natorren  
zatorren, zetorren  
gatozan  
zatozan, zetozan

**ORAINALDIA [+KE]**

natorke  
datorke  
gatozke  
datozke

natorkek  
zatorkek, zetorkek  
gatozkek  
zatozkek, zetozkek

natorken  
zatorken, zetorken  
gatozken  
zatozken, zetozken

**IRAGANALDIA**

nentorren  
zetorren  
gentozen  
zetozen

nentorrean  
zetorrean  
gentozaan  
zetozaan

nentorrenan  
zetorrenan  
gentozanan  
zetozanan

**IRAGANALDIA [+KE]**

nentorkeen  
zetorkeen  
gentozkeen  
zetozkeen

nentorkean  
zetorkean  
gentozkean  
zetozkean

nentorkenan  
zetorkenan  
gentozkenan  
zetozkenan

**ALEGLIAZKOA [+KE]**

nentorke  
letorke  
gentozke  
letozke

nentorkek  
letorkek  
gentozkek  
letozkek

nentorken  
letorken  
gentozken  
letozken

## Etorri

## NOR-NORI saila

## ORAINALDIA

natorkio	natorkiok	natorkion
natorkie	natorkiek	natorkien
datorkit	zatorkidak, zetorkidak	zatorkidan, zetorkidan
datorkio	zatorkiok, zetorkiok	zatorkion, zetorkion
datorkigu	zatorkiguk, zetorkiguk	zatorkigun, zetorkigun
datorkie	zatorkiek, zetorkiek	zatorkien, zetorkien
gatozkio	gatozkiok	gatozkion
gatozkie	gatozkiek	gatozkien
datozkit	zatozkidak, zetozkidak	zatozkidan, zetozkidan
datozki	zatozkiok, zetozkiok	zatozkion, zetozkion
datozki		
datozkigu	zatozkiguk, zetozkiguk	zatozkigun, zetozkigun
datozkie	zatozkiek, zetozkiek	zatozkien, zetozkien

## ORAINALDIA [ +KE ]

natorkioke	natorkiokek	natorkioken
natorkieke	natorkiekek	natorkieken
datorkidake	zatorkidakkek, zetorkidakkek	zatorkidaken, zetorkidaken
datorkioke	zatorkiokek, zetorkiokek	zatorkioken, zetorkioken
datorkiguke	zatorkigukek, zetorkigukek	zatorkiguken, zetorkiguken
datorkieke	zatorkiekek, zetorkiekek	zatorkieken, zetorkieken
gatozkioke	gatozkiokkek	gatozkioken
gatozkieke	gatozkiekek	gatozkieken
datozkidake	zatozkidakkek, zetozkidakkek	zatozkidaken, zetozkidaken
datozkiokke	zatozkiokkek, zetozkiokkek	zatozkioken, zetozkioken
datozkiguke	zatozkigukek, zetozkigukek	zatozkiguken, zetozkiguken
datozkieke	zatozkiekek, zetozkiekek	zatozkieken, zetozkieken

## IRAGANALDIA

nentorkion	nentorkioan	nentorkionan
nentorkien	nentorkiean	nentorkienan
zetorkidan	zetorkidaan	zetorkidanan
zetorkion	zetorkioan	zetorkionan
zetorkigun	zetorkiguan	zetorkigunan
zetorkien	zetorkiean	zetorkienan
gentozkion	gentozkioan	gentozkionan
gentozkien	gentozkiean	gentozkienan
zetozkidan	zetozkidaan	zetozkidanan
zetozkion	zetozkioan	zetozkionan
zetozkigun	zetozkiguan	zetozkigunan
zetozkien	zetozkiean	zetozkienan

## IRAGANALDIA [ +KE ]

nentorkiokeen	nentorkiokean	nentorkiokean
nentorkiekeen	nentorkiekean	nentorkiekean
zetorkidakeen	zetorkidakean	zetorkidakean
zetorkiokean	zetorkiokean	zetorkiokean
zetorkigukean	zetorkigukean	zetorkigukean
zetorkiekean	zetorkiekean	zetorkiekean
gentozkioken	gentozkioken	gentozkioken
gentozkiekean	gentozkiekean	gentozkiekean
zetozkidakean	zetozkidakean	zetozkidakean

zetoziokkeen  
zetozkigukeen  
zetozkiekeen

zetoziokkean  
zetozkigukean  
zetozkiekean

zetoziokiengan  
zetozkigukengan  
zetozkiekengan

**ALEGLIAZKOA [+KE]**

nentorkioke  
nentorkieke  
letorkidake  
letorkioke  
letorkiguke  
letorkieke  
gentozkiokke  
gentozkieke  
letozkidake  
letozkiokke  
letozkiguke  
letozkieke

nentorkiokek  
nentorkiekek  
letorkidakek  
letorkiokek  
letorkigukek  
letorkiekek  
gentozkiokek  
gentozkiekek  
letozkidakek  
letozkiokek  
letozkigukek  
letozkiekek

nentorkioken  
nentorkieken  
letorkidaken  
letorkioken  
letorkiguken  
letorkieken  
gentozkioken  
gentozkieken  
letozkidaken  
letozkioken  
letozkiguken  
letozkieken

**Ibili****NOR bakarreko saila****ORAINALDIA**

nabil	nabilek	nabilen
dabil	zabilek, zebilek	zabilen, zebilen
gabiltza	gabiltzak	gabiltzan
dabiltza	zabiltzak, zebiltzak	zabiltzan, zebiltzan

**ORAINALDIA [+KE]**

nabilke	nabilkek	nabilken
dabilke	zabilkek, zebilekek	zabilken, zebilken
gabiltzke	gabiltzek	gabiltzen
Hortaz, hau da ordinalentzat Euskaltzaindiak euskara baturako erabakitzen duen idazkera:

*Bigarren*, *hirugarren*, *laugarren*, *bosgarren* (*borzgarren*), *seigarren*, *zazpigarren*, *zortzigarren*, *bederatzigarren*, *hamargarren*, *hamaikagarren* ....., *hamabosgarren* (*hamaborzgarren*) ....., *hogeigarren*, *hogeita batgarren*, *hogeita bigarren* ....., *hogeita hamargarren* ...., *berrogeita batgarren* ....., *ehungarren*, *milagarren* ....Eta galderetan *zenbatgarren*.

Saileko lehen kideari buruz, erabiltzen diren formek (*lehen*, *aurren*, eta *lehenengo*, *lehenbiziko*, *lehendabiziko* e.a.) ez dute ortografi arazorik, eta oraingoz, ez du Euskaltzaindiak horietako batere hobesten.

Orobat, eta banatzaileei dagokienez, *bana* (eta, beraz, *hogeita bana*), *bosna* (*borzna*), *hamabosna* (*hamaborzna*), *ehuna*, *mila bana*, idazkera proposatzen du Euskaltzaindiak. Halaber, galderetan *zenbana* erabiliko da. Jakina denez, Iparraldeko tradizioan, zenbakia bokalez bukatzen denean *-na* gabe *-ra* erabiltzen da: *bira* (baina *hiruna*, *launa*), *seira*, *zazpira*, *zortzira*, *bederatzira*, e.a. Euskaltzaindiak ez du erabilera hau gaitzesten.

**Laburbilduz, hortaz, hauxe da Euskaltzaindiaren erabakia:**

- 1) Ordinaletan “garren” ahoskatzen den bakoitzean puntua jar bedi haren ordainean: *Atano X. arekin, XX. mendean, 12. mendean*.
- 2) Oso-osorik letraz idazteko orduan arazoak sor ditzaketen ordinalak honela egiten dute: *hogeita batgarren*, *hirurogeita batgarren*. Hala ere, *bosgarren*, *hogeita bosgarren*, *hirurogeita hamabosgarren*, e.a. idatziko da.
- 3) Distributiboak, *-na* baliatuz osatzen direnean, honela idazten dira: *bana*, *bosna*, *ehuna*, *mila bana*, *zenbana*, e.a. Hauen aldaerak ere (*borzna*) berdin idatziko dira.

(Euskaltzaindiak, Oiartzunen, 1994ko abenduaren 29an onartua)

## 19

**BENETAKO,  
OHIKO**

*Orotariko Euskal Hiztegian benetan* sarreran ikus daitekeenez, benetako izenlaguna bizkaierazko eta gipuzkerazko literatura tradizioetan, 1800. urteaz gero asko erabili den esapidea da. Han bertan ikus daitekeenez, *benetako* da tradizioko idazle guztiek erabili izan duten forma. Azken urte hauetan hainbat testutan agertzen den *benetazko* aldaerak ez du alde horretatik inongo euskarririk. Bestalde, eramoldearen aldetik ere badirudi, *benetan*-en izenlaguna denez gero, *benetako* dela dagokion forma. Hortaz, *egiazko*-ren kutsutik edo sortu bide den *benetazko*-k ez du, antza denez, inongo alde onik euskara baturako gomendatua izan dadin.

*Ohi* partikularen izenlagunari dagokionez, lehen agerraldiak 1627koak dira, Etxeberri Ziburukoarenak, *ohiko* forman:

*Illea ere latzen zaio, lillurutzen begiak,  
Ohiko ere galtzen du kolorea bisaiaik (MD I 43).*

Harrezkero, hori da gaurdaino Iparraldeko testuetan salbuespenik gabe (Goyhetcheren *ohizko* bat izan ezik), agertzen den forma. Hegoaldean hitza gutxi erabiltzen da tradizioan, baina 1968 baino lehenagoko adibideak (*jan-edan*-eko bertsoak, Orixe, Zaitegi, K. Mitxelena, Txillardegi) *ohi*-korenak dira. Azken hogeit urteotan, aldiz, *ohizko*, analogikoa da Hegoaldean nagusitu den aldaera.

**Beraz, hau da Euskaltzaindiak erabakitzen duena: idatz dadila euskara batuan *benetako* (eta ez *benetazko*). *Ohiko/ohizko* bikoteari dagokionez, Euskaltzaindiak, inolako aukerarik egin gabe, gogorarazi nahi du *ohiko* dela tradizioan nagusitzen dena eta Iparraldean gaur bizi den forma bakarra.**

(Euskaltzaindiak, Oiartzunen, 1994ko abenduaren 29an onartua)

## 20

**BETIKO ETA HONEN KIDEAK**

*Beti* bezalako aditzondoak, eta, hau bezala, *atzo, etzi, sekula, gaur, bihar, luzaro*, e.a. denbora adierazten duten aditzondoak dira berez. Eta, aditzondo diren neurrian, ez dute deklinabide atzizkirik hartzen:

*Beti on da hizkuntzak jakitea.*  
*Etzi izango da Euskaltzaindiaren bilera.*

Batzuetan, denbora aditzondo hauek izenlagun funtzioa ere bete dezakete. Hori *nongo/noizko* denborazko genitiboa markatzen dutenean gertatzen da:

*Betiko leloa kantatzen dabil hori.*  
*Betiko ametsa du horrek buruan.*  
*Gaurko negarra biharko poz bihurtuko ahal da.*

Kasu hauetan, ikusten denez, *aditzondo-oinarria + ko* forma erabiltzen da. Hori izan da euskalki guztietako literatura testuetan erabat erabili izan den forma bakarra:

*Betiko itoginak arria zulatu, ta aldi luzeak guztia artu* (RS 16).  
*Ez dela hemen gure bethiko egoitza* (Lap 22 (V 13)).  
*Hitz hartu nintzan ene betiko lagun Lorenzo Tolosarekin* (Xa Odol 35).  
*Mañasi ona, (...), ta bere betiko adiskide Josepa* (Ag. Kr 23).

Beste batzuetan, aditzondo horiek adizlagun bihur daitezke, kasu destinatiboan:

*Adiskide, ze asmo duk biharko?*  
*Gaurko hemen izango zela esan zuen.*

Ikusten denez, kontsonantez bukatutako hauek *-ko* hartzen dute zuzen-zuzenean, nahiz noizbehinka *noizkorako, biharkorako*, e.a. bezalako formak ere ageri diren. Bokalez bukatzen direnekin, ordea, zalantzak sor daitezke: *betiko/betirako*.

Idazleen eta hiztunen usadioa kontuan hartzen bada, gauzak aski argi direla dirudi: Ekialdean *betiko* eta honen aldaerak (*betikoz*) erabili ohi dira beti; Mendebalean ere, Arruereen kasuan izan ezik, *betiko* erabili izan da XX. mendea arte. *Betirako*-ren adibide guztiak berriak dira, mende honetakoak eta Mendebalekoak: Labayen, Lizardi, Inza, B. Enbeita, Basarri, Berrondo, Txillardegi eta Irazusta. Erabileraren kopuruari begiratuz gero, hala ere, %6 inguru baizik ez dute osatzen *betirako* aldaeraren adibideek.



Honenbestez, hau da Euskaltzaindiaren erabakia: Idazleen erabilera eta deklinabideko egituratze formala kontuan hartuta, garbi dago *betiko* dela forma egokia Euskal Herri osoari begira eta *aditzondoa* + *ko* forma dela hobetsi beharrekoa. Hortaz, *gaurko*, *biharko*... bezalaxe, *atzoko*, *etziko*, *sekulako*, *luzaroko* eta *betiko* bezalako formak dira aditzondoentzako hobesten direnak.

(Euskaltzaindiak, Oiartzunen, 1994ko abenduaren 29an onartua)

## 21

**ARABERA**

Iparraldeko eta Nafarroako literatura tradizioetako hitz hau hainbat eratan agertu da testuetan: *araura*, *arauera*, *arauiala*, *arabera*, etab. Dena dela, XVIII. mendeaz gero erdarazko "según / selon"-en kide bezala, *arabera*, *arauera*, e.a. aldaera horien guztien artean, *arabera* da literaturan erabili den forma nagusia.

**Beraz, euskara baturako erabakitzen den forma bakarra *arabera* da esapide gisa erabiltzeko.**

\* \* \*

**Bibliografia:**

K. MITXELENA, *Orotariko Euskal Hiztegia*, *arabera* eta *arau* sarrerak.

(Euskaltzaindiak, Oiartzunen, 1994ko abenduaren 29an onartua)

## 22

**IRITZI**

Euskal literatura tradizioan hainbat formatan agertzen da hitz hau: *eretxi*, *eritxi*, *eritzi*, *iritxi* eta *iritzi* formetan gutxienez. Jakina denez, euskara batua eratzen hasi zenean, 1960-70 hamarraldian, *iritzi* zen, alde handiz, gehien erabiltzen zen era. Gero, euskara batuaren finkatze prozesuan, hainbat idazle *eritzi* eraren alde makurtu zen, zaharrena eta bizkaierazko tradizioan erabilia zelakoan.

Literatura tradizioaren azterketa zehatzak gauzak ez direla horrela erakusten du. Idatziz lehen agertzen den forma, Juan de Zumarragaren gutunean (1537) jadanik, *eretxi* da, eta hori berori da bizkaierazko literatur tradizioan erabat nagusi agertzen dena. Bestalde, forma hori da etimologikoki jatorrizkotzat hartu behar den *eritzi*-tik (ik. Mitxelena, *FHV* 106. orr.) gertuen dagoena. *Eritzi*, Iparraldeko eta Gipuzkoa aldeko testu zaharretan agertzen da, gehien bat *oneritzi*, *gaitzeritzi* eta antzeko elkartuetan, eta inoiz ez izen bezala. Bestalde, forma hau erabat desagertzen da Iparraldean XVII. mendean. Gipuzkoa aldean, haren ordez *iritzi* agertzen da XVIII. mendean (1713an jadanik) eta hau bakarrik erabiltzen da mende horren azkenaldez gero.

Azkenengo bi mendeetan, *iritzi* da, alde handiz gehien erabiltzen den forma. Bizkaieraz ere, 1800-1970 epean, oro har, *eretxi*-ren erabilera gutxituz doa eta *iritzi*-rena gehituz, eta dirudienez, 1970a inguruan *iritzi* zen bizkaierazko idazleen artean gehien erabiltzen zen forma, *eretxi*-ren (eta, noski, *eritzi*-ren) gainetik. Bestalde, azken hamarraldiotan hitza sartzen hasia da Iparraldean, *iritzi* forman hain zuzen.

Hortaz, badirudi, euskara baturako gomendatu behar den era *iritzi* dela nahiz izen, nahiz aditz bezala. Inork ez du zalantzan jartzen *e-z* hasten diren formak zaharragoak direla euskaraz, baina *ebili* eta *ekusi* zaharkituztat jotzen direnez gero, ez da arrazoirik ikusten *eritzi*-rekin beste horrenbeste ez egiteko.

**Beraz, hau da Euskaltzaindiaren erabakia: *iritzi* erabil bedi aditz nahiz izen gisa.**

\* \* \*

## Bibliografia:

I. SARASOLA, "Bizkaiera eta euskara batua: *eritzi-iritzi* eta *nire-nere* literatur tradizioan". *IKER-6 Luis Villasanteri omenaldia*.

(Euskaltzaindiak, Oartzunen, 1994ko abenduaren 29an onartua)

## 23

## ARAZI (\*)

Aditz "erazleak" edo "arazleak" eratzeko, euskaraz *arazi* / *erazi* / *erazo* / *arazo* aldaeretan agertzen den hitzaz baliatzen gara. Hitz hau dagokion aditzaren ondo-ondoan doa perpausean, eta delako aditzaren erroa da berez agertzen dena. Horretaz bestalde eragin ere badugu, euskalki guztietan *egin*-en bidez eratzen diren aditzen "erazle" gertatzen dena, eta, bizkaieraz, batez ere, gainerako aditzekin ere erabiltzen dena.

*Arazi* / *erazi* / *erazo* / *arazo* aldaerak horrela banatzen dira euskalkien arabera: zubereraz (eta Detxepare eta Leizarragagan) beti, salbuespenik gabe, *erazi* agertzen da; lapurtarrek (Materre, Etxeberri Ziburukoa eta Axularrenganik hasita gaurdaino) eta behenafarrek, beti, salbuespenik gabe hauek ere, *arazi* erabiltzen dute. Amikuze aldeko idazle bakanak dira zalantzak agertzen dituzten bakarrak. Antza denez, Baztango eta goi-nafarrerazko testuetan ere *arazi* da erabiltzen dena.

Mendeabaleko idazleengan, berriz, nahasiagoak agertzen dira gauzak. Gipuzkeraz, hainbat autore klasikok *erazi* erabiltzen dute, bakancen batek *arazi*, zenbaitek *azi* eta gchienek *erazo*, Lardizabal eta Agirre Asteasukoa horien artean. Bestalde, Mendiburu eta Ubillos-ek bederen *ar erazi* baina *asmarazi* idazten dute. Mende honetako autoreengan (1970 arte) horiek guztiok ikusten dira, eta aldaketa nabariena *arazi* aldaeraren agerraldien gehitzea bide da. Bizkaieraz *erazo* da, alde handiz, forma nagusia. Aldaera horien aldean *arazo*, *azi* e.a. askozaz gutxiago erabili izan dira, antza denez.

Batasun prozesuak ekarri duen aldakuntza nagusia, *erazo*, *arazo* eta *azi* aldaeren desagertzea izan bide da: hurbilketa gisa, *Maiztasun Hiztegia*-n ez dago *erazo*-ren agerraldirik eta erakusgarri berean *arazo*-renak bi dira, *arazi*-renak 164 (59 Iparraldekoak) eta *erazi*-renak 134, denak, bat izan ezik Hegoaldekoak. Ikusten denez, batasunaren prozesuak ez du *arazi* eta *erazi*-ren arteko hautaketa bideratu: Iparraldeak *arazi* soilik erabiltzeari eusten dio, eta Hegoaldean bi aldaeren arteko zalantzek (askotan autore bat beraren baitan ere) beren hartan diraute. Bestalde, azken urteotan, zuberotarrek, *Herria* aldizkarian bederen, *arazi* erabiltzen hasi dira *erazi*-ren ordez.

Euskaltzaindiak gomendio bat eman zuen *arazi* / *erazi*-ri buruz, 1971ko abuztuaren 4ko batzarraren onartua eta urte bereko *Euskera*-n 158. orrian argitaratua izan zena.

Hala ere, ez dira asko arau hura betetzen dutenak, besteak beste, aski korapilatsua delako eta hautakizun asko, gehiegi agian, eskaintzen dituelako: esaterako, *sor arazi*, *sor erazi*, *sortarazi*, *sor-terazi* idatz daiteke arau horren arabera. Aniztasun honetan bi arazo nahasten dira: aditz-erroaren formarena eta *arazi* / *erazi*-rena. Lehen arazoa oso zabala da —azken batean, hitz-elkarketan lehen osagaiak, aditza denean, zer forma izan behar duen— eta azterketa sakonak eskatzen ditunez gero, badirudi oraingoz bi hautakizunak *-t*-dunak eta *-t*-gabeak zilegi utzi behar direla. Hortaz, arauaren bakuntza *arazi* / *erazi*-ren aldetik egin behar da, egitekotan.

Gorago azaldu den egoeraren arabera, badirudi filologia argudioek ez dutela aski pisu *arazi* eta *erazi*-ren artean bata bestearen gainetik hobesteko: biek dute, nork bere eremuan, behar adina antzinatutasun eta literatur lekukotasun. Hortaz, beste era bateko arrazoiak erabili behar dira, puntu horretan batasuna bideratuko bada.

(\*) *Oharra*: Arau honek lehendik harturiko erabakia zehazten/aldatzen du. Ikus *Euskera* XVI, 1971, 156-159. orr.

Arrazoi horien ildotik, argi bide dago errazago gerta daitekeela hainbeste zalantza agertu eta agertzen dituen Hegoaldea *arazi* erabiltzera bultzatzea, laurehun urtez inongo zalantzarik gabe *arazi* besterik erabili ez duen Iparraldeak bere usadioa alda dezan lortzea baino. Uste honetan, Euskaltzaindiak *arazi* aldaera gomendatzen du euskara baturako. Nolanahi ere, salbuespen gisa *adierazi* gomendatzen da, Hegoalde osoan lortu duen erabiltze zabalagatik.

Bestalde, arauan, tradizioan agertzen den idazkera nahaste eta aniztasuna kontuan harturik, badirudi ez dela arrazoirik lehen proposatu zen gomendio korapilatsu eta ikasten zailari eusteko. Egokiagoa da Euskaltzaindaren ustez *arazi* beti loturik idaztea gomendatzea.

**Beraz hau da arauaren forma berria:**

- 1) Aditz “arazleak” eratzeko, *arazi* aldaera gomendatzen du Euskaltzaindiak, salbuespen bakarra *adierazi* delarik.
- 2) Aurreko aditzari lotua idatziko da beti *arazi*: *harrarazi*, *erorarazi*, *iraunarazi*, *hilarazi*, *betearazi*, *galarazi*, *geldiarazi*, *ezagutarazi*, *nabarmenarazi*, *ihardetsarazi*, *inarrozarazi*.
- 3) Zenbait aditzen aldaera *t*-dunak, hots, *sortarazi*, *agertarazi* eta kidekoak, *sorrarazi*, *agerrarazi* eta kidekoak bezain zilegizkotzat hartzen dira.
- 4) *Arazi*-ren aurreko aditza *a* bokalaz amaitzen baldin bada, a biekini bat egingo da: *aldarazi*, *benedikarazi*, *jokarazi*, *koordinarazi*, *obligarazi*, *sozializarazi*.

(Euskaltzaindiak, Oiartzunen, 1994ko abenduaren 29an onartua)

## 24

**BA- ETA GABE-REN IDAZKERA (\*)**

Batasuna egina den kasu batzuetan, Euskaltzaindiak araua zein den oroitarazi besterik ez du egiten:

- 1) *Ba-* aurrizkia baldintza markatzeko hizkia da kasu batzuetan:

*Mikel etortzen bada elkarrekin afalduko dugu.*

- 2) Beste batzuetan, ordea, ez:

*Badator Mikel.*

Bietan aditzarekin batera idatzi behar da, bereizketarik egin gabe. Hala ere, baldintzazkoa ez denean, hizki horren eta aditzaren artean beste hitz batzuk ere sar daitezke. Orduan, *ba* bakarrik idatzi behar da:

*Ba omen dator Mikel.*

*Ba ote dator Mikel?*

Beraz, salbuespen hori kenduta, *ba* beti aditzarekin elkaturik idatzi behar da.

\* \* \*

*Gabe* hitza, aldiz, bereiz idatziko da:

*Argirik gabe.*

Dena dela, aldaera bati baino gehiagori ematen dio bide hitz honek. Partitiboaren marka har dezake *gabe*-ren aurreko hitzak nahiz *gabe*-k berak. Bi hitzak markarik gabe ere ageri daitezke, ondoko adibideotan ikus daitekeenez:

*Argirik gabe*

*Argi gaberik*

*Argi gabe.*

---

(\*) *Oharra:* Arau honek lehendik harturiko erabakia zehazten/aldatzen du. Ikus *Euskera* XVII, 1972, 168-173. orr.; *Euskera* XVI, 1971, 156-159. orr.

Biek, ordea, ezin dute aldi berean hartu marka:

*\*Argirik gaberik*

Gaberik hitzaren aldaera da *barik* forma ere, oso erabilia dena. Hau ontzat eman behar da, jatorrizko formatik aski urrundua da eta:

*Argi barik*

**Horrenbestez, hauxe da Euskaltzaindiaren erabakia: elkarturik idatzi behar da *ba-*, baina bereiz *gabe*.**

*Lotsagabe* eta *kidekoei* dagokienez ikus Euskaltzaindiaren hitz elkarketari buruzko araua.

(Euskaltzaindiak, Oiartzunen, 1994ko abenduaren 29an onartua)

## 25

## HITZ ELKARTUEN OSAERA ETA IDAZKERA (\*)

## SARRERA

Maiz gertatzen da kontzeptu, gogamen, tresna edo jarduera berriak adierazi behar izatea. Bide egokia du horretarako euskarak, beste hainbat mintzairak bezala, hitz-elkarketa. Horrela eratuak dira, adibidez, *lege-gordailu*, *aditz-erro*, *barne-araudi*, *Foru Aldundi*, *irradi-entzule*, *bozeramale*, *idazmakina*, *ziurtagiri*, *zelulabakar* eta beste mila. Ondoko hizkuntzetan sintagma zabalagoen bidez adierazten dena azaltzeko ere baliabide erosoak dugu hitz-elkarketa: *osaba-ilobak* (*zinaera joan dira*), (*autobusa*) *bete-betea* (*dator*), *etxez etxe* (*ko postaritzea*),... Arrazoi sendoak ditugu, beraz, hitz elkartuen osaera-idazkerak ongi ikasi eta zuzen erabiltzen jakiteko.

Arreta bereziaz aztertu izan du Euskaltzaindiak hitz-elkarketaren esparru hau. 1971n emanak ditu, azkeneko, hitz elkartuen idaztarauak. Geroztik ikusi ahal izan denez, gomendio-arau haiek ez dute behar adina argibide eskaintzen eta aski neurri mugatuan betetzen dira. Hori dela eta, hitz-elkarketaren azterlan zabal bat egin du Euskaltzaindiak, LEF batzordearen bidez, 1986tik honakoan. Langintza horren azken emaitza gisa, eta hainbat euskalduni iritizia eskatu ondoren, *Hitz Elkartuen Osaera eta Idazkera* izeneko txostena aurkeztu berri du LEF batzordeak.

Txostena berariaz aztertu du Euskaltzaindiak, Euskara Batuko batzordean eta osoko bilkuretan. Kontuan izan dira, horrekin batera, zenbait euskaltzainen ohar idatziak. Eta azkenik, guzti horren ondorioz, honako erabaki hauek hartu dira: *Hitz Elkartuen Osaera eta Idazkera* argitaratu ematea eta idazki horren labulpeneko gomendio-erabakia, orain eratzten diren hitz elkartuen oinarri-oinarrizko idaztarauak biltzen dituen, luze-zabal ezagutaraztea.

Hori guztia kontuan izanik, eta lehendik emandako pausoen ildotik, hitz elkartuei buruzko argibide eta gomendio-arau hauek eskaini nahi ditu Euskaltzaindiak.

## I. IRIZPIDE NAGUSIAK

## I.1. Hitz elkartuen erabilpen-eremua

Baliabide indartsua da hitz-elkarketa, erdarazko hainbat hitzarte euskaraz eroso eta labor azaltzeko. Erdal izen-komplementazio askoren ordaina, esate baterako, horrela ematen du euskarak: *guraso-elkarte*, *telefono-zenbaki*, *garapen-maila*, *zerga-biltzaile*. Aukera paregabea eskaintzen du, orobat, erdal "izen + adjektibo erreferentzial" egiturak ordezkatzeko: *esku-lan* (*trabajo manual* / *travail manuel*), *aho-literatura* (*literatura oral* / *littérature orale*), *ekonomi teoria* (*teoría económica* / *théorie économique*), etab. Bide honi eutsi behar litzaioke orain ere, ahal den guztian, erdal hitz-moldarea arrotzen menpekoegi bihurtu nahi ez badugu.

Era berean, bikoteak izendatzeko dvandva-elkarteak ditugu egokienak: erdarazko *los hijos* / *les enfants*, *los reyes* / *les rois* edo *los padres* / *les parents* esamoldean (hau da, bikotea izendatzen duten

(\*) *Oharra*: Arau honek lehendik harturiko erabakia zehazten/aldatzen du. Ikus *Euskera* XVI, 1971, 156-159. orr. Testuan ematen diren erreferentziatarako, ikus *Euskera* XXXVII, 1992, 2, 37. liburukia (2. aldia), 721. orriatik aurrera.



hitzen) ordain jatorrak *seme-alabak*, *errege-erreginak* eta *aita-amak* (edo *gurasoak*) dira euskaraz; inoiz horien lekuan agertzen diren *erregeak*, *aitak* bezalakoak ez dira onargarriak.

Askotan eta egoki balia daitekeen hitz-elkarketak ere baditu, ordea, bere mugak. Osagaien arteko erlazio ilunak direla medio, mezu-hartzailearentzat ulergaitz gerta daiteke hainbat kasutan hitz elkartua. Hobe da kasu hauetan eraikuntza sintaktiko libreetara jo, argitasunaren mesedetan: *unibertsitateko irakasleak*, *merkatuaren bilakaera*, *udaletxeen antolamendua* edo *elizbarrutiko museo*a esan eta idatz dezagun halakoetan, *unibertsitate-irakasleak*, *merkatu-bilakaera*, *udaletxe-antolamendua* edo *elizbarruti-museo* modukoctara lerratu gabe.

## 1.2. Hitz-junturako hots-aldaketak: hots-legeak

Hitz elkartuen junturako hots-aldaketak corpus zabal batean ikertu ondoren argi ikusten da lehen osagaiaren azken bokala erori eta ondorioz gertatzen diren kontsonante-aldaketak edo azken bokalaren aldaketak zenbait izenetara mugaturik egon direla. *Begi*, *ardi*, *argi*, *beso*, *etxe*, *arto*, *idi*... > *bet*-, *art*-, *art*-, *besa*-, *etxa*-, *arta*-, *it*... forman aurkitzen dira euskal lexikoan aspaldidanik txertatuak ditugun izenetan: *betile*, *artizar*, *iteuli*, *artaburu*, *besamotz*, *etxalde*... Baina hauen ondoan hor ditugu era berean *begi-keinu*, *begi-kolpe*, *begi-azal*, *argi-txinta*, *argi-izpi*, *ardi-txobola*, *ardi-gazta*, *ardi-sail*, *arto-erregutada*, *arto-jale*, *arto-alar*, *beso-lan*, *beso-giharre*, *etxe-erretze*, *etxe-gain*, *etxe-bizitza*... Emaizta desberdin hauen aurrean, ondoko puntuok zehaztu beharra ikusten da:

a) Orain eratzekoak diren elkarteetan ez da komeni behinolako hots-aldatze legeak, aspaldisko galdurik daudenak, berpizten jardutea: *txistulari-elkartea*, *botikari-lana*, *safari-bidaia*, *kultur(a) astea* esan eta idatz dezagun beraz, eta ez *txistulal elkartea*, *botikal lana*, *safal bidaia*, *kultul astea* eta abar.

b) Aipamen berezia zor zaie azken urtetako *unibertsital*, *monetal*, *medikal*, *nekazal* eta antzekoei. Guztiak dira erdal adjektibo erreferentziala ordezkatzeko erabili direnak: *ámbito universitario* = *unibertsital esparrua*, *política monetaria* = *monetal politika*, *examen médico* = *medikal azterketa*, *ayuda financiera* = *finantzal laguntza*... ikusi eta irakurtzen ditugu gero eta maiztza. Bide zuzena, hitz-elkarketaz baliatzeokotan, *unibertsitate-esparrua*, *moneta-politika*, etab. erabiltzea da.

c) Era berean, aparteko aipamena merezi du >a< itsatsiaren galerak: ikus 1.3.

## 1.3. Lehen osagaiaren amaierako >a<: galdu ala ez

Bada adibide zaharrik, bokal-kontrakzioa gertatu delako edo beste zerbaitengatik lehen osagaiaren amaierako >a< hori ageri ez duenik: *Elizondo*, *Elizmendi*, *Elejoste*, *eskoletaile*, etab. Halaokotan ere ez da falta izaten, ordea, bokalari bere horretan eutsi izanaren lekukotasunik: *Elizagarai*, *Elizabeherea*, *Elejabeitia*, *eskola-emaile*, etab.

Puntu horietan desadostasun bat baino gehiago agertzen den arren, ez da hori gaur eguneko auzi-iturri nagusia. Esparru jakin-mugatu horretatik gainezka eginez, izan ere, bestelako hedadura eta agerpen-maiztasuna eskuratu du bokal-galera honek XX. mendean: 1950etik honakoan ugarituz joan diren *kultur hizkuntza*, *literatur tradizio*, *hizkuntz egoera*, *ortografi arau*, *teknologi maila* modukoetan bereziki. Gaur egun nahaste-borraste handia dago, puntu honi dagokionez, euskal idazleen (eta are, zenbaitetan, hiztunen) artean.

Hori guztia kontuan izanik, Euskaltzaindiak honako bide hau hobesten du:

1. Bukaeran >ia< duten hitzak lehen osagai edo mugatzaile gisa dihardutenean, >a< hori kenduta nahiz kendu gabe erabili: *biologi azterketa*, *geologi irakaslea*, *pedagogi berrikuntza*, *ortografi arauak*, *erreferentzi puntua*, *diplomazi falta*, *bidai agentzia*, *Filosofi Fakultatea*, *Euskal Autonomi Elkartea*, edota *biologia (-) azterketa*, *geologia (-) irakaslea*, *pedagogia (-) berrikuntza*, *ortografia (-) arauak*, e.a.

2. Lehen osagaia *eliza*, *burdina*, *hizkuntza*, *kultura*, *natura* edo *literatura* hitza ( eta sei hitz hauek bakarrik) duten elkarteetan *eliz*, *burdin*, *hizkuntz*, *kultur*, *natur*, *literatur* forma >a<-gabeak zein *eliza*-, *burdina*-, *hizkuntza*-, *kultura*-, *natura*-, *literatura*- >a<-dunak berdin onargarri dira. Ongi emanak daude, beraz, bai *eliz* agintaria, *burdin fabrika*, *hizkuntz gaitasuna*, *kultur emankizuna*, *natur zientziak*, *literatur tradizioa* modukoak eta bai *eliza* (-) *zerga*, *burdina* (-) *salzaitalea*, *hizkuntza* (-) *eskola*,

*Kultura Saila, naturazalea, literatura (-) joera* gisakoak. Lehen osagaiari berezko >a< hori kentzen zaionean, marrarik ez erabili (edota loturik eman, bigarren osagaia erdi-atziki duten burdingintza modukoetan).

3. Gainerako elkarte berri guztietan debeku da lehen osagaiaren amaierako >a< kentzea. Beraz *eskola (-) liburua, iraultza (-) giroa, jaiotza (-) kontrola, plangintza (-) arduraduna, fonetika (-) legea, gramatika (-) araua, kutsadura (-) arriskua, ohitura (-) aldaketa, Medikuntza Fakultatea, hezkuntza (-) alorra, finantza (-) egitura,...* idatz bedi, eta ez *eskol liburua, iraultz giroa, jaiotz kontrola, plangintz arduraduna, kutsadur arriskua, ohitur aldaketa, Medikuntz Fakultatea, hezkuntz alorra, finantz egitura,...*

#### I.4. Berrelkarketa

Atal biko sintagma izan ohi da, normalean, hitz-elkarteak: *zuzen-zuzenean, seme-alabak, mutur-zikin, meza-emaile, diru eske, ikasgela, zikin-fama, baratzuri-zopa, ardi-gazta* edo *bibliografi ohar* elkarteek, horrela, bina hitz dituzte.

Duda-mudak sortzen dira hitz bi baino gehiagoko elkarteetan. Ez da garbi ikusten, halakoetan, hitz-elkarketaz baliatzea egoki den ala izen-sintagma zabalagoetara jotzea komeni den. Irizpide nagusi gisa honako puntuok dira gaur-gaurkoak seguruentzat eman daitezkecnak:

1. Beharrik ez dagoenean ez gaitzen *euskal aldizkari-zuzendari-bilera, Mendibilgo udal-kirol-patronatua* edo *soinu-uhin-hedapen-bidea* modukoak sortzen ibili. Hobe da, horrelakoetan, sintagma-erabide desberdinak konbinatuz *euskal aldizkari(etako) zuzendarien bilera, Mendibilgo Udalaren kirol-patronatua, soinu-uhinen hedapen-bidea* gisakoak osatzea.

2. Tartean adjektiboren bat sartzen denean hitz-elkarketarik ez egin: *hautagai-zerrenda* baina *hautagai berrien zerrenda* (ez *hautagai berri zerrenda*); *lan-eguna* baina *lan gogorreko eguna* (ez *lan gogor eguna*).

3. Guztiarekin ere, berrelkarketa askoz onargarriago gertatzen da ondoko kasu hauetan:

3.1. Mugatzailea *euskal, erdal, frantses,...* dutenak: *euskal musika-taldea, euskal kultur mintegia, euskal liburu-sorta, erdal joskera-moldea, frantses lege-araudia*.

3.2. Aposizioak. Inon baino sarriago ageri dira hemen, agian, berrelkarteak: *Elai Alai dantza-taldea, Ama Lur filmea, Joanak Joan eleberria, Urola-Kosta eskualdea, Bilb(a)j-Behobia autobidea, Goiz-Argi aldizkaria*.

3.3. Mugatzailearen koordinazio-hedapenak: *emakume- eta haur-taldeak, ebazpen- eta jarraipen-batzordea, edari- eta izezki-saltzailea, galdera- eta harridura-markak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila*.

3.4. *Eguzki-lore* gisakoen alorreko *irizpen-, multzo-, zati-* eta *mota*-elkarteak. Beste gehienek baino askatasun handixeagoa dute hauek honelako hedapeneterako: *butano-saltzaile itxura, kafe erre usaina, zakar-biltzaile taldea, orejn-haragi zatia, perpaus subordinatu motak*.

3.5. *Jarleku* moduko hitz elkartuak ere sarritxo agertzen dira mugatzaile gisa: *deklabinadiazkia, geltoki-garbitzailea, aztergai-zerrenda, ikasliburu-saltzailea, logela-aldaketa*.

#### II. BANAN-BANAKO IDAZTARAUAK

Orain eratzten diren hitz elkartuak bereiz, marrarekin ala lotulik idatzi behar diren argitzen da atal honetan. Elkarte-mota batzuetan gauzak aski argi daudela ikusi du Euskaltzaindiak: adostasun handia dago elkarte-modu horien idazmoldeaz. Gomendio-arau zehatza ematen da, ondorioz, elkarte horietarako. Beste zenbait elkarte-modutan, aldiz, ez da maila bereko adostasunik ageri: idazkera bi utzi dira, horietarako, aukeran.

Arau nagusiak ematen ditu Euskaltzaindiak oraingoan. Zehaztasunak, salbuespenak eta bestelako argibideak nahi dituenak jo beza *Hitz Elkartuen Osaera eta Idazkera* liburura: bertako bigarren zatian, "Atalez ataleko azalpenan" (aurrerantzean AAA) aurkituko ditu xehetasun horiek.

### II.1. Bereiz idaztekoak diren hitz elkartuak

a) Aposizioak: *Bidasoa ibaia, Aralar mendia, Larramendi kalea, Arriaga antzokia, Axular liburategia, Euskaltzale albistaria, Auspua liburategia, Gerediaga elkarte, Xalbador ikastegia, Uztapide bertsoaria; izeba Maria, aitona Domingo, arreba Klara, maisu Juan; B erudia, D dokumentua. Zehaztasun gehiagotarako, ikus AAAren 14. atala.*

b) *Egin, eragin, eman* eta *hartu*-rekin osatzen diren aditz-elkarteak: *lo egin, negar egin, barre egin, oilu egin, berbu egin; negar eragin, barre eragin, leher eragin; beldur eman, hitz eman, kontu eman, su eman; min hartu, kargu hartu, parte hartu, kontu hartu.* Loturik idazten diren salbuespenetarako, ikus AAAren 6. atala

c) *Etxez etxe* moduko bikoiztapenak (lehen osagaia deklinaturik, bigarren biluzik): *aurrez aurre, gainez gain, gizaldiz gizaldi, herriz herri, parez pare, pausoz pauso,...; adarrak adar, bazterrik bazter, eskurik esku, kalerik kale, sasirik sasi,...; menderen mende, bururen buru,...* Ikus AAAren 1.1. atala.

d) *Egin berri* modukoak: *amaitu berri, esan berri, hasi berri, sartu berri.* Loturik idazten diren *ezkonberri* modukoak salbuespen dira: ikus AAAren 9. atala

e) *Mahai gainean, etxe aurretik* gisako posposizioak: *esku artean, gerra aurretik, aste barruan, hiri barriera, ikastetxe mailan, geltoki ondora, kable bidez; Urola aldeko (herriak), eskualde mailako (zerbitzua), denda osteko (almazena).* Loturik ematen diren *nazioarteko, jendaurreko, prentsaurreko,...* formetarako ikus AAAren 11.5. atalean eta ondoren, idazkerari buruzkoetan, esaten dena.

f) Bigarren osagaia *bila, eske* edo *falta* duten elkarteak: *ur bila, bake bila, ardo bila, ogi bila; diru eske, barkamen eske, argibide eske, aholku eske; egur falta, harreman falta, lo falta, batasun falta.*

g) Lehen osagaia *erdal, euskal, giza, itsas* duten elkarteak: *erdal gramatika, erdal itzulpena, euskal olerkiak, euskal idazleak; giza zientziak, giza adimena; itsas garraioa, itsas ekologia* (forma zahar-ihartuetarako, ikus hiztegia).

h) Lehen osagaiaren amaierako >a< galtzen denean. Ikus, horri buruz, gomendiozko idaztarau hauen 1.3. atala.

### II.2. Marrarekin idaztekoak diren hitz elkartuak

a) *Gorri-gorri(a)* moduko bikoiztapen indargarriak (lehen osagaia deklinabide-atzizkirik gabedutenak): *labur-labur (azaldu), adi-adi (egon), erne-erne (gidatu), ozta-ozta (entzun); (hitzaldi) luze-luzea, (egun) argi-argia, (euskaldun) garbi-garbia, (bazkari hau) arin-arina (da); alfer-alferrik (saiatu), gazte-gazterik (hil), zabal-zabalik (utzi), doi-doia (jasan), gaur-gaurkoz, zuzen-zuzenean, azken-azkenean, bete-betean, bihotz-bihotzetik, hasiera-hasieratik, zin-zine, gain-gainera; gehien-gehienak); asper-asper egin, dagoen-dagoen(ean).* Ikus AAAren 1. atala.

b) *Apurka-apurka moduko* bikoiztapenak (bi osagaiek atzizki berbera): *tarteka-tarteka, banaka-banaka; launaka-launaka, aldian-aldian, ezarian-ezarian; egunero-egunero; astero-astero, emeki-emeki, polito-polito, astiro-astiro.* Ikus AAAren 1. atala.

c) *Seme-alabak, zuri-gorri* moduko elkarteak: *senar-emazteak, zeru-lurrak, galde-erantzunak, maisu-maistrak, izen-deiturak; txuri-urdin, gazi-geza, luze-zabal, argi-ilun; han-hemen, ezker-eskuin, harat-honat, laztan-musuka, negar-zotinka; sartu-irten, joan-etorri; hamar-hamaika (lagun), gutxi-asko.* Ikus AAAren 2. atala.

d) *Barra-barra, plisti-plasta* eta *zehatz-mehatz* modukoak: *bor-bor, kili-kili, mara-mara, pil-pil, txin-txin, txio-txio(ka); binbi-banba, dinbili-danbala, hinki-hanka, kili-kolo, tiriki-tarraka, zirti-zarta; auzi-mauzi, duda-muda, erran-merran, handi-mandi, nahas-mahas, tarteka-marteka.* Ikus, salbuespenetarako bereziki, AAAren 16. atala.

e) *Ezkio-Itsaso* moduko leku-izen elkartuak: *Abanto-Zierbena, Gernika-Lumo, Lasarte-Oria, Biurrun-Olkoz, Etxarri-Aranatz, Arratzu-Ubarrundia, Iruraitz-Gauna, Ainhize-Monjolose, Úrrüxtoi-Larrabile.* Ikus AAAren 12.2. atala

Besterik dira itzulpenezko *Lizarra / Estella, Arrasate / Mondragón, Vitoria / Gasteiz...* elkar-teak. Ikus AAAko 13. atala.

### II.3. Loturik idaztekoak diren hitz elkartuak

a) **Jarleku** moduko elkarteak (aditz-erro + izen): *egongela, aldagela, abiaburu, helmuga, idazmakina, mintzapraktika, salneurri, irakasmaila; agerbide, eskabide, jokabide, komunikabide; ager-raldi, egonaldi, emanaldi; galdegai, irakurgai, osagai; pausaleku, sorleku; biltoki, geltoki, erakustoki; jokamolde, pentsamolde; aztergune, lehiakide, sortalde, idazlan, ikerlan; ikasgela, ikastetxe. Salbues-penetrarako, ikus AAren 10. atala.*

b) **Aldagaitz** moduko izaera-elkarteak (aditz-erro + izenondo): *konformagaitz, pairagaitz, uxa-gaitz, herdoilgaitz; asmaezin, nekaezin, bateraezin, pentsaezin; ulerterraz, moldaeraz; isurbera, min-bera.*

c) **Odolustu** moduko aditz-elkarte arruntak: *indargaldu, uranditu, gaitzetsi, antzaldatu, bizi-berritu, indargabetu; azpimarratu, aurr(e)ikusi.*

d) Bigarren osagaia **-gin, -gile, -zain, -zale, -dun, -gabe** edota **-gintza, -za(i)ntza** duten elkar-teak: *hargin, zurgin, uztagin; bertsogile, eltzegile, langile; mugazain, diruzain, bidezain, atezain; ber-tsozale, haragizale, aurrerazale, neskazale; dirudun, arduradun, bizardun; lotsagabe, mugagabe, zen-tzugabe; gaztagintza, barkugintza, burdingintza; egurgite, etxegite, talogite; gaixozaintza, ertzaintza, liburuzaintza. Ikus AAren 5., 7. eta 8. atalak.*

e) Bigarren osagaia **-aldi, -buru, -gizon, -(g)une, -(k)ide, -(k)ume, -orde** duten izen-elkarteak: *agintealdi, belaunaldi; batzordeburu, sailburu; legegizon, elizgizon; argiune, zerbitzugune; baliokide, solaskide; kalekume, bulegokume; izenorde, sailburuorde. Loturik idazten dira orobat bigarren osagaia **-gai** edo **-alde** duten hainbat elkarte: *abadegai, erregegai, aztigai modukoak edota industrialde, es-kualde, lurralde, hegoalde, iparralde, ekialde gisakoak. Salbuespenetarako ikus AAren 11. atala.**

f) Lehen osagaia **aurre-, azpi-** eta **gain-** duten izen-elkarteak: *aurrekontu, aurrelan, aurre-proiektu; azpiegitura, azpimarra, zepimultzo; gainazal, gainbalio, gainkarga. Ikus AAren 11. atala.*

g) **Lauburu** moduko elkarteak (zenbatzaile + izen): *hiruadar, bostortz, hamalauzango, ehun-zango; adarbakar, asmobakar, begibakar, zelulabakar.*

### II.4. Marrarekin edo bereiz idatz daitezkeen hitz elkartuak

a) **Eguzki-lore** moduko izen-elkarte arruntak. Hemen sartzen dira, bereziki, hiztunak edo idaz-leak ulean-ulean eratzen dituen izen-elkarte berri, bizi, ugariak: *akordeoi-soinu* edo *akordeoi soinu, lan-hitzarmen* edo *lan hitzarmen, batzorde-atal* edo *batzorde atal, arau-proposamen* edo *arau pro-posamen, merkatar-mundu* edo *merkatar mundu, gizarte-bizitza* edo *gizarte bizitza, arazo-iturri* edo *arazo iturri, sakontze-ikastaro* edo *sakontze ikastaro, osasun-egoera* edo *osasun egoera, elebitasun-formula* edo *elebitasun formula, garapen-maila* edo *garapen maila, ikastetxe-mota* edo *ikastetxe mota, eskabide-orri* edo *eskabide orri. Zehaztasun gehiagotarako, ikus AAren 11. atala.*

b) **Kale-garbitzaile, adar jotze** edo **ate-joka** moduko elkarte sintetiko arruntak (bigarren osa-gaia aditz-izenkia dute, eta lehena bigarrenaren osagarri zuzen). Hauek ere oso ugariak dira:

— Egile-elkarteak: *kale-garbitzaile* edo *kale garbitzaile, bide-urratzaile* edo *bide urratzaile, harri-jasotzaile* edo *harri jasotzaile; odol-emaile* edo *odol emaille, soinu-jole* edo *soinu jole, eguraldi-iragarle* edo *eguraldi iragarle; aho-gozagarri* edo *aho gozagarri, bihotz-hunkigarri* edo *bihotz hun-kigarri, begi-mingarri* edo *begi mingarri; euri-neurgailu* edo *euri neurgailu, orri-zulagailu* edo *orri zulagailu; behor-gidari* edo *behor gidari, erbi-ehiztari* edo *erbi ehiztari.*

— Ekintza-elkarteak: *adar-jotze* edo *adar jotze, zikiro-jate* edo *zikiro jate, odol-isurtze* edo *odol isurtze, denbora-galtze* edo *denbora galtze; diru-bilketa* edo *diru bilketa, adimen-azterketa* edo *adimen azterketa; txosten-prestaera* edo *txosten prestaera, hitz-osaera* edo *hitz osaera; fede-ukapen* edo *fede ukapen, lan-eskaintza* edo *lan eskaintza.*

— Jardun-elkarteak: *ate-joka* edo *ate joka*, *aho-zabalka* edo *aho zabalka*, *errosario-esaka* edo *errosario esaka*; *kantu-kantari* edo *kantu kantari*, *kontu-kontari* edo *kontu kontari*.

Ikus, zehaztasun gehiagotarako, AAren 7. atala.

Oharra: osagai biak letra larriz hasten direnean hobe da hitz elkartua marrarik gabe idaztea. Errotuluetan, zenbait titulutan eta izendapenetan agertzen da hori batez ere: *Eusko Jauriaritza*, *Foru Aldundia*, *Kultura eta Turismo Saila*, *Garraio Zuzendaritza*, *Medikuntza Fakultatea*, *Bertsolari Txapelketa*, *Zinema Jaialdia*, *Ur Kirolak* eta abar.

## II.5. Marrarekin edo loturik idatz daitezkeen hitz elkartuak

*Sudur-luze* moduko elkarte arruntak: (*neska*) *sudur-luze* edo *sudurluze*, (*zezen*) *adar-motz* edo *adarmotz*, (*agure*) *buru-soil* edo *burusoil*, (*mutiko*) *musu-gorri* edo *musugorri*, (*marinel*) *odol-bero* edo *odolbero*, (*adiskide*) *esku-zabal* edo *eskuzabal*, (*esparru*) *angelu-zuzen* edo *angeluzuzen*, (*teilatu*) *punta-zorroztz* edo *puntazorroztz*.

**Beraz, hau da Euskaltzaindiaren erabakia:**

### 1. Bereiz idatziko dira:

- *aposizioak (Bidasoa ibaia)*,
- *egin, eman, hartu* eta *eragin* aditzekin osatzen diren aditz elkarteak (*lo egin*),
- *etxez etxe* moduko bikoiztapenak,
- *egin berri* modukoak,
- *mahai gainean* gisako posposizioak,
- bigarren osagaia *bila*, *eske* edo *falta* duten elkarteak,
- lehen osagaia *erdal*, *euskal*, *giza* eta *itsas* duten elkarteak, ihartuak ez diren neurrian,
- lehen osagaiaren amaierako >a< galtzen denean (*biologi azterketa*).

### 2. Marrarekin idatziko dira:

- *gorri-gorria* moduko bikoiztapen indargarriak,
- *apurka-apurka* bezalako bikoiztapenak,
- *seme-alabak*, *zuri-gorri* modukoak,
- *barra-barra*, *plisti-plasta* bezalakoak,
- *Ezkio-Itsaso* moduko leku izen elkartuak (bi hizkuntzatan ematen direnean, ordea, ez: *Lizarra / Estella*).

### 3. Loturik idatziko dira:

- *jarleku* moduko elkarteak,
- *aldagaitz* bezalako izaera elkarteak,
- *odolustu* moduko izen-elkarte arruntak,
- bigarren osagaia *-gin*, *-gile*, *-zain*, *-zale*, *-dun*, *-gabe* edo *-ta -gintza*, *-za(i)ntza* duten elkarteak,

— bigarren osagaia *-aldi*, *-buru*, *-gizon*, *-(g)une*, *-kide* *-(k)ume*, *-orde* duten izen elkarteak,

— lehen osagaia *aurre-*, *azpi-* eta *-gain* duten izen elkarteak,

— *lauburu* moduko elkarteak.

4. Marrarekin edo marra gabe, nahi den bezala:

— *eguzki lore*, *eguzki-lore* moduko izen elkartu arruntak,

— *kale garbitzaile*, *kale-garbitzaile* modukoak.

(Bi hitzak letra larriz hasten direnean hobe da, hala ere, marra gabe idaztea).

5. Elkarteko lehenbiziko osagaiak >ia< amaiera duenean >a<-rekin nahiz >a< gabe idatz daitezke: *biologi azterketa*, *biologia azterketa*. Bestelako >a< itsatsiak ez dira galtzen elkartuta egiten denean, eta hitzak bere osotasunean eman behar dira. Salbuespen dira, dena dela, honako sei hitz hauek: *burdina*, *eliza*, *hizkuntza*, *kultura*, *literatura* eta *natura*. Hitz hauek, hala nahi izanez gero, gal dezakete >a< hori.

Idazkerari dagokionez, amaierako >a< galtzen den baikoitzean, bereiz idatziko da hitz elkartua eta >a< gordetzen denean, aukeran izango da bereiz idaztea nahiz marratxoia erabiliz: *kultur etxea*, *biologi azterketa*, *kultura(-)etxea*, *biologia(-)azterketa*.

(Euskaltzaindiak, Donostian, 1995.eko urtarrilaren 27an onartua)

## 26

**-Z GERO**

Euskal gramatikan baldintzako perpausak egiteko dagoen era arruntenetako bat, aditz adjekti-boari *-(e)z gero* posposizioa eranstea da:

*Lana eginez gero, behar den bezala ordainduko dizute.*

Era berean, posposizio berberaz eta aditz jokatu batekin batera perpaus kausalak egin ditzakegu:

*Lana ondo egin duzunez gero, behar den bezala ordainduko dizute.*

Azkenik, aditz jokatu zein jokatu gabeekin batera denbora perpausak ere egin daitezke posposizio honen bidez:

*Eskolako lana eginez gero, jolas egitera joan zaitezke.*

Ikusten denez, posposizio hau elementu biz dago osaturik: alde batetik, instrumentalaren marka den *-z* atzizkiarekin eta, bestetik, *gero* aditzondoaz.

Bi elementu horiek idazteko orduan tradizioak bi bide segitu ditu: Iparraldeko idazleek bereiz idatzi izan dituzte (*-z gero*) eta Hegoaldekoak, aldiz, batera (*ezkero, azkero*).

Aipatu erabilera horiek ez dira, dena dela, posposizio honek dituen bakarrak, denbora aditzondo gisa ere aski arrunta baita, aurreko izena beti mugatua duela:

*Heldu den igandeaz gero Baionako etxean aurkituko nauzu.*

*Irugarren umea ezkero ama asko... (Eguzkitza, Gizarte-Auzia, 185).*

Hori guztia, eta orobat Arantzazuko txostenaz geroz nagusitu den joera kontuan hartuta, ondoko hau proposatzea erabaki du Euskaltzaindiak:

1. Kasu guztietan *-(e)z gero* idatz bedi: *hori eginez gero, hori egin duzunez gero*.

2. Orduekin, eta oro har denbora posposizio gisa, *ezkero* ere idatz daiteke: *hamarrez gero / hamararak ezkero, zortzietz gero / zortziak ezkero, San Ferminez gero / San Ferminak ezkero, atzoz gero / atzo ezkero*.

3. *Honezkero, horrezkero* eta *harrezkero* aditzondoak, era horretan idatziko dira, horrela erabili baitira euskararen literatura tradizioan, nahiz *horrezkero* aditzondoaren maiztasuna beste biena baino askoz ere apalagoa den.

(Euskaltzaindiak, Donostian, 1995.eko urtarrilaren 27an onartua)

## 27

**HORI ETA, HORI EDO ETA HORRELAKOEN IDAZKERA**

*Eta eta edo* juntagailuak juntaduraren erdian kokatzen dira normalean eta, hortaz, juntadura bururatzen duen osagaia izan ohi dute gehienetan ondoan. Zenbaitetan, ordea, azken juntagaia esan gabe utzi delako, juntagaia lekuz "trukatu" direlako edo, besterik gabe, juntagailua aurreko osagaiari enklitikoki lotu zaiolako, honako egitura hauek eratzen dira:

*Pellok edo esango zuen hori.  
Entzun edo egin du horrek.  
Iñakirekin eta ibili da.  
Amaiak eta ondo egingo dute hori.  
Banoa, berandu da eta.  
Partidua irabazi dute eta, poz-pozik etorri dira.  
Berandu zela eta, gurean geratu zen lotan.  
Larri dabil, krisia dela eta.*

Horrelakoetan juntagailua bereiz eta marratorik gabe idaztea proposatu zuen aspaldi Euskaltzaindiak, beharrezkoa izanez gero ondoan koma ipiniz (*Euskera XVI*, 1971, 158-159). Halaz guztiz ere, gomendioak gomendio, marratxoa ipintzen jarraitzen dute idazle batzuek zenbaitetan, irakurketarako lagungarri delakoan.

Zer esan horretaz?

Egitura generikoa eta antzematen erraza denean, edo juntaduraren ondoan datorrena juntaduraren osagai ezin izan daitekeela garbi ikusten denean, ez dirudi marra jarri beharko litzatekeenik:

*Nora joango ziren, bada? Zinera edo...  
Hor daude Begoña eta, barrura sartzeko beldur.  
Goizeko hiruretan edo hasten dira lanean.  
Igandeetan eta zinera joaten ziren.*

Perpau konplexuagoetan, ordea, gauzak ez dira beti hain errazak gertatzen eta marratxoa oso lagungarri gerta daiteke egituren esaldia hobeto ulertzeko:

*Esan didate zuen etxean-edo beste egun batean agertuko direla beharbada.  
Harrituta zeuden, itsusia zen-eta zuk esan zenuen hura.  
Ez dira-eta hamabost egun Mikel Isabelekin luzaz aritu zena.*

Ezer ipini gabe ere utz daitezke perpau horiek, jakina, gorago esan bezala. Baina ezin uka daiteke noraezekoa ez bada ere lagungarri behintzat gertatzen dela horrelakoetan marratxoa ipintzea. Horregatik, behartu ez baina aukera bederen utzi behar zaio idazleari nahi duenean marratxoaren bidez testua irakurterrazago egin dezan horrela iruditzen zaionean, itxurak itxura, inportanteena testuaren irakurgarritasuna baita.



Honekin batera aztertu behar dira *hori dela eta* moduko esapideak. Hauetan aukera bat baino gehiago dugu, ez bakarrik marraren kontua, baizik *eta / taren* artean egin beharreko aukeraren arazoa ere hor baita:

*Hori dela-ta.*  
*Hori dela eta.*

Esan behar da, hasteko, esapide hau, tradizioaren arabera, batez ere Hegoaldean bakarrik erabili dela, eta nahiko berria dela. Neurri handi batean *hori dela-ta* da nagusi ageri dena, nahiz oso-osorik, hau da, *hori dela eta* bezalakoak idatzi dituzten idazleak ere badiren Iturzaeta, Soroa, Iraizoz, Enbeita, Bilbao, Uztapide, Txirrita, Akesolo, Etxaide, Orixte, e.a. Mitxelena ere sistematikoki *zer dela eta* bezalakoak erabiltzen zituen batuan idazten zuenean.

Hala ere, kontuan hartu behar da euskararen tradizioan *hori dela-ta* erabili izan dutenek *ta* erabili dutela bestela ere bokal ondoan beti: *Mirari ta Antton, Jone ta Mikel*, e.a. Beraz, kontua ez da nola idazten zuten esapide hau, edo honen tankerakoak, baizik nola idazten zuten *eta* juntagailua. Batasunerako *eta* aukeratua du Euskaltzaindiak, salbuespenik gabe. Orduan, badirudi egokiena litzatekeela esapide hauetan ere *eta* mantentzea, horrela idatzi duten autore asko dagoelako, batetik, eta horrela erabili ez dutenek esapidearekin zerikusi zuzenik ez zuten arrazoiengatik aukeratu dutelako beste idaz-tankera hori, bestetik.

**Horrenbestez, hau da Euskaltzaindiaren erabakia:**

1. Egitura hauetan guztietan ageri diren juntagailuak osorik idatziko dira beti: *eta, edo*.
2. Egitura agerikoa eta antzematen erraza denean, bereiz idatziko da juntagailua —ondoan koma izan edo ez—, bere garaian Euskaltzaindiak erabaki zuen bezala (*hori eta, hori edo, hori dela eta*).
3. Perpaus konplexua denean, orde, beharrezkoa izan gabe ere, aukeran izango du idazleak juntagailuaren aurrean marrazkoa ipintzea, testua ulertzeko lagungarri dela iruditzen bazaio (*hori-eta, hori-edo, zer dela-eta*).

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1995.eko otsailaren 24an onartua)

## 28

## ADITZOINEN FORMA

Zenbait euskalkitan aditzoinak eta partizipio burutuak, formaz desberdinak izaten dira maiz (*sar/ sartu; ikus / ikusi, bil / bildu*). Garai batean mendebalean ere usatzen ziren aditzoin bereziak, baina aspaldi honetan Iparraldeko eta ekialdeko euskalkietan baizik ez dira erabiltzen. Literatura tradizioan erro sakon-sakonak dituzte aditzoin horiek, eta azken mendean laurden honetan eginekako testuetan ere toki handia izan dute, anitz idazlek beren idazkietan baliatu baitituzte, haien euskalkietan horrelakorik ez bazen ere. Halatan euskara batuan aditzoinak erabiltzerakoan forma berezien onestea eta gomendatzea egoki ikusten du Euskaltzaindiak.

Horiek horrela izanik, beste kategoria batetik eratorritako aditzen kasuan mendebaldeko hiztunek arazoak badituzte oinarritik ezertan bereizten ez diren aditzoinen erabiltzeko, zenbait ingurumenetan bereziki, hala nola aditzoina laguntzailearen atzean denean. Hori kontuan harturik, bai eta garai bateko mendebaleko idazle zenbaiten joera gogoan edukirik ere, komenigarria dela ikusten du Euskaltzaindiak, horrelako kasuetan (aditzoin eratorriak osoki oinarriaren irudia duelarik), *-tu* atzikia aditzoinetan erabiltzeko aukera ere onartzea (*ur eta urtu, gizon eta gizondu, gaurko eta gaurkotu, bere eta beretu, lodi eta loditu, hobe eta hobetu, hizka eta hizkatu, garai eta garaitu...*). Beste aditzetan, ordean, erran nahi baitu aditzoinaren formak kategoriako anbiguitaterik sortzen ez duenean, forma bakarria onartuko da: *zora, goza, urezta, elesta...*

Aipaturiko aukera aditzoinak perpaus osagai gisa erabiliak diren kasuetara mugatua izanen da eta, beraz, aditzoina eratorrita edo elkarteta bateko osagai denean, *-tu* gabeko forma onartuko da bakarrik. Aukera horretaz noiz balia, berriz, idazleen esku uzten da, erabileraren, ingurumenaren edo aditzen arabera aldirian aldiko libertatea utzirik.

Hemen ez da kontuan hartzen Euskaltzaindiak oraindik aztertu gabe dituen zenbait puntu, hala nola *ohera / oheratu, mendira / mendiratu, nora / noratu,...*

**Aditzoin berezien forma**

Zalantzarikoa da batzuetan, bai eta tokien edo denboren arabera aldirian ere, aditzoin berezien forma. Hona hemen Euskaltzaindiak duda horietarik batzuen arintzeko ematen dituen argibideak eta arauak:

## 1. Aditzoin berezien bukaera afrikatua denean:

Bukaeran afrikatua duen oinarri bati *-tu* lotzen zaionean afrikatua galtzen du adizkiak; alderantziz, adizki horri dagokion aditzoinak afrikatua nahi-ta-ez atxiki behar du. Beraz: *hustu dut*, baina *huts dezaket* (ez *\*huts dezaket*); *zorrotzu dut*, baina *zorrotz dezaket* (ez *\*zorroz dezaket*); *hoztu naiz*, baina *hotz nunteke* (ez *\*hoz nunteke*); *piztu dut*, baina *pitx dezaket* (ez *\*piz dezaket*), etab.

Gogoan har, halere, gutiz gehienetan aditz eratorriak direla horrelakoak, eta haien kasuan aditzoin berezien ondoan *-tu* markarekilako forma ere onartzen dela euskara batuko aditzoinetan: *zorrotz* edo *zorrotzu*, *huts* edo *hustu*, *hotz* edo *hoztu*, *aberats* edo *aberastu*, *latz* edo *lazu,...*

2. Aditzoin bereziak bukaeran *i* berezkoa duenean:

Aditz izenkiaren forman *-tze* atzikiaren aurrian *i* gelditzen denean (*jaikitze, jalgitze, etsitze, biziitze, aritze,...*) *i* berezkoa da, eta euskara batuan aditzoinetan ere haren atxitzeko aholkua ematen du Euskaltzaindiak: *jaiki hadi, jalgi gaitezen, ireki lezake, bizi bedi,...* Alderantziz, *-i* bukaera, aditz izenkian agertu (gabe, partizipio burutuan kausitzen denean, aspektu marka izaten da, eta, beraz, aditzoinetan ez da agertzen euskara batuan (*ikas, hauts, utz, araz, etab*). Azken arau honek tradizio zaharreko aditz zenbaiten kasuan salbuespenak izan ditzake, baina oso guti: *eutsi, itxi, iritzi*.

3. Aditzoinak bukaeran noiz duen *-t* kontsonantea hartzen:

Aditzoin bereziak darabiltzaten euskalkietan, maiz agertzen da *-t* kontsonantea *-tu* aspektu marka har dezaketen aditzoinen bukaeran. Ordean, ez dute euskalki guztiek berdin jokatzeko puntu horretan, batzuek, *-t* ematen baitute, eta besteek ez, zein aditz den (*lagun / lagunt nazazu, dei / deit nazala, ...*). Orokorki harturik, *t*-dun forma bestearen ondotikakoa da, eta haren erabilera, zenbait aditzetan nagusitu bada ere, ez da aldebat hedatu. Gisa horretan, kasu mugatu batzuetan izan ezik, aditzoinen bukaeretan *t*-rik ez ematea hobesten du Euskaltzaindiak euskara batuarentzat.

*T*-ren erabilpena mugatuko duten puntuak hauek izanen dira:

— Aditz eratorria izatea eta haren oinarria *t*-duna izatea (*ausart / ausartu, laket / laketu, bat / batu, oroit / oroitu*).

— Literatura tradizioan jokabide bakarra izatea (*ezagut, lant, lot, ohart*).

— *Di* bukaera duen oinarri batetik eratorririko aditz baten forma laburtua izatea eta forma laburtugabetik semantikoki bereiz izatea: *hant* (*≠handi*); *hert* (*≠erdi*).

Euskara batuan, beraz, ondarrean *t*-rik gabe erabiliko dira *-tu* gabeko beste aditzoinak: *urrun hadi, dei ezazu, neur dezaket, ezkon zaitze, lagun nazazu, on daitezke, etab...*

**Hau da, honenbestez, Euskaltzaindiaren erabakia, aditzoinen formari dagokiona:**

1. Normalean aditzoina eta partizipioa bereizten dira: *ikas / ikasi, bil / bildu, sar / sartu*.

2. Aditza beste kategoria batetik eratortzen denean eta jatorrizko oinarritik ezertan ere bereizten ez denean, *-tu* atzikia ere erabil daiteke aditzoinetan: *ur / urtu, gizon / gizondu, gorri / gorritu, hobe / hobetu*. Kasu hauetan, hortaz, *urtu, gizondu* eta *hobetu* aditzoin gisa ere erabil daitezke.

3. Aditzoinen bukaera afrikatua denean, aditzoinak nahitaez atxiki behar du afrikatua: *huts dezaket* (*\*hus dezaket*), *zorrotz dezaket* (*\*zorroz dezaket*).

4. Aditzoin bukaerak *>i<* berezkoa duenean, *>i<* amaiera atxiki behar da: *jaiki hadi* (*\*jaik hadi*), *jalgi hadi* (*\*jalgi hadi*). Ez, ordea, berezkoa ez duenean: *ikas ezak, utz dezake, e.a. Itxi* salbuespena da, honetan ere atxiki behar baita *>i<*. *Eutsi* eta *iritzi* aditzen kasuan aukera uzten da, bietara.

**5. Ondoko kasu hauetan bakarrik onartzen da -t bukaera aditzoinetan:**

— Aditz eratorria bada eta haren oinarria *t-* duna: *laket / laketu*.

— Literatura tradizioan jokabide bakarra izan badu: *ohart, ezagut*.

— *Di* bukaerako oinarri batetik eratorria izatea eta forma laburtu gabetik semantikoki bereiz izatea: *hant, ert*.

Besteetan *-t* gabe: *urrun* nahiz *urrundu* (baina ez *\*urrunt*), *lagun* nahiz *lagundu* (baina ez *\*lagunt*), *neur, ezkon, e.a.*

Oharra: Erabaki honetan forma bakarrik aztertzen da, ez erabilera. Hots, idazle batek aditzoinak erabili nahi baditu, aditzoin hauen forma zein den esaten zaio (*zorrotz daiteke, \*zorroz daiteke, hobe daiteke, hobetu daiteke*). Ez ordea, noiz erabili behar dituen.

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1995.eko otsailaren 24an onartua)

## 29

## DIPTONGOZ BUKATZEN DIREN IZENEN DEKLINABIDEA

Gutxi dira euskaran diptongoz amaitzen diren izenak, baina, hala ere, ez da oraindik haien deklinabidea inolako den guztiz argitzea lortu, gai honetaz iritzi diferenteak eta kontrajarriak eman izan baitira. Horrela, batasunerako bidea urratzen hasteko idazle batzuek 1964an Baionan egin zuten bileran diptongoz amaitzen diren izen guztiak kontsonantez amaitzen direnak bezala deklinatzea erabaki zuten, inolako salbuespenik gabe, Azkuek berak ere egindako bide beretik.

Arau itxi hori pixkanaka aldatuz joan da, Mitxelena eta Villasantek, besteak beste, egin lanei esker. Horrela, *ai* edo *au*, nola egiten duen diptongoak, bereizten hasi ziren idazleak: *etsai*, esate baterako, bokalez amaitua bailitzan hartzen zen, eta *gau*, ostera, kontsonantez bukatua balitz bezala.

Hala ere, azken urteotan arau hori ere zalantzan jarria izan da, araua jarraiki, *lauri* edo *lauki* idatzi beharko bailitzateke, *lurri* edo *lurrik* esaten den modu berean. Beraz, badirudi *au-z* bukaturiko hitzetan ere salbuespenak bederen onartu beharko lirartekeela.

Gauzak horrela, *OEH*-ko testuak aztertu ditu Euskaltzaindiak eta testu horietan idazleek diptongoz bukatutako hitzak nola deklinatu dituzten ikusi: *barau*, *sarau*, *bakaillau*, *kofau*, *kopau*, *mokau*, *zamau*, *enparau*, *letrau*, *eskribau*, *garau*, *gaztelau*, *kristau*, *kristinau*, *kristiñau*, *arau*, *egitarau*, *lau* ('zelai'), *lau*, *hamalau* eta *gau*.

Azterketa honen ondorioz, hau esan daiteke:

1. Bokalez amaituak bezala deklinatuko dira normalean *-au* diptongoaz amaitzen diren hitzak, horrela egiten baita Hegoaldean —eta hor erabiltzen dira ugarienik horrelako hitzak— eta Iparraldean ere horrela jokatzeko baita zenbaitetan, guztietan ez bada ere. Beraz, adibide bat ematearren, hau da hobesten den deklinabidea auzitan dauden kasuetan: *arau*, *araurik*, *arauri*, *arauren*, *arauz(ko)*, *arautan*, *arautako*, *arautatik*, *arautara* mugagabea eta *arauan*, *arauko*, *arautik*, *araura* singularrean.

2. Salbuespen jakin batzuk baditu, hala ere, jokabide orokor horrek: *Gau* hitzak deklinabide berezia du. Euskalki guztietako jokabideari jarraituz, *-e-* bokala tartekatzen du mugagabeko instrumentalean eta singularreko leku kasuetan, kontsonantez amaituek egiten duten bezala: *gauetz*, *gauen*, *gaueko*. Baina, bestalde, *-r-* tartekatzen du bokalez amaituek horrela egiten duten kasuetan: *gaurik*, *gauri*, *gauren*. Beraz, honako paradigma hau izango luke hitz honek: *gauk*, *gaurik*, *gauri*, *gauren*, *gauetz* mugagabea eta *gauen*, *gaueko*, *gautetik*, *gaueru* singularrean.

3. *Lau* hitza, ordea, arau orokorraren arabera deklinatuko da. Testuek erakusten dutenaren arabera, hitz honen inesibo singularra salbuespena izan zitekeen, *lauan* bezala, *lauean* zein bietara deklinatzea erabaki baitzitekeen. Dena den, egokiago dirudi kasu horretan ere, beste guztietan bezala eta sistemari jarraiki, bokalez amaituen bidetari jarraitzea eta *lauan* forma hobestea. Horrela egin du Euskaltzaindiak, zenbakien deklinabideaz eman duen arauan ere eta hitz hau, 'izena' denean bokalez amaituak bezala deklinatzen dela esan duenean: *lauan*, beraz, inesiboan. Gauza bera zenbakia metafizikuntzan erabiltzen dugunean (*hori laua da*; *lauan marra bat jarri behar da*, e.a.), hilarren eguna izendatzen dugunean (*martxoaren laua*, *uztailaren lauan*) eta horien antzekoetan (*laua libre dago*, *lauan sar zaitez...*, 'lau' zenbakia duen gelan, alegia). 'Izenordain' bezala jokatzeko duenean, ordea, ez: *laurak etorri ziren*, *lauretan joango gara*, e.a.

4. Diptongoz bukatzen diren gainerako hitzetan (*garai, jai, gai, zelai*) ez da salbuespenik eta bokalez amaituak bailiran deklinatzen dira (*jaiean* eta horrelakoak berriak dira —nahiz Orixek joera handia zuen horretarako— eta Hegoaldekoak, gehienak), salbu monosilaboak instrumentalean: *deiez egon, edozein gaiez mintzatu*.

**Beraz, hauxe da Euskaltzaindiaren erabakia: diptongoz bukatzen diren hitzak, orohar, bokalez amaitzen diren gainerako izen guztiak bezala deklinatuko dira. Alde batera utzirik *lau zenbatzaileak*, beste arrazoi batzuegatik, sortzen dituen arazoak, salbuespen bakarra *gau* hitza da, ondoko hiru kasu hauetan: *gauez, gaueko, gauean*. Monosilaboak izanik instrumentalean doazenak ere salbuespentzat hartzen dira (*deiez*).**

Oharra: arazo hau xeheki aztertua izan zen Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarrean Gramatika batzordeak aurkeztu zuen txostenean. Ikus "Batasunerako proposamenak" ('Diptongoz amaitzen diren izenen deklinabidea'), ikus *Euskera* 1994, 3, 838-855 orr.

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1995.eko otsailaren 24an onartua)

## **BATZAR HITZA DELA ETA**

*Bilbon, 1994ko urriaren 13an*

*Jon Esnal Alegria jauna,  
Gipuzkoako Batzar Nagusien Lehendakaria.  
DONOSTIA*

Jaun agurgarria:

atsegin dut aditzera ematea akademi erakunde honek irailaren 21ean egin-dako osoko batzarrean, besteak beste, zuk ekainaren 29an bidalitako gutuna aztertu zuela.

Euskara Batuko batzordearen txostena entzun ondoren, Euskaltzaindiak aho batez erabaki zuen *batzar* forma hobestea.

Kontuan hartu behar da, izan ere, *bartzar* aldakia izan dela Hegoaldean gehien erabili dena, eta Iparraldeko zenbait autore nagusitan ere aurkitzen dela. Gipuzkoari dagokiola, aipa daiteke Oñatiko agiri batean, 1477an, *batzar* forma ikusten dela (“En la junta popular que ellos llamaban *bazaar*”). Iztuetak bi formak, *batzar* eta *batzarre*, erabiltzen ditu, eta azkeneko bi mendeetan *batzar* forma nagusitu da osoki.

Erabaki honen berri beste bi Batzar Nagusiei emango zaie.

Har ezazu gure agurrik zintzoena.

Endrike Knörr,  
idazkaria





## **EUSKALTZAINDIAREN BATZAR AGIRIAK**



## Bilbon, 1994ko urriaren 28an

Haritschelhar, J., euskaltzainburua  
Lekuona, J.M., euskaltzainburuordea  
Knörr, E., idazkaria  
Arana, J.A., diruzaina  
Altuna, P.  
Azkarate, M.  
Charritton, P.  
Davant, J.- L.  
Irigoyen, A.  
Krutwig, F.  
Larre, E.  
Ondarra, P.  
Oyharçabal, B.  
Peillen, Tx.  
Salaburu, P.  
Sarasola, I.  
Satrustegi, J.M.  
Villasante, L.

Lizundia, J.L., idazkariordea  
Zearreta, J.J., ekonomi eragilea

Bilbon, Bizkaiko Diputazioaren jau-  
regian, 1994ko urriaren 28an, goize-  
ko hamarrak eta erdietan, bildu da  
Euskaltzaindia, aldameneko lerroka-  
dan aipatzen diren kideak bertan zi-  
rela. X. Kintanak bere ezin etorria  
adierazi du.

### Agiria

Iraileko bi agiriak onartu dira. Ala-  
baina, testuan zuzenketa batzuk egin  
ditu P. Altunak, hizkuntzaren aldetik  
arreta gehiago eskatuaz batera.

### Hilberriak

J. Haritschelhar euskaltzainburuak  
urriaren 12an Tolosan hil zen Anto-  
nio M. Labaien euskaltzainaren he-  
riotzearen berri eman du batzarrean.  
Biharamunean egin zen hileta eliz-  
kizunean euskaltzain oso eta urgazle  
asko izan zirela esan du.

Labaien jaunaren hutsunea betetzeko epealdia egun zabaldu da. Hurrengo  
bi hilabeteetan aurkeztu ahalko dira hautagaiak, zeinahi ere euskalkitakoak, eta  
bozketa urtarriko batzarrean egingo da.

Pedro Diez de Ulzurrun medikua eta euskaltzain urgazlea hil honen 20an  
Iruñean hil zela aditzera eman du halaber euskaltzainburuak. J.M. Satrustegi  
eta A. Irigoyenek labur aipatu dute Diez de Ulzurrun jaunaren lan ederra Na-  
farroako Diputazioaren *Sección de Fomento del Euskera* zeritzanean, batez ere.

### Leioako Biltzarraren adierazpena garatzeko egutegi proposamena

P. Salaburuk hitz egin du lehenik. Euskaltzaindiak bere erabakiak heda-  
tzeko duen moteltasunagatik kezkatu agertu ondoren, proposatu du, Euskara

Batuko batzordearen izenean, erabaki batzuk, inolako arazorik sortu ez dutenak, ahalik lasterren plazaratzea, zabalkunde egokiarekin.

J.L. Lizundiaren iritziz, egutegi bat behar da, jendea zerbaiten zain baitago.

A. Irigoyenek esan du oraindanik onartuko direnak gomendioak izango direla, erabakiak baino areago. J.L. Lizundiak erantzun dio erabaki maila dela kontua. P. Salabururentzat erabakiak izango dira. I. Sarasolaren ustez, *erabaki* hitza da erabili behar dena, nahiz bost urteren buruan erabakia alda litekeen. A. Irigoyenek eskatu du bera ez datorrela bat agirian aipatzea. *Arau eta erabakiak* esapidea proposatu du P. Altunak izen orokor. I. Sarasola, berriz, *Euskaltzaindiaren arauak*. Hauxe da onartu dena.

Banan-banan ikertu dira egungo batzarrerako jarritako erabakizunak. *Bat-batean, behinik behin, batik bat* izenburua zuena zegoen-zegoenean onartu da.

*Baitu, baikara, bainaiz* izenekoaz zenbait ohar egin ditu E. Knörrek. Batetik, komentatzen diren hitzak eta formak italikoaz idaztea eskatu du. Bestetik. 5. paragrafoan ageri diren formak (titulukoak eta beste batzuk) zutabe batean edo bitan azaltzea proposatu du, argitasunagatik. Gainera, ohar orokor gisa, autoreen aipamenak garbiago adieraztea eskatu du, irakurle askok ez baitakite, adibidez, *Lç Mt* zer den. Erabakien testuak onartu baino lehen epeak ezar daitezen eskatu du halaber. Eskari hauek ontzat hartu dira. Autoreen aipamenaz denaz bezainbatean, I. Sarasolak eta P. Salaburuk esan dute zerrenda bat berez jartzea dela agian hoberena.

*Aurrealde, atzealde* deritzanaz, A. Irigoyenek esan du *aurrekalde* e.a. leikalizatuak direla. I. Sarasolak erantzun du *atzekalde* eta ez direla horrenbeste gaitzesten. Irigoyen jaunak eskatu du esatea *bestekalde* eta antzekoak zilegi direla. B. Oyharçabalek idazketa piska bat zehaztea proposatu du, hots, erabakia *gain, behe* eta gisa horretako leku-denborazko osagaiak dituzten hitzei dagokiela. Aldaketa horrekin onartu da testua, A. Irigoyenek kontrako botoa eman duelarik.

*Hau guz(t)ia* izenburua duen erabakizuna bere horretan onartu da, azken perpausa kendurik (“Bestetik, *guzti* eta *guzi*, biak ontzat ematen dira besterik erabakitzen ez den bitartean”). Tituluan bezala, azkeneko laukian *t* letra parentsi artean agertuko da. Hala onartu da. I. Sarasolak Euskara Batuko batzordearen asmoa azaldu du, hainbestetan erabiltzen diren hitzak, *guz(t)i*, *gut(x)i* eta antzekoak, bereziki aztertzeke eta proposamen bat aurkezteke.

*Ene/nire; niri* izena duena aho batez onartu da. Bukaerako laukian, *gomendioa* zioen lekuan *erabakia* ezarri da.

*Usain; arrain; zain* izenburukoa zegoen bezala onartu da aho batez.

Zenbakien idazkerari buruzko erabakian “*milioi bat* edo *miliar bat* esaten da” lerroa kendurik ontzat hartu da, inor ere aurka agertu ez dela.

Zenbakien deklinabidearen gaineko testuan 3. puntua kendu da eta laukian esaten zenari eutsi zaio. Bestalde, *hamahiruak*, *hamalauak*, ez *hamahirurak*, eta abar, onartzen dira. Aho batez erabaki da horrela.

Hurrengo batzarrean honako gai hauek aztertuko dira: ordinalak; ordinalen eta banatzaileen idazkera; *benetako*, *ohiko*; *betiko/betirako*; *zu izan ezik*.

Beste alorretako erabakizunez, exonomastikazkoez. esate baterako, dagokion batzordeak aurkeztuko du ondoko batzarretan proposamena.

J.M. Satrustegik zabalkunde onaren premia aipatu du. I. Sarasolak galdetu du hori ez denentz neurri handi batean Gobernuen egitekoa. J. Haritschelhar euskaltzainburuak Argitalpen eta Euskara Batuko batzordeak laster biltzea proposatu du, gai hau erabiltzeko. Horrela erabaki da. J.L. Lizundiak Jagon sailaren gogoia aipatu du, hots, arau eta erabaki oro jasoko dituen liburua argitaratu eta zabaltzea.

P. Altunak eskatu du Biltzarrean izan zirenei egun erabaki dena helaraztea, beren inguruan bana dezaten eskatuz. J.M. Satrustegik Hizkuntz Politikarako Idazkaritza Nagusiak argitaratzen duen *Berripapera* bezalako zerbait egitea iradoki du. B. Oyharçabalen ustez, Euskaltzaindiaren argitalpen honek identifikerraza izan behar du. E. Knörrek esan du Akademiak, eskulangintzako bideak utzirik, argitalpen erakargarria eta eskura-erraza atera behar duela laster. Euskara Batuko eta Argitapen batzordeek egingo duten batzarrean erabakiko da *Euskaltzaindiaren arauak* nola atera.

## Barne erregelak

Barne erregelen azken artikulua aztertu dira, hots, gehigarritzako xedapenak dituen hirurak; indargabetze xedapenak duen bakarra, eta azken xedapena. Aho batez onartu dira.

J.A. Arana, Beñat Oyharçabal eta Andres Urrutiak osaturiko batzordeñoak lege aldetikako gainbegirada emango dio testu osoari. Ondoren, estiloaren berrikuspena egingo da.

## Eskuarteko eta azken ordukoak

Bilbao Bizkaia Kutxak diruz hornituriko Euskaltzaindiaren Literatur sarietarako epai-mahaiak izendatu dira. Zuzendaritzak atzo egin bilkuran proposatua, Literatura batzordea entzun ondoren, berretsi da, hots:

‘Tx. Agirre’ eleberrri saria: Txomin Peillen, Bernardo Atxaga, Ana Toledo.

‘T. Altzaga’ antzerki saria: Daniel Landart, Eugenio Arozena, Patri Urkizu.

‘Felipe Arrese Beitia’ olerki saria: Juan M. Lekuona, Mikel Lasa, Jon Kortazar.

‘Mikel Zarate’ saiakera saria: Alfonso Irigoyen, Adolfo Arejita, Andolin Eguzkitza.

J.A. Aranak Azkue Bibliotekan aurtengo irailean sarturiko argitalpenen katalogoa aurkeztu du. Guztira 134 argitalpen dira.

Azkenik, Haritschelhar jaunak bihar, Baionako Unibertsitate eremuan, Eusko Ikaskuntzak egingo duen ekitaldia, zeinetan Manuel Lekuona saria X. Diharceri emango baitio, aipatu du.

Eta beste gairik ez zela, bukatu da batzarra. Ondoren, Luis Villasante euskaltzainburu ohiari Bizkaiko Diputazioak egin dion gorazarre ekitaldia hasi da jauregiko areto nagusian.

Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua

Endrike Knörr,  
idazkaria

## AGERIKO BATZARRA

Bilbon, 1994ko azaroaren 25ean

Haritschelhar, J., euskaltzainburua  
Lekuona, J.M., euskaltzainburuordea  
Knörr, E., idazkaria  
Arana, J.A., diruzaina  
Altuna, P.  
Azkarate, M.  
Charritton, P.  
Davant, J.- L.  
Diharce, X.  
Irigoyen, A.  
Kintana, X.  
Larre, E.  
Ondarra, P.  
Oyharçabal, B.  
Peillen, Tx.  
Salaburu, P.  
San Martin, J.  
Sarasola, I.  
Villasante, L.  
  
Aurrekoetxea, G.  
Badiola, R.  
Eguzkitza, A.  
Gandiaga, B.  
Gereño, X.  
Goikoetxea, J.L.  
Kortazar, J.  
Lizundia, J.L.  
Muniategi, A.  
Oleaga, J.  
Pagola, R.M.  
Rotaexe, K.  
Ruiz Urrestarazu, M.M.  
Uribarren, P.  
Urrutia, A.  
Zearreta, J.J.

Bilbon, Akademiaren egoitzaren aretoan, 1994ko azaroaren 25ean, arratsaldeko laurak eta erdietan, egin du Euskaltzaindiak ageriko batzarra, X. Kintana jaunaren sarrera dela eta, aldameneko lerrokadan aipatzen diren euskaltzain oso eta urgazleak bertan zirela. Ezin etorria adierazi dute F. Krutwigek eta J.M. Satrustegik.

Mahaian jarri dira Jean Haritschelhar, euskaltzainburua; J.M. Lekuona, buruordea; E. Knörr, idazkaria eta J.A. Arana, diruzaina eta egun sartu den euskaltzainaren erantzun-emailea, X. Kintanarentzat toki bat utziaz. Aretolan, euskaltzain oso eta urgazleez gain, X. Kintanaren senide, adiskide eta lagun asko ziren, eta erakunde zenbaiten ordezkari batzuk ere. Aipagarriak dira: M. Karmen Garmendia, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako idazkari nagusia; Jose M. Rodriguez Ochoa, Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusia; Tomas Uribeetxebarria, Bizkaiko Kulturako foru diputatua; Juan J. Goiriena, Euskal Herriko Unibertsitatearen errektorea; Alberto Lopez Basaguren, Unibertsitate beraren idazkari orokorra; Sabin Intxaurre, Eusko Legebiltzarreko kidea; Txetxu Aurrekoetxea, Bizkaiko Batzar Nagusietako ahaliduna, eta Jose Elorrieta, ELA sindikatuaren idazkari orokorra.

J. Haritschelharrek ireki du ekitaldia, X. Kintanaren goraipamen laburra eginez.

Ondoren, idazkariak Akademiaren ohitura azaldu du eta eskatu die P. Sa-labururi, Kintana euskaltzainerako aurkeztu zutenetariko batari, eta M. Azka-rateri, sarrera hitzaldia azken egina duen euskaltzainari, euskaltzain berriaren bila joatea. X. Kintana entzule guztien txalo beroaren artean sartu da aretoan.

Bere hitzaldia irakurri du gero Kintana jaunak. Usadioa jarraiki, haren le-hen hitzak Eusebio Erkiagaren oroigarri eta laudagarri izan dira, hots, bere to-  
kian izan duen aurreko euskaltzaina gorestekoa. Bilboren euskalduntasunaz aritu da hizlaria ondoren, sorterriko euskararen lekukotasun batzuk aipatuaz batera. Hizkuntzaren aldeko ahaleginak oroitarazi ditu, bai eta debeku aldi luzean na-barmendu diren euskaltzaleak. Bere esker onez agertu du haiekiko, baina are-toan entzule zegoen aitaren euskaraganako atxikimendua azaldu du bereziki. Hizkuntzaren eskubideen jagotean politikariek duten erantzukizuna azpimarra-tuaz bukatu du bere sarrera hintzaldia.

J.A. Aranak egin du erantzuna. Euskaltzain berriaren merezimenduak go-raipatu ditu lehenik, bai hizkuntzalaritza eta bai literatura alorreko haren liburu batzuk gogora ekarriz. Gero Bilbon argitaraturiko euskal liburu eta gainerako testuez, eguberri kanten eremukoez, batez ere, jardun du. Duela ehun urte Bil-boko institutuko irakasle batek euskararen aurka esandakoari Antonio de True-ba bizkaitarrak erantzun ziona adieraziz amaitu du mitzaldia Arana jaunak.

Ondoren, idazkariak ospakizun honen kariaz iritsi diren zenbait gutunen eta telegramaren berri eman du. Bidaltzaileak ziren, besteak beste, J.A. Ardan-za, lehendakaria; Juan Cruz Alli, Nafarroako gobernuburua; M. Jesus Aran-buru, Gipuzkoako Kultur foru diputatua; Gregorio Monreal, Eusko Ikaskun-tzaren burua; Xabier Mendiguren Bereziartu idazlea; Joseba Agirreazkuenaga irakaslea; J.M. Velez de Mendizabal, Eusko Ikaskuntzaren kudeatzailea; Mar-txel Otamendi, *Euskaldunon Egunkaria*-ren zuzendaria, eta Euskal Herriko Unibertsitatearen Leioako campuseko Sukaldaritza Eskola.

J. Haritschelharrek luzatu dizkio gero X. Kintanari euskaltzain diploma eta domina, eta, ohitura den bezala orobat, berak eta bertan ziren euskaltzain guz-tiek adiskidetasunezko besarkada eman diote Kintana jaunari.

Jean Hartischelhar,  
euskaltzainburua

Endrike Knörr,  
idazkaria



**Oiartzunen, 1994ko abenduaren 29an**

Haritschelhar, J., euskaltzainburua  
 Lekuona, J.M., euskaltzainburuordea  
 Knörr, E., idazkaria  
 Arana, J. A., diruzaina  
 Altuna, P.  
 Charritton, P.  
 Davant, J.L.  
 Irigoyen, A.  
 Kintana, X.  
 Krutwig, F.  
 Larre, E.  
 Ondarra, P.  
 Oyharçabal, B.  
 Peillen, Tx.  
 Salaburu, P.  
 Sarasola, I.  
 Satrustegi, J.M.  
 Villasante, L.  
 Zabaleta, P.

Lizundia, J. L., idazkariordea  
 Zearreta, J.J., ekonomi eragilea

Oiartzunen, Udaletxeko batzartegian, 1994ko abenduaren 29an, goizeko hamarretan, bildu da Euskaltzaindia, aldameneko lerrokadan aipatzen diren kideak bertan zirela. Ezin etorria adierazi dute Miren Azkarate, X. Di-harce eta J. San Martinek.

**Agiriak**

Azaroko bi agiriak onartu dira, zenbait zuzenketa egin ondoren.

**P. Diez de Ulzurrun**

J.M. Satrustegik irakurri du Pedro Diez de Ulzurrun Etxarte (1924-1994) euskaltzain urgazleari buruzko bere txostena. Urriaren 20an Iruñean hil zen Diez de Ulzurrun (ezizenez *Ikusle*) euskaltzale suharraren bizitza azaldu du hizlariak, mediku endokrinologoa zen aldetik haren dohaiak agerraraziz, lehenik, eta euskararen faboretan egindako lan esker-ga, ondoren.

Nafarroako Diputazioak 1957an sortu zuen *Sección de Fomento del Vascuence* izenekoa P. Diez de Ulzurrunek izan zuen partaidetza azpimarratu du: *Príncipe de Viana* euskarazko agerkarian, zuzendari eginkizunaz gainera, argitaraturiko artikulu asko, literatur lehiaketak, bertsolari txapelketak, euskal festak, e.a. *Diario de Navarra* egunkariaren euskarazko orrian idatzi zuen luzaro. *Euskera* agerkarian, 1960an argitaratu zuen dotrina, Ezkabarteko Makirriainen aurkitua, aipatu du Satrustegi jaunak haren ikerlanen artean. Galera handia, bada, hain maitatua zen gizon xalo eta atsegin honena.

## Euskara Batuko batzordea

P. Salaburuk aurkeztu ditu egungo erabakizunak. Lehendabizi, *Ordinalen eta banatzaileen idazkera* deritzan txostena aztertu da eta aldaketa batzuekin onartu.

**Ba-** eta **gabe-**ren idazkera izeneko txostena ikertu da gero. X. Kintana **ba-**ren bi balioak idatziz bereiztearen alde agertu da. Beti elkaturik idazteko erabakia botu gutxigatik nagusitu zela gogorarazi du. Gainera, bereizketak hitanoan duen abantaila adierazi du. I. Sarasolak esan du beranduegi dela bereiz idazten gomendatzeko. A. Irigoyenek esan du azentua bereizgarri dela maiz, baina ezin dela horri buruz lege finkorik eman. Txostena onartu da.

*Benetako, ohiko* titulutzat duen txostena onetsi da berebat, inolako aldaketarik gabe.

*Betiko* izeneko txostena aldaketa batzuk eginik onartu da. Titulua honako hau izango da: *Betiko* eta kideak. Era honetara, *gaurko, sekulako* eta beste sartu dira txosten berean. P. Zabaletaren eta Tx. Peillenen aburuz, *betiko* eta *betirako* bereizi beharko lirateke. P. Salaburuk erantzun du txostenak *betiko* hobesten duela, *betirako* gaitzetsi gabe. P. Altunak esan du *\*noizerako* sortuko den beldur dela. X. Kintanak proposatu du *betirako* salbuestea. A. Irigoyenek eskatu du arazoa ikuspegi zabalagotik aztertzea, *luzarorako, etzirako* eta antzekoak jasoz. I. Sarasolaren ustez, *betirako*-k alde txar bat du: batasuna hausten duela. *Betiko* eta abarren batasunarentzako egokitasuna aipaturik onartu da testua.

*Arabera* izeneko txostenean ere zenbait aldaketa egin dira batzarrean. *Arauz* eta *arauz* aldakiak aipatzen dira testu berrian, batetik, eta, bestetik, bigarren eta hirugarren parrafoak kendu dira. Laukian, argitasunaren onetan, “esapide gisa erabiltzeko” erantsi da, *arau* izenetik bereizteko. A. Irigoyenek eskatu du agirian ezar dadin haren ustez txikiak diren gauza hauetaz ez litzukeela Euskaltzaindiak erabakiak hartu behar, eta bera kanpo gelditzen dela. I. Sarasolak eta E. Knörrek euskara baturako ereduak eskaintzeko Akademiak duen erantzukizun eta eginbidea aditzera eman dute.

*Iritzi* izeneko txostena ikertu da ondoren. X. Kintana *eritzi*-ren alde mintzatu da. Hauek izan dira haren arrazoiak: azken 20 urteotako erabilera, bai eta erro bereko beste hitz batzuena ere, *erizpen, erizpide*, eta abar; gipuzkerazko *erizten zaio*, eta *iritzi*-rekin bestela sortzen den nahasketa. I. Sarasolak erantzun du Iparraldean *iritzi* hedatu dela. Gainera, bizkaieraz *iritzi* ez da bakana, batasunera begira egon diren idazleen artean. Bestalde, liburu eta aldizkarietako zenbait testu ez direla fidagarriak esan du, askotan gertatu baita egileak *iritzi* idatzi eta argitaratzaileak *eritzi* ezartzea. Azken urteotan *iritzi*-ren nagusitasuna adierazi ondoren, erabakia zeren izenean aldatuko den galdegin du. A. Irigoyenek aitortu du garai batez *iritzi*-ren alde zegoela eta *eritzi* Euskaltzaindiak hedatu zuela gogorarazi. Puntu honetan ere haren izena kentzea eskatu du. J.M.

Satrustegik esan du berdin zaiola *iritzi* zein *eritzi*, eta aipatu du eitzi esaten dela Urdiain.

Txostena bozkatu da. P. Altunak Miren Azkarateren botoa zuen eta E. Larrek X. Diharcerena. Hau izan da emaitza:

Bai: 15.

Ez: 6.

*Arazi* deritzan txostena aztertu da azkenik, beste gaietarako denborarik ezean. X. Kintanak esan du *erazi* dela zaharrena eta gaur egun nagusia, eta gramatiketan usuen ageri dena. *Aditz erazle* deitura aipatu du, gainera. I. Sarasolak erantzun du Iparraldean *arazi* dela erabateko nagusitasuna duena. Zailantzak Hegoaldean izaki, parada ona litzateke, haren aburuz, batasuna lortzeko. A. Irigoyenek bizkaierazko eta gipuzkerazko *galerazo* forma aipatu du. Euskaltzaindi zaharrak *erazi* zerabilela esan du. *Adierazi* aditza bereizkuntza izango den galdegin du eta puntu honetan arinki jokatu dela esan. Agirian haren desadostasuna azaltzea eskatuz bukatu du. I. Sarasolak erantzun du lehen ez zela *erazi*-ren aldeko batasunik. P. Zabaletaren iritzian, lehenago erabakiari eutsi beharko lioke Akademiak.

Txosten hau ere bozkatu da. Hona emaitza:

Bai: 16.

Ez: 5.

P. Salaburu batzorde idazkariak azaldu du urtarrileko batzarretik aurrerako prozedura. Erabakizunak gauza berriak izango direnez, hilabeteko epea emango da, euskaltzainek txostenak azter ditzaten. Beste batzordeek ere beren erabaki-proposamenak Euskara Batuko batzordeari helaraztea komeni dela esan du.

## Eskuartekoak

Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak administrazioko hiztegia egiteko duen proiekturako Euskaltzaindiaren ordezkari bat eskatu du gutunez. Ibon Sarasola izendatu da. Bilkuren egutegiagatik Sarasola jaunak ezingo ez ingo balu, Miren Azkarate izango litzateke kidea. Ordezko X. Kintana izango da. J.L. Lizundiak adierazi du garbi gelditu behar duela Euskaltzaindia ezin dela, hizkuntza aholkularitza berea duenez, beste erakunde eta elkarten mailan ipini. Ontzat hartu dute batzartuek oharra.

Iruñeko Euskalerria Irratiak Nafarroako Justizi Auzitegi Nagusiaren aurrean aurkezturiko gorajotzeaz Merino Zalba epaileak eman duen epai harrigarria izan da ondoren mintzagai. Arazoa Jagon sailak zehaztuko du, arratsaldean egingo duen bilkuran. Nolanahi ere, Euskaltzaindiak eta Eusko Ikaskuntzak adierazpen bat plazaratzea da asmoa, Iruñean, urtarrilaren 13an, Eusko Ikaskuntzak eskatu duen lege-diktamena aztertu ondoren. P. Zabaletak esan du Euskalerria Irratiak Madrileko Epaitegi Gorenera jo duela.

J.M. Jimeno Juríoren eta P. Salaberriren *Toponimia de la Cuencia de Pamplona. Pamplona-Iruña* liburua (Onomasticon Vasconiae sortaren 12.a) abenduaren 16an aurkeztu zen Iruñean, Nafarroako Gobernuaren liburutegian. *Diario de Navarra*-k hurrengo bi egunetan aurkezpenaren inolako berririk ekarri ez zuenez, E. Knörr Jagon sailburu eta Onomastika batzordeburuak gutun bat egin zion telekopiagailuz egunkariaren zuzendariari (gutun horren kopia egungo batzar karpetan sartu da). Egunkariak abenduaren 20an eskaini zion toki zabala aurkezpenari.

Azkue Bibliotekak 1994ko azaroan sarturiko argitalpenen katalogoa banatu da. Denetara 171 liburu eta aldizkari izan dira.

Labaien hutsunea betetzeko proposamenen epea egun bukatu da. Hiru dira hautagaiak: Adolfo Arejita, Alfonso Irigoyenek, Federico Krutwigek, Jose Antonio Aranak eta P. Charrittonek aurkeztua; Patxi Goenaga, Patxi Altunak, Miren Azkaratek, Juan M. Lekuonak eta Beñat Oyharçabalek aurkeztua; eta Jose Luis Alvarez Enparantza, P. Zabaletak, Tx. Peillenek eta X. Kintanak aurkeztua. Bozketa urtarrileko batzarrean egingo da.

P. Charritton Iparraldeko ordezkariak Baionan ezarri diren bideseinaleen berri eman du. Hango bi ibaiak *Aturria*, *Errobia* gisa ageri dira. Euskaltzaindiak ez du horretan parterik izan. Akademiaren iritzia helaraziko zaio Udalari.

Erakundearen diruzaina den Jose Antonio Aranak Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta Comptos Ganbarak Euskaltzaindiaz egindako behin-behineko txostena azaldu du labor. Kontu guztiak zuzen daudela adierazten du txostenak. Testuak zenbait proposamen egiten ditu Akademiaren diru egoera eta barne jaurpidea hobetzeko. Txostena euskaltzain guztien eskura egongo dela esanez amaitu du azalpena.

Bestalde, diruzaina izendatu da Banco Bilbao Vizcayarekin 35 milioi pezetako diru-mailegua lortzeko behar diren agiri publiko edo pribatuak sina ditzan, haren ustez egokiak diren baldintzekin. P. Zabaletaren galderari erantzunez, J.J. Zearretak azaldu du Nafarroako Gobernuak emandako 2.500.000 pezeta, Parlamentuan jaso gabe bezala agertzen zirenak, argitalpenetan xahutu direla. P. Charrittonen iritziz, Herri Aginteez Euskaltzaindiari diru gutxiago emango baliote murrizketa non egin behar den erabaki beharko litzateke. J.L. Lizundiaren ustetan, ez da murrizketarik izango. P. Salaburuk esan du martxo-ko Barne Jardunaldietan euskaltzainek dokumentazioa erabili beharko dutela, aurreko bi aditegien emaitzak eta lanpostuen balorapena, besteak beste. Haren iritziz, garai txarrak etor litezke Euskaltzaindiarentzat.

Onomastika batzordekide eta Jagon sailkide den Andres Iñigo urgazleak doktorego titulua lortu du abenduaren 16an, *Toponómastica histórica del Valle de Santesteban de Lerín (Regata del Ezkurra)* izeneko tesiaz. Goresmenak baldiko zaizkio.

Abenduko batzarrean ohitura denez, Jose Luis Lizundia idazkariordeak datorren urteko egutegia, Zuzendaritzak onetsia, aurkeztu du. Lau batzar izango dira Bilbon, beste lau Donostian edota Gipuzkoan, eta bana Araban, Iparraldean eta Nafarroan. Batzar arruntez landakoak hauek izango dira: Gipuzkoako Domina jasotzeko Donostian, urtarrilaren 27an; IX. Barne Jardunaldiak, oroz gain Akademiaren baliabideak aztertzeko, Legutianoko Larrabea, eta Gabriel Jauregiren oroigarritzko batzarra Aramaion, martxoaren 31 ean eta apirilaren 1 ean; Heletan, maiatzaren 26an, Mixel Elizanbururen mendeurrenkari, eta Usurbilen, irailaren 29an, Juan Jose Alkain *Udarregi* bertsolariaren omenez.

Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua

Endrike Knörr,  
idazkaria

### Bilkura berezia

1994.eko abenduaren 29an, bildu dira eguerdiko ordubetetan, Oiartzungo Udaletxean: P. Altuna, J.A. Arana Martija, P. Charritton, J.L. Davant, J. Haritschelhar, A. Irigoien, X. Kintana, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, J. M. Lekuona, F. Ondarra, B. Oihartzabal, Tx. Peillen, P. Salaburu, I. Sarasola., J.M. Satrustegi, L. Villasante eta P. Zabaleta euskaltzainak. M. Azkaratek, X. Diharcek eta J. San Martinek beraien ezin etorria adierazten dute. (Azkaratek P. Altunari ematen dio ahala eta Diharcek E. Larreri); J.L. Lizundia, idazkariordea eta J.J. Zearreta, ekonomi eragilea. Mahaipuruan: Federico Krutwig, antzineko euskaltzaina, buru bezala eta Xabier Kintana, azken sartutako euskaltzaina, idazkari jartzen dira, laguntzeko J.L. Lizundia, idazkariordea daukate-larik.

Euskaltzainburuaren hautateka bozketa egiten da lehendabizi, horretarako, Jean Haritschelharrek orain arteko euskaltzainburua aurkezten da hautagai bezala. Alfonso Irigoien euskaltzainak adierazten du bera ere kargu guztietarako hautagai aurkezten dela. Bozketa egiten da, ondorio hauekin: Jean Haritschelharek 16 botu, Juan San Martinek botu bat, Alfonso Irigoienek botu bat, Miren Azkaratek botu bat; zuriz: 2, beraz beste bi urtetarako euskaltzainburu, Jean Haritschelhar izendatzen da.

Buruordetzat hautatua izaten bada Juan Mari Lekuonak adierazten du, onartuko duela. Bozketa egiten da ondorio hauekin: Juan Mari Lekuonak 14 botu, Alfonso Irigoienek 3 botu, zuriz: 4 botu; beraz, beste bi urtetarako, Juan Mari Lekuona izendatzen da euskaltzainburuorde.

Jarraian idazkari kargurako bozketa egiten da. Aurretiaz Endrike Knörr eskaintzen da kargu honetarako. Bozketa egiten da ondorio hauekin: Endrike Knörrek 11 botu, Alfonso Irigoienek 5 botu, Xabier Kintanak botu bat, zuriz: 4 botu. Gehiengo osoa inork lortu ez duenez gero, bigarren bozkaldia egiten da ondorio hauekin: Endrike Knörrek 13 botu, Alfonso Irigoienek 4 botu, Xabier Kintanak botu bat, zuriz: 3 botu. Beraz, Endrike Knörr izango da, gehiengo osoz berriz ere, Euskaltzaindiko idazkari.

Diruzainerako bozketa egiten da azkenean. Jose Antonio Arana Martijak adierazten du beste inor aurkezten ez bada, berak jarraitzeko ez duela eragozpenik. Bozketa egiten da ondorio hauekin: Jose Antonio Aranak 13 botu, Alfonso Irigoienek 3 botu, Jose Mari Satrustegik botu 2, Luis Villasantek botu bat. zuriz: botu bat. Beraz, Jose Antonio Arana izendatzen da berriz ere diruzain.

Eta honekin amaitzen da bilkura berezia.

**Donostian, 1995eko urtarrilaren 27an**

Haritschelhar, J., euskaltzainburua  
 Lekuona, J.M., euskaltzainburuordea  
 Knörr, E., idazkaria  
 Arana, J.A., diruzaina  
 Altuna, P.  
 Azkarate, M.  
 Charritton, P.  
 Davant, J.L.  
 Diharce, X.  
 Irigoien, A.  
 Kintana, X.  
 Krutwig, F.  
 Larre, E.  
 Oihartzabal, B.  
 Ondarra, P.  
 Peillen, Tx.  
 Salaburu, P.  
 San Martin, J.  
 Sarasola, I.  
 Satrustegi, J.M.  
 Villasante, L.

Lizundia, J.L., idazkariordea  
 Zearreta, J.J., ekonomi eragilea

Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren jauregian, 1995eko urtarrilaren 27an, goizeko 10etan, bildu da Euskaltzaindia aldameneko lerrokadan aipatzen diren kideak bertan zirela. P. Zabaletak bere ezin etorria adierazi du.

**Agiria**

Abenduko agiria onartu da, A. Irigoien eta X. Kintana jaunen oharrak jaso ondoren.

**A.M. Labaien (1898-1994)**

Juan San Martinek irakurri du Antonio Maria Labaieni buruzko bere txostena. Eskola urteak eta goi-mailako ikasketak azaldu ondoren, Labaien jaunak gatzetandik izan zuen literaturarako isuria gogorarazi du: besteak beste, Donostiako udal saria 20 urterekin irabazi zuen, *Txinparta buruzagi* komediaz. Teatroaren alorrean egile ez ezik, eragile ere izan

zela esan du. Adibidez, *Antzerti* aldizkaria sortu zuen, 1932an. Garaiko idazleekiko harremanez mintzatu da hizlaria gero. Lizardirekin eta Orixerekin bereziki Labaienek izan zituen loturak aipatu ditu, bai eta Orixeren *Euskaldunak* poemaren argitalpen laburtua ere (1950). Bestelako lanak ere ekarri ditu gogora Juan San Martinek: *Elizanbururen biografia* (1978), *Euskararen batasunari buruzko gogoeta-liburua* (1984), e.a. Euskaltzainak bere herrian izan zituen karguak ere oroitarazi ditu: zinegotzia, 1931 an, eta, alkatea, bi urte geroago.

## Euskara Batuko batzordea

Batzorde idazkaria den P. Salaburuk egin du, bestetan bezala, egungo batzarrera ekarri diren txostenen aurkezpena. *Hitz elkartuen osaera eta idazkera* izenekoia izan da lehenbiziko erabakizuna. Euskaltzaindiak aurretik onarturiko proposamen bera da, salbu elkarteko lehen osagaiak *-ia* amaiera duenean; kasu horretan *-a* bokalarekin nahiz gabe idatzi ahalko da. Adibidez, *biologia azterketa* eta *biologi azterketa*, biak izango dira zilegi. X. Kintanak *basa-*, *ber-*, *bir-* aurrizkiak aipatzea eskatu du. Horietaz eta giza eta sasi osagaietz eztabaidatu da. Eratze berrietan, *giza eskubideak* eta beste bereiz idazten direnez, *basa* eta *sasi* berdin idaztea dirudi egokien. Hala onartu da. E. Knörrek eta J.L. Lizundiak egin dute zuzenketa bat onomastika eremuko adibideaz. *Euskal Herria* izena ere izan da une batez eztabaidagai. X. Kintanaren ustez. Euskaltzaindiak ez luke *Euskalerr* idazkera bultzatu behar, azken urteotan arrunt gutxiago erabiltzen denez.

*Hori eta, hori edo eta horrelakoen idazkera* deitzen den txostena aztertu da ondoren. Zenbait euskaltzainek hitz egin dute arazo honetaz eta ingurukoetz: *hori dela-ta*; *ikusi eta / ikusita*; *harrituta*, e.a. A. Irigoienek esan du argi gelditu behar duela *hori eta* idazteak ez dakarrela *hori dela eta* idaztea. Txostena aipamen horrekin onartu da aho batez.

*-z gero* izenekoia ikertu da azkenik. X. Kintanaren aburuz, ez litzateke bereizkuntzarik egin behar, eta *lana eginez gero* idaztea gomendatzen den bezala *honez gero* eta *harez gero* gomendatu beharko litzateke. Gainera, esan du azken 20 urteotan *harez gero* idazle anitzek erabili izan dutela. eta txosten hau eta besteak onartu baino lehen datuak ekartzea eskatu du. P. Salabururen ustez, datuak lehenago eskatu behar dira. M. Azkaratek aditzera eman du corpusak aski garbi erakusten duela proposamenaren oinarri sendoa. Era berean, P. Altunak esan du *honezkero* eta *harrezkero* lexikalizatuak daudela. J.M. Satrustegirentzat bereizkuntzak gutxi dira. Dena dela, laukitik *egun horretaz gero* exenplua kentzea erabaki da, *horretaraz gero* eta abarren aipamena ere egin beharko bailitzateke. Bestalde, erabaki gaia *-z gero* izaki, ez dirudi bidezkoa *-az / -ez gero* auzian sartzea. Txostena onartu da, *egun horretaz gero* adibidea kendurik. X. Kintanak eskatu du kontrako haren iritzia agirian aipatzea.

*Aditzoin berezien forma* txostena banatu da euskaltzainen artean. Proposamena ohargileei ere helaraziko zaie. Otsailaren 20rako bidali beharko dira oharra. Hauek erabilerari buruzkoak ez, formari buruzkoak soilik izango dira, erabakizuna forma baita, eta ez erabilerara.

## A.M. Labaienen hutsunea

A.M. Labaienen hutsunea betetzeko hiru izan dira proposatu diren hautagaiak: Adolfo Arejita, Alfonso Irigoienek. Federiko Krutwigek, Jose Antonio Aranek eta Pierre Charrittonek aurkeztua; Patxi Goenaga, Patxi Altunak, Miren



Azkaratek, Juan M. Lekuonak eta Beñat Oihartzabalek aurkeztua; eta Jose Luis Alvarez Enparantza, *Txillardegi*, Patxi Zabaletak, Tx. Peillenek eta X. Kintanak aurkeztua.

X. Kintanak Alvarez Enparantza jaunak prentsako gutun baten bidez adieraziagatik bere kezka agertu du; gutun horretan ez zuela hautagaia izan nahi esan zuen. Kintana jaunarentzat ez da gisa norberaren borondatearen kontra hautagai bat aurkeztea. E. Knörren iritziz, Arautegiak edo Barne-Erregelek esan beharko lukete hori. Aldiz, A. Irigoienentzat, hautagaia aurkezturik badago, bozkatu behar da. M. Azkaratek esan du Erakundearen eta interesatuaren izen ona dela jokoan eta hobe proposamena erretiratzea. Azkenean, Alvarez Enparantzaren aurkezleatariko bik, hots, Xabier Kintanak eta Txomin Peillenek, kandidatura hori baztertzea erabaki dute izkribuz. Jose Antonio Arana Martijak, Patxi Zabaletaren botu-ahala duenak, erabaki horrekiko adostasuna agertu du.

Bozketa hasi aitzin Ibon Sarasolak aldegin du, botu-ahala P. Salabururi utzirik. Esan bezala, P. Zabaletarena J.A. Aranak du.

Hauxe izan da bozketaren emaitza:

P. Goenagak: 14.

A. Arejitak: 5.

Zuriz: 3.

Hortaz, P. Goenaga hautatu da euskaltzain. Barne erregelek 43. artikuluan diotena beteaz, idazkariak hautapena jakinaraziko dio ofizialki. Hilabeteko epea izango du Goenaga jaunak bere baiezkoa emateko, eta zortzi hilabetekoa, sarrera hitzaldia egiteko.

## **Eskuartekoak**

Azkue Bibliotekan 1994ko abenduan sartu argitalpenen katalogoa aurkeztu du J.A. Arana jaunak. Guztira 136 izan dira liburu eta aldizkariak.

Juan Jose Zearreta ekonomi eragileak euskaltzain osoei azken egunetan egindako ordainketen berri eman du. Eskatu den maileguari esker gizabana-koekiko zor guztiak laster kitatuko direla esan du.

Euskaltzainburuak adierazi du Sabino Arana Fundazioak Kultura alorreko Saria Euskaltzaindiari ematea erabaki duela. Ekitaldia Bilboko Filarmonia Elkartearen izango da, urtarrilaren 29an, igandez.

Arratsaldeko ekitaldia, Gipuzkoako urrezko domina jasotzekoa, 5etan hasiko dela gogoraraziz, amaitutzat eman du batzarra J. Haritschelhar jaunak.

Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua

Endrike Knörr,  
idazkaria

### Bilbon, 1995eko otsailaren 24an

Haritschelhar, J., euskaltzainburua  
 Lekuona, J.M., euskaltzainburuordea  
 Knörr, E., idazkaria  
 Arana, J.A., diruzaina  
 Altuna, P.  
 Charritton, P.  
 Davant, J.L.  
 Diharce, X.  
 Goenaga, P.  
 Irigoien, A.  
 Kintana, X.  
 Krutwig, F.  
 Larre, E.  
 Oihartzabal, B.  
 Ondarra, P.  
 Peillen, Tx.  
 Salaburu, P.  
 Sarasola, I.  
 Satrustegi, J.M.  
 Villasante, L.

Lizundia, J.L., idazkariordea  
 Zearreta, J.J., ekonomi eragilea  
 Gorrotxategi, M., Onomastika batzorde idazkaria, akademi gaietan.

Bilbon, egoitzan, 1995eko otsailaren 24an, goizeko 10etan, bildu da Euskaltzaindia, aldamenean aipatzen diren lagunak han zirela. Ezin etorria M. Azkarate, J. San Martin eta P. Zabaletak adierazi dute.

#### Agiria

Urtarrileko agiria zenbait zuzenketa-rekin onartu da.

Gaietan hasi baino lehen, ongi etorri egin dio J. Haritschelharrek Patxi Goenaga euskaltzain berriari.

A. Irigoienek eskatu du A. Arejita urgazleari goresmenak bidaltzea, doktorego tesia irakurri berri baitu. Hala egingo da.

### Martxoko batzarra eta IX. Barne Jardunaldiak

J.L. Lizundia idazkariordeak eta Bizkaiko Batzar Nagusietako ahal-dunak erakunde horren osoko bilkurara joan behar zuenez, lehen puntura pasa da Legutianoko Larrabeen egingo diren hileko batzarraren eta IX. Barne Jardunaldien egutegia (martxoaren 30 eta 31an eta apirilaren 1ean). Orobat aipatu du Lizundia jaunak apirilaren 1eko eguerdian Aramaion izango den ageriko batzarra, Gabriel Jauregi idazlearen mendeurrena ospatzeko.

## Euskara Batuko batzordea

Urtarrileko batzarrean erabaki gabe gelditu zen “*Hori eta, hori edo eta horrelakoen idazkera*” deritzan txostena aurkeztu du P. Salaburu batzorde idazkariak, moldaketa berrian. A. Irigoienek esan du *hori dela eta* esapidean eta enklitikoaren denez, *-ta* idaztea gomendatu beharko litzatekeela. I. Sarasolarentzat, berriz, enklitikotasunak ez dakar *-ta* idaztea, eta euskara batuaren idatz-ohitura gogorarazi du. J.M. Satrustegiren iritziz, ez da komeni idazkera zailtzea. P. Goenagak laukiko testua aldatzea proposatu du, argitasunaren amoreagatik. A. Irigoienek eskatu du gaia sakonago ikertzea. Testua ontzat hartu da, A. Irigoienekin kontrako botoarekin.

“Aditzoin bereziak” izeneko txostena B. Oihartzabalek azaldu du. *Eutsi eta iritzi* aditzen formak eztabaidatu dira, X. Kintanak *euts* eta *iritz* proposatu baititu aditzoin gisa. Hau izan da erabakia: *euts* nahiz *eutsi*, *iritz* zein *iritzi*, biak izango dira aditzoinak, eta *itxi* izango da forma bakarra.

“Diptongoz bukatzen diren izenen deklinabidea” deritzan txostena aztertu da gero. P. Salaburuk egin du azalpena. Testua onetsi da, baina *deiez* eta (*zenbait*) gaiez bezalako esamoldeak izango dira forma aratuak. A. Irigoienek esan du bat datorrela txostenarekin, nahiz puntu honi buruz ere askatasuna ematearen aldeko izan.

“Espainiako Erresumako probintzia eta elkarte autonomoen eta Frantziako Errepublikako departamenduen eta herrialdeen izenak” deritzan txostena eta “Grezieratik hitzen letraldaketa-taula” izenekoak aurkeztu dira, Onomastika batzordeak bere azken bilkuran onartu ondoren. Bilkura horretan A. Irigoienekin txostena. “Grekozko alfabetoa eta bere transkripzioa kharaktere latinoetan” zeritzana, aztertu zen orobat. Dena den, Irigoien proposaturiko idazkera kasu berezi batzuetan baizik ez zen onartu.

I. Sarasola kexu agertu da, orain arteko erabakizun guztiak Euskara Batuko batzordetik pasa baitira, molde bera harturik eta zenbaki batekin. Bestalde, esan du txostenean ageri diren izen arrunt batzuetaz Euskaltzaindiak ez duela deus ere erabaki, euskara baturako egokitasunaren aldetik, *irla*, adibidez. E. Knörr Onomastika batzordeburuak erantzun du elkarlana behar dela eta Onomastikako kide bat Euskara Batuko batzordean izan dadin eskatu du, gai hauek tratatzen diren orotatik iritzi-emaile, eta X. Kintana batzordekidea proposatu du horretako. Eskaera mahai gainean gelditu da, baina bi batzordeek, idatziz etorriko diren oharraurrean izaki, berrikeria dute testu hau eta martxoko batzarrean erabaki-proposamena ekarriko.

## Batzordeburuen izendapena

Jean Haritschelharrek batzordeburu izateko Zuzendaritzak proposatu dituen izenak irakurri ditu. P. Altunak esan du bera gehiegitan ageri dela. A. Irigoienek oroitarazi du lehen ere inork bi kargu baino gehiago hartzearen aur-

ka mintzatu zela, eta gaia mahai gainean uztea eskatu du. Horrela erabaki da. Euskaltzainek martxoaren 20a baino lehen bidali ahalko dituzte proposamenak.

### **Eskuartekoak eta azken ordukoak**

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta Comptos Ganbarak Euskaltzaindiari buruz egindako txostenak egun iritsi behar zuen, baina bi erakunde horietako arduradunek goizean gaztigatu dute asmoa ezin izan dela bete. Hortaz, testua hurrengo egunetan igorriko zaie euskaltzain guztiei.

J.A. Arana liburuzainak Euskaltzaindiari eman zaizkion zenbait artxiboren gainean txosten bat aurkeztu du. O. Apraiz, J. Bilbao, G. Aresti, L. Ibarra eta J. Etxaideren ondareak dira.

E. Knörrek Gasteizen berriki ezagutarazi den manifestua, lagun askok sinatu dutena, azaldu du. Manifestua euskararen inguruan sortu den giro nahasiak eragin du. Tolerantzia eskatzen du eta hizkuntza politikarako proposamen batzuk egiten ditu. Gai bera Jagon Sailak erabiliko du martxoaren 7ko bilkuran.

Euskaltzaindiaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko hitzarmen berriaren testua, otsailaren 8an sinatu zena, banatu da euskaltzainen artean. Euskaltzainburuak adierazi du Bordeleko Unibertsitatea prest dagokeela antzeko beste hitzarmen bat sinatzeko.

J.A. Ardanza lehendakariari Zuzendaritzak otsailaren 7an egindako ikus-taldiaren berri eman du J. Haritschelharrek. Lehendakaritzaren egoitzako el-karrizketa luze eta atseginean M.K. Garmendia Kultur sailburua ere izan zen.

Herri Aginteeekiko hitzarmenaren testu zirriborroa, Euskaltzaindira aurreko astean igorri dena, egungo batzarrean banatu zaie euskaltzainei, martxoaren 20a baino lehen nork bere iritzia eman dezan. J.A. Aranak gogorarazi du testu berri-rako Euskaltzaindiak egin zituen iradokizunak ez direla kontuan hartu. P. Charritonek esan du Espainia eta Frantziako gobernuak, Baionan, martxoaren 10ean, sinatuko duten abenikoan Euskaltzaindia sartzeko aukera ona dela. P. Altunaren ustez, M.K. Garmendia Kultur sailburuarekin egin liteke bilkura bat, Akademiaren kezka larriez mintzatzeko. J.A. Aranak aipatu du papererian gal-tzen den denbora. Aldiz, esan du, Madrilgo gobernuak iaz baino diru gehiago emango dio Euskaltzaindiari, *Oroit-Idazkia* askietsirik.

Eusko Jaurilaritzak bidalitako gutuna irakurri da. Laster sortuko den Euskal Gizatalde eta Etxeekiko Harremanetarako Aholku batzorderako Euskaltzaindiaren kide eskatu du. E. Knörr idazkaria izendatu da.

M. Dolores Etxeberria luzaidarra, J.M. Satrustegiren gelaria, otsailaren 11 an hil zela, aditzera eman du Euskaltzainburuak eta guztien izenean dolumina agertu dio Satrustegi jaunari.

P. Ondarra euskaltzain osoak eta J. Apezetxea urgazleak paratu dute Joaquín Lizarragaren *Jesukristo, Maria eta santuen bizitzak* deritzan liburuaren

edizioa, Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikarako eta Kultur Zuzendaritza Nagusiaren laguntzaz. Ale bat Euskaltzaindiari eskaini diote egileek, erakundearen 75. urtemugakari. J. Haritschelharrek bihotzez eskertu du oparia.

1994ko batzarretan izandako euskaltzain osoen eta urgazleen zerrenda banatu da halaber egungo batzarrean.

Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua

Endrike Knörr,  
idazkaria

## Hileko batzarra eta IX. Barne Jardunaldiak

Larrabeen (Legutianon), 1995eko martxoaren 31 ean eta apirilaren 1ean

Haritschelhar, J., euskaltzainburua  
 Lekuona, J.M., euskaltzainburuordea  
 Knörr, E., idazkaria  
 Arana, J.A., diruzaina  
 Altuna, P.  
 Azkarate, M.  
 Charritton, P.  
 Goenaga, P.  
 Irigoien, A.  
 Kintana, X.  
 Krutwig, F.  
 Oihartzabal, B.  
 Ondarra, P.  
 Peillen, Tx.  
 Salaburu, P.  
 Sarasola, I.  
 Satrustegi, J.M.  
 Villasante, L.

Lizundia, J.L., idazkariordea  
 Zearreta, J.J., ekonomi eragilea

Larrabeen (Legutianon), 1995eko martxoaren 31an, goizeko hamarretan, bildu da Euskaltzaindia, aldamenean aipatzen diren euskaltzainak han zirela. Ezin etorria J.L. Davant, X. Diharce, E. Larre eta J. San Martinek bidali dute.

### Agiria

Otsaileko agiria onartu da, zenbait zuzenketa egin ondoren.

### Sariak

Federiko Krutwig euskaltzainari eta Juan J. Pujanari Greziako Kabala hirian, grezierazko kultura zabaltzeko egiten duten lanagatik, ohorezko diploma bana eman zaiela adierazi du A. Irigoienek eta agirian horren berri jasotzea eskatu.

### Euskaltzain ohorezkoak

Zuzendaritzak Joan Corominas katalan hizkuntzalari ospetsua eta Pedro Pujana aramaioar urgazlea euskaltzain ohorezko izendatzea proposatu du. Bi jaun hauen bizitzaz eta lanez banatu diren izkribuak irakurri ditu idazkariak. Aho batez onartu da proposamena.

### Euskaltzaindiaren diru-egoera

P. Salaburuk eskaturik, beste gaiak oro utzi eta Euskaltzaindiaren diru-egoera aztertzeari ekin diote batzartuek.

Defizitaren gainean hitz egin da lehenik. P. Salabururen ustez, neurriak berahala hartu behar dira, 45 milioi pezetako defizita estaliko bada. I. Sarasolak

esan du hausnarketa egiteko garaia dela hau, Akademiaren giza eta diru-baliabideez, Barne Jardunaldien gaiaz, hain zuzen ere, eta galdetu du diru publikoa zergatik joaten den beste zenbait elkartetara, Euskaltzaindiari egiten zaion fiskalizazio eta kontrol zorrotzik gabe.

A. Irigoienentzat tristea da musutruk lan egin beharra, eta agintariek ezin dute esan Euskaltzaindiak zer ikertu behar duen.

M. Azkaratek idatzirik ekarri duen txostena, “Barne Jardunaldiotarako go-goeta batzuk” izenekoa, irakurri du. Fiskalizatze Txostenean eta Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuaren oraintsuko idatzian ageri diren zenbait puntu aipatu ditu: 1. Administrazio-lan guztiak zuzendu, lotu eta bere gain hartuko dituen norbaiten beharra. 2. Euskaltzaindiko langileei etekin hobea ateratzeko prestakuntza eta egungo tresneriaz hornitzea. 3. Argitalpen politika egokia. 4. Egitasmoei, eta bereziki Atlasari buruzko argibidea eta, hala balegokie, egin litezkeen aldaketak. Akademiaren lan-programaren bat Unibertsitatearekin elkarlanean egitea edo Unibertsitateari egoztea. 1995-96 biurtekorako planak egin baino lehen diru-baliabideak segurtatzea. 6. Corpus ondarea nola erabili eta ikertzaileen esku nola utzi.

E. Knörrek kezka bizia agertu du Herri Aginteek Euskaltzaindiarengana azken urteotan erakutsi duten jokabideagatik. Dirulaguntzak ordaintzean izan diren atzerapenak aipatu ditu bereziki, eta gogorarazi du langileek ezingo dutela martxoko alogera kobratu. Barne-jarduerari dagokiola, azken bi urteotan ordezkarien bilkurak egin dira. Hornidura egokia, haatik, oinarritzko bibliografia, posta elektronikoa, e.a., esaterako, diru gabezia dela eta ezin izan da gauzatu, ezta beste zenbait alorretako hobekuntzak, hala nola argitalpen politikan eta Etxebarriko biltegian. Corpus ondarearen erabileraz, ongi zehaztu behar da, haren iritziz, hori ez baita *res nullius*, edozeinek edonola hartzekoa.

J.L. Lizundiak esan du egoerarik larrienean aurkitzen dela Euskaltzaindia aspaldiz gero. Bestalde, alogeretan igoerak egin dira Herri Administrazioan egin direnean, eta 17 urtetan 2 langile gehiago dira soilik Akademian.

J.J. Zearretak esan du Euskaltzaindiarentzako 1995eko dirulaguntza oraindik erabaki ez denez, ezin daitekeela kalkulurik egin. Haren iritziz, Akademiari zor zaion begirunerik eza nabarmena da Herri Aginteengan. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburuak idatzi duenaga, hots, zorra Euskaltzaindiak behar baino gehiago xahutzeak eragin duela, ez da egia. Azkenik, oroitarazi du langileen alogerak parekatzea aurreko aditegiaren ondorio zela eta Herri Aginteek horren berri zekitela.

P. Salaburuk adierazi du Euskaltzaindiaren etekin hobetzea omen dela Herri Aginteen kezka. Gainera, langileen homologazioa aipatzen dute. Zer nahi gisaz, aurtengo urtea pasatzeko Euskaltzaindiak zer diru duen jakin behar du eta neurriak hartu.

J.A. Arana diruzainak esan du ordainketa batzuk ezin direla atzeratu, gehiketak sortzen baitira. Urteoroko aurrekontua aldeztu du ondoren, eta aurkezten diren zenbakiak zehatzak direla adierazi. Beharrezkoa da, haren ustez, Herri Aginteez zenbat diru emango duten jakitea, diru bila beste norabait joan baino lehen. Herri Aginteengandik eskatzen den papereria, traba eta denbora-galgarri baizik ez dena, aipatu du berebat. Azkenik, egitasmoetan edo batzorde lanetan murrizketak egin baino lehen Euskaltzaindiak kanpoko etxeekin dituen loturak (Mensajero argialetxea, adibidez) kontuan har daitezzen eskatu du.

P. Altunak esan du agintarien ikuspuntua ere ezagutu beharko lukeela batzarrak, eta Herri-Aginteen ordezkariekin apirilaren 12an egin behar den bilkurara Pello Salaburu eta Miren Azkarate joan daitezzen proposatu du.

I. Sarasolarentzat Akademia ez da inola ere damutan egon behar, Fiskalizatze-Txostena lekuko. Herri-Aginteez ez diote Euskaltzaindiari zor zaion duintasuna aitortzen, haren iritzi. M. Azkaratek esan du hori hala delarik ere Euskaltzaindiak Txostenaren zenbait gomendio aztertu behar dituela. Ildo beretik hitz egin du P. Goenagak, ordezkarietzen lana hobetu beharra azpimarratuz.

Duintasuna zaindu behar da, E. Knörren ustez, zein-nahi ere diren Zuzendaritzakoak eta euskaltzainak. Jakina, Euskaltzaindian gauza asko aldatu behar dira, baina ezin da ahantzi Akademiak bere-berea duen alorra zenbait elkarte hartu nahian dabiltzala. I. Sarasolarentzat, Euskaltzaindiak lan batzuk egiten ez dituelako aitzakiarekin beste batzuek egin nahi dituzte.

Entzunak entzun, P Salaburuk Herri Aginteei bidaliko litzaiekeen izkribuaren zirriborroa irakurri du. Ondoren, zuzenketak eta emendioak egin zaizkio zirriborroari. Lan horretan beste hainbat iritzi jaulki dira.

Izkribuan diru-egoera larriarengatik eta Herri Aginteen Euskaltzaindiaren ganako uste onaren itzaltzearengatik euskaltzainek duten kezka agertzen dute eta zorra kitatu ezik Akademiaren lanean proposatzen duten murrizketa adierazten. Murrizketa honetatik kanpo batzorde arauemaileak (Hiztegi Batua, Gramatika, Onomastika eta Euskara Batua) geldituko lirarteke.

Aho batez onartu da testua eta, J.L. Lizundiak horrela iradokirik, hiru epe-tan helaraziko zaie hartzaileei, hots, lehendabizi Herri Aginteei, gero Parla-mentuetako eta Batzar Nagusietako taldeei eta azkenik komunikabideei.

J. Haritschelharrek esan du Herri Aginteen erantzuna, agian apirilaren 12ko bilkuran ezagutuko dena, osoko batzarrean aztertuko dela.

Eta honetan bukatu da batzarra, arratseko 7.30ak direla.



## **Jarraipena**

### **1995eko apirilaren lean**

Goian aipatu euskaltzainak bildurik, salbu P. Altuna, M. Azkarate, I. Sarasola eta J.M. Satrustegi, ezin etorria adierazi dutenak, gehi Rikardo Badiola eta Pello Telleria, hasiera eman zaio batzarrari, goizeko 9etan.

#### **Batzordeen berriztatzea**

J. Haritshelhar euskaltzainburuak irakurri du batzordeak berriztatzeke Zuzendaritzaren proposamena, hots:

#### I. Iker Saileko batzordeak.

1. Iker sailburua: Patxi Altuna.
  - 1.1. Hiztegi Batua batzordeburua: Ibon Sarasola.  
OEH lantaldea: Ibon Sarasola.
  - 1.2. Gramatika batzordeburua: Patxi Altuna.
  - 1.3. Dialektologia-Atlasgintza batzordeburua: Beñat Oihartzabal.  
EHHA lantaldea: Beñat Oihartzabal.
  - 1.4. Onomastika batzordeburua: Endrike Knörr.  
Exonomastika azpibatzaordea: Endrike Knörr.
  - 1.5. Literatura batzordeburua: Juan Mari Lekuona.
    - 1.5.1. Herri Literatura azpibatzaordea: Antonio Zavala.
    - 1.5.2. Literatura Ikerketa azpibatzaordea: Juan Mari Lekuona.
  - 1.6. Euskara Batuko batzordeburua: Pello Salaburu.  
Ahoskera azpibatzaordea: Lourdes Oñederra.

#### II. Jagon Saileko batzordea

2. Jagon sailburua: Miren Azkarate.

#### III. Egiturazko batzordeak

- 3.1. Azkue Biblioteka batzordeburua: Jose Antonio Arana.
- 3.2. Argitalpen batzordeburua: Jean Haritschelhar.
- 3.3. Lege-Ekonomi Aholku batzordeburua: Jean Haritschelhar.

Aho batez onartu da proposamen hau. Apirilaren 20rako bakoitzak zein batzordetan lan egin nahi duen adierazi beharko du idatziz.

### **Exonomastika**

X. Kintanak oroitarazi du Estatuaren izenen gainean Euskara Batuko eta Onomastika batzordeek aurkezturiko txostenari buruzko oharra apirilaren 20a baino lehen bidali behar direla. Otsaileko batzarrean aurkeztu zen txostena apirilako batzarrean aztertuko da orobat.

### **Hitzarmena**

Euskaltzaindiak Herri Aginteekin duen Hitzarmena berrizatzeko Herri Aginteei bidali zuten testuaz ez da oharrik etorri. Zuzendaritzak proposaturiko aldaketak aztertu dira batzarrean. Orohar, harremanak erraztea eta Akademiaren autonomia zaintzea dute helburu aldaketa horiek. Jarraipen batzordea izenekoari datxekola, bertan Herri Aginteei eta Euskaltzaindiak kide kopuru bera izatea proposatzen du Zuzendaritzak, eta berdin Batzorde Teknikoan.

Ontzat hartu da proposamena. Halaz guztiz, P. Salaburuk esan du gai honek ez duela presarik, ezen Euskaltzaindiari behar duen dirurik ematen ez bazaio alferrikakoa bailitzateke hitzarmena.

J. Haritschelharrek adierazi du Herri Aginteen erantzuna, 12ko bilkuraren ondoan irits daitekeena, osoko batzarrean aztertuko dela.

### **Arauk**

R. Badiola argitalpen eragileak azaldu du Arauen argitaratzearen egoera, halaber horri buruz dauden aukerak. *Aurten Bai* Fundazioak egin duen eskaintzaz mintzatu da bereziki.

Euskaltzaindiak lan hori egin ahal duen eta Arauek behar duten hedatzea eztabaidatu da gero, baita Euskaltzaindiaren jabetza eta lanari etekina atera beharra ere.

Azkenean, batzordeño bat sortzea erabaki da, J.A. Arana, P. Salaburu, R. Badiola eta P. Telleriak osatua. Batzordeño honek proposamen bat egingo du eta Zuzendaritzak erabakiko, lege aldetik izan daitezkeen zalantzak argituz.

Eta beste gairik ez zela, bukatu da batzarra.

Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua

Endrike Knörr,  
idazkaria

**TXOSTENAK**



## **ONOMASTIKA**



## BIARRITZ / MIARRITZE

*Bilbo, 1994-11-25*

Lapurdiko hiri honen Udalak ekainean bidali eskariari erantzunez, A. Irigoyenek irakurri du Onomastika batzordeak agindu zion txostena. Bertan euskaraz, *Miarritze*-z gainera, *Biarritz* ere zilegi izatea proposatzen da, Udalak eskatu bezala. Kide batzuek hitz egin dute ondoren, herri-izen askok, Iparraldean eta Bizkaian, batez ere, duten asken *-e* bokalaz, forma zaharren eta berrien arteko auziaz, *forma arrunta* esapidearen esnahiaz eta abarrez. J.L. Lizundiak oroitarazi du mugaz handiko izenei dagokiela, L. Dassanceren irizpidea, forma arrunten edo herrikoien aldekoa, ontzat hartu zela, 1979an argitaraturiko *Euskal Herriko udalen izendegia* prestatzean, eta Onomastika batzordearen asmoa aipatu du, udal eta auzo izendegia birraztertze, probintzia guztietan dudazko kasu batzuk baitira. E Larrek adierazi du oraingo euskaldunek *Miarritze*, *Uztaritze* e.a. esaten dutela bakarrik. Aho batez onartu da batzordearen txostena. Hortaz, bi izenak, *Biarritz* eta *Miarritze*, zilegi izango dira gure hizkuntzan.

## BIARRITZ / MIARRITZE

Repondant á la demande faite par cette ville du Labourd, l'académicien A. Irigoien a lu le resultat du travail d'étude que lui avait confié la commission Onomastique. Il y est propose d'admettre en basque, en plus de la forme *Miarritze*, *Biarritz*, comme le souhaite la municipalite de cette commune. D'autres académiciens se sont ensuite exprime a propos de la voyelle finale —e que comportent de nombreux noms de communes, notamment en Pays Basque nord et Biscaye, ainsi qu'au sujet des formes anciennes et récents, de la signification de l'expression "forme courante", etc. J.L. Lizundia a rappelé que concernant les noms des communes situees au-delà de la frontière, l'opinion de L. Dassance, favorable aux formes courantes ou populaires, avait été retenue lors de la preparation de la *Nomenclature des communes du Pays Basque* publiée en 1979. Il a également évoque le souhait qu'a la commission Onomastique de réviser la nomenclature des communes et quartiers car des cas nécessitant un réexamen existent dans toutes les provinces. E. Larre a précisé que les Basques d'aujourd'hui disent seulement *Miarritze*, *Uztaritze*, etc. Le dossier presente par la Commission a été accepte a l'unanimité. Dorenavant, les deux formes, *Biarritz* et *Miarritze* seront admises dans notre langue.



## MENDATEEN ZERRENDA

*José Luis Lizundia,  
Onomastika batzordekidea*

	<u>Euskal bertsioa</u>		<u>Euskal bertsioa</u>
Abaurreas	Abaurrea	Las Coronas	Las Coronas (6)
<i>Abaurrea</i>	<i>Abaurregaina-a</i>	Las Muñecas	Las Muñecas/ <i>Muñeketa</i> (7)
Altube	Altube	Laza	Lazar
Amescoas	Ameskoa	Lizarraga	Lizarraga
Añezcar	Añezkar	Lizarrusti	Lizarrusti
Arichulegui	Aritxulegi	Loiti	Loiti
Arlaban	Arlaban	Meagas	Meaga
Autzagana	Autzagana -a	Meano	Meano
Azaceta	Azazeta/ Aiagugana? (1)	Mezquiriz	Mezkiritz
Azcarate	Azkarate	Otzaurte	Otsaurte
Azpiroz	Azpirotz	Opacua	Opakua
Barazar	Barazar	Otxondo	Otxondo
Belagoa	Belagoa	Puerto de Vitoria	Gasteizko mendatea
Campanzar	Kanpazar	Roncal	Erronkari
Descarga	Deskarga	Salazar	Zaraitzu
Echegarate	Etxegarate	Salinas	Arlaban
El Perdón	Erreniega	San Miguel	Urkaregi
Elgueta	Pagatza (2), Karabieta, Asentzio	Sollube	Sollube
Elosua	Elosua-a	Trabacua	Arrangizgana/ Trabakua (8)
Erro	Erro	Udana	Udana
Ezkurra	Ezkurra	Urkiola	Urkiola
Gainchurizqueta	Gaintxurizketa	Urto	Urto
Huici	Uhitzi (3)	Valle de Goñi	Goñi, Genbe, Ultzurrun (9)
Ibañeta	Ibañeta	Vidania	Bidania, Urraki (10)
Illarrazu	Illarratsu	Regil	Errezil (10)
La Barrerilla	?? (4)	Zaldiaran	Zaldiaran
La Escrita	Herrera/ Ordete (5)		

**Mendateez oharrak**

(1) *Azazeta* mendatearen izena, *Azazeta* herriarengandik dator, Lizarratik Gasteizera bidean etorriz gero. Gasteiztik Lizarrarantz *Egileta* izenarekin ere ezagutzen da. Nonbait gailurrak izan dezake haren toponimoa, *Aiagugana*. Aukera hau interesgarri izanik ere, Jose Antonio Gonzalez Salazar batzordekidea ziurtatzekotan gelditu da.

(2) Elgetan hiru mendate daude: Beasaindik Durangorako errepide nagusikoaren izena *Pa-gatza* da; Eibartik Elgetarako bidekoarena *Karabieta* eta Elgetatik Kanpazarrera bitartekoa *Asen-tzio*.

(3) *Uhitzi*. Izena honela da, baina grafiaren arazoa ez dago erabat finkaturik, h-rik duen era-baki beharra baitago. Dena den, hasieran ezin du eraman, izatekotan ere tar-tean eramango luke.

(4) *La Barrerilla* Izarratik Urduñarako errepidean dagoena da. Juan Cruz Saralegi, Urka-bustaiz ibarreko toponimia ikertu duenari galdetu zaio, euskal toponimoa zein izan daitekeen.

(5) *La Herrera* mendateak ez du bertako erdaran ere artikulurik, beraz, *Herrera* da. Badago bertan euskal toponimo interesgarri bat, Ordate. Biasteriko parterantz. Izen adierazgarri hau ziur-tatzen ez den bitartean *Herrerarekin* jarraitu beharko luke.

(6) “Las Coronas”ek ez du euskal ordainik, zeren eta Aragoi erromantzezko izen bat baita Pirinioetan agertzen dena. “Tablada” edo koroa formadun oronimo bat adierazten duena. Agian, dagoen lekuagatik izango zukeen baita ere euskal izenen bat, baina ez nahita nahiez bata bestearen itzulpena. Beraz, horretan utzi oraingoz.

(7) *Las Muñecas* Balmasedatik Castro Urdialeserako errepidean dago, Sopuertatik igarotzen denean, hain zuzen. *Las Muñecas/ Muñeketa* ere jarri da uste denez, Jesus M.<sup>a</sup> Sasia *Toponimia euskérica de Las Encartaciones de Vizcayaren* egilearen eraginez. Analogiaz asmatua bada ere, ez da txartzat jotzen.

(8) *Trabakua* izen berria da. Beraren izen historikoa, Bizkaiko Diputazioak erabiltzen zuen, eta baita ere Txomin Agirrek *Kresala* eleberriaren pasarte batean zekarrena ere *Arrangizgana* zen. *Arrangizganari* lehenatasuna ematea ikusten da.

(9) *Valle de Goñi* ezin da erdaraz ere mendatearen izena izan, *Goñi* baizik. Dena dela ibar horretan hiru mendate dira, *Goñi* izenarekin bat, *Genbe* beste bat eta *Ultzurrun* hirugarren bat, errepide desberdina bakoitza.

(10) *Bidania* mendatea Azpeititik Tolosara, Errezildik zehar doana da. Azpeititik Tolosara Goiazitik doan errepidearen mendatearena *Urraki* da. Beraz, bi mendate dira. Bestalde, Errezil menderetik ez da, gaina baino behe-rago baitago herri hori, gailurrean Bidania aurkitzen delarik.

## GUIZABURUAGA / GIZABURUAGA

*Bilbon, 1995.eko urtarrilaren 25ean*

*Javier Goikoetxea jauna,  
Gizaburuagako alkatea*

Jaun agurgarria:

Alboan igortzen dizut Akademia erakunde honen Onomastika batzordeak joan den ostiralean, bere egoitzan egindako bilkuran, beste gai batzuen artean, zuen Udalaren izenari buruzko irizpena, euskal grafiaz ofizialtzeko espedientea burutu dezazuen. Baita ere Mugartegiren ikerketan lehenengoz nola agertzen den herri horren izena Ziortzako Kolegiataren kortabaso bat zen garaikoa eta hortik hartuta Alfonso Irigoien euskaltzain batzordekidearen txostena.

Besterik ez, izan ongi.

J.L. Lizundia, idazkariordea

Mikel Gorrotxategi Nieto, Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeko idazkaria denak, ondoko

IRIZPEN HAU ematen du:

Elkargo akademiko honek prestatutako eta onartutako *Euskal Herriko Udalen Izendegian*, bere 299. zenbakia daraman izena, eta orain arte Administrazioaren erabilera ofizialean *Guizaburuaga* deitua, euskal aldaera ofizialean *Gizaburuaga* dela.

Ondorioz, batzorde honek hil honetako hogeian egoitza honetan eginiko bilkuran berresten du Udal honen euskal izena *Gizaburuaga* dela.

Eta hala adierazteko eta bertako Udalbatzari bidaltzeko izenpetzen dut, Bilbon mila bederatziehun eta laurogeita hamabosgarreneko urtarrilaren hogeita bostean.

Mikel Gorrotxategi,  
batzorde-idazkaria

On ikusia:  
E.Knörr, batzordeburua



## OLABERRIA IZENAREN ERABILERA DELA ETA

1995-03-23

Antonio Berasategi

### PROPOSAMENAREN AZALPENA

Euskal Herriko udalen izenak aztertu eta —batez ere— finkatu eta ofizial bihurtzeko asmoz, 1979. urtean, Euskaltzaindiak *Euskal Herriko udalen izendegia* liburuxka eman zuen agitara.

Herri-izenen formak edozein moduz erabiltzen ziren eta nahasketa handi samarra sortzeko arriskua zegoen. Horregatik, Euskaltzaindiak, handik eta hemendik zetozkion hainbat eskeri erantzun bateratu eta homogeneousko eskaini nahian, izendegia osatzeari ekin zion. Koldo Mitxelena zenak hitzaurrean zioen bezala, “(...) egoki iruditu zaio Euskaltzaindiari gidaritza moduko zerbait bere herritarrei eskaintzea, izendapen kontuan guztiok, han eta hemen bateratsu ibil gaitezen” (5. or.).

Gauza asko aldatu da orduetik, baina ezin ukatuzkoa da gorago aipatu izendegiak urratutako bidea guztiz onuragarria gertatu dela izenak finkatu eta arauzkotzeko garaian. Zenbait korapilo askatzeko lagungarri gertatu da eta, batez ere, euskaldunen idazpideak bateratu ditu, udalek berari heldu baitiote.

Izendegiaren balio orokorra aitortuta, txosten honen bidez, izenburuan aipatutako *Olaberria* Gipuzkoako herriaren deituraz xehetasun batzuk agertuko dira, Euskaltzaindiak, ondo baderitzo, bere egin ditzan eta —ondoren— proposatutako berrikuntzaren berria dagokion moduan zabal dezan. Bidebatez, *Olaberriaz* besteko kasuren batzuk aipatuko dira, aurrerago ikusiko denez.

Proposatzen den berrikuntza hori, *Olaberria* izenaren erabilera da eta ez beraren formaz.

Izendegian bertan agertzen den eran (122-123. or.), izen batzuen amaierako *-a* itsatsia da, hots, deklinatzean inolaz ere galtzen ez dutena; *Getaria* genuke eredu, *Donostia*, *Gipuzkoa* eta abar ere antzekoak izanik.

Badira, ordea —oraindik, ere beren sorrerako arrunt kutsua gorde dutelako edo— bukaerako *-a* hori izen arrunten artikulua pareko dutenak; horregatik,

izen arrunt gisa deklinatu ohi dira eta kasu batzuetan ez dute *-a-* artikulua tar-  
tekatua agertzen. *Iruñea, Bizkaia, Azkoitia* eta abar ditugu era honetakoak.

*Olaberriari* gagozkiola zuzenago, lehenen atalekoa dela ageri da izende-  
gian eta, hortaz, era honetara deklinatu behar:

- Olaberria
- Olaberriak
- Olaberriari
- Olaberrian
- Olaberriara
- Olaberriatik
- Olaberriako ...

Txosten honetako proposamenaren arabera, amaierako *-a* artikulua gisa era-  
bili behar da eta, deklinatzean, era honetakoak irtingo dira:

- Olaberria
- Olaberriak
- Olaberriari
- Olaberrian

baina

- *Olaberrira*
- *Olaberritik*
- *Olaberriko* ...

\* \* \*

Beraz —Euskal Herriko udalen izendegian datorren terminologia hartuz—  
*Olaberria -a* erabilera onestea proposatzen da, *Olaberriaren* forma aldatu gabe,  
amaierako *-a*, artikulua moduan erabiliz, alegia.

\* \* \*

Erabilera aldaketa hau arrazoitzeko, bi eratako zergatiak aipatuko dira  
txostenean zehar, biak ere izenak deklinatzeko dauden moduetan oinarrituak.  
Batzuk, literatur tradizioari datoz lotuak eta besteak hiztunen gaur egungo era-  
bilerari. Esan nahi baita, proposatzen den jokabidea ez duela erro soil bat eta  
ez dela hona ekarri, ez lehenago horrela zelako bakarrik eta ezta gaur egungo  
hiztunen jokabidea hori delako bakarrik ere. Azalduko diren ñabardura eta sal-  
buespenak tarteko, bi era horietako zergatiak badaudelako egiten da proposa-  
mena.

Beraz, batetik, idatzizko iturri batzuetako testigantzak hartu dira, J.I. Iz-  
tuetaren liburuetaoak, hain zuzen.

Horiez gain, bestetik, inguruko euskal hiztunek, gure garaian, mintzatzean,  
izena nola ahoskatu ohi dutenari begiratuko zaio. Neronek egin eta -Idiaza-

balgo etheen izen ofizialak erabakitzeke-Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeari 1990ean bidali zitzaion *Idiazabalgo etheen izenak XVII. mendetik gaur egun arte* azterlanean jarriak berrekarriko dira, gehienbat, horretarako; geroztik auzi honetaz jaso ahal izan ditudan beste ekarpen batzuek osatuta agertuko ditut.

## IZEN ARRUNTAK ETA BEREZIAK

Euskaltzaindiaren gramatikari jarraiki, izen arruntak mugatzailearen premia du eta bereziak, aldiz, normalki ez du mugatzailearik onartzen (*EGLU-I*, 58. or.). Bereizketa zorrotz honek, ordea, baditu bere katramilak (Gramatikako hurrengo orrietan aztertuak) eta, adibidez, badira —mugatzailea eraman arren— identifikazio erreferentzia bakarra dutelako, semantika ikuspegitik berezien kideko diren beste batzuk.

Horrelakoak dira *Azpeiti* eta beraren taxukoak; izenak, deklinazio atzizkia hartzean, beste izen sintagma mugatu guztiek bezala jokatzen du. Horregatik, herriaren izena *Azpeitia* dela esango dugu. Gauza bat *liburua* dela esango dugun bezalaxe; ez *liburu*.

Era horretako izenak bereizteko garaian, izen sintagma osatzeko nola deklinatzen direnari begiratzea izango da zuzenena. *-a* artikulua mugatzailea ageri ez badute, bereziak izango ditugu ondorio guztietarako, baina, hartzen badute, arrunt bailiran portatuko dira.

Azterlan honetan ere, deklinatzeko modua hartu da metodologi ardatz. Izen arruntek inesiboan deklinatuta *-a* (artikulua?) ageri dute, baina bereziek ez. Horregatik kasu hori aztertu eta, *-a*-rik denentz ikusiz, izenak kasu absolutuan erabiltzean amaieran *-arik* baduen ondorioztatuko dugu; *-a* hori ez da, nolahi, artikulua izango derrigor, aurreraxeago argituko den bezala, itsatsia izan bailiteke.

Ez da beti erraza gertatzen *-a*- hori atzematea, fonetika bilakaeraren poderioz, ezkutatu egin bailiteke (ahozko azterketaren atalean sakonduko da zertxobait auzi honetan).

Tartekatuta *-a*- ageri badu, beraz, garbi dago izenaren bukaeran *-a* erabili behar dela kasu absolutuan. Halakorik ageri ez bada, garbi dago, orobat, kasu absolutuan ere ez duela sekulan hartuko.

*Azpeitian* esamoldeak (edo beraren parekoak ahozko ebakeran), orduan, herriaren izena *Azpeitia* (eta ez *Azpeiti*) dela erakusten digu eta *Ormaiztegin* delakoak, berriz, *Ormaiztegi* soila (eta ez *\*Ormaiztegia*) dugula zuzena.

Pentsa liteke, orduan, kasu absolutu horri zuzenean begiratzea, bide are zuzenagoa dela auzia garbitzeko, baina kontutan izan behar dugu, batzuetan

-adun izenek berek ere hiztunaren ahoan hori gabe azaltzeko joera dutela, aurrerago aipatuko diren fonetika prozesuak medio.

Izena *-az* bukatuta erabiltzen dela ondorioztatuta ere, gerta liteke hori artikulua ez izatea; izen temak itsatsia du. Hortaz, hurrena, korapilo hori askatu behar da. Horretarako, leku genitiboa, adlatiboa eta ablatiboa aztertuko dira; horietan *-a* ageri bada, izenak berezkoa eta apartaezina du eta, bestela, bakarrik kasu batzuetan hartu beharko du.

*Donostiako* esamoldeak, konparazio batera, izena *Donostia* dela esatera garamatza eta *Azpeitikok*, *Azpeitia -a* dela pentsatzera.

## LEKU IZENEN AMAIERAKO *-a* J.I. IZTUETAREN LIBURUETAN

Juan Ignacio Iztueta zaldibiarra (1767-1845), Gipuzkoako gora-behera askoren jakitun ageri zaigu bere bi liburu nagusietan (*Guipuzcoaco dantza go-goangarrien condaira edo historia —GD laburtuta—* eta *Guipuzcoaco provinciaren condaira edo historia —GC laburtuta—*); hainbat berri eskaintzen digu eta *-aztergai* den kasuan balio handikoa dena- herriz herri xehetzen ditu. Horri esker, behin eta berriz emango ditu deklinatuta beren izenak.

Ondorengo lerroetan azalduko denez, *-a* amaieraren auzian modu aski bateratu eta homogeneoan jokatzeko du, hots, izen bakoitza, ia beti arau berberari jarraituz erabilia, bai euskal izenetan, bai kanpotikoetan; gaztelaniatik hartutako izen arruntetan ere, *-ia* bukaerako bigarren bokala galtzeko joeraren aurrean, berak ederki eusten dio multzo osoari. Horregatik *-eta* Euskaltzaindiaren izendegiko ikerketen ondorioekin bat datorrelako askotan- dagokion azterketa kritikoa egin eta oso kontutan hartzekoa dela deritzot.

### *-a* bukaeraren iraupena ala galera

Aurreko atalean aipatutako lehen gakoari helduz, *-a* galdu eta bere izaera aldatu duten edo aldatzen ari diren deituren inguruan sortzen da zalantza. Bi egoera orokor daude:

A) *-a* bukaerak irautea.

Iztuetak ederki bereizten ditu inesiboko deklinazioan *-a* tartekatzen duten eta ez duten izenak.

Lehen arlokoei helduz, Iztuetarenetik honakook *-eta* gehiago-ateratzen ahal ditugu: *Aleguerian* (GD, 81), *Alzarian* (GC, 38, 85), *Azcoitian* (GC, 456), *Azpeitian* (GD, 107, 179; GC, 186), *Bidanian* (gd, 180), *Bizcaian* (GC, 24, 413), *Vizcayan* (GD, 106), *Donostian* (GC, 144), *Errenterian* (GC, 126), *Gueterian*



(GC, 337), *Guipuzcoan* (GC, 359, 360), *Ichasoleorrear* (GC, 96), *Nafarroan* (GC, 203), *Pasaian* (GC, 126), *Ursugoenean* (GC, 193), *Urbian* (GC, 38), *Zaldibian* (GD, 66), *Zaldivian* (GD, 81; GC, 187, 193, 505)...

Inesiboan bezala, beste kasu batzuetan ere tarteka liteke *-a-*. Iztuetak baidu horrelako adibideak: *Bidasoa* (GC, 120), *Donostia* (GD, 21), *Donostiaren* (GC, 127, 146), *Erreteriaz* (GC, 203), *Nafarroak* (GC, 285), *Nafarroaren* (GC, 120), *Nafarroari* (GC, 283), *Ondarribiari* (GC, 331), *Oria* (GC, 109, 114), *Ursugoena* (GC, 191), *Urumea* (GC, 117), *Zumayaren* (GC, 108)...

Kanpotik ekarritako leku deituretan ere, baldin eta *-adunak* badira, badaki bukaera gordetzen: *Españian* (GD, 54), *Francian* (GC, 141, 321), *Franzian* (GD, 54), *Galician* (GC, 413), *Italian* (GC, 326), *Venecian* (GC, 462)...

Beraz, inesiboan *-a-* duten izenon forma, kasu absolutuan, *-az* bukatua izango da; gero aztertuko da artikulua —eta, orduan, galgarria— den ala izenari itsatsita dagoen.

B) *-a* bukaera galtzea.

Aztergai den *Olaberriarekin* erkatzeko egokienak direlarik, hona *-iz* bukatutako izenen adibide batzuk, beti ere *-in* ekarri dutenak inesiboan: *Ernanin* (GD, 179), *Ormaizteguin* (GD, 10). Bestelako bokal bukaera duten beste batzuetan ere ez du *-a-*rik tartekatzen Iztuetak: *Ernialden* (GD, 181), *Hernion* (GC, 58), *Isasondon* (GD, 82), *Lasarten* (GC, 97), *Lazcaun* (GD, 81), *Leaburun* (GC, 97).

Badira kasu absolutuan *-iz* bukatuta dakartzan beste izen batzuk ere: *Berastegui* (GC, 116), *Berrobi* (GC, 116), *Hernani* (GC, 127).

Nabarmen dago, beraz, guztiok aurreko sailekoekin duten aldea; inoiz ez dute *-arik* ageri.

*Olaberriari* gagozkiola, behin gutxienez aipatzen du Iztuetak inesiboan deklinatuta: *Olaberrian* (GD, 81). Hori horrela, garbi dago izena —lehen sailekoen erara— *Olaberria* dela. Beraren kasuan ere, ondoren ikusiko da amaierako *-aren* izaera, alegia, beti duen beharrezkoa ala deklinabideko kasu batzuetan baino ez.

### **Amaierako *-a-* itsatsia ala artikulua?**

Amaieran *-a* duten izenen izaera zehazteko, Iztuetak leku genitiboan, adlatiboan eta ablatiboan nola deklinatzen dituen ikusiko da atal honetan.

A) Bukaerako *-a-*, itsatsi eta bereiztezin.

Gauza jakina da, fonetika bilakaera medio, zenbait hizkeratan, gaztelania-tik ekarritako *-ia* amaieradun izen arruntak *-i* bukaeradun bihurtzeko joera da-

goela. Horrela, *sakristiko, pedagogitik, ferira* eta antekoak esango dira. Iztuetak, dena den, badaki horrelakoetan hitzen jatorrizko taxua gordetzen.

Hona adibide batzuk: *Artilleriaco* (GC, 359), *Provincia ascotan* (GC, 701), *Provincia au* (GC, 33), *Provincia barrutic* (GC, 336), *Provincia bat* (GC, III), *Provincia batean* (GC, 129), *Provincia onetaco* (GC, 24, 31, 129, 201...), *Provincia onetan* (GC, 148, 156...), *Provinciaco* (GC, 379), *Provinciatar* (GC, 324)...

Kanpoko leku izenetan ere beti berdin jokutzen du Iztuetak, hots, *-ia* gordez: *Alemaniaco* (GC, 378), *Andaluciaco* (GC, 456), *Armeniatic* (GC, 1), *Asia-ra* (GC, 39), *Asia-tic* (GC, 160), *Bolonia-co* (GC, 54), *Coria-coa* (GC, 460), *Franciaco* (GC, 121, 122, 123, 128, 321...), *Franciara* (GC, 39, 321), *Franciatic* (GC, 175, 186, 395, 398...), *Galiciaraño* (GC, 413), *Groenlandiara* (GC, 141), *Italiacora* (GC, 317), *Italiatic* (GD, 54), *Rusiara* (GC, 39), *Siria-tic* (GC, 160), *Turquiacoac* (GC, 218), *Turquiara* (GC, 39), *Valenciaco* (GC, 283)... Beste batzuetan, izena euskaratu ondoren eratorritako *-ia* azalduko da: *Cataluniaco* (GC, 283), *España* (GD, 104, 167), *Españaico* (GD, 10, 89); GCn, hala ere, *Españaico* (3, 65, 125, 256...), *Españara* (1, 5, 6...).

Halaber, Euskal Herriko erdal jatorri hurbileko izenetan ederki erakutsiko du bukaerako *-ia* amaiera: *Errenteriaco* (GD, 43; GC, 65, 91, 119, 126, 471...), *Errenteriacoan* (GC, 49), *Placenciaco* (GC, 103, 112), *Santa Mariaco* (GC, 51, 111, 115), *Santa Mariatic* (GC, 432), *Vitoriaco* (GC, 144, 405), *Vitoriara* (GC, 404), ... Baita *-ia* gaztelaniazko hitza euskalduntzean sortu denean ere: *Pasaya* (GC, 119, 491), *Pasaia biac* (GC, 103, 202), *Pasaya bietaco* (GC, 126), *Pasayacoa* (GC, 119)...

Euskal izen zaharragoekin ere gordeko du —gorago aipatu diren deklinabide kasuetan edota beste izenen batekin elkartzean— izen temaren amaierako *-a*; garbi dago izenari itsatsia dagoelako dela.

Hona adibideak: *Alegueriaco* (GC, 78, 452; *Aleguericoac*, hala ere GDn, 186. orrialdean), *Alegueriara* (GC, 115), *Aleriaco* (GC, 114), *Arroaco* (GC, 113), *Beobiatic* (GC, 389), *Bidasoaco* (GC, 122, 123), *Cestoaco* (GC, 74, 86, 459), *Cestoacora* (GC, 113), *Cestoaraco* (GC, 82), *Donostia inguruco* (GC, 146), *Donostiaco* (GD, 10, 21, 31, 37, 53, 165, 166...; GC, 51, 87, 117, 127, 181, 301, 460, 461...), *Donostiara* (GD, 182; GC, 137, 332, 461...), *Donostiara* (GC, 95), *Donostiat* (GC, 52, 202), *Endayaco* (GC, 338), *Ergobiaco* (GC, 127), *Gabiriaco* (GC, 93), *Gaviriaco* (GC, 102), *Guetariaco* (GC, 94, 208, 474), *Guetariara* (GC, 394), *Guipuzcoaco* (GD; GC), *Nafarroaco* (GD, 102; GC, 117, 406), *Naparroaco* (GD, 42), *Nafarroara* (GC, 303, 173, 202), *Nafarroatic* (GC, 175), *Ondarroaco* (GC, 24), *Oriaco* (GC, 98), *Oriacoan* (GC, 203), *Oriara* (96), *Uliaco* (GC, 210, 462), *Urumeaco* (GC, 118, 127), *Urumeacoan* (GC, 203), *Vidaniaco* (GC, 106; *Goyaz Bidanietan*, hala ere, 54. orrialdean), *Zumayaco* (GC, 55, 508)...

Ez da dudarik, hortaz, Iztuetarentzat izen hauek guztiek, amaierako *-a* gaelina, itsatsia dutela eta, beraz, ez duela artikululu mugatzaile izaerarik.

B) Bukaerako *-a*, artikululu.

Sail honetakoetan, aldiz, gorago aipatu kasuetan deklinatzean, Iztuetak tarteo *-a* barik agertzen ditu. Seinale da artikulua dela eta, beraz, kasu jakinotan ez dela jartzen. Aitortu behar, horraatik, ageri duela zalantzaren bat ere (ikus, *Bizkaia*, *Azkoitia* eta *Azpeitiaren* kasuak).

Hona adibideak: *Azcoitico* (GC, 55, 81, 245, 379, 455, 456; 456. orrialdean, hala ere, *Azcoitiaco* ere), *Azcoitira* (GC, 113; 383.ean, ordea, *Azcoitiara*), *Azcoitiatic* (GC, 186), *Azpeiti alderontz* (GC, 391), *Azpeitico* (GD, 107; GC, 55, 82, 83, 91, 113, 458; 457. orrialdean, hala ere, *Azpeitiaco*), *Azpeitira* (GC, 113; *Azpeitiara*, hala ere bi bider: GD, 172; GC, 93), *Bizcaico* (GC, VIII, 24, 35), *Vizcaico* (GC, 397), *Vizcai-co* (GC, 392), *Vizcaira* (GC, 184; 414.ean, ordea, *Bizcaira*), *Vizcai dantza* (GD, 106), *Vizcaitarrac* (GD, 106) (behin, hala ere, *Vizcaitatic*, GCn, 112. orrialdean), *Ursugoenecoac* (GC, 191; *-e*-ren izaera loturazkoa da, izen arruntetan ohi denez).

Beraz, izen hauek era honetakoak genituzke: *Azpeitia -a*, *Azkoitia -a*, *Bizkaia -a*, *Ursugoena -a*.

*Olaberriari* gagozkiola, Iztuetak *Olaberrico* (GD, 81; Gc, 100, 115) dabil; GDko 81. orrialdean berean, aldiz —*Olaberrico*ren ondoan— *Zaldibia-co*ak jarriko du, antzeko kasua izan zitekeena garbi bereiziz. Berarentzat, orduan, bukaerako *-a*, artikululu mugatzailea besterik ez da eta ez, nahitaez, deklinabideko kasu guztietan tartekatuta beharrekoa. *Olaberria -a*, beraz.

## Beste izen batzuen gaur egungo erabilera eta Iztuetaren lekukotza

Iztuetaren izkribuetako erabilerarekin alderatuta, gaur egun bestelako eran agertu ohi diren izen batzuen auzia jorratuko nahi nuke osagarritzko atal honetan.

Batzuetan, auzia, gaur egungo ahozko erabilerak beste zerbait erakusten duelako etorri da; beste batzuetan, orain arteko tradizio idatziak alderantzizko araua zekarrelako; badira, Iztuetarenak ikusita, azterlan honetan neuk azaldu nahi ditudanak...

Ondoko lerrootan ez da kasu horietako bakoitzaren azterketa guztizkorik egingo; bakar-bakarrik, Iztuetak nola erabili zituen aztertuko dut.

Gero, gaur egungo eta lehenagoko beste iturri batzuetatik jasoak kontutan izanik, gauza bat ala beste erabakiko da, behar den lekuan, hots, Euskaltzaindian; izan ere, garbi baitago, ez leku izenak, ez bestelakoak ez direla betiko

eta, hainbatetan, aldaketak aintzakotzat hartu behar izaten direla. Hautalanean lagungarri izan nahi duten lekukotzak ekartzea da helburua, beraz.

Iztuetaren herriaren izenetik hasiko naiz; entzuna dut, gaur egun *Zaldibi*, *Zaldibin*, *Zaldibiko* eta kidekoak esaten omen direnez, Euskaltzaindiaren izen-degikoa aldatu eta, *Zaldibiaren* lekuan, *Zaldibi* proposatu dutela.

Iztuetarenean, horraatik, oso garbi dago *Zaldibia* dela deitura. Aurreko ataletako arrazoiketak errepikatu gabe, jakin bedi, Iztuetarentzat, bere herriaren izenak *-a* bukaera baduela —kasu absolutuan *Zaldivia* (GD, 21; GC, 174)— eta, gainera, ez dela artikulua: *Zaldiviaco* (GC, 30, 69, 106, 115, 156, 169, 193, 504...), *Zaldivia-co* (GC, 58), *Zaldiviacoac* (GD, 81), *Zaldivia-coan* (GC, 27), *Zaldiviara* (GD, 44), *Zaldibiatar* (GD, 182), *Zaldiviatarra* (GD, 182).

Badakit *Legazpiren* inguruan ere sortu dela zalantza, nonbait, orain arteko izen ofiziala *Legazpia* izanik, Euskaltzaindiaren izendegian *Legazpi* ageri zelako.

Amaierako *-a*, jatorriz artikulua izan eta (*Azpeitia -a* eta kidekoak legez), Iztuetarentzat, izenaren erabilera *Legazpia -a* taxukoa izan zitekeenaren kalterik gabe, beraren izkribuetatik, *-a* itsatsiduna behintzat ez zela atera beharko: *Legazpico* dio (GC, 57, 71, 98, 112, 477).

Inesibo kasuan deklinatuta ez diot ikusi; gaur egungo hiztunen ahoan *Legazpin* (eta ez *Legazpiin* aurreragoko ataletako beste batzuen moduan) dela esango nuke eta, beraz, *Legazpi* soila izena.

Beste izen batzuen kasuan, Iztuetaren erabilera ez dator guztiz bat Euskaltzaindiaren izendegian jarritakoekin.

*Iruñea -aren* inguruan eztabaida ere sortu da Euskaltzaindiak proposatua-ren eta Udalaren nahiaren artean.

Hona Iztuetak nola darabilen: *Iruñaren* (GC, 117), *Iruñeco* (GC, 121, 307, 471), *Iruñera* (GC, 309). Hortaz, berarentzat, izena, arrunten parekoa zatekeen; genitiboan artikulua tartekatuko du (*haranaren* pare), baina leku genitiboan ez (*-e-* loturazkoa bai, *haranekon* bezala). *Iruña -a* da Iztuetarentzat. Aipa dezadan, bidebatez, Idiazabalen ere badela *Iruin* izeneko etxerik.

*Ibarra* Tolosa ondoko herria, Iztuetarentzat *Ibarra -a* zen. Kasu absolutuan *Ibarra* darabil (GC, 116), baina leku genitiboan ez dio, *-a* itsatsia izan balitz ondobidezkoa litzatekeen *Ibarrako*, *Ibarreco* baino (GD, 41; GC, 95) (*-e-*, loturazkoa).

Ez dakit ahozko erabileran gaur egun horrelako zerbaiten aztarnarik dagoen; ikus, nolana, Euskaltzaindiaren izendegian bertan *ibartar* herritar izena.

*Mutilo*arekin beste aldera gertatzen da. Euskaltzaindiaren izendegian, amaierako *-a*, artikulua bailitzan ageri da (*Mutiloa -a*); Iztuetarenean *Mutiloa-*

ren bukaerako *-a* itsatsia da eta *Mutiloa* dioen legez (GC, 114), *Mutiloaco* (GC, 71, 483) / *Mutilloaco* (GC, 100) esango du; beraz, *-a* hori ez da sekulan ezkutatzen.

Gaur egungo hiztunen ahoan —ezer segurtatzeko, azterketa sakonagoa egin beharko litzatekeen arren— *Mutillooko*, *Mutillootik* eta kidekoak ebakitzeko joera dagoela esango nuke; aurreragoko ataletan adieraziko denez, bokal bikoitzaren oinarrian, *-a* asimilatua dago.

*Hondarribiaren* kasuan ere, Iztuetak jokabide berbera du. Euskaltzaindiaren izendegian amaierako *-a* artikulua da; Iztuetak, ordea, behin eta berriz ia batere zalantzarik gabe, izenari guztiz itsatsita darabil: *Hondarribia*, beraz, *-a* itsatsi eta guzti.

*Ondarribiari* ez ezik (GC, 331), *Ondarribiaco* (GD, 59; GC, 24, 33, 101, 121, 123, 208, 320, 326, 328, 331, 336, 342, 346...; behin, *Ondarribico*, GCn 123. orrialdean), *Ondarribiara* (GC, 320, 360), *Ondarribiaraco* (GC, 331), *Ondarribiatarac* (GC, 321), *Ondarribia andia* (GD, 115) eta *Ondarribia chiquia* (GD, 116) idatziko ditu.

Aipamentxo bat, azkenik, gure itsasoaren izenaz. Gure egunotan nagusi den *Kantauri itsasoa* moldearen ordeaz, Iztuetak *Kantauriako itsasoa* darabil (GC, 24 eta 113: *Cantauriaco itsaso*; 462: *Cantauriaco escuadraren*; era berean, 278.ean, *Alonso Cantauriaco*).

Leku genitiboaren atzizkia baliatzeaz gain, *-a* itsatsia gorde egiten du Kantauria (=Kantabria) izena deklinatzean, gaztelaniatik hartu beste izen batzuetan bezala, apartaezina delako.

## **IZENEN AMAIERAKO *-a* GAUR EGUNGO AHOZKO ERABILERAN**

Auziak *-aurreko* atalean bezalatsu- bi gako nagusi ditu. Lehena, izenak (kasuren batetan, berarik) *-a* hori baduenentz ikustea da; bigarrena, baldin badu, itsatsia duen (beti jartzekoa) ala artikulua den (deklinabideko kasu batzuetan bakarrik azalduko da) erabakitzea.

Zernahi den ere, bailarako hiztunen mintzairan gertatutako fonetika gertaerak direla medio, izenen amaierako *-aren* izaera eta erabilera lauso eta nahasi samar gertatzen dira hainbatetan. Horregatik, nahitaezkoa gertatzen da lekuko hizkeraren ezaugarriak izatea kontutan eta hala egingo da ondorengo ataletan.

### ***-a* bukaeraren iraupena ala galera**

Lehen gakoari helduz, *-a* galdu eta bere izaera aldatu duten edo aldatzen ari diren deituren inguruan sortzen da zalantza. Bi egoera orokor daude:

A) *-a* bukaerak irautea.

Bailarako euskarari, izen tema bokalez amaitzen bada, *-a-* tartekatzen de-nean kasu inesiboan —izen arruntetan, alegia— fonetika aldaketak sortuko dira.

Ondorioa, *-a-* hori desitxuratuta geratzea izango da. Idiazabal eta Olabe-rriko euskarari, aurreko bokalak asimilatu egin ohi du *-a-*. Aurreko bokala ere *a* bada, inesiboan, bi *a* geratuko dira, baina ez absolutu singularrean (*-a + -a > -ea*) (Michelena, *F.H.V.*, 114. or.).

Aipatu kasuotan, Mitxelenak leku batzuetako hizkeran atzemandako bokal luze edo bikoitzak sortzen dira (*F.H.V.*, 111-117. or.).

*Mendi + anetik*, konparazio batera, *iak* hurrengo silabako *a* itxi eta *e* bilakarazi ondoren (*F.H.V.*, 63-64. or.), asimilazioa gertatu eta *mendiin* sortu da (*mendian > \*mendien > mendiin*). Baten batzuen ahoan, *ii* hori *i* bihurtu dela ere nabari liteke gaur egun. Era berean esango dira, *elizaan, gauzaan, ganbaraan, etxeen, oston, buruun...*

Eboluzio hau eskuarki gertatzen da bailaran eta ez izen arruntak inesiboan deklinatzean bakarrik; baita deklinabideko beste kasu batzuetan eta antzeko soinu elkarketa gertatzen den bestelako hitz eta esamoldeetan ere. Adibide batzuk ematea baino argigarriagorik ez:

— *mendiak > \*mendiek > mendiik, mendietatik > mendiititik...* Beste bokal batez amaitu hitzetan ere berdin-berdin: *buruak > \*buruek > buruuk, ostoetako > ostoetako, \*gauzaetan > gauzaetan, etxearen > \*etxeaen > etxeen...*

— *sartu bide da > \*sartu bie da > sartu bii da*. Ikus *F.H.V.*n ere (412. or.), Mitxelenaren ustea. Bilakaera berbera Idiazabalgo etxe baten izenean: *Oiarbide > Ojarbide > \*Ojarbie > Ojarbii (Ojarbi)*.

— *etorri dira > \*etorri dia > etorri die > etorri dii > etoor dii*.

— Idiazabalgo etxe izenetan ere: *Diegorenea > Di(i)(g)oonea, Kaltzasasieta > Kaltza(d)asasiitta...*

Gauzak horrela, Idiazabalen *Urrutikoetxeen, Muñoon, Oriin* edo *Olaan* entzuten direnean, garbi dago —arestian aipatu esamoldeei begira— bokal bikoitzaren bigarren osagarria beste soinuaren batetik eratorria dela; ondobidean, analogiaz, *a* izan behar (*etik iraganez bakarren batean, beharbada*). Gero, aurreragoko atal batetan, ikusiko da *-a* horren izaera, itsatsia den ala erantsi zaion artikulu mugatzailea den. Oraingoz, orduan, esan dezadan izen horiek, kasu absolutuan, *-a* eta guzti idatzi beharko dutela: *Urrutikoetxea, Muñoa, Oriia, Olea*.

Badira —batzuek gehiago, beste batzuek gutxiago— horrelakoetan bokal soila ebakitzeko joera duten hiztunak ere; jokabide berriagoa dirudi, nolana (Oriin > Orin).

Amaierako -aren zantzuak kasu absolutuan ere nabari dira batzuetan herritarren hizkeran. Horrela, *Olea*, *Eztenaga Errotea* eta abar esango dira beti; *Muñoa* ere entzungo da, baina esamolderik entzunena *Muño* dugu, deklinabideko beste kasuetan gertatu bezala.

-ia bukaeradunei gagozkiela —hori da aztergai dugun *Olaberriaren* kasua eta— *Oria* hartuko da eredutzat. Kasu absolutuan ez da \**Orie* (< *Oria*) delako baten aditzez; *Orii* (edo *Ori*) esaten da. Inesiboko kasuan legez, iak *ea* asimilatu bide du (azken atalean aztertuko da -a hori itsatsia duten izenen kasua zabalxeago). Nolanahi dela —oso segurua ez izan arren— L. Eleizalde, bere toponimo zerrendetan (*Listas alfabéticas... R.I.E.V.*), badakar *Orie* etxe izen bat, Itsason dagoena, hain zuzen.

Kidekoa den *Maugiatik* (Idiazabalgo beste etxe baten izena; *Mabii* gaur egun) beharko lukeen \**Maugieren* arrastoa, ordea, nahikoa nabarmen dakusagu idatziz ere *Maugiezelaetan* (Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa, Oñati: 25-7-1.600 PNot. A-2.540; 8-5-1.602 PNot. A- 2.541).

Era berean entzungo dituzu *Goardii*, *Anttii*, *Etxeberrii* eta abar.

Bada bilakaera honen hurbileko frogarik ere. Hor dugu, gaur egun, *Ola-riagatik* (*g* galduta) ahozko hizkeran sortzen den *Olarii*, adibidez; *Olariaa* > *Olaria* > *Olarii* gertatu da eta, kasurako, - adun izenak bezalaxe portatzen da. *Olariin* eta *Olarii* (*Olari*) ekarri ditu ahozko ebakeran. Agerian da, hortaz, -ii multzoaren -ia jatorria.

B) -a bukaera galtzea.

Idiazabalen bertan, beste izen batzuekin ez da berdin gertatu. Horrela, inesiboan, *Saletseberriin*, *Bentatxikin*, *Aritzederren* eta abar esaten dira, izen horien erroak, *Saletseberri*, *Bentatxiki* eta *Aritzeder* direlarik, beraz.

Goragoko adibideaz baliatuta berriro ere, izenotan ez da *mendian* > *mendiin* erakorik ageri, hain zuzen artikulurik ez delako tartekatatu. Izen berezi gisa portatzen dira beraz, nahiz eta —gero aztertuko den legez— jatorrian arruntak izan zitezkeen.

Aztergai den *Olaberriari* gagozkiola, elkarrizketatu gehienek, inesiboan deklinatuz *Olaberriin* esango dizute eta, hortaz, lehenen tankerakoa litzateke. Dena dela, *Olaberrin* ebakera ere entzuten da eta berari *Olaberri* dagokioke kasu absolutuan.

Gauzak horrela, aldaera horien nondikoaz galde liteke.

Bigarrenak izan dezake ondorengo atalean aipatuko den bilakaera prozesuarekin zerikusia, baina —goraxeago azaldu denez— soilte aldera egindako fonetika ondorioa ere izan dezakegu.

Erantzungo du beste batek, ordea, *Olaberriin*, antzeko beste deitura batzuen eraginpean analogiaz moldatua izan litekeela.

Zernahi ere den *Olaberriinen* iraupenak, berari dagokion forma ere bizirik dela esan nahi du beste ezer baino lehen. Aurreko atalean aipatu tradizio idatziarekin bat dator, gainera.

Areago, kasu absolutuan galdetzean, herriaren izena *Olaberrii* dela ere entzuten da, hots, Idiazabalgo *Orii*, *Mabii* eta abarren moduan.

### **Izen arruntak berezi bilakatu; -aren galera zergatiak**

Idiazabalgo etxeen izenez egindako azterketa ikusita, nere ustez, etxearen (edo dena delakoaren) errealitate jakin baten erakuspe edo deskribagarri diren izenetan gorde da ondoen (-a artikululu mugatzailea galdu gabe) izenaren erabilera arrunta. Ordea, denboraren iraganean, etxearen nolakotasuna aldatu bada, izenaren semantika edukia ez da berarekin bat etorriko eta, orduan, ez du deskribapen baliorik izango; fosilizatu egingo da eta etxearen *marka* edo *seinale* huts bihurtu, izen berezi alegia.

Hori horrela, badirudi, *aundia*, *txikia garaikoa*, *azpikoa* edo antzeko adjetiboak dituzten izenek eutsi diotela ondoen lehenagoko izaerari eta horiekien ez dagoela arazo handirik; zaharrenek, behintzat, *Lardizabal aundia*, *Azpikola txikia*, *Garakolea*, *Lizardi goikoa* eta antzekoak erabili ohi dituzte, bigarren osagarria, izen arrunta bailitzan deklinatuz.

Adjetibo horiek erakusten duten ezaugarri berezia ez bide da aldatu, alegia, *Lardizabal aundia*, *Lardizabal txikia* baino handiagoa edo nagusiagoa da orain ere; *Azpikola txikia* ez da *Azpikola aundia* baino handiagoa egin, eta *Lizardi goikoa beekoa* baino gorago dago, egun ere.

*Bentatxiki*, hala ere, nonbait, galdu egin zuen eta lehenagoko txiki irudia jendearen begietan; izen berezi gisa deklinatu ohi da.

Ez dira hain seguruak *Beekoetxea*, *Goikoetxea*, *Urrutikoetxea* edo antzeko kasuak. Garbi dago beste etxe batzuk egin direnean, horien izenak ez datozela etxearen izanarekin bat. Hala ere, esango nuke, gaur egungo hiztunek eutsi egin diotela arrunt gisa deklinatuz erabiltzeko joerari.

Izenondo batzuen kasuan, ordea, -a artikulua galdu eta berezien pareko bihurtzeko joera askoz nabarmenagoa izan da. *Berri*, *zaar*, *zuri*, *gorri*, *eder* eta abar ditugu adibide garbi. Ezaugarri horiek erraz samar alda litezke eta egin zenean, segurutik, berri izango zen etxea, erabat zaharkitua egon liteke urte



batzuen buruan; zuri zen etxea ere, itxuraldatu egin liteke, dudarik gabe. Horrelakoetan, uste dut, behin baino gehiagotan, izenak lexikalizatu eta etxeari berari dagokion seinale berezi izatera jo duela; gaur egun *Etxezaar*, *Etxeberri*, *Saletseberri*, *Aritzeder* eta antzekoak esaten dituzte hiztun guztiek, nahiz eta ez oso aspaldiko dokumentuetan, oraindik ere, *Etxe zaarra*, *Etxe berria*, *Saletse berria* eta *Aritz ederra* tankerako deiturak agertu.

*Ostatu zaarra* eta *Torre zaarra*, artikulua eta guzti, esango dizkizute, hala ere, etxe edo izen haiek ezagutu zituzten guztiek eta ez, hain zuzen, etxeak zaharrak zirelako, herriko beste batzuekin alderatuta baino; *Ostatu berria* eta *Torre berria* ere egon ziren bezalaxe. Behin Torre zaarra desagertuz gero, ordea, dokumentuetan ere, *Torre berriaren* ordeza, *Torre* besterik ez da esango.

Adjetibodun guztion antzekoak dira aposizioak eta izen elkarketak ere: *Arizkorreta Saletsea*, *Eztenaga Torrea*, *Oria Errotea* (kontutan izan, *Oriaren* amaierako *-a* organikoa dela), *Etsegarate Bentea*, *Aizkoeta Arretsea*, *Sastre Etxea*, *Bikario Etxea* eta abar.

Izenon bigarren osagarriok, hasieran, izen arrunt gisa erantsi bide zitzaizkien izen bereziei, baina, urteen iraganean, beren osagarri apartaezin bilakatuko dira. Gorde egin da, horraatik, beren erabilera arrunta, hots, *-a* artikulua eta guzti.

Berandutxo jasoko du agian Euskaltzaindiak gipuzkoarrok diogun begirune eta esker onaren ezaugarri eskaintzen zaion domina hau, erabakia bera duela zenbait hilabete eginiko gobernu-batzarrean hartu baitzuen Gipuzkoako Diputazioak, zehazki esateko urriaren 4an. Baina, beharbada egokiagoa izan zitekeenarren, iazko ospakizun ugarien artean parte egokiegirik ez aurkitu izanak gaur arte atzeratu du Foru Diputazioaren asmo hau. Dena dela, pentsatu, pentsa dezakegu, Gipuzkoako Diputazioak eskainitako Urrezko Dominaz koroatu dituela Euskaltzaindiak bere diamantezko ezteioak, eta egiaz, biltzar, jardunaldi, omenaldi eta abar arrandiz ospatu duen 75. urteurrenak ezin zezakeela koroa ederragorik izan.

### EUSKALTZAINDIA

Gaurko ospakizun honen aitzinsolasa dagokidan honetan, bidezko dela uste dut Euskaltzaindiaren atze-aurre eta gaur-biharrari begirada bat ematea eskaintzen diogun dominaren arrazoia argitze eta baliatze aldera. Eta horretarako, lehenik eta behin, etxeko kontuak aipatzetik hasi behar nahitaez, gipuzkoar guztiona den etxe honek eskaintzen dizkigun gertaera gogoangarriak berritetik, alegia.

Gipuzkoako Foru Diputazioari dagokionez, jakineko bi data nagusik elkartzen dute etxe hau Euskaltzaindiarekin. Lehen data, 1919ko irailaren 21 dugu.

Urte bete lehenago, amaitzear dagoen mende honek izan duen euskal zientzia eta kultur ospakizunik nagusiena egin berri zuen Eusko Ikaskuntzak Oñatiko Unibertsitatean. Eta, denok dakigun bezala, hartu ere hantxe hartu zuten, Eusko Ikaskuntzaren 1918ko kongreso hartan, alegia, Euskaltzaindia sortzeko asmo eta erabakia.

Urtea bete baino lehen eta beti ere Oñatik urratutako bidean aurrera, Eusko Ikaskuntzak eginiko beste dei bati erantzunez bildu ziren aipatu egun horretan, 1919ko irailaren 21ean eta Aldundi jauregi honetan, Oñatiko kongresoaz geroztik izendatutako lehen lau euskaltzainak —Resurrección Maria Azkue, Arturo Campion, Luis Elizalde eta Julio Urkijo— eta, hauekin batera, orduko euskal aldizkarietako zortzi ordezkari, hain zuzen ere, egun hartantxe euskaltzain izendapena jaso zuten Adema, Agirre, Broussain, Eguzkitza, Intzagarai, Lhande eta Olabide; hau da, euskalki guztien lekuko ziren lehen hamabi euskaltzainak: bederatzia Hegoaldeko eta beste hiru Iparraldeko. (Gogora dezadan, bidenabar, Euskaltzaindiaren sorrera honen 75. urteurrena ospatu genuela guztiok hementxe, iaz egun berean, irailaren 21ean).

Bigarren data, handik hamabost egun barrukoa dugu. 1919ko urriaren 7an, leku berean, Aldundi jauregi honetantxe egin zuen Euskaltzaindiak bere Araudia onartzeko lehen batzar eraikitzailea. Adema ez gainerako hamaika euskaltzainak bildu ziren bertan eta orduantxe egin ziren lehen izendapenak: Resurrección Maria de Azkue euskaltzainburu, Agirre diruzain, Urkijo liburuzain eta Eleizalde idazkari.

Beraz, ordutixe hasten da Euskaltzaindiaren lana mugaz gaineko erakunde gisa. Eta esan beharrik ez, Euskaltzaindiaren lehenbiziko xede legez, ordukoxea dela, Campion eta Broussain euskaltzain jaunen 1920ko apirilaren 26ko txostenean irakur daitekeen bezala, “Euskeraren batasun bideen aztertzea”.

Bestalde, aipatu bi data nagusi horiez gain, ez da ahaztu behar, noski, gerra ondoren eta Azkue hilezkero batez ere, jauregi honetan aurkitu zuela Euskaltzaindiak bere babesa. Hementxe eskaini zitzaion bere lanetarako gela bat, bulego bat, eta hementxe egin izan ditu Euskaltzaindiak bere hileroko batzarrik gehienak ere.

Jauregi honek Euskaltzaindiari eskainitako babes eta itzalaren parean ipini behar, ordea, hainbat gipuzkoar ospetsuren izena. Egia da gerra ondoko urte zail haietan Azkueri esker irauin zuela bizirik Euskaltzaindiak. Baina hura hiltzeaz batera, ezinbestekoa gertatu zen, beste hainbatenaren artean, Inazio Maria Etxaide eta Jose Maria Lojendioren babesa eta buruzagitza. Bi euskaltzainburu donostiar hauen garaian hasi zen berriro Euskaltzaindia *Euskera* agerkaria argitaratzen, batzarrak eta ikerketak egiten eta bertso-lari-txapelketak eta euskaltzaleei omenaldiak antolatzen.

Eta beste gipuzkoar baten gidaritzapean, Gipuzkoako seme kuttun Manuel Lekuona oiartzuarraren gidaritzapean, ekin zion euskararen batasunerantz lehen urratsak egiteari ere. 1968ko urria zen eta, ordurako 1952an Azkuek utzitako aulkiaren jabe zen Koldo Mitxelena itsumutil argia zutela, Arantzazun bildurik hasi zen Euskaltzaindia euskara batuaren zimenduak jartzen.

Baina Donostian eta gauden tokian egonik ere, ez genioke giputz kutsu handiegirik eman nahi gaurko ekitaldi honi. Gipuzkeria setatsu batean jausteaz gainera, bidegabekeria barkaezina egingo baikenuke. Izan ere, Euskaltzaindiaren sorreran, besteak beste,

Kosme Elgezabal eta Felix Landaburu Bizkaiko diputatu abertzaleak dira zutabe, Gipuzkoako Mikel Urreta jeltzalearekin batera. Azken batean, ezin ahaztu Araba, Bizkaia, Nafarroa eta Gipuzkoako diputazioek beren umetzat hartu zutela Euskaltzaindia, hasiera-hasieratik.

## EUSKARA BATUA

Horrela bada, gipuzkoar izateagatik ez baino, euskarari esker gipuzkoar ez ezik euskaldun onak izateko egiten ari zaigun laguntzagatik eskaintzen diogu gaurko Urrezko Domina Euskaltzaindiari. Bistan da euskarak egiten gaituela euskaldun eta ez Euskaltzaindiak, baina zer litzateke gure hizkuntza Euskaltzaindiarik gabe? Haritschelhar euskaltzainburuak esanik duen bezala, “Euskaltzaindiak Euskal Herriari eskaini lezakeen oparirik ederrena da zuhurki eta fermuki batasunaren bidean aurreratzea, ahantzi gabe hizkuntzaren batasunak sor dezakeela, bidenabar, gogo eta bihotzen batasuna”. Eta hemendik sortzen da, jakina, euskararen batasuna, aldi berean, euskaldun guztion kultur batasunaren sinbolo bilakatzeko beharra.

Hasi Oñatitik eta Leioaraino, horixe izan da euskara batu nahirik Euskaltzaindiak egindako ibilpidea. Esan bezala, 68an Arantzazun hasi zen batugintza, ortografia, deklinabidea eta morfologiari dagozkien irizpideak emanez. Gero, handik hamar urtera, 1978an, Bergara eta Arrasaten egin zen Arantzazuz geroztik euskara batuak jarraitutako bidearen lehen ebaluaketa eta, azkenik, iazko urrian, Euskaltzaindiaren sorreraren 75. urteurrenoko ekitaldiak burutzeaz batera, Leioan ezarri zen euskara batuaren hirugarren mugarrria.

Euskaltzaindia buru eta gidari dela, euskaldun guztiok gara euskararen batasun egile, baina batasuna bere heldutasunera iritsi denarren, ezin esan bete ditugunik erabat euskara batuaren premiak eta, are gutxiago, ezin pentsa segurtatu dugunik osoki gure hizkuntzaren etorkizuna. Leioako biltzarrean esan bezala, hil ala bizikoa du euskarak batasuna, nahiz eta horrek bakarrik ez digun euskararen etorkizuna segurtatzen.

Ezin naiteke Leioako biltzarreko ondorioetan gehiegi luzatu, baina euskararen eta bereziki euskara batuaren gaur egungo premiak aipatzekotan, gogora ditzadan laburki oinarritzko zenbait puntu.

Batetik, hizkuntz eredu nazionala; denok ere aho batez aldarrikatzen dugun premia hori, hain zuzen ere. Herrialde batekoa edo bestekoa litzatekeena ez baino, euskalki guztiak kontuan hartuz egin behar dugun hizkuntza nazionala aldarrikatu du Leioako biltzarrek ere; hau da, euskal komunitate osoarena izango den hizkuntza nazionala, eta ez erregionala.

Jakina, oso esparru berezi eta mugaturako behar dugu euskara nazional hori, hots, irakaskuntzan, administrazio hizkeran eta komunikabideetan garatu ohi den idatzizko hizkuntza jasorako, alegia. Beraz, euskararen erregistro jakin bat hartuko luke euskararen batasunerako eredu nazional horrek.

Besterik da hizkuntza mintzatuaren batasunak planteatzen duen arazoa. Bistan da ahoskera batua ez dela gauzatu eta, ondorioz, oraindik bere fonetika-eredua finkatu ez duen hizkuntza batean mintzo garela eta, tamalez, gero eta erdal azentu handiagoz gainera.

Fonetika alde batera utzita, aipatu besterik egingo ez dudanarren, ezin ahaztu lexiko arloan euskarak oraindik ere duen hutsunea. Aurrerapausuak aurrerapausu, bide luzea daukagu oraindik euskararen premiazko estandarizaziora iristeko. Hortxe dago, guretzat aski zabal oraindik, zientzia eta teknika gaietako hiztegi eta hizkuntz arauak erabakitzeko prozesua, bai testugintzara eta bai teknologia berriek bideratutako euskarri ezberdinetara egokitu beharrekoa; ezin baitugu ahaztu baserri eta eliz giroko hizkuntza izatetik multimedien gizarte moderno eta garatu izateko beharrezko oinegotura atontzen ari garela.

Eta puntu honetan, bi ohar txo; Euskaltzaindiari begira bata, eta herriagintaritzari begira bestea. Euskaltzaindiari, eskuz esku lankide duen euskal gizarte osoak euskararen normalizaziorako eskatzen dion bere aholku eta araubide profesionala ahalik eta bizkorren eman diezagula gogoratzeko. Euskara soziolinguistikoki normaldu eta era berean kultur eta zientzi hizkuntza egiteko ahalegin horretan, martxan da jadanik gurean ere hizkuntzaren industria eta horrek ezinbesteko egiten du Euskaltzaindiaren gidaritzara bere aholku eta batez ere erabakiekin, baina, jakina, hizkuntz industriaren lehia komertzialetan nahasi gabe.

Eta, bigarrenik, herri-agintaritzari dagokion oharra, Euskaltzaindiari merezi eta behar dituen baliabideak eskura diezaizkiola. "Pobreak bai, baina miserableak ez" entzun izan dut, eta, horren arabera, herri-agintaritzari eskatu behar Euskaltzaindiari lagun diezaioa diruz eta gainerako baliabideez honek bere lan eta ikerketarako beharrezko duen oinegoturan. Hitz batean esateko, Euskaltzaindiaren eta herri agintaritzaren arteko elkarlana, hizkuntza berreskuratzeko plangintzaren baitan.

## EUSKARAREN KALITATEA

Euskararen batasunari dagozkion aipamen hauen ondoren, aurrera begira jarri eta euskarari berari dagokion beste arazo bat aipatu nahi nuke; hain zuzen ere, batasunari ez baino, hizkuntza berari dagokion auzi bat: zernolako euskara, euskararen jatorrasuna, alegia.

Osoki ez bada ere, ia amaitutzat eman dezakegula esan dut lehen euskararen batasuna, hau da, Euskaltzaindiaren azken urteotako lan metodologiari esker burutzen joan den corpus plangintza. Zer esan, ordea, gero eta hedatuagoa daukagun eta, ondorioz, nahitaez horrelaxe begibelarrirritzen dugun euskara gaizto eta arrotz horri buruz?

"Euskañola" deitu ohi den horretaz ari natzaizue, jakina. Dударik ez, euskararen arazorik larrienetako bat bere barne diglosian datzala, hau da, hiztunok erdararik gabe euskaraz ezin pentsatu horretan. Hori dela eta, bada gure artean ere txikanotze prozesuaz mintzatzen hasi denik, erdaren eragin suntsizailerari aurre egin beharra aldarrikatuz. Izan ere, gure barne, pentsamendu eta kultura hizkuntza erdara den neurrian, nekez ihes egingo diogu euskara trakets, ulergaitz, ortopediko edo dena delakoari. Beraz, benetako euskara jatorraren galdezka hasi gintezke, gure hizkuntzak mendeetan zehar izan duen jatorrizko duintasun hori gorde beharrez.

Eta honetantxe legoke, aurrera begira jarrita, Euskaltzaindiaren beste lan eta egiteko bat. Euskararen batasunaren oinarritzko finkatze lana burutzeaz batera —gehienez ere

bizpahiru urte barru izango al da—, euskararen kalitatea dugu ondorengo urteetako erronka nagusia.

Hain zuzen ere, lehen esandako horregatik, hizkuntza nazional baten atzetik gabil-tzalako, hasi euskal politikoetatik, administrazio-langile eta irakasleetatik pasa eta ko-munikabideetako azken idazle eta esatarienganaino, guztioi dagokigu, herrizale zein abertzale izateak berekin duen eskakizun legez, hizkuntz eredu egokiak erabiltzea. Ondorioz, esan beharrik ez, bere Jagon sailetik, baduela honetan ere Euskaltzaindiak euskararen kalitatea zaindu eta babesteko eginkizun nagusi bat.

## **EUSKALDUNA, URREZKO DOMINAREN JABEKIDE**

Baina sarritan hizkuntza zaindu eta babesteak hiztuna bera ere babestu eta zaindu beharra ekar lezake, eta hori ere tokatu izan zaio Euskaltzaindiari bere historian. Euskararen aurkako erasorik bortitzenetan Euskaltzaindia izan da euskaldunon babesik behinenekoa eta mende honen erdialdetik aurrera Euskaltzaindiak egin ere egin du, bere ikerketa lanaz gain, euskararen defentsa sozialik saiatuena.

Gure egunotan egiten jarraitu beharko duen defentsa esango nuke nik. Batetik, herritar euskaldunon hizkuntz eskubideak aldezteko, oraindik ez baikaude, eraso ezpada, hiztunon aurkako bidegabekeria iraingarri guztietatik libre; eta bestetik, euskararen normalkuntzak beharrezko duen gizarte-giro egokia sortzen laguntzeko. Horretan ere zer-bait lagun diezagukeela uste dut Euskaltzaindiak.

Nolanahi ere, lehen esan badut euskarak egiten gaituela euskaldun eta ez Euskaltzaindiak, esan dezadan orain euskararen aldeko defentsarik onena geure baitatik hasten dela. Agian, orain arte, euskararen izenean aldarrikatzen genituen baliabideak eskuratu ahala sentitzen ginen euskaldun. Gaur, euskaldun izateko arrazoiak norberarengandik kanpo aurkitzeko fase hori amaitu dela esango nuke nik, eta, ondorioz, gutako bakoitzak bere barrura begira saiatu beharko du geure euskalduntasuna berraurkitu eta euskaldun izan eta bizitzen.

Baina, tira, euskaldun izan ere geuk hala nahi dugun heinean izango garenez, gure *Ekin eta Jarrai* horretan, lagun biezagula Euskaltzaindiak gaur baino bihar euskaldunago izaten, eta, hartara, gu ere, geure eguneroko bizitzan, une honetan Euskaltzaindiari eskaintzera goazen Urrezko Dominaren berorren jabekide egiten.

Eskerrikasko.





## EUSKALTZAINDIARI GIPUZKOAREN URREZKO DOMINA

*Donostia, 1995ko urtarrilaren 27*

*Eli Galdos Zubia,  
Gipuzkoako diputatu nagusia*

Jaun-Andreok.  
Arratsalde on.

Herriaren alde egindako lanak, gizarte osoaren zerbitzuan eskainitako esfortzuak, ez dira egiten errekonozimendu publikoaren bila, ezta sari bat lortzeko ere. Kasu gehienetan, eta batez ere euskalgintzan eta euskal kulturaren esparruan, musu truk lan egin da urteetan zehar, bakoitzaren bokazioa eta herriarekiko konpromezua eragile nagusiak izan direla.

Baina, aldi berean, guri, hiritarroi, eta denon ordezkari ditugun erakundeei dagokigu eredugarri diren pertsonak eta alkargoak, ekintzak eta traiektoriak, omentzea. Merezimenduari zor zaion errekonozimendua ematea. Guri dagokigu, denon izenean, herriaren zerbitzari berezi horiei hiritar guztion esker ona adieraztea eta merezimenduen aitortpen eta lekukotasuna aldarrikatzea.

Gipuzkoako Foru Diputazioak, gure lurralde historiko honen ordezkari instituzionala bezala, aspaldi dauka indarrean bere ohore eta goraipamenera araudia. Gipuzkoa eta gipuzkoar guztion onerako buruturiko merezimendu bereziak zein zerbitzu estimagarriak saritzeko erabiltzen dena.

Araudi horren barruan, Urrezko Domina dugu galaridoirik goren-gorena, Erakunde honetatik eman daitekeen aipamen estimatuena eta preziatuena, Gipuzkoak bere seme-alabarik prestuenak nabarmentzeko erabiltzen duena.

Orain arte Urrezko Domina hau jaso duten batzuen izenak aipatzea nahikoa da oherrezko bereizgarri honen nortasuna hobeto ulertzeko.

Azken hamabi urtetan bost Urrezko Domina eman ditu Foru Aldundi honek. Ondoko pertsonaia eta erakunde hauek izan dira sarituak: Joxe Miel Barandiaran, Manuel Lekuona, Orfeoi Donostiarra, Eibarreko Armeria Eskola eta Carlos Santamaria.

Izen sorta ederra. Kategoria haundikoa. Traiektoria eredugarriak eta meritu konfiazinak dituen. Eta izen sorta horri Euskaltzaindiarena eranstea bildu gara gaur hemen.

Egutegiak ezartzen dizkigun mugak eta epeak artifizialak badira ere, urteurren batzuen inguruan metatzen dira sarri askotan hamarkadetan egindako lan eskerga eta ba-

lisoaren errekonozimendu publikoak, urteurrenek parada egokia eskaintzen baitute erreflexiorako, iragana aztertzeko, balorazioak egiteko, eta, hausnarketa horietan oinarrituta, etorkizunari begira egitasmo berriak antolatzeko.

Pasa den hilabeteotan behin baino gehiagotan elkartu gara Foru Aldundi honen eta beste erakunde publiko zein pribaturen ordezkariak Euskaltzaindiarekin, bere hirurogei ta hamabosgarren urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldietan. Bilkura gogoangarri horietan argi gelditu da, eta parte hartu dugun guztiok aho batez honela adierazi dugu, Euskaltzaindiak bere historian zehar Euskal Herriari eskaini dion lanaren garrantzi historikoa. Antton Aranburu ere modu ezin egokiagoan mintzo zaigu horretaz oraintxe bertan.

Garrantzi historiko horretaz jabeturik eta sakonki sinesturik, uste dut dudaz kanpo dagoela gure erabakiaren egokitasuna. Euskaltzaindiak bere traiektoriagatik, ondo mezeria dauka Gipuzkoan eman daitekeen kondekoraziorik gorena eskuratzea.

Aspaldi zor zitaion Euskaltzaindiari holakorik. Aspaldi zor genion bere merituen aitorten publikoa eta gure sinpatia eta atxekimenduaren aldarrikapena modu konkretu batean gauzatzea. Domina emanda ere, zordun izango gara oraindik, urteetan zehar euskaldun guztioi eskaini diguna ordainduetzina baita. Esanda geldi dadila, gutxienez, zeren, Koldo Mitxelenaren beraren hitzak erabiliz, "zorraz aitortzea eta ezagutzea bait dagozkie zordun onari, pagatuko ez baditu ere".

Baina kasu honetan, aurrean aipatu ditudan beste bost urrezko dominen kasuetan bezalaxe, sarituaren esparrutik harantza doan beste zerbait dago. Urrezko Dominak omenduaren baloreak eta ereduak gizarte osoan ereiten baititu, herrigintzarako eredu estimagarriak proposatzen ditu eta, nolabait esateagatik, Dominak saritua omentzeaz gain, denok duintzen gaitu, gizarte osoa ontzen du.

Ikuspegi horretatik, ongi daki Euskaltzaindiak gure Domina ez dela iraganean gelditzen den oroigarria, ez dela erakustoki batean jartzen den trofeo hutsa. Gipuzkoako urrezko dominak, beste edozein hausnarduraren gaineratik, akuilu izan nahi du, eragile, suspertzaile.

Datozen beste hirurogeita hamabost urtetan, gutxienez, orain arteko ildo emankorrean barrena adore eta indar berriez lanean segitzeko animo berria eman nahi dion faktore eraginkorra izatea nahi nuke Urrezko Domina, benetan uste baitut Euskaltzaindiaren elkariana eta laguntza ezinbesteko tresna ditugula Herri bezala naziozintzaren bideetan aurrera egiteko.

Izan ere, historian zehar planteatu zaigun bidegurutze berbera aurkezten baitzaigu berriro ere mende honen bukaeran eta Milenio berriaren atarian: testuinguru berrietan, joera historiko modernoan erdian, gure Herriak behar duen gaurkotze eta modernizazio prozesuaren barruan, gure nortasuna iraunaraztea dugu Euskal Herriak bizirik iraun dezan eutsi beharreko erronka.

Euskara dugu euskal nortasunaren ardatza. Eta beste edozein hizkuntza bezala euskara ere komunikazio tresna baino askoz gehiago da, kultura eta pentsamendurako sorbide eta Euskal Nazioa gauzatzu joateko erreferentzia sinboliko nagusia.

Gure hizkuntza nazionalaren normalizazioa, bere ezagutzaren zabalkundea, eza-gutzetik erabiltzera eman behar den jautzia, eta gizartearen orain arte betetzen ziren hain-

bat mekanismo eta funtziotan bere espazio propioa okupatzea, hauexek dira euskarak berak aurrean dituen eginkizun nagusiak. Erronka horiei euskal gizarteak erantzun egokia eman beharko die.

Kosme Elgezabal eta Felix Landaburu jaunek egindako proposamenari jarraituz, Hiru Diputazioek Eusko Ikaskuntzari euskararen akademia bat sortzeko proiektuaren ardura eman ziotenik urte asko pasa dira.

Gora-behera historiko oso diferenteak ezagutu ditu gure Herriak eta, beraz, Euskaltzaindiaren jarduerak ere, urte hauetan.

Baina buru belarri ahalegindu da beti Euskaltzaindia, koherentzia handiz, duintasunez eta eskuzabaltasunez, gure hizkuntza nazionalaren alde.

Gipuzkoaren Urrezko Domina jarriko diot orain Haritxelhar jaunari, Euskaltzaindia osoaren buru eta ordezkari bezala, gipuzkoar guztion esker ona adieraziz eta *Ekin eta Jarrai* lemapean egunero egiten ari zareten lan estimagarrian lagungarri eta pizgarri gertatuko zaizuelakoan.



## GIPUZKOAKO URREZKO DOMINA JASOTZEAN

*Donostia, 1995-01-27*

*Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua*

Eli Galdos, Gipuzkoako diputatu nagusi jauna,  
M. J. Aranburu, diputatu anderea,  
Euskaltzainkideak,  
Andereak eta Jaunak,

Nola egon deus erran gabe? Nola egon isilik emaitza horren aintzinean? Nola ez sala bihotzean daukadan poza?

Oroit naiz. Iazko urriaren 7-a zen hartu nuelarik igorri zenidan telegrama Gipuzkoako Foru Aldundiak erabaki zuela bere urrezko domina emaitza Euskaltzaindiari 75. urtemugaren ohoretan.

Urriaren 7-a. Hain zuzen, duela 75 urte, lehen aldikotz bildu zen Euskaltzaindia Donostiako Foru Aldundian. Egun hartan eman zuen lehenbiziko urratsa.

75 urteren buruan, bururatzen ari zen Euskaltzaindiaren XIII. Biltzar Nagusia irakurtu nuelarik zuk, diputatu nagusi jauna, igorrikako telegrama 300 bat baino gehiago biltzarkideren aitzinean eta hitz dizut biziki txalotua izan zela Gipuzkoako Foru Aldundiaren erabakia.



Orain eskuetan daukat urrezko domina. Esker onezko hitzak heldu zakizkit ezpainetara. Zuri, lehenik, eta Gipuzkoako Foru diputatu guzietan eskerrak bihurtzen dizkizuet Euskaltzaindiaren izenean. Ohoretan dago Euskaltzaindia. Berriz ere Euskaltzaindiaren historian sartzen da Gipuzkoako Foru Aldundia. Eskerrik asko beraz edo, zerbakiak

balio berezia baitu, milesker Iparraldean erraiten dugun bezala edo esker mila, milako hori, den gutienik, merezi duzuelakotz.

\* \* \*

Euskaltzain berri batek bere sarrera-mintzaldia irakurtzen duen egunean, euskaltzainburuak eskaintzen dio domina bat —ez urrezkoa, zilarrezkoa halere— eta diploma bat. Diploma horretan hauxe idatzirik dago: “euskararen alde orain arte egin dituen lanen esker-erakutsiz eta gerokoen pizkarri lankidetzat hartu du”.

Nola euskaltzain berriak euskaltzainburuarengatik hartzen duen domina, gaur Euskaltzaindiak hartzen du urrezko domina, dudarik gabe orain artio egin dituen lanengatik Antton Aranburuk ederki azaldu duen bezala eskertzen diodan mintzaldian.

Baina diploman idatzia den bezala eta iraganak iragan, geroari buruz itzul ditzagun begiak ikusteko zer egin behar duen Euskaltzaindiak, zer beharretan den Euskal Herria hizkuntzaren aldetik.

Euskara da gure ondareetan lehena, premiazkoena, gure nortasunaren oinarria. Euskarak lotzen ditu euskaldun guztiak, euskarari esker harremanetan laster sartuko gara mugarik gabeko eremu batean. Sekulan baino gehiago ikusten da euskara batuaren premia, hori baita gure hizkuntza nazionala, hizkuntza idatzia, gure idazleek erabilia, komunikabideetan zabaldua, euskaldun guztiak zazpi Euskal Herrietan eta berdin mundu guzian barreaturik izanikan ere ere ulertuko dutena. Nork ez du senditzen beharrezkoa dela elgarretaritzen gaituen hizkuntza nazional hori, atxikiz denbora berean euskalki bakoitzak dituen berezitasunak euskara nazionala aberasten baita euskalki guztien aberastasunez. Idek ditzagun gogo-bihotzak, ken ditzagun, beldurrik gabe, gure baitan daukagun mugak.

Euskara literario, idatzi estandar edo batu horren finkatzeko, Euskaltzaindiak behar ditu bururatu hasi dituen lan nagusiak: *Orotariko Euskal Hiztegiari* esker, bildu du euskal literaturak orain artio eskaini duen hiztegia, euskalkiena dudarik gabe, oinarri beharrezkoa hiztegi batu baten finkatzeko, sekulan baztertu gabe euskalkiek eskaintzen dituzten ñabardurak.

Hizkuntz atlasarekin ahozko hiztegiak jabetu da Euskaltzaindia. Lan horietarik jalgiko da non zer erraiten den, nola ahoskatzen den, lekukotasun paregabekoa, oraiko tresneria berriari esker bildua izan dena.

Bi lan nagusi horiekin eta euskaltzaleek edo ikerleek eginikako bertze batzuei esker eginen da “Euskararen altxorra edo ondarea”, berrikitan “Le trésor de la langue française” egina eta agertua izan den bezala, hori baita hiztegirik zabalena, hizkuntza batek baliatzen duen hiztegirik osoena, kontuan hartuz eta argi izan bedi gure artean, 25 urteren lana izan dela “Le trésor de la langue française”-ena.

Argi izan dadila ere gure baitan Euskaltzaindiak baduela bertze lan bat egitekoa eta hori da bere hiztegia, hau euskaraz idatzia. Bertze hiztegi batzuk ager daitezke, hala nola Frantzian le Robert edo le Larousse, edo Espainian Casares, baina Euskal Herrian Euskaltzaindiak behar du berea agertu.

Bertze adibide baten emaiteko, har dezagun Gramatika batzordearen emaitza. Bukatuko duelarik bere lana, joskeran sarturik orain, beharko du, euskararen deskribapena

egin-eta, gramatika eredu-emaile edo bide-erakusle bat sortu bere ñabardura guzietan, euskaldunek ukan dezaten gramatika batu bat hizkuntza nazionalaren onerako.

Geroari begira, agertzen ditut Euskaltzaindiaren biharko helburu nagusiak, aipatzen ez ditudalarik Onomastika eta Literatura batzordeak hasi dituzten eta segitzeko dituzten lanak, horiek ere garrantzi handikoak.

Lan horiek ez dira isilean utzi behar. Argitalpenen politika batek kaleratu nahi ditu Euskaltzaindian egiten diren ikerketak. Adibidez, atlasteko inkestek bildu dituzten "et-notestu" paregabekoak publikatzea merezi dute, hala nola segitu behar ditugun hasiak diren sortak: *Iker*, *Euskararen lekukoak*, *Onomasticon Vasconiae*.

Bilboko egoitzan Euskaltzaindiak dauka biblioteka aberats bat, osoki espezializatu, orotara 90 000 liburu, tesi egileek ederki baliatzen dutena ageri den bezala bibliografietan.

Ez dezagun ahanztu Euskaltzaindia Euskal Herri osoaren zerbitzuko dela. Iaz, 5 369 jende, zahar ala gazte, gizon ala emazte, sartu dira gure Bilboko egoitzan zerbaiten beharrez, nahiz bibliotekan, nahiz administrazio bulegoetan, ez ditugularik oraindik kondatu lau ordezkarietan iragaiten direnak. Hori da eguneroko lana, lan umil eta ixila, egun agertu nahi dudana.

Denok ulertzen duzuen bezala, lan horien ongi eramaiteko dagozkien baliabideak baitezpadakoak dira. Gure hizkuntzaren joritzeko, apaintzeko, aberasteko prest dago Euskaltzaindia. Badaki —gaurko egun zoragarria dela lekuko— botere publikoen laguntza —gogoko laguntza eta diru laguntza— ukanen duela. Erronka edo desafio bat Euskaltzaindiarentzat? Hala izan bedi, edo esaldi zaharra gogoratuz: Halabiz.





## ‘SABINO ARANA’ KULTURA SARIA JASOTZEAN

*Bilbo, 1995-01-29,*

*Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua*

Jose Antonio Ardanza, lehendakari jaun agurgarria.  
Eusko Jaurlaritzako eta diputazioetako agintari jaun-andereak.  
Sabino Arana elkargoaren zuzendaritza,  
Andereak eta Jaunak,


Omenaldiz-omenaldi badabila Euskaltzaindia, Durangotik Donostiara, Donostiatik Bilbora, herenegun Eli Galdos Gipuzkoako Diputatu nagusiaren eskuetarik Gipuzkoako Foru Aldundiaren urrezko domina hartuz, gaur, Sabino Arana elkargoarenganik aurtengo Sabino Arana saria Euskaltzaindiak “bere ibilbidean burutu duen lan izugarriagatik”.

Azken hitz hauek —“bere ibilbidearen burutu duen lan izugarriagatik”— zuenak dira eta poztzen naute erakusten baitute goraki preziatzen eta estimatzen duzuela orain artio Euskaltzaindiak egin duen lana. Ohore handia da Euskaltzaindiarentzat Sabino Arana sariaren hartzea zuen eskuetarik eta bihotzaren erditik eskertzen zaitut zuzendari Jauna, eskertzen ditudan bezala holako erabakia hartu duten batzordekide guziak.

PREMIOS  
SABINO ARANA.



### 'SABINO ARANA' SARIA



Jean Haritschelhar, euskaltzainburua  
*Kultura* saria jasotzen

*Bilbo, 1995-01-29*

Bizkaia eta bizkaitarrekin zor handia dauka Euskaltzaindiak, Bizkaiko Diputazioa izan baita Akademiaren sortzaileetarik lehena, Felix Landaburu eta Kosme Elgezabal diputatu abertzaleei esker. Gero, Bizkaiko Diputazioak bultzaturik eta bertze hiru diputazioekin bildurik sortu zen Euskaltzaindia duela 75 urte, bi bizkaitar izan dituela buru, Resurrecion Maria de Azkue 32 urtez eta Aita Luis Villasante 18 urtez, orotara 50 urtez.

Bertze ekintza bat nahi nuke azaldu; 1923-ko jorrailaren 27-ko Euskaltzaindiaren bilkuraren agiriak hauxe derasa:

“Oraintsu, Bilbon, JEL alderdiak izan duen Batzar-nagusian, euskeraren aldeko beti izango dala aitortu du. Baita ere beroni dagokion arau, ikasbide ta edertasun-azalkunetan, arazo bikain abetarako berariz aukeratuta dagon Batzarrari mendetasuna zor izango diola.

Euskaltzaindiak atsegin aundiz auxe entzun du.”

Atxikimendu berbera badaki daukala Euskaltzaindiak Eusko Jaurlaritzarengatik Autonomia Estatutuak bere 6. artikuluan diolarik: “Euskarari dagozkionetan Euskaltzaindia izango da erakunde aholkuemale”, bai eta Nafarroako Gobernuarengatik euskararen Foru-legeak aitortzen duen bezala bere bigarren artikuluan, Bizkaiko Foru Aldundiarengatik, adibidez gure Plaza Barriko egoitza ederra, halaber Gipuzkoako eta Arabako Foru Aldundiengatik han dauden ordezkariak beren gain hartuz eta denek hitzarmen baten bidez laguntzen gaituztelarik.

Lan sakonetan murgildua da Euskaltzaindia nahiz euskara zaindu, apaindu, joritu, aberastu gure hizkuntza baita euskaldun guziak Iparraldekoak nola Hegoaldekoak bateratzen gaituena.

Gaurko omenaldi honek sustatzen gaitu, kar eta kemen gehiago emaiten digu eta berriz ere Euskaltzaindiaren izenean, ene atsegin handia erakutsiz, eskaintzen dizki-zuet bihotz-bihotzetik eskerrik beroenak eta zintzoenak.



***LUIS VILLASANTE KORTABITARTE JAUNARI***  
**BIZKAIKO FORU DIPUTAZIOAK**  
**GORAZARREA**

Bilbo, 1994-X-28



## LUIS VILLASANTE KORTABITARTE

Bilbo, 1994-10-28

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua

Jose Alberto Pradera, Bizkaiko Ahalduen Nagusi jauna,

Agintari agurgarriak,  
Euskaltzainkideak,  
Andereak eta Jaunak.

VJ

Duela bi urte, bere jaioterrian, Euskaltzaindiak eskaini zion Aita Villasanteri *Iker* 6 liburua, omenaldi gisa. Euskaltzainburu ohiari parte hartu zuten euskaltzainek eskaini zioten bakoitzak bere lana, bere ikerketen fruitua, ez baitezakete ez Euskaltzaindiak eta ez euskaltzainek bertzerik eskain.

Egun, aldiz, Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko seme bati egiten dio omenaldi be-rezi bat euskararen alde egin duen lan haundiagatik. Egia erran, euskararen alde Aita Villasantek egin duen lana munta haundikoa da. Hor dira lekuko hogeita zenbait liburu edozein alor hunkitzen dutenak:

— Lehenik kristautasuna eta fedea, ez baitu sekulan ahantzi Aita Villasantek gaz-taroan egin zuen botua.

— Euskal literatura, Axular bereziki aztertu duelarik *Geroaren* itzulpena eta edi-zioa, *Geroaren* hiztegia eta Axular-ez egin duen estudioa kaleratuz. Horien ondoan dau-de Lapeyre, Lavieuxville eta Mogel-en edizio kritikoak ahantzi gabe denok esku-pean daukagun euskal literaturaren historia.

— Gramatika “Luis de Eleizalde” deitutako sortan agertu diren 9 liburuek erakusten dute nahi ukan duela zabaldu euskara batuaren ezagutza, baitaki erakasle gisa peda-gogiaren balioa.

Ez dezaket ahantz nor izan den Aita Villasante Euskaltzaindian. Euskaltzainburu sartuz gero, 1970.ean, kudeatu ditu Erakundearen egin diren lanak, batzordeak sortuz ho-rietarik jalgi direlarik proposamenak Bergarako Biltzar Nagusian haundizki onartuak.

Arantzazu eta Bergarako biltzarren artean izan diren eztabaidak, kataskak eta pren-tsaren bitartez irainak, mespretxuak, kalumniak, Aita Villasantek jasan ditu guztiak se-kulan deus erranez edo erantzunez, iduriz apal zabiltzatelakotz ez zirela Arantzazuko gain hartara heltzen. Badakigu halere hitz mingarri horien oihartzunak heltzen zirela Aita Villasanteren belarrietara eta bihotza ximikatzen ziotela.



Luis Villasante eta Jean Haritschelhar

Nola ez aipa, bertzalde, egitura berri bat eman diola Euskaltzaindiari Aita Villasantek eta hori Jose Luis Lizundiaren laguntzarekin. Arrasateko Biltzarrean, 1979.ean, sortu dira batzorde iraunkorrak, bost orotara: Lexikologia, Gramatika, Dialektologia, Onomastika eta Literatura batzordeak, euskararen eremu guztiak hunkitzen dituztenak.

Aurten, Leioako Biltzarrean, erran nahi baita 15 urteren buruan, ikusi da zer izan den batzorde guzrien lana eta emaitza euskara batuaren bidean. Argi eta garbi agertu da zer egiten duen eta nor den Euskaltzaindia. Behar da itsu izan edo bederen itsutua izan ez ikusteko Euskaltzaindiak batzordeen bitartez Euskal Herriari egiten dion eskaintza oparoa:

- *Orotariko Euskal Hiztegia*
- Gramatika,
- Euskal Hizkuntz Atlasa,
- Onomastikako lanak,



— Literaturako eta ikerkuntzako azterketak hala nola Euskararen Lekukoak, Iker saileko liburuak.

Nola ez ikus, holako lanak egin baldin badira azken urte hauetan, egitura berriari esker eginak izan direla, talde-lana aberatsagoa eta emankorragoa delakotz bakar-lana baino.

Aita Villasante, duela sei urte, hemezortzi urtez Euskaltzainburu izanik utzi zenuen kargua eta hemen bertan, Lehendakariaren eta bertze agintarien aurrean egin zen kargu aldatzea. Erran nuen orduan, jadanik zuk urratu bideari jarraikiko zela Euskaltzaindia, bide zabala eta egokia zelakotz, orain frogatua den bezala.

Erlisioneari eta euskarari eman diezu zure bizi osoa. Saristatua zara egun Bizkaiko Foru Aldundiak eskaintzen dizun omenaldiarekin. Horretaz pozten da Euskaltzaindia eta berdin euskaltzain guziak bozkariatzen dira ongi merezitua duzun omenaldiaz.

Eskerrak nahi dizkiet eman, bai Bizkaiko ahalzun nagusiari eta Bizkaiko Foru Aldundiko ahalzun guziei, ohoretzat hartzen duelakotz Euskaltzaindiak bere kide bati egnikako omenaldia. Eta zorionak Aita Villasanteri bihotz-bihotzez.

Eskerrik asko.



**LUIS VILLASANTE KORTABITARTE JAUNARI  
BIZKAIKO FORU DIPUTAZIOAK  
EGITEN DION GORAZARREA**

*Bilbo, 1994-10-28*

*Jose Luis Lizundia*

Jaun-Andreok:

Leioan, Euskal Herriko Unibertsitatearen Errektoregoan Euskaltzaindiak bere bilkura berezia egin zuenean eta, XIII. Biltzarraren amaieran, eguneko gai nagusian sartu baino lehen, Tomas Uribeetxebarria Bizkaiko kulturako diputatuaren gutuna irakurri zenean, Aita Villasantek berak euskaltzain guztiei bere erabakiaren berri eman zien, hots, nik bete behar nuela "laudatio" gisakoa. Bene-benetan eta bihotz-bihotzetik eskertzen dizut hautakizun hori. Uste dut arrazoi bakarra zera izan daitekeela: Euskaltzaindia itsasuntzi bat legez harturik, zu izan baitzara 18 urtetan kapitaina, kapitain bakarra; Koldo Mitxelena izan da zuk zeuk izendatua untezi horren legezaina. Oroitzen naiz *Ossian* saria Gasteizen Mitxelenak hartu zuelarik, Mitxelena berari errepikatu zeniola:

"Mitxelena, zeu izan zara gidari."

Gasteizen 1983.eko martxoaren 10ean esaten zenuen legez:

"...beharrezko genuen norbaiten itzala, larderia eta adorea; bere jakintzaren pisuagatik, kemen eta argitasunagatik, egoera gaitz haretan gidari izan zitekeen norbait. Eta norbait hori zu izan zinen gidari eta giltzarri aditz batasuna egiteko jarri zen batzordean."

Iker sailburu horrez gain, Zuzendaritzako beste ofizial hauek izan zenituen 18 urtetan: Eusebio Erkiaga zena; Jean Haritschelhar, buruordea, denbora guztian; Juan San Martin, idazkari eta diruzaina; Jose Maria Satrustegi, idazkaria; Endrike Knörr, diruzaina; eta batzordeburu eta euskaltzain oso oro. Eta gu, ez ni bakarrik, makina gelan edo "sala de máquinas"en geunden, eta hor ez nituzke ahanzi nahi, Juanjo Zearreta, ekonomi eragilea; Jose Antonio Arana, bibliotekaria; Ricardo Badiola, argitalpen eragilea; jubilatuta Xabier Gereño; eta Euskaltzaindiko egoitzako eta ordezkarietzako lankide guztiak. Beraz, makina gela horretako makinista ni izan nauzulako, hartu ninduzuen zeregin horretarako. Eta ni beste "18 urtetan erromes laiko izan baitnaiz, hilean behin gutxienez, Arantzazura joanez". Nafarroako Diputazioan aurtengo martxoaren 25ean esan nuen legez.

Zeregin honetan bi hautabide nituen: bata, biografia bat egitea eta bestea, hau ere ohikoa dena, nolabait puntu hautatu baten zentratzea. Bigarren hau hautatu dut bi arra-

zoiengatik: batetik, zure biobibliografia oparoa, berak ohi duen trebetasunaz egina, Jose Antonio Aranak, diruzain eta bibliotekari lankideak, egin baitzizun Gernikan egindako omenaldian irakurri zuena, eta zuri eskainitako *Iker* 6an argitaratuta dagoena. Eskerrak eman behar dizkiot Jose Antoniori baliagarri izan dudalako; baina nire "laudatio" hau beste ildo batetik joango da. Labur-labur aipamen batzuk egin ondoren, hau da: 18 urtetan Euskaltzaindiaren untxiaren kapitaintzari buruz eta baita ere zuk euskarari buruz eta orohar Euskal Herriari buruz eman duzun maisutasuna. Lehendabizi, bidezkoa da Bizkaiko Foru Diputazioak omenaldi hau egitea, zeren eta ezer izatekotaz, Aita Luis Villasante Bizkaiko semea baita, alde guztietatik gainera, ez bakarrik Gernikako Errenterian, lehen Ajangizko auzo zen horretan 1920.eko martxoaren 22an jaio zelako, baizik eta Gernika-Ajangiztik kanpo, amaren aldetik, aulestiarra zelako eta aitaren aldetik Mena ibarrekoa. Ibar hau egun Burgosko probintzia bada ere, Bizkaiko Enkartzioetara lotzea nahi izan du behin baino gehiagotan, Balmasedarekin eta Bilborekin harremanak baititu, Burgosekin eta Villarcayorekin baino askoz gehiago... eta hori izan ez balitz, 14. orrialdean Jose Antonio Aranak dioen bezala, A. Villasanteren gurasoak agian ez ziren ezkonduko:

"...Bestalde, Mena haranekoek Balmaseda edo Bilborekin zituzten harremanak salerosketa arazoetan, eta Jose Villasante ere, errentalaria zenetik, Bilbora hurbiltzen zen sarri askotan. Halako baten Isidora aulestiarrekin topo egin zuen eta Luisa ahizparentzat partidu onekoa izan zitekeela menatarra iruditu zitzaion. Luisarekin arpegi-ikustea proposatu zion eta hala prestatu zen Jose Villasante eta Luisa Kortabitarteren ezkontza, 1919an burutuz."

\* \* \*

Berrogeigarren hamarkadaren azken alderantz hasi omen zinen euskara irakasten Arantzazuko ikastetxe serafikoko 14-15 urteko mutikoei. Euskaltzain oso 1951.eko irailaren 25ean izendatua izan zinen. Bizkaiko Diputazioaren bibliotekan Jauregi honen ondo-ondoan beraz egin zenuen 1952.eko maiatzaren 23an sarrera-hitzaldia, Federico Krutwigek erantzun sonatua egin zizularik.

\* \* \*

Zure ezagutza, urteko hilen izenen beharrezana proposatzean egin nuen eta galdegai bat burutu, zuk zeuk gero, proposamen txostena egin zenuelarik. Hala diozu zuk zeuk *Euskera* agerkarian:

"... aztertu ditut Lizundia jaunak gai honi buruz bidalitako txostenak 20 dira guztira. Izenik gehienetan bat datoz iritziak, honek esan nahi du batasuna ia egina dugula, eta abar."

\* \* \*

Arantzazuko azken bi Biltzarretan izan nintzen, 1963 eta 1968koan. Honetan egin zenituen bi txosten interesgarri. Benetan jakingarriak niretzat: "Batasunari buruz bibliografia" eta "Antzinako hitzen formaz". Eta noan Gipuzkoako Diputazioan 1970.eko uztailaren 29ra, egun horretan hautatua izan baitzinen euskaltzainburu eta ni han nen-

goen idazkaria ordezkatzeko, Juan San Martinek ez baitzuen egun hartan han izaterik. Oso ongi oroitzeko naiz egun horretaz, bozketaz eta abar. Zu izan zinen buru hautatua, Jean Haritschelhar, buruorde, Juan San Martin, idazkari eta Eusebio Erkiaga, diruzain. Kargu hartzea Ekialderen dagoen euskal herrialdearen hiriburuan, Maulen, egin zenuen, bertako Udaletxean 1970.eko urriaren 25ean, Salaberriren mendeurren ospakizunean, hain zuzen.

\* \* \*

Hemen sartzen naiz, eta ene ustez, "laudatio" honen punturik garrantzitsuean, hau da: zure kapitaintza. Hara, Mauleko Udaletxean esandako pasarte batzuk, zu ondo erretratzen zaituztenak:

"... Denok dakigu ondotoxo gure egungo arriskua zein den: gatzeta uretan bezala, Euskal Herria ere urtua, desegina izatea, bere dohain guztiak eta izate guztiak galtzen ditu: mintzaira, nortasuna, arimako bertute bereziak."

Eta aurreko buruari, han bertan baitzegoen, estimazio, adiskidetasun eta esker onak eman ondoren, Don Manuel Lekuonari, alegia, jarraitu zenuen:

"...gure asmoa (kargu berriona), ez da ba, erreboluziorik egitea, edo aurrekoek egin duten lana gutxietsi edo zokoratzea. Aitzitik, haiek egindakoa oinarri eta zimendutzat hartu, eta urrats bat aitzina ematea."

"Ohidura omen da (esaten zenuen) kargudun berriek bere lan programa aurkeztea...". "...Euskera zaindu eta lantzeko: Euskaltzaindia horra zertarako den. Hau da hunen eginkizun bakarra. Ez du beste politikarik. Euskera da beraren politika eta bandera. Euskeraren ona, euskeraren iraupena eta osasuna eragin, euskera gaur eguneko eginkizunetarako tresna zalui eta egoki bihurtzea. Hartarako behar diren bideak bilatu eta arauak eman... Eta bi erresumen mugen gainetik, euskaldun guztien artean, mugaz hango eta hemengoan artean, lokarri bat izan behar du. Eta ahal bada, eta ahal diteken neurrian, guztiontzat literario hizkuntza bat muntatzen bermatu eta enseiatu..."

"...Euskeraren etorkizuna eskolan garbituko dela: landare berriei, haur eta gazteei, irakasten ez ezpazae, gizaldi bat edo biren epean, euskerak erreka joko duela. Eta horregatik sortu da ikastolen mobimendu hori, gure haurrak eskolatzeko."

"Gure euskerak dituen korapilo eta problema guztientzat Euskaltzaindiak —bistan da— ez du erremedioa eskuan. Baina berari dagokion eremu edo saillean asko egin lezake, zenbait korapilo edo problemen soluzioa bilatuz. Hortarako sortua baita... Batzuek ez dute deus espero gugandik... Beste batzuek, berriz, dena gugandik espero dute..."

"...gure ahalmenak diren baino urrunago luza. Baina diren baino laburratgotzat jo ere ez. Guk ez dezakegu dena egin, baina ba dugu, noski, zeregin berezi eta erresponsabilidade larririk aski oren huntan."

Jarraian, 1970.eko azaroaren 25ean, beraz, hurrengo hileroko batzarrean, txosten hauek aurkeztu zenizkion Euskaltzaindiari:

1. “Euskaltzaindiaren egituraz”. Bertan aipatzen zenduelarik hiru sailetan Euskaltzaindia: Euskaltzainburuoa, batzordeak, ordezkariak.

Bigarren txostena hau zen: “Batzorde sortzeaz” eta “Donostiako ordezkari-tza horitxeaz”. Euskaltzaindiaren araudia berritzeko batzordeak proposatuz izen eta guzti.

Hirugarrena Euskaltzaindiaren prentsa bulegoaz egin zenuen.

Beraz, kargu hartu eta hasi zinen untzia berrantolatzen jadanik jarrita zeneukan ildo edo iparra ondo zehaztuta. *Eusker*a Euskaltzaindiaren agerkaria berriztatzeari ekin zenen, gero; 1971.eko martxoko bileran:

“Baina denboraren siñaleei ere kasu egiteko mementuan gaudela iruditzen zait. Aro berri baten atarian gaudela uste dut. Eginak egin, urrats bat aitzina egitea dagokio Euskaltzaindiari, gaurko egokerari begiraturaz. Legearen aurrean Euskaltzaindiaren nortasuna erabat onartua eta ezagutua izateraño joan nahi genduke...”

“...Eta horretarako, besteak beste, gure elkarte honek bere Boletina behar du.”

“...Euskaltzaindia instituzio bat da. Eta instituzio honek bere organua edo boletina behar du...”

“...*Eusker*a gaurkotu, eraberritu bat behar dugula, beste modu batetara antolatu eta gehiago zabaldu.”

Eta batzorde edo erredakzio kontseilu bat izendatzea proposatu zenuen. Ez nolana-hikoa, zu zeu euskaltzainburuaz gain, eta buruordea eta idazkaria, beraz, Haritschelhar eta San Martin; beste hauek proposatu zenituen eta onartu: “Alfonso Irigoyen, Lino Akesolo, Joseba Intxausti, Pierre Lafitte, Jose M.<sup>a</sup> Satrustegi eta Luis Mitxelena”.

“...Ejekutibo lana, berriz, funtzionario lana, gorago esan dugun bezala, Lizundia jaunaren esku geldituko litzateke, hau da, Idazkari ordearen eskuan.”

Hemen Bilbon urte horretako apirilean egindako hileroko bilkuran “Hileroko batzar eguna hobeki aprobetxatzeaz” egin zenuen beste txosten bat. Jadanik lehenago “Idaztarauak estudiatzeko” batzordea ere proposatu eta onartua zenuen txosten interesgarri batez, Iruñean 1970.eko abenduan, egindako bilkuran. Eta hain zuzen, 1971.eko maiatzaren 28an Donostian egindako bilkuran lehen txostena aurkeztu zenion batzarreari: “Puntuazio marka batzuk, non, noiz eta nola jarri” lehen puntu legez.

Aramaion 1971n egindako bilkuraren ondorioz, “Herri Izendegi” batzordea sortu zen, sei lagunekoa, Mitxelena buru zelarik; eta bestalde, kontseilari atala herrialde guztietako aholkulariekin, Errioxa barne:

“Zabalegia ere izan ez dadin mugatu beharko dugu —zioen Villasantek— oraingoz behintzat toponimo handien izenak, herri-izenak, auzo handitxoak eta abar.”

Arautegi berria egiteko txosten eta ildo nagusiak ere berak markatu zituen, horretarako batzordeak bi eratara jarritz, atal eragilerako lau lagunek osatua eta aholkularitza atalerako beste sei. Arautegi berria 1972.eko urtarrilaren 31n bukatu zen. Baina arautegia onartzeaz aparte, gestio-gintza ere agindu zuen euskaltzainburuak:

“...Euskaltzaindia instituzio bat da eta nahi dugu hala aitortua eta ezagutua izan dadin; legearen aurrean bere nortasuna aitortu dakion, alegia.”

Horretan ere aita Villasantek ez zituen ahazten lau erakunde sortzaileak, hots, lau Diputazioak, Bizkaikoa lehendabizi, zeren eta hemendik etorri baitzen Euskaltzaindia sortzeko asmoa. Batzorde eta eginkizun asko aipatzea nahiko nitzuke, baina Villasanteren ‘curriculum’ean bada beste gauza bat, “Epe berri baten aitzinean” deitzen zena, gero “Urtebikoari begira” deitua; gaztelaniaz “plan de actuación”, deituko genioke. Hemen, Bilbon, 1972.eko abenduaren 29an, bere bigarren agintaldian, 12 ekintza aipatzen ditu: aitz batasunarena, herri eta herritarrena, biblioteca berriztatzea, hiztegiak, ordezkariak jartzea eta abar.:

“Aipamen berezi eta apartekoa merezi du oraindik beste obra handi batek. Guztiok dakizuten bezala, gure lagun Mitxelena aspaldiko urteetan Euskaltzaindiaren mandatuz hiztegia gertutzen hasia da.”

Villasantek Bilbon, 1972.eko abenduaren 29an aurkeztutako eta onartutako adierazpena aipatzera noa orain. Eta adierazpen hori urrezko letraz jarriko nuke nik, zeren eta bere maisutzagandik ikasi baitut nik eta politikarako ere baliagarri izan dudala uste dut, nire sektarismoak arbuizatzeko, eta hau da: euskararen eta Euskal Herriaren pluralismoa. Eusko Legebiltzarrean, etxe honetan, eta Gernikan, beraz, Bizkaiko Batzar Nagusietan ere baliagarri izan dut, eta hau da: gure Herriaren aniztasuna, pluralismoa ulertzen zentzurik liberalena berari zor diot.

Handik hiru egunera, Urte Berri egunean Arantzazutik adierazpen famatu hura zabaldu zenuen. Bi hizkuntzetan argitaratu zenez gero, gaztelaniazkoa dakart orain zuengana, euskara ulertzen ez duen norbaitentzat ere interesgarria izango baita:

“La Academia de la Lengua Vasca es una Institución fundada en 1918 bajo los auspicios de las Diputaciones de Alava, Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya para velar por la lengua vasca, fomentar su estudio y uso, dar orientaciones para su cultivo literario, etc. En dicha Academia tienen entrada representantes de todas las regiones históricas del País y de todos los dialectos y variedades de la lengua vasca.

Por su misma índole, la Academia es una entidad puramente científico-cultural, apolítica, no enfeudada a partidismos. En su seno se da cabida al más legítimo y sano pluralismo.

La Academia ha comprendido siempre que el euskera, como lengua de un país, es un bien o patrimonio de todos, que, en consecuencia, no debe ser monopolizado por un sector, partido, clase, confesión, etc.

Dentro de esta línea ha trabajado siempre y trabaja en la actualidad.

Como en toda institución humana, es normal que también dentro de ella haya a veces discrepancias respecto a determinados problemas lingüísticos o literarios. Pero esto, naturalmente, no debe ser parte para paralizar la Institución, so pena de volverla inoperante y de incumplir los fines para los que se fundó y por los que tiene razón de existir.”

\* \* \*

1973. urtea; uste dut oso ongi frogatzen duzula Aita Villasante, zu izan baitzinen gure Erakundearen, Euskal Herri osoa hartzen duen erakunde bakarraren kapitain zehatza. Euskal Herriaren izakera anitzari buruz, uste dut, bere gidaritzapean egin duela Euskaltzaindiak. Eta hau da: Euskal Herri guztia hartu duela bere eremutat Euskaltzaindiak eta ez dagoela beste erakunde bat hainbeste tokitan bildu denik; dela mendeurrena, dela ospakizuna, dela euskaltzainen sarrera, hitzaldi eta abar..., herrialdez herrialde Euskaltzaindiak arakatu du gure Herria. Hasi Zuberoan, bere sarreratik, Mauletik, eta beste mendeal bazerrean bera buruzagi zela Avellanadako Batzar Etxean Euskaltzaindiak bere II. Onomastika Jardunaldiak egin zituenara. Berdin Barne-Jardunaldiak. Ez nuke ahanzi nahi gaurko Euskal Herri historikotik kanpo ere, bere agintaldian joan ginela Errioxako Donemiliaga Kukullara/San Millan de la Cogollara, Alfonso Irigoienen sarrera-hitzaldira eta baita Juan Bautista Merino Urrutiaren omenaldia ere.

Besteen ideiak ere jaso eta onartu, bereak ez zirela esan gabe, beti ere nor zen ideiaaren emaila, horretan ere zintzoa izan baita Villasante, zenbait eginkizun berak bideratu eta gauzatu ahal izana: hala nola, "Emakumea euskal literaturan" Gabriel Aresti berak proposatua. Emakumeak euskal literaturan, "Emakumearen Nazioarteko Urtea"enez, proposatu baitzuen Gabrielelek, txosten interesgarria eginez. *Zortzi urte arteko ikastola hiztegia*, euskal irakasle titulu emateko txostena... Mendeurrenetan, sarrera-hitzaldietan, euskal idazle, euskalari bat omenduz egin ohi zuen sarrera Euskal Herriko hainbeste tokitan; banan-banan irakurtzekoak dira, bai euskararen aldetik eta baita edukinaren aldetik ere: sakonak eta jakingarriak. Nik uste dut noizbaiten guztiak bildu eta *Euskeran* eta beste toki batzutan sakabanatuta daudenak bilduma baten argitaratzea meheziko lukeela, hortik ikusiko bailitzateke aita Villasanteren nortasuna.

Bitor Garaitaonaindiaren mendeurrena zela eta Zaldibarren 1976.eko martxoaren 6an, ez bakarrik Euskaltzaindiaren legezko nortasuna, baita ere Euskara Batua eta euskalkien eta bereziki bizkaieraren harremanen berri emandako txosten paregabea ere, oso jakingarritzat jotzen dut. Garaitaonaindia izan baitzen, zaldibartarra izan arren, euskara batuarekin kezkatutariko bat, beste bizkaitar asko bezalaxe.

Urtebikoari begira epe barri baten aitzinean, 1977-78koari buruzkoak ez du ezer galtzerik. Politika giroaren aldatzeaz ere bai dihardu hartan. Beste eginkizun, eta berak zioen bezala, *Iker* eta *Jagon* Saileko lan batzuren beharraz. "Bai Euskarari" kanpainaren aldeko jaialdiaren amaieran Santimamiñeko futbol zelaian, hemendik hurbil, 1978.eko ekainaren 17an, esandako hitzek ere bere kapitaintza ondo markatzen dute. Han aipatzen ditu Orixeren hitzak:

"Cualidad de pueblo/herritasuna, qué es eso, sino la vasquía y cuál es su constitutivo ingrediente, si no único, sí uno de los principales, el euskara, sin duda. El euskara es el que nos ha dado nombre de pueblo y conciencia de pueblo: Euskal Herria/ País del euskara."

Beste puntu bat aipatzea nahi nuke Villasanteren gidaritzapean egindakoa. Euskaltzaindiak bi urtez behin kargu berriztatze bakoitzearen ondoren, 1979tik Barne-Jardunaldiak egiten ditu, helburu nagusi bi izaten dituztelarik, gutxienez: bata, Euskaltzaindiko batzordeak berriztatzea, eta bestetik bakoitzean izaten du zeregin propioa. Horretan



ere hasieran, lehendabizikoak beti herrialde desberdinetan egin ditugu: 1979an Foruan, frantziskotarren komentuan eta luze ez balira, irakurtzekoak dira bere sarrera-hitzak:

“...oraingoan bilera hau gure barneko egoera bera aztertzeko da, gure ajeak eta hutsak zein diren ikusi —hots, gure ahuleziak, gaitzak eta akatsak—, eta guzti honi erremedioa ipintzeko eta egoera hobetzeko, bideak bilatu; eta azkenik, denon artean elkarrizketa eginez eta eztabaidatuz behar diren erabakietara heldu. Gaurko uneak eskatzen duena nola hobeki erantzun, Euskaltzaindia nola tresna bizkorrago bihurtu, gaurko eginbeharrei erantzuteko nola Euskaltzaindia gai bihurtu. Horretarako gure egituran zer aldaketa egin behar den ikusi eta ahal dela erabaki. Horra zertarako diren jardunaldi hauek.”

Handik bi urtetara, Gipuzkoako Loiolan, gero Arabako Angoston, Nafarroako Le-karozen, Lapurdin Iparraldeko Angelun eta berriz Gipuzkoako Lazkaon, Iparraldeko Zi-burun eta azkenik, iaz, Bizkaiko Zornotzako barnetegian egin ditugu, bakoitza bere gai bereziekin. Bilkura bakoitzeko sarrera batzuetan esandakoak irakurriko genituzke den-bora bagenu.

Sei liburu: *Hacia la Lengua Literaria Común, La Declinación del Vasco Literario Común, Palabras Vascas Compuestas y Derivadas, Estudios de Sintaxis Vasca, La Oración Compuesta, Sintaxis de la Oración Simple, La H en la Ortografía Vasca* izene-koak, in ‘Colección Luis de Elizalde’. Ez pentsa alperrik hautatu zuenik aita Villasantek izen hau. Hitz bitan esanda, Luis Elizalde, Euskaltzaindiko lehen lau sortzaileetarikoa: gipuzkoarra, bergarra jaiotez, bizkaieraduna euskalkiz, Gasteizko Institutuko irakasle izan zen; Bizkaiko Diputazio honek —Sota buru zen Diputazio abertzaleak— Eduardo Landetaren bidez Bizkaiko auzo-eskolen hezkuntza elebidunaren arduradun izendatu zuen; oker ez banago, EAJren EBBkoa ere izan zen. Luis Elizaldek aipamena merezi zuela uste izan dut gaur gauden foru erakunde honetan. Nork daki Elizalde euskara batuaeren aintzindaritariko bat izan zela?

“¿Qué es la lengua literaria? —dio lehen liburuan—, es una forma cristali-zada, convencionalmente fijada, unificada y normalizada, que adoptan los usuarios de una determinada lengua a la hora, sobre todo de escribir. Hablada o viva está sometida a una ley de disgregación, de evolución, de parcelación, cambio y diferenciación incesante. Mientras esto no suceda, todos los pueblos que han adquirido un cierto grado de civilización y cultura, han creado ese instrumento que se llama la lengua literaria que conviene a los que poseen un título de distinción.”

Liburuxka hauen bakoitzaren sarreran pieza literario jakingarriak eta irakurgarriak daude, gustura aipatuko nituzkeenak, astirik balego.

Villasanteren buruzagitzapean Euskaltzaindiak hasten ditu Jardunaldi bereziak, hala nola Onomastikakoak: Gasteizen, Urduñan eta Lizarran; Dialektologiakoak: Deban, Do-naixti-Ibarren, Markinan; Gramatikakoak: Beloken, Leitzañan, Plentzian eta abar. Eus-kaltzaindiaren eginkizunak, euskaltzain oso eta batzordekideez gain, zabaltzeko gai horretan ari zirenen artean. Ahoskerari buruz: lehenak Azkoitian, Durangon, Angelun eta abar.

\* \* \*

Bizkaiko Diputazio honi buruzko aipamenak behin baino gehiagotan egin ditu. Hiru

aipatuko ditugu: bata, 1984.eko uztailaren 27an, Patxi Zurikarai, kultura diputatuaren aurrean, Euskaltzaindiaren egoitza berria hartzean estreinuko aldiz, hau zioen:

“Gauza jakina da Euskal Herriko lau diputazioen umea edo sorkarria dela Euskaltzaindia eta lokarri hori gogoz aitortzen dugu, baina aparteko modu batez Bizkaikoarekin lotura bereziak ditugu, berau izan bai zen Euskaltzaindia sortzeko arazo honetan aurrea sortu zuena”.

Bigarrena, egoitza berriari buruz hitzarmena sinatu zutenean, Bilbon 1985.eko uztailaren 10ean, berak eta orduan diputatu nagusi zen Jose Maria Makua Zarandonak:

“Euskaltzaindiaren izenean esker onik biziena agertu nahi deusat Bizkaiko Diputazioari egin deuskun mesede paregabe eta eskerga honengatik.”

Hirugarrena, etxe honetan, Bilboko euskal katedraren 100. urteburua, 1988.eko uztailaren 1ean, izan zen. Hau dio:

“Baina kasu eman diezaiogun aldiari, histori uneari, izan ere, orduan Bilbon presezki, zerbait berria sortzen da, eta sortzaileak, Arana eta Azkue izango dira.”

Bilbo hiri handi, zabal eta aberats sortzen ari denean, eta bertan, euskarak krak egiten duen unean, zer da eta orduantxe gertatzen da fenomeno berri hori.

Azkenengoz, mahai honetatik, 1989.eko urtarrilaren 29an, hitz egin zuen, hemen hartu baitzuen berak Iparraldean egin zuen bezalaxe, euskaltzainburu berriak —Jean Haritschelharrek— buruzagitza hartzea, kapitaintza hartzea. Hil batzuk lehenago, berak Urbiako istripua izan ondoren, eta agian, konturaturik bere urteak aurrera zihoazela, pentsatu zuen bat ere espanturik gabe kargua utzi behar zuela. Oroitzen naiz hemen bertatik hurbil, Iralabarriko komentuan, berarekin despatxatzen izan nintzen baten, aprobetxaturik Arantzazura joan beharrean bera Basurtuko Ospitalera zetorrela, galdetu zidan atariko bisitagelan, 1988.eko uztailaren 6an, nola zeukan kargua uzteko asmoa eta ia eragozpenen bat egon zitekeen juridikoki Frantziako Errepublikako hiritar bat euskaltzainburu izateko, Jean Haritschelhar, alegia. Nik ez nuela ikusten erantzun nion, kontuan izanik bestalde, Espainiako Erresuma Europar sarturik horrelako mugak gaindituak zirela eta ulergarri izango zela.

\* \* \*

Harrezkero jarraitzen du, hala eta guztiz ere, Euskaltzaindiarentzat eta euskararentzat lan egiten, Euskara Batuko batzordekide bezala, zintzo-zintzo bileretara etorri eta lana eginez. Eredugarri izan da horretan ere, buruzagitza uzteko nolako umiltasuna, liberaldutasuna, apaltasuna izan duen Gernikako Errenteriako seme honek.

Azken puntu bat, *Euskararen Auzia*z liburu da. Liburu ederra, mardula eta euskaltzale guztiok irakurri beharko genukeena. Lehen kapitulua benetan interesgarria: “Burutik kendu beharko genituzkeen irudipenak”.

\* \* \*

Ez da Villasanteren omenaldi honetan aipatu izan dudana Euskaltzaindiarekikoa

bakarrik, zeren eta azpi-azpian, Euskal Herriko herrigizon garrantzitsuenetariko bat izan dela, esango nuke: herrigizon/gizon publiko, ez politika mailan, baina bai publikotasunean eta bai Euskal Herriaren ezaguera sakoneko bat izan duena bere aniztasun guztiakin, hizkuntzarena barne. Eta hor ikusten da bere gobernamendu zentzua, erakunde bat, Euskal Herrian nagusienetarikoa, gobernamendu horren zentzunik bat ere absolutistarik gabe; alderantziz, botere aginteen banaketa ondo egiten jakin duena, eta hasieran esan bezala, itsasuntzi baten kapitaina izaten jakin du, ofizialei dagokien gidaritza ematen, ez bakarrik utzi baizik eta bultzatu, makinetan gabiltzanoi lagundu eta kontuak hartu... Hori da gaur Bizkaiko Diputazioak eta berarekin batera bizkaitarrok eskaintzen dioguna.

Zorionak eta eskerrik asko.



**BIZKAIKO FORU DIPUTAZIOAK**  
**LUIS VILLASANTERI**  
**OMENALDIA**

*Bilbo, 1994-X-28*

*Luis Villasante Kortabitarte*

José Alberto Pradera, Bizkaiko diputatu nagusi agurgarria.

Bizkaiko Diputazio txit leiala.

Euskaltzainak.

Jaun-Andreak: bake eta on guztioi.

Harriturik eta unkiturik ere banago omenaldi hau dela eta. Edozein modutan ere, eskerrak eman beharrean naiz eta gogotik ematen dizkiot, bai Euskaltzaindiari eta bai Bizkaiko Diputazio txit agurgarriari.

Gizonaren bizitzan gertatzen dira noberak gutxien usteko lituzkeen bezalako bideak hartzea. Garai batean nork esango zidan niri hartu ditudan egitekoak niregain hartu behar nituela? Neronek ere ez dakit zuzen esaten zergatik hala izan den, baina iduritzen zait bizitzako gora-beherek, gure inguruan ikusitako gertaerak eta gerrek izan dutela honetan parte ez txikia. Eta noberaren bizitzan zehar ezagututako adiskideak; etab.

Salbatore Mitxelena fraidea, eta geroago beste Mitxelena (Luis); eta nola ez aipa, Federico Krutwig jauna, zeini zor diodan Euskaltzaindian egotea; baina ez noa izen-lerrokada luzatzeraz. Komentua ere aipa beharrean naiz, noski, zeren bestela, jaioterritik nekarren euskal landare makala ezingo nuen inondik ere hazi eta aberastu.

Eta zerk eragin zidan euskal alor hau lantzeraz? Ba ote dakit neronek ere? Honetan ere uste dudana esango dut, baina ez dakit ziur gauzak hala ote diren. Gerra eta gerra ondoko giroaz euskal landarea galtzeko arriskuan ikusten nuen, eta pentsatu nuen —ez nik bakarrik, beste batzuekin batean baizik— lagundu behar niola. Eta komentu barruan aurkitu nuen lan horretan aritzeko behar zen giroa eta bai bide batzuk ere. Guzti horiekin zordun naiz, bada. Eta denei eskerrak eman beharrean naiz.

Eta Euskaltzaindia ezin dut, noski, aparteko modu batean aipatu gabe utzi. Oso gaztea nintzela hartu ninduen honek bere galtzarrean. Urte txarrak ziren euskal gaurzatzat. Gero jakin dudanez, eta Azkue jaunaren baimenaz, noski, F. Krutwig jauna hasi zen Euskaltzaindian gertatutako hutsuneak hornitzen, eta beste batzuen artean ni ere

aukeratua izan nintzen. Euskal alorrean zer nuen eginik orduan? Hutsa. Arantzazuko errebistan agertutako artikuluren bat edo beste (1).

Baina Euskaltzaindian sartzeaz gauzak ez ziren asko aldatu. Izan ere, hutsa edo hutsaren pareko zen Euskaltzaindiak orduan egin zezakeena. Bilerak, bai, egiten ziren, eta beroietara joaten nintzen, baina behin baino gehiagotan nire buruari esan nion mezezi ote zuen joatea. Konpromisua, ordea, hartua nuen eta emandako hitza bete behar nuela iruditu zitzaidan.

Esan behar dut, gainera, ene baietza eman baino lehen, gure Aita Probintzial Leteren aholkua galdegin nuela. Eta hark esan zidan baietz, eskainitako izendapena onartzeko. Zergatik egin nuen hori? Ikusten nuelako honelako kargu batek baldintza zezakeela asko edo guti nire bizitza. Horregatik jo nuen gure Probintzialarengana baimen edo iritzi eske.

Nire sarrera-hitzaldia hemen Diputazioko jauregi ondoan den liburutegian ospatu zen 1952ko maiatzaren 23an (2).

Eman zidaten diploma sinatzen dute Nazario Oleaga jaunak idazkari gisa eta Lekuona'tar Imanolek euskaltzainburuaren orde. Azkue jauna ordurako hila zen, noski —aurreko urtean hila—. Euskaltzainburu edo buru orde Ignacio María Etxaide zen; hau Donostian bizi zen eta ez zen ospaketara etorri. Baina ospakizun hartan ordezeko izatea Lekuona jaunari utzi zion.

Apurka-apurka Euskaltzaindiaz zuzenean zer ikusi handirik ez zuten lanetan sartu nintzen, hots, Axular, euskal literaturaren historia, etab.

Euskaltzaindiak 50.eko hamarkadan antolatutako biltzarren artean azpimarratzekoa dela, uste dut, 1958an hemen Bilbon egin zena. "Euskal hitzak zein diren", hau zen biltzar hark argitu nahi izan zuen puntua eta egin ere konplutuki bete eta erabaki zuena. Mitxelena izan zen orduan ere bere jakituriaz auzia erabaki zuena —eta desterrutik etorri berri zen Sebero Altube jauna ere bai—. Puntu hau eztabaidatzea eta erabakitzea behar-beharrezkoa zen orduan, zeren eta gehiegizko purismo batek azpian hartua eta katigatua zuen euskara. Euskaraz erabiltzen zen hitz bat erdaratik zetorrela ikusten zen bezain laster, hitz hura kanpora bota behar zen eta hark utzitako zuloa estaltzeko, beste bat asmatu behar zen. Baina jokabide horrekin nora joan gintezkeen? Inora ere ez.

Beste biltzar bat sonatua, 1968an Arantzazun, egin zena dugu. Ordurako askok ikusten zuten euskarak, biziko bazen, idatzizkoan behintzat, batasun batera jo behar zuela, eta hortarako euskalki bat —edo bakarrik edo beste euskalki batzuetatik gai batzuk hartuz— proposatzen zuten batasun-bide.

Hemen ere Mitxelena izan zen argia ekarri zuena. Euskalkiak batasun ezaren sorzaile eta ondorio direlarik, nolatan eraman gaitzakete batasunera? Ez du itxurarik. Be-

(1) Eta Euskaltzaindia aipatua dudanez gero, adierazi nahi dut Euskaltzaindian badudala nire lagun bat nire berekoa dena, hots, J.A. Arana Martija; asko zor diodana, gainera, nire bibliografia etab. idatzi baitu. Adin berekoak ez izanik, ordea, eta ni neure jaioteritik Arantzazura oso goiz joan nintzelako, ez dugu berandura arte elkar ezagutzeko abagune handirik izan. Dena den, gaur eskerrak eman nahi dizkiot berari niri buruz egin duen lanagatik.

(2) Sarrera-hitzaldia *Boletín de Amigos del País* delakoan agertu zen, artean ez baitzen *Euskera* azaltzen. Ikus BAP (1952), 91-119, 259-298.

raz, euskalkiak sortu baino lehenagoko euskara batuan behar ditugu begiak kokatu, batasunera joan nahi badugu behintzat. Baina, jakina, antzinako euskara batuan badira gaur zeharo hilak dauden gauzak, eta horiek berpizten ez dugu denbora galdu behar; orduko gauzak, ordea, orain ere, oraingo euskeran edo gaurko euskeraren parte dexente batean bizirik badaude, horiei bai kasu egin behar diegu. Era honetara Mitxelenak marraztua utzi zigun euskara batuaren itxura eta zeregina. H letraren onartzea lege honen aplikazio bat baizik ez da.

Beste arazo larri bat ere bazen garai hartan, eta Euskaltzaindiak aurpegi eman zion beroni, hots, euskal irakasle tituluak sortzeari. Artean ez baitzen ia inon ere euskara irakasten. Eta garbi ikusten zen, euskara biziko bazen, eskolan sartu beharra zuela. Eta horretarako zer egin zuen Euskaltzaindiak? Euskal Irakasle titulu hori berak sortu, ikas-taroak eta etsaminak antolatu eta etsaminak gainditzen zutenei hartako diploma eman. Urrats handia izen zen hura. Euskaltzaindiak, bada, bere kontutik eta beregain hartu zuen premia honi erantzutea. Ekintza honek arrakasta eta erantzun ezin hobea izan zuen gure Herrian. Jakina, gero, autoritate publikoak bere gain hartu zuen, bidezko den bezala, zeregin hau, eta orduan Euskaltzaindiak utzi egin zuen. Baina hasiera obra honi berberak eman zion.

Beste lan handi bat ere egin zuen Mitxelenak batzorde baten laguntzaz, hots, ordenagailuz bildu euskeraz mendeetan zehar inprimatu den guztia. Hortik gero prestatu da edo prestatzen ari da oraindik *Orotariko Euskal Hiztegia* deritzona, hots, euskeraz atera den guztiaren biltegia bezala dugun hiztegia. Gaur arte 6 liburu atera dira eta oraindik hiztegi hori "e" letran doala uste dut. Euskeraz mendeetan zehar atera den guztiaren biltegi honetan izango dute, bai euskal idazleak, bai euskalariak, jakin-iturri paregabea.

Badakit, azkenik, Euskaltzaindian lanean ari diren beste batzorde batzuek ere hemen hitzegin beharko nukeela: adibidez, Gramatika batzordeak, Onomastika batzordeak etab., baina bego, labur egon behar dudala esan didate eta. Dena hemen aipatzerik ez dago.

\* \* \*

Ohitura omen da honelako egokieratan zerbait eskatzea. Nik, bada, hauxe eskatuko nuke: Juan Mateo de Zabalaren *sermoiak* argitaratzea. Denak ez badira, sail bat bederen aterako nuke, hortarako laguntza izatekotan, jakina.

Nor zen, bada, Juan Mateo de Zabala hori? Bilbotarra zen, San Antongo elizan bataiatua. Zarautzen hil zen 1840. urtean. Frantziskotar fraidea (\*).

---

(\*) Aita Zabalak esaten digu, bera fraide sartu ondoren, apaiz-karrerako estudioak euskerarik egiten ez zen lekuetako komentuetan egin behar izan zituela, eta orduan euskeraz dorpetu egin zela. Gero, berriz, apaiz-lanak euskeraz egingo bazituen, euskera berreskuratu beharrean gertatu zela. Meza eman ondoren, Bilbon bertan bilbotar gazteei eskolak ematen jardun zen. Baina garai nahasiak ziren haiek, bonapartismoagatik batez ere. Galizia aldera joan beharra izan zuen, eta han Herbon-go (Coruña) Mixiolari-kolejioan bi urte pasa zituen, eta hain zaletu zen Mixiolari-kolejio horietan egiten zen bizimoduaz, non, handik itzultzean, Zarauzko Mixiolari-kolejioan sartzeko baimena eskatu zuen, eta baita baimen hori lortu ere. Zarauzko kolejio horretako nagusi edo Guardián bi aldiz izan zen, baina han ere egun txarrak ikusi behar izan zituen karlista eta liberalen arteko istiluegatik bereziki (Ikus *El Verbo Regular Vascongadore*n hitzaurrea eta Aita Zabalak etxekoek egindako eskutitz batzuk).

Ez naiz hemen hasiko Juan Mateo Zabala honek hizkuntz-maisu bezala dituen goi-beheak neurtzen. Zertxobait esan beharra dut halere. Hark bere bizi-denboran ez zuen bere lanik agertu. Bera hil ondoren, ordea, Gipuzkoako Diputazioak argitaratu zuen Aita Zabala honen *El Verbo regular vascongado del dialecto vizcaino, 1848*. Eta Bonaparte Printzeak bere kontuz agertu zuen, baita ere, Aita Zabala honen beste lan bat, hots, *Noticia de las obras vascongadas que han salido a la luz después de las que cuenta el P. Larramendi*, San Sebastián, 1856.

Bibliografi lana da, noski, askenik aipatu dudana hau. Bibliografi honetan esaten du Zabalak, egilea bizi denean, berak ez duela liburuaren kritikarik egingo liburuak bere ustez kritika onik merezi ez badu (Hizkuntza aldetiko kritika du gogoan gure Zabalak (3)).

Honekin esanik dago, noski, batere kritikarik egiten ez duenean, egileak ez duela, Aita Zabalaren ustetan, kritika onik merezi. Eta hauxe da kontua: berak bere bibliografian aipatzen dituen euskal idazleen artean badira bi, bera bezalaxe, Zarauzko Kolejio edo komentu hartako fraide zirenak, hots, Aita Añibarro eta Aita Jose Kurz Etxeberria oiartzuarra. Lehenbizikoari buruz laudorio handiak egiten ditu Zabalak. Bigarrenari buruz, aldiz, ez du deusik esaten, eta aldeaz aurretik esan duenaren arabera, badakigu isiltasun honek zer esan nahi duen: ez duela, bere ustez, kritika ona merezi.

Oiartzuar idazle horrek bi itzulpen gutxienez zituen argitaratuak, hots, *S. Frantzisko Saleskoaren Debozioso bizitzarako sarrera*, 1821ean aterea; eta *Jesusen imitaziozko liburu* edo *Kenpisa*, 1829an.

Aita Zabalak, bada, liburu hauei ez die batere kritikarik egiten, eta, jakina, aldeaz aurretik egin duen abisuaren arabera, badakigu ez zuela liburu hauei buruz iritzi onik, euskararen aldetik, noski. Erdal hitz asko erabiltzen zituen oiartzuar honek bat ere premiarik gabe, gure Zabalaren ustetan.

Oiartzuarrak, ordea, bazekien nonbait Juan Mateo Zabalaren iritzien berri eta erantzuten du hitzei kasu egitea haurkerietan ibiltzea dela (4).

Baina, jakina, nahiz idazleek nahiz hizlariak, nolatan ez dute hizkuntzaren eta hitzen kontu izango? Arazo honetan Juan Mateo de Zabalak arrazoi zuela esan behar dela uste dut.

Eta pasa gaitezen, beste gabe, Aita Zabalaren euskal idazkiei buruz zerbait esatera. Aita Zabalaren euskal idazkiak sermoiak dira, mixioetakoa sermoiak. Bizkaieraz daude.

Gauza bitxia da benetan Aita Zabalaren sermoiekin gertatua. Zarauzko komentua-ren artxibuan —bera bizi eta hil zen komentuko artxibuan, alegia— Aita Zabalaren beste gauza batzuk gorde dira, baina sermoirik ez. Aita Juan Ruiz de Larrinagak gure Zabala honen gauzak arretaz aztertu zituenak, hark egindako beste lanak xeheki aipatzen ditu, baina sermoien aipurik ez du egiten (5). Neronek ere neure *Historia de la Literatura Vasca* liburuan ez ditut aipatzen.

(3) Ikus VILLASANTE, *Historia de la Literatura Vasca*, n.º 268.

(4) Ikus S. Frantzisko Saleskoaren bizitzarako sarreraren hitzaurreko nota batean esaten duena. Ikus, baita ere, VILLASANTE, *Historia de la Literatura Vasca*, n.º 275, nota 92.

(5) RUIZ DE LARRINAGA (Juan): "El Vascófilo Franciscano R.P.Fr. Juan Mateo de Zabala. Estudio bio-bibliográfico. Con un apéndice de D. Luis de Lezama-Leguizamón", San Sebastián, 1927.



Zer gertatu zen, bada, Aita Zabalaren semoiekin? Inork ere ez zekiela non zeuden, eta ez ba ote ziren ere.

Orain, berriz, badakigu hiru liburu guttienez utzi zituela Aita Zabalak ongi josiak eta enkuadernatuak, bere letra ederraz idatziak. Hiruek dute titulu berbera, hots, *Doctrina ta Sermoia*c. Titulu bikoitz honek zer ikusi du Zarauzko herri-mixiolariak mixioetan egiten zituzten predikuekin? Izan ere, bitarikoak izaten ziren prediku horiek:

1) *Doktrinak*: Zer ziren hauek? Entzulearen adimena argitzera zihoazenak: sinestu behar diren egiak, gorde behar diren aginduak, hartu behar diren sakramentuak, etab.;

2) *Sermoia*k: hauek gizonaren bihotza eragin eta bultzatzera doaz, konberti dadin, etab.

Hiru liburu azaldu direla esan dut. Bat, non, eta Jerusalem. Bai, Jerusalem. Han dago orain ere, baina badugu beronen fotokopia. Nola izan zen liburu hori hara joatea? Ez dakigu zuzen, baina badakizue frantziskotarrak direla Jesusen bizitzako gertaerak gertatu ziren toki santuen zaindaria. Fraide euskaldunen bat joan zen hara nonbait, han urte batzuk pasa eta gero berriz itzultzekotan, baina han hilko zen eta han gelditu zen liburu hori. Nikolas Zumalde frantziskotarra izan zen liburu honen berri ekarri ziguna. Ondo gogoan dut behin nola erakutsi zidan fotokopia bat, bertan ageri zen letra norena izan zitekeen galdetuz. Eta nik ikusi bezain laster erantzun nion:

“Letra hori Juan Mateo de Zabalarena da. Aspalditxotik dut ezaguna”.

Oso kaligrafia ederra, dotorea eta argia zuen, ba, Aita honek.

Bigarren liburua, aldiz, Irungo pasionisten komentuan gorde izan da. Eta hirugarrena Bermeoko gure komentuan.

Nire susmoa da, bada, Aita Zabala hil zenean —eta handik guti Mendizabal-en desamortizazio-legea aplikatu zen Gipuzkoan, erlijiosoen bizitza debekatu; apaiz bezala, ordea, bizi zitezkeelarik. Nik uste dut, bada, Aita Zabala hil zenean fraide batzuek hartu zituztela haren sermoi-liburuok beren predikuetarako lagungarri izango zituztelako ustetan. Urte askotan liburuon jabeak zein ziren eta beroien egonlekuak non zeuden jakin gabe egon gara, baina azkenean agertu dira.

Ni euskaltzainburu nintzela, eskatu nion Itziar Rekalderi —Gasteizko Euskaltzaindiaren ordezkartzako langileari— beste lanik gabe zegoen uneetan, ordenagailuz pasa zituztela sermoiok, eta zati handi xamarra egina dago. Baina ordenagailura pasatua originalaren arabera aztertu eta zuzendu ere beharko da, noski.

Adierazi nahi dut, bada, behar den laguntza eskuratzen badut, eta Jainkoak osasuna emanik, bilbotar honen euskal lanaren zati bat bederen argitara nahi nukeela, eta nire ustez argitaratzea merezi duela.

Badakit nik liburu hauek ez direla gehiegi saltzen; baina gure hizkuntzaren lekuko dira, eta behar ditugu ezagutu, aztertu eta eskutan erabili, hizkuntzaren beraren sustraiek gugan erro sakonagoak egin ditzaten.



**BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK**  
**AITA LUIS VILLASANTE KORTABITARTE**  
**JAUNARI OMENALDIA**

*Bilbo, 1994-10-28*  
*Jose Alberto Pradera,*  
*Bizkaiko diputatu nagusia*

Agintari,  
Euskaltzain,  
Lagun,  
Jaun-Andreok:

Egun eder-ederra dogu gaur Bizkaian eta Foru Aldundi honetan, Bizkaiko seme ospetsu baten omenaldia ospatzen dogulako eta Bizkaiko seme horrek egin dauzan hainbeste lan eta hain onak gomutatzen doguzalako eta berak harrotasunez betetzen gaituelako bizkaitar guztiok.

Lizundia jauna, Aita Villasantek, besteak beste, Euskaltzaindiaren eta euskara baturaren inguruan egin dauan behar handiaz ihardun izan da, eta goragarria da benetan lan horixe, Bizkaiko semeok harrotzen gaituena, Bizkaitik gogor bultzatu eta aurrera eroan izan dalako beti batasunaren ardura eta ikurrina. Azkue-tik hasi eta Villasante Aitak, neurri batean, burutua, tartean beste asko gogora ekarri daikeguzala, Gabriel Aresti bera izan daiteke bigarren garaiko suspertzailerik beroena.

Beharbada, harritu egingo zaitue ni orain bizkaieraz berbetan entzuteak, baina guk etxeko berbetea erabilten badogu be, eta Bizkaiko Ahaldun Nagusiak arrazoi gehiagoz oraindino, ez dogu sekula batasunaren arazoa zapuztu. Bizkaitar euskal idazleek gipuzkeraz hainbeste aldiz eta batere higuinik barik idatzi dabe eta batasunaren gurditik be ahal izan daben neurrian tira egin dabe. Hizkuntzak herria egiten dau, eta Bizkaiak ez deutso sekula ukorik egin ezertan Herri honen batasunari, eta askoz be gitxiago hizkuntzari jagokonez, hauxe dalako herriaren izatearen ardatza.

Oso-osorik hartzen doguz baita geure egiten be Lizundia jaunaren berbak, Aita Villasantek ondo baino hobeto irabazi dauzalako omenik onena eta barbarik ederrenak.

Urterik okerrenetan hasi zan euskararen aldeko beharretan, artean askorik egiterik be ez zegoenean. Gazterik hasi zan idazten, batez be herri xehearentzat, *Aranzazu* aldizkarian, eta horren garrantzia ezin izango dau inork ukatu, mila bederatziehun eta berrogeita bederlatzi eta hamarreen eta urte horreetan, euskara euskaldunen etxe askotan sartzen zalako *Aranzazu* aldizkariaren eta, besteen artean, Aita Villasanteren eskutik.

Gero lan mardulagoak eta sakonagoak egingo ebazan Aita Villasantek, euskarari buruzkoak, eta euskararen inguruan, baita euskal idazle klasikoak ezagutzera emoten be.

Lehenengo lantxoak mila bederatzehun eta berrogeita lau idatzi eban eta aurten bete dira Aita Villasante idazten hasi zaneke berrogeita hamar urteak. Zenbat eta zenbat ez ete dau idatzi ordutik! Sinistu be ezin leiteke egin pertsona batek, gaur egunean, aspaldiko idazleen antzera, hainbeste idatzi leikeanik berak bakarrik. Nahikoa da Aita Villasantek urterik urte idatzi dauzan lanen zerrenda ikaragarria ikustea harri eta zur geldituteko.

Esan daiteke, kezka gitxirekin esan be, euskal literaturaren ezagutza Euskal Herrian Aita Villasanteri esker lortu dala, bere literaturaren historian edan dabelako gaurko irakasle guztiek. Axular benetan ondo ezagutzera be berak emon deusku guztioi. Beste hainbeste lan, nahiz morfologiaz, nahiz beste autoreei buruz, berak eskeini deuskuz. Horrez gain, bera be euskal idazle on eta ugaria da eta, berak dinoenez, Euskal Herriari eskeini deutson emoitzarik onena euskaraz idatzi dauan guztia da.



Jose Alberto Pradera, Bizkaiko diputatu nagusia eta Luis Villasante

Hori gutxi balitz, Aita Villasantek, lehen esan doguzan urte lior hareetan, Arantzazuko gazteei euskara erakusten jardun eban eta horren emoitzek be oraindino jarraituten

dabe. Irakaskuntzaren haunditasuna hortxe dago: ez da jakiten noiz amaituten dauan, inoiz amaituten badau, fruituak emoten. Aita Villasanteren eskuetatik igaro ziren gazteak oraindino lanean dabiz han eta hemen, heldutasunik oparoenean eta fruiturik onenak emoten.

Barrio dinot, ondo merezi dau Gernikako seme honek omenaldi hau, eta guk gura geunkena Bizkaiko herriaren eskerronaren adierazgarri eta, ziur nago, Euskal Herriaren eskerron eta mirespenaren adierazgarri be, ehin batean, gerta daitekeena da.

Aita Villasante euskaltzain egin zanean, hementxe, Bizkaiko Foru Aldundian, egin eban sarrera-hitzaldia. Denborak, ordukoa eta gaurkoa, ez dira bardinak, ez Aita Villasanterentzat, ez euskararentzat, ezta guretzat ere. Baina pozik gagoz gaur Aita Villasanteri, hainbeste urteren buruan, omenaldi hau egin ahal deusogulako Foru Aldundi honetan.

Gaurko egun honen gomutagarri legez, artista pintore ezagun bati, Jesus M.<sup>a</sup> Lazkanori, hain zuzen, Aita Villasanteren erretratu bat agindu deusogu, eta, Jainkoa lagun, erretratua eginda egon daitenean, Foru Aldundiko bibliotekan ipiniko dogu, hara joan daitezcan guztiek Aita Villasanteren erdua begien aurrean izan daien.

Bestalde, berak oraintxe Bilboko euskal idazle bat darabil esku artean, Aita Mateo Zabala. Eta zer gauza ederragorik guretzat hori argitaratzen Aita Villasanteri laguntzea baino? Horixe izango da gure aldetik pozik egingo deusogun beste oparia, gure oparia barik, berak geuri egiten deuskuna bada be.

Eta azkenik, Bizkaitar guztien izenean, atsegirik handienaz eskeiniko deusot oraintxe ozpakizun honen oroigarritzat honako plaka hau, honelaxe dinona:

“Bizkaiko Foru Aldundiak  
 AITA LUIS VILLASANTE-ri  
 euskararen eta Euskal Herriaren alde  
 egin duen lan handiagatik.  
 Bilbo, 1994ko urriak 28”.



## **AITA LUIS VILLASANTERI OMENALDIA GERNIKAN**

1994-12-23

*Jose Antonio Arana Martija*

Duela urte pare bat, 1992.eko uztailaren 24an, euskaltzainburu ohia den Luis Villasanteri omenaldia eskaini zion Euskaltzaindiak Gernikan. Hara zer dioen gure Era-kundearen *Oroit-Idazkiak*:

“Uztailaren 24an, Gernika-Lumoko Udaletxean, Euskaltzaindiak Luis Villasanteri eskainitako omenaldia ospatu da. Mahaiburuan eseri dira Jean Haritschelhar, euskaltzainburu eta Luis Villasante euskaltzainburu ohiarekin batera, Sergio Villa, hiriko alkateordea, eta M. Karmen Garmendia, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako idazkari nagusia. Gorazarre honen barruan, Luis Villasanteren omenez burututako *Iker* bildumako VI. liburukia aurkeztu da. Bertan atxekimenduzko hainbat gutun irakurri dira, besteak beste, Jose Antonio Ardanza, Lehendakariak bidalitakoa”.

Aipatu omenaldi liburu horretan agertzen da Luis Villasanteren biografia eta bibliografia, 744 idazlanen fitxa bibliografikoak ematen direlarik. Lan oparo hori burutu duen gizonak merezi zuen erakundeak bere jaioterrian eskaini zion omenaldia. Baina biografiaren hasieran azaltzen nuen nik nolabaiteko mindura beste erakunde eta aginteez ez ziotelako meritua aitortzen, gehien bat euskararekiko egin duen lana eskertuz. Eta hara non aurrean, urriaren 28an Bizkaiko Foru Diputazioak egin zion Bilboko jauregian ezinbestekoa zen omenaldia, eta gaur Gernikan Udalak gauza berbera. Pozik gaudela gernikarrok halako herrikidea izateaz esango nuke, eta aitormen hau gernikar guztien izenean egiten diogulakoan nago.

Atxakia baino ez bada ere, idazleak izan diren beste gernikar frantziskotar batzuk nahi nituzke zuen gogora ekarri: Juan Ruiz de Larrinaga, historiagile eta bibliografoa eta beronen loba den Angel Uribe Ruiz, de Larrinaga, frantziskotarren historiaz lanean ari dena. Ezin ahaztu Ignacio Omaetxebarria Martitegi, 1957an euskaltzain urgazle izendatua eta Jose Antonio Gandarias, euskararen irakasle trebea. Eta nola ez gogoratu, gernikarrak jaiotzez izan ez arren, euskaltzain oso izan ziren Seber Altube (1920), Karmelo Etxegarai (1922) eta Bonifazio Etxegarai (1929). Gerra aurretik jesuitek Gernikan izan zuten etxean bizi izan zen beste euskaltzain oso bat, Erraimun Olabide arabarra (1921). Eta euskararekin zerikusirik izan ez arren, idazle jesuitak aipatzen ari garenez, gutxiak dakitena da Remigio Vilariño Ugarte Gernikan jaioa zela; hau izan daiteke, behar bada,

liburu, artikulu, eta abar gehien idatzi duen gernikarra. Izan bedi hauentzat ere gure ohorezko gogoramena.

Baina gaurko ospakizunaren haritik apur bat ihes egin ondoren, goazen berriz Villasanteren muin eta ingurura. Gaur Gernika den Ajangizko Erretereria auzoan, Txautxiren etxean, jaio zen Luis Villasante Kortabitarte 1920.eko martxoaren 22an. Baina elizaz, Gernikako Andra Maria parrokiakoa zen auzo hori eta eliza horretan bataiatua izan zen. Lehen ikasketak Gernikan egin ondoren, ikaskide izan zuen Jose Antonio Gandariasekin joan zen Villasante Arantzazuko komentura 1931an. Bonbardaketa egunean Gernikan zen eta urte berean hartu zuen Zarautzen frantziskotarren jantzia edo habitua. Gero Oliten hiru urte bete ondoren, Arantzazura joan zen, bertan orain arte bizilekua izan duela. Bi urte edo egin zituen Comillaseko seminarioan, Teologiako Doktoregoa burutzen eta bertan apaiztu zen 1945ean. Teologia eta euskara irakasle izan zen gero Arantzazun. Villasantek euskaraz idatzi zuen lehen artikulua 1944. urtekoa da.

Bi arlo nagusi jorratu ditu Aita Villasantek bere ikerketa eta idazlanetan: erlijioa eta euskara. Frantziskotar umil honek, erlijioari dagokionetik, bi pertsona maite eta aztertu izan ditu: Zumaiaiko Angeles Sorazu eta Agredako Maria Jesus monjak. Lehenari buruz, gaztelaniaz eta euskaraz hainbat liburu eta artikulu idatzi eta prestatu ditu. Baina arlo honetan ezin ditugu ahaztu euskaraz idatzi dituen honako liburu mardul hauek: *Jainkoa*, *Jesukristo*, *Eliza*, *Kristau Fedea*, euskara landu eta aberatsaren aldetik erdutzat har ditzakegunak. Eta euskarari dagokionetik zer esan! Hor dugu hasteko 1961.ean kaleratu zuen *Historia de la Literatura Vasca*, etxean denok, irakurgai eta ikasgai izan behar dugun liburua. Euskararen morfologiari buruz eta euskararen auziaz idatzitako Eleizalde bildumakoak ditugu eskergarri. Gure hizkuntzaren klasikoak ere aztertu eta kaleratu ditu, eta zenbat eta zenbat artikulu, txosten eta abar.



Gernika-Lumoko Udalak, 1994-XI-24an, osoko bilkuran eta aho batez onartutako izena. Berau Erretereria auzoan kokatua, lehen 'Arratzu bi-dea' eta orain 'Aita Luis Villasante' kalea.



Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen Villasante 1951.eko otsailaren 23an, eta urte berean, irailaren 25ean euskaltzain oso. Lehen eta gero egin zuen lana paregabea izan bazen ere, azpimarratzekoa da 1970.ean euskaltzainburu hautatua izan ondoren eman ziguna. Hamazortzi urtez izan da Aita Villasante euskaltzainburu, 1988.ko abenduan kargua utzi zuen arte. Ulertezina izan zen askorentzat fraide apal hau kargu horretarako izendatua izatea. Baina ez zuten hutsik egin orduko euskaltzain hautesleek. Erdi lozorroan zegoen gure Erakundea berpiztu zuen: epealdi berri baterako arau egokiagoak eman zizkion, ikerketak areagotzeko batzordeak sortu zituen, euskara batuari bultzada eman zion, euskalkiak baztertu barik, langile eginkorrekin inguratu zuen bere erantzunkizuna, barne jardunaldiak eta biltzarrak antolatzeari ekin zion, nolabait kalera atera zuen erdi isilean zebilen Akademia. Hor daude lekuko bizitasunaren ondorioak.

Nik neuk asko zor diot Aita Villasanteri, eta parka egidazue aipamen pertsonala egitea. Berak Euskaltzaindiari gomendatuta izan nintzen bibliotekari izendatua 1978.ean eta euskaltzain urgazle 1979.eko abenduan. Villasante euskaltzainburu zelarik euskaltzain oso izendatua izan nintzen 1988.eko urriaren 28an. Urte bereko abenduaren 30ean, berak euskaltzainburu kargua utzi zuen egunean erakundearen diruzain hautatua izan nintzen. Eta Gernikan nire euskaltzain sarrera-hitzaldia eman nuenean, 1989.eko uztailaren 28an, bera izan zen aitabitxi eta nire hitzaldiaren erantzule. Beraz, gaur egun euskaltzain oso garen bi gernikarren arteko lotura handia da eta maisuari eskaintzen diodan omenaldi gisakoa gaurko aitorten hau.

Aita Villasanteri buruz ezin nuen gutxiago esan. Gehiago esanak ditut eta esateko parada izango dudalakoan nago. Baina gaur benetan pozten nauana da herriak, jaioterriak eskaintzen dion omenaldia. Zorionak Aita Villasante, Gernikan, Bizkaian eta Euskal Herrian inork merezi badu omenaldia zu baitzara. Honekin amaitu dut gaurko nirea. Denoi mila esker.



## JEAN HARITSCHELHAR-EN MINTZALDIA, IRATZEDER-EN OMENALDIAN,

*Baionan, 94ko urriaren 29an*

Eusko Ikaskuntzako buru jauna,  
Agintari agurgarriak,  
Euskaltzainkideak,  
Andereak eta Jaunak, agur

Atzo, Aita Villasante-ren omenaldia genuen Bizkaiko Foru Aldundian; egun, bilduak gara Aita Xabier Diharce "Iratzeder"-en inguruan, Manuel Lekuona saria eskaintzen diolaketuz Eusko Ikaskuntzak. Atzo, euskaltzain bat ohoratua, gaur bertze bat, biek goraki daramate Euskaltzaindiaren omena. Nolaz ez da bozkariatuko Euskaltzaindia horrelako bi ekintzekin?

Ez naiz Aita Xabier-en bizitzaz mintzatuko, are gutiago haren obraz. Halere. badu orai 32 urte elgar ezagutzen dugula, 32 urte elgarrekin sartu garela Euskaltzaindian, hala erabaki baitzuten orduko euskaltzainek, 1962-ko uztailako bilkuran. Zu, sortuz gero, Euskal Herrian bizi zinen, ni aldiz berrikitan Euskal Herriratu.

Frailetu zinenean, utzi zenuen aitamek emanikako izena eta bertze bat hautatu zenuen, euskaldun saildu baitena, Xabier nafartar misionest haundiarena, harek bezala zuk ere erroak Euskal Herrian eta gogo mundu zabalean. Belokeko xoko hartarik hobeiki ikusten baita mundu zabalaren zabal.

Aurten, Manuel Lekuona saria emana zaio Iparraldeko olerkari bati. Iratzerder-i. Hau da literaturako hautatu duzun izenordea. Zuharek badakizu zertako, bainan izen eta izenondoa juntatuz, susmatzen dut gogoan zenuela gure mendietako landare nasaia, berdea primaderan, emeki emeki urre-gorritzen dena udazkenean, kolore biziez apainduz bazter guziak.

*Mendietan den ederrena  
iratzeko ostoa  
Zuhaitzetan jaunena jauna  
aiten haitz-ondoa.*

Nolaz ez dio olerkariak "iratzeko" izenari emanen "eder" izenondoa? Hala hautatu duzu orai berean aipatu dudan bertsoan. Alabainan, olerkariak dauka bihotzean ederraren lillura, edertasunez jaunzen duelarik sortzen dituen olerkiak, hitzak elgarrekilan josis, hitzak neurtuz eta bidenabar ederraren ederra sortuz, ederraren pindarra piztuz.


*Nere pindarrak bihotz zonetan  
pindar piztuko duelako esperantzaz*

Bi neurtitz horiek idatzi dizkidazu *Biziaren olerkia* liburu ederraren eskaintzan. Ene gogoan daude geroztik, ezin ahantzizkoak

Elgar ezagutu aitzin banuen zure berri, olerkien bitartez, haien artean Etxahunez egin zenuena, *Gure Herrian* agertua 1957-an

Behar zen, zinez, olerkaria izan, ulertzeko lehenik, adierazteko gero zer izan den Etxahunen bizia.

*Etxahun  
Izen bero, izen ilun  
Etxahun*



*Ezkerretik eskubira:* E. Larre, T. Peillen, E. Knörr, P. Xarritton, Iratzeder, J. A. Arana Martija, J. Haritschelhar, B. Oihartzabal, J. M. Lekuona.

Lau aldiz agertzen den errepikak erakusten du nor zen Etxahun eta izenak salatzen badu izana. "izen bero"-k nabarmentzen du Etxahunen sukarra, "izen ilun"-ek ukan dituen nahigabeak. Behar nuke olerki osoa irakurtu hobeki adierazteko Iratzeder-en sendimendua Etxahunen biziaren aitzinean. Asmatzen du, azken urteetan bezala, herriz-herri dabilala, nonbait, eskale bilakatua:

*Non habil orai Etxahun, zoin bidetan kantuz  
Hire pertsuño minkorrek jender karkailatuz?*

*Hire bihotz kartsu eta zalabegi hori  
Bidetan ote deramak zarrapo ta zauri?*

*Herrestan ote haiz beilaz beila joaki  
Ezpain zimurak irri, barnea urriki.*

Hitz laburrez, bakoitzak bere indarra daukala, dena errana da. Hor daude Etxahunen bi aurpegiak: kanpotik irri eta karkaila, baretik zarrapo, zauri eta urriki.

Badabila Etxahun, arima erratuaren pare:

*Hor haiz ote aize luzek, gau-intzirak lagun,  
Gauetz-gau diotelarik: Etxahun, Etxahun...?*

Eta azken eske horretan “minez, maitez, errabiaz pertsutzen zen” Barkoxtar koblarria badoa, betiereko bilatzaile bilakatu.

*Bai, doala, bidez bide eta beilaz beila  
Euskal anaien amorez Jainkoaren bila...*

Behar zen olerkaria izan horrelako olerki baten idazteko, hain sakonki zilatzen duena Etxahunen izana.

Edozein olerki hauta nezakeen, bainan aise ulertzen duzue zertako hautatu dudan hau, ene orduko ikerketak gogoan atxikiz. Eta hain zuzen ere, Beloken idatzi dut ene tesiaren bigarren parte, Belokeko ixiltasunean, lan baliosa egin baitut fraileen bizitzeko manera neregianatuz.

Behar zen ere olerkari izan Salmoen euskaratzeko, kantua kantu egon zedin beste hizkuntzetan bezala gurean ere. Hori egin du Aita Xabier-ek. Beloken liturgia berrizatzeko taldea sortuz, fraile eta apez zenbait, elgarrekin lanean, eskuz esku, anaitasun haundienean, euskaldunek ukan zezaten bertzeek bezala Jainkoaren otoizteko ahala euskaraz. Obra eder eta miresgarria izan da orduan Beloken egin zena.

Bigarren aldikotz, Manuel Lekuona saria Iparraldeko batek dauka: lehena Eugene Goyheneche historiagilea, goizegi zendua, bigarrena zu zara, Aita Xabier.

Pentsatzen dut olerkaria nahi ukan dutela ohoratu. Arrazoinekin naski. Hautu ona egin dute ezen norbaitek Iparraldean merezi balin badu sari hori, zuk merezi duzu, sortu duzun obrarengatik, beti gogoan zenuela Jainkoa eta herria eta bi horien arteko lokarria: euskara.

Zorionak beraz, bai Eusko Ikaskuntzari, holako hautu bat eginik, bai zuri ere Aita Xabier “Iratzeder”, Euskal Herriari egin diozun paregabeko emaitzarengatik .

*Gizonak ixiltzen balaki,  
nasaiki baluke naski  
bere bizian olerki.*

*Gizonak sinesten balaki  
noiz nahi lezake hunki  
Jauna berekin ibilki.*

*Gizonak mintzatzen balaki,  
gozoki lezake aurki  
zoin den bizia olerki*

Errepikatzen dut lehen bertsoa:

*Gizonak ixiltzen balaki,  
nasaiki baluke naski  
bere bizian olerki.*

Olerki eta olerkariaren aintzinean ixiltzen naiz, beraz.

**“RESURECCION M.<sup>a</sup> AZKUE”**  
**LITERATURA-SARIAK. 1994**

Bilbo, 1994-X-28





## **IPUINAK ETA BERTSOAK**

*Egoitza, Bilbo, 1995-02-24*

Mahaiburuan eseri dira: Jean Haritschelhar, euskaltzainburua; E. Knörr, idazkaria; Daniel Soloaga, Bilbao Bizkaia Kutzako arduraduna; Xabier Altzibar, epaimahaikidea; Juan Luis Goikoetxea, euskaltzain urgazlea eta iazko sarituriko liburuaren prestatzaile, zuzentzaile eta aurkezlea.

Aretoan aurkitzen dira: Juan Mari Lekuona, buruordea; Jose Antonio Arana Martija, diruzaina; Pierre Charritton, Jean-Louis Davant, Xabier Diharce "Iratzeder" Patxi Goenaga, Alfonso Irigoien, Xabier Kintana, Emile Larre, Beñat Oihartzabal, Txomin Peillen eta Luis Villasante, euskaltzainak; Gotzon Aurrekoetxea, Ricardo Badiola, Juan Angel Etxebarria, Xalbador Garmendia, Jose Maria Larrarte, Jose Luis Lizundia, Abel Muniategi, Jesus Oleaga, Patxi Uribarren eta Juan Jose Zearreta euskaltzain urgazleak; Pello Telleria, Euskaltzaindiko eragile teknikaria; Roman Berriozabal, Eusko Jaurlari-tzako Bizkaian Kultura ordezkaria; zenbait kazetari, sarituen senitarteko eta abar.

Endrike Knörr, idazkariak Xabier Altzibarri eman dio hitza, zeinek aurtengo sarituen meritu eta aipamen nagusiak egiten dituen.

Ondoren, Juan Luis Goikoetxeak 1993.urtean saritu liburu kiaren aurkezpena egiten du, hots, *Ipuinak eta Bertsoak*, 1993. Juan Luisek zera azpimarratu du bereziki Merche Olabe irudigilearen lan bikaina. Bestalde zera adierazi du, alegia, izandako partaidetza, aurkezturiko lanen goi maila, egileen irudimena eta gaurkotasuna. Honez gain, hemen-dik aurrera Bilbao Bizkaia Kutxak eta Euskaltzaindiak antolaturiko sariketa honetan partaidetza haundiagoa izanen delakoan, amaiera egin dio aurkezpenari. Amaitzeko, eskerrak eman dizkie bai Bilbao Bizkaia Kutxari eta bai Euskaltzaindiari egindako aha-lerin eta diru-zabaltasunarengatik.

Jarraian, Xabier Altzibarrek epaimahaiaren erabakia irakurtzen du, banan-banan sarituak urreratzen direlarik eta mahaiburuko en eskuetatik sariak jaso.

Azkenik, Euskaltzainburuak esker oneko berbak esaten ditu Bilbao Bizkai Kutxa eskertuz eta idazle gazteen merituak azpimarraturik.

J.L. Lizundia,  
idazkariordea

Ricardo Badiola Uriarte,  
argitalpen eragilea

R.M. Azkue gazteentzako sarietako epaimahaiak, X. Altzibar, Iñaki Bernaola eta Joan Otaegi-k osatua, erabaki hauek hartu ditu:

1. "B" mailako olerkian ondoko lanak saritu dira:

1. Saria: "Estazio zahar batean zure zai". Arkaitz Estiballes.
2. Saria: "Otis Redding gogoan". Urtzi Urrutikoetxea (Koldo Urrutikoetxea).
3. Saria: "Kukua Euskal Herrian". Ekaitz Goikoetxea (Jon Elozegi).

\* \* \*

2. "B" mailako narrazioan ondoko lanak saritu dira:

1. Saria: "Gertrudisen i6 Reihler-Ottoplatz S tranbia". Urtzi.
2. Saria: "Larrosa ihintzia". Urrutikoetxea (Koldo Urrutikoetxea), Jabier Muñoz Fernández.

\* \* \*



3. "A" mailako narrazioan ondokoak saritu dira:

1. Saria: "Oh ez". Ekain Garmendia (Daniel Maiza).
2. Saria: "Luzarra kalea". Goiuria Lauria (Andoni Goirena).
3. Saria: "Aparte". Oibar Egia (M.ª Pilar Eizaguirre).

\* \* \*

4. "A" mailako olerkian sari gabe utzi da.

\* \* \*


Izep: X. Altzibar

Izep: Joan Otaegi

Izep: Iñaki Bernaola

Bilbo, 1995ko urtarrilaren 28an.

***HITZARMENAK / CONVENIOS***



UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA ETA REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA/EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO HITZARMENA

Leioa, mila bederatzehun eta laurogeita hamabosgarreneko otsailaren zortzian.

#### BILDUTA

Alde batetik, JUAN JOSE GOIRIENA DE GANDARIAS jauna. Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen Errektorea, Erakunde honen izen eta ordezkaritza, eta bestetik, JEAN HARITSCHELHAR DUHALDE jauna, Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindiaren burua, azken honen izen eta ordezkaritza, zera

#### AZALTZEN DUTE

I. Ordezkatzen dituzten Erakundeen helburuetan zenbait amankamunak dituztela, bereziki euskarari dagozkionak, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen Estatutuen I. eta VIII. Tituluetan eta Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindiaren Arautegiaren lehen artikuluan azaltzen direnak.

II. Erakunde bion helburuok betetzeko asmoz eta bakoitzaren prozeduren arazuk onartuta, ondoko klausulen arabera zera.

CONVENIO ENTRE LA UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA Y LA REAL ACADEMICA DE LA LENGUA VASCA / EUSKALTZAINDIA

Leioa, ocho de febrero de mil novecientos noventa y cinco.

#### REUNIDOS

Por una parte, D. JUAN JOSE GOIRIENA DE GANDARIAS, Rector de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, en nombre y representación de esta Institución, y por la otra, D. JEAN HARITSCHELHAR DUHALDE, presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia, en nombre y representación de esta última,

#### EXPONEN

I. Que las Instituciones a las que ambos representan tienen objetivos comunes. especialmente los referentes al euskara, los que se mencionan en los Títulos I y VIII de los Estatutos de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea y en el primer artículo de la Normativa de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia.

II. Que para poder cumplir los objetivos de ambas Instituciones, y aceptando las normas de procedimiento de cada una de ellas, de acuerdo con las siguientes cláusulas.

## ERABAKITZEN DUTE

## DECIDEN

**Lehena:**

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak eta Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindiak, batak besteari bere ikerkuntz ondarea erabiltzea uzten dio. Erabilmen duaren xehetasun eta arauak *hitzarmen* honetan sortzen den Jarraipenerako baztordeñoak finkatuko eta garatuko ditu.

Era horretan Filologia eta Historia lotzea pentsatu zen. Azken batean, egin behar zen lana eta berorren balorea historikoa eta filologikoa da eta. Lehenengo Esther Zarrara filologoak eta Roberto Querejeta historialariak 7 hilabetez jardun zuten. Ikerketa borobildu barik gelditu zenez, beste hiruhilabetez jardun beharra egon zen eta, 2. txanda honetan Estherrekin batera Aitor Ogiza historialaria ibili zen.

Lana gauzatu eta hezur-mamitzeko ibilbidea Estherrek adieraziko duenez, liburuaren eduki edo kontenidoaz eta balorazioaz amaituko dut neure jarduna.

Liburuak hiru atal nagusi ditu:

Lehenengoan sarrera orokorra. Hor, Alkate jaunaren agurraren ondoren, lanaren nondik norakoak, erabilitako metodologia, informazio-iturriak, izenak normalizatzeko erabilitako irizpide eta kriterioak, toponimoen distribuzioa kontzeptuka eta esparruka eta, amaitzeko, Eibarren gainea, motx-motxean, jakinbeharrekoak. Hala nola: Geografia, hidrografia, landaretza, ekonomia, herri-egitura e.a. Arlo horiei lotuta ere, hainbat eta hainbat toponimo jaso dira eta.

Sarreraren ostean datoz aurkitutako 1500 lekuizenen zehaztasunak alfabetikoki.

Hirugarren atalean lekuizenen indizea edo aurkibidea orrialdeka jarrita.

Eta, azken atal moduan, planoak: bata 1901ekoa eta bestea 1988koa. Lehenengoan kaleko lekuizenak eta bigarrenean inguruak jarri dira. Jakina, ez denak, larregi lira-tekeelako.

Ondorioen gainean esan liteke, horretarako aproposena ez banaiz ere, lan polita egin dela bai ikertzen eta bai jasotakoari forma ematen. Hala ere, ez da pentsatu behar herriko lekuizen guztiak jaso direnik, era honetako lanak ez dira eta %ko %ean sekula amaitzen.

Beste alde batetik, pentsatu behar dugu, liburu honetan eibartarron ondare edo patrimonioaren zati ederra daukagula, geure historiaren adierazle. Eta, jakina, bertoko euskararen ispiluetako bat.

Aplikazioak direla eta, besteak beste, historia eta filologia arloko ikerketa eta inbestigazioko tresna izateaz gain, orain ez dago aitzakiarik komertzio eta etxe berriei izen egokiak jartzeko. Hor dago Torrekuaren kasua. Berdin lantegiak, kaleak e.a. izendatzeko.

Udalak berak ere kontuan izan beharko luke kale-izendegia eraberritu, egokitu edo izendapen berriak egiteko.

Hori guztiori gutxi ez bada ere, irakurketarako ere kurioa da. Ez da bakarrik teknikoendako liburua. Horregatik, nik uste dut, berbakizuna ipiniko duela eta oroimen historikoa transmititzeko tresna baliagarria dela

Eskerrik asko



## **EIBARKO HIRI-TOPONIMIA**

*Eibar, 1995-03-26*

*Roberto Kerexeta,  
Esther Zarraua,  
Aitor Ogiza*

### **0. SARRERA**

1991. urteko udazkenean eman genion hasiera Eibarko Ego-Ibarra batzordearen ideia bati jarraiki hemen aurkeztu nahi dugun lanari. Aspaldidanik zenbait eibartarren buruetan zebilen asmoa zen Eibarko hiri-toponimia jasotzearena, eta halako batean, zorronez, gauzatu da nahi hau.

Gaiari heldu aurretik aipatu gura dugu ezin dugula esan *Eibarko hiri-toponimia* izenaz kaleratu den liburu honetan esparru horretako tokizen guzti-guztiak agertzen direnik, hori eginez gero egiari iruzur egingo genioke eta. Beldurrik gabe adieraz deza-keguna ordea, ondorengo da: izandako denbora-mugen barruan ahalik eta arakatzeko lan handiena egin dugula, euskararen batasunaren mesedetan jasotako izenen aldaera normalizatuak ere proposatuz. Puntu honetan Patxi Salaberri Zaratiegi Euskaltzaindiko Onomastika batzordekidearen laguntza guztiz mesedegarri gertatu zaigula azpimarratu nahi dugu.

Ikerlana bera hamar bat hilabetetan burutu dugu, nahiz eta taxuketa eta prestaketa lanetan denbora gehiago pasatu.

Guztiarekin, Jimeno Jurio eta bere taldekideek Nafarroako toponimia bilketarako emaniko urratsak eta Pasaia eta Andoainen buruturiko toponimia-lanak erreferentzia puntu nagusi bihurtu dira gure lan honen metodologia hautatzeko orduan, Luis Mari Mujika eta Juan San Martinen lanak alde batera laga gabe.

### **1. METODOLOGIA**

Gure lana Planeakuntzarako Arau Ordezkatzaileen barruko eta ingurutako, hau da, kale diren edo urbanizatzeko dagoen lurralde osoko leku-izenak biltzea izan denez, lehenengo eginbeharrekoa herribarneari mugak jartzea izan da. Lan hori ez da erraza gertatu, hiriaren bilakaera dela medio mendi aldera sartzeko ezer ez baita behar.

Herribarrukotzat jo ditugu herriaren gunearen inguruan azken urteotan sortutako auzo guztiak eta Planeakuntzarako Arau Ordezkatzaileen barrutiaren inguruak, bertako tokizenak besteak bezain garrantzitsuak dira eta.

Bideak ere lehenengo mailako elementutzat hartu ditugu, bideen inguruan eraiki ohi denez gero.

### 1.1. **Fitxaketa**

Tokizenen aldaera guztiak (data eta agiri edo testigantzaren erreferentziaz) agertzen dira fitxa bakoitzean, baita toponimoak adierazten duen kontzeptua, non dagoen kokatuta, eta sarritan gainontzeko argibiderik ere agertzen dugu.

### 1.2. **Datu-iturriak**

Iturri hauek hiru eratakoak dira: bibliografikoak, agiritegiak eta ahozko testigantzak.

#### 1.2.1. Bibliografia

Erabilitako bibliografia bi modutakoa da: alde batetik Eibarri buruzko informazioa ematen diguten liburu eta aldizkari-artikulu historikoak; bestetik, ikerketaren alde teknikoak jorrazteko liburu baliagarriak.

Lehenengoen artean Toribio Etxebarriaren lanak eta Gregorio Mujikaren *Mono-grafía histórica de la Villa de Eibar* nabarmenduko ditugu.

Bigarrenen artean *Nafarroa. Toponimia eta mapagintza*, lehen aipaturiko taldearen emaitza eta Luis Mari Mujikaren *Euskal toponimiarako materialeak* dira gehien lagundu digutenak.

Juan San Martinek buruturiko lan ugariak arlo bietarako laguntza handia eman digute.

#### 1.2.2. Agiritegiak

Lau dira erabilitako agiritegiak:

- Eibarko udal-artxibategia.
- San Andres elizako agiritegia.
- Oñatiko Protokolo eta Hipoteka artxibategia.
- Jabetza erregistroa.

#### 1.2.2.1. Eibarko udal-artxibategia

Agiritegi honetatik jaso ditugu 500 bat toponimo, guztiaren % 034a.

Artxibategi honetan era guztietako agiriak daudenez gero, aurre aukeraketa egin, eta ondoren ekin genion uzta-lanari, artxibategi historikoari arreta handiena emanik.

Bildutako toponimorik gehienak XIX. eta XX mendeetakoak dira, nahiz eta XV, XVI, XVII eta XVIII. mendeetako batzuk ere agertu.

#### 1.2.2.2. Elizako agiritegia

150 bat etxe izen edo oikonimo eskeini dizkigu artxibategi honen miaketak, guztiaren % 11 egiten dutela.

1918 eta 1958 urteen bitarteko jaiotza eta heriotze liburuak erabili ditugu gure ikerlanerako, lehenagokoak Gasteizko elizbarrutiko artxibategian daude eta.

Gure ustez lortutako informazioa ez da oso fidagarria, sintaxi eta ortografia huts dexente ageri direnetik, izenak gaizki idatzita eta desitsuratuta agertzen baitira.

#### 1.2.2.3. Oñatiko protokolo eta hipoteka artxibategia

470 toponimo inguru jaso ditugu Oñatin, osotasunaren % 33a eginez. Agiri zaharrenak XVII. mende bukaerakoak dira, eta berrienak 1862. urte ingurukoak.

#### 1.2.2.4. Jabetza Erregistroa

530 bat toponimo (% 38) batu ditugu artxibategi honetan gordeta dauden 392 liburuetatik. Agiritegian dagoen material handia ikusirik, lana errazte aldera, oso gauza konkretuak arakatzeari zuzendu genion gure interesa.

#### 1.2.3. Ahozko testigantzak

Aurretik jasotako datuak erkatzeko eta batzuetan ordurarte agertu gabeko toponimoen berri edukitzeko balio izan digute ahozko testigantzek.

Hamairu laguni egin dizkiogu grabaketak, eta jendea aukeratzeko erabilitako irizpideak hauek izan dira: adinez nagusiak izan eta galdeketa egin zaion tokian bizi izatea luzaro, Eibartik kanpo denboraldi luzerik egin gabe.

Informatzaileek emandako lekuizenen transkripzio fonetikoak ere azaltzen da liburuan, gerora begira argibide esanguratsua da hau eta.

### 1.3. Lekuizenen normalizazioaz

Jasotako toponimoen normalizazioari ekiterakoan, lehenago esan bezala, Jimeno Jurio eta bere taldeak Nafarroako Gobernuarendako toponimoen jasoketa-lanean diharduen taldeak erabilitako irizpideei jarraiki gatzaizkie. Beraz, atal honetan, beraiek liburuan azaltzen dituzten puntuen laburpena baino ez dugu egingo. Hauek dira nagusiki:

Toponimoak eta euren eratorriak antzinako terminoak direnez, denborarekin desiturratuz joaten dira eta, sarritan, ahozko- eta idatzizko erabilera urrunduz.

Bestalde, eskribauek jasotako terminoek desberdintasunak dituzte.

Batzutan aipatutako bilakaera medio eta beste batzutan eskribauen euren erruz.

Ez da ahaztu behar grafiak berak duen eragina hizkuntzaren erabileran, sasoi batean irakurtzeko gaitasuna mugatua izan arren, zenbait kasutan erabilera zuzena oztopatzen baitu.

Aipatu faktore nagusi horiek eta beste batzuk kontuan izanda, toponimoen normalizazioa egiterakoan, maiz zaila egin arren, logikaz jokatzeko saiatu gara lanari koherentzia eta oreka eman nahian.

Hala eta guztiz ere Eibarko herriaren kokapen geografikoa kontuan edukiz gero terminoak normalizatzerakoan zenbait alternantziarekin aurkitu gara eta hori izendegian isladatzen da. Hala nola. *-barri / -berri...*

Era honetako lanetan ohi den bezala izen generikoak batueraz eman ditugu eta, espezifikoei malguago jokatu dugu bertako euskalkiaren jokaera zenbait onartuz eta nortasun handia errespetatuz.

— Ez dugu bokal armonia errespetatu. Beraz, *Urkizu* idatziko dugu, ez *Urkuzu*.

— *ea > ia* pausoa emana denean jatorrizko forma hobetsi dugu.

— *oa > ua* pausoa emana denean ere, beti jatorrizko forma aukeratu da.

— Dardarkari azkar baten eraginez /e/ ireki eta /a/ bihurtu den toponimoetan hau espezifikoetan gordeko da, ez generikoetan. Adb. *Etxebarri* idatzi dugu.

— Bokal protetikoa galdu denean errekuperatu egin dugu. Adb. *Errialtzu* eta ez *Realzu*.

— Aspaldiko hasperenketaren galeraren ondorioz bokal-elkarketa gertatu denean, bat egindako forma onartu dugu. Adb. *Estrata-arra*, eta ez *Estratazaharra*.

— Apofonia jasan duten eta ez duten formen arteko zalantzak badaude, euskara bizi den herrietan egun ibiltzen den forma hautatu da, eta bietako bat toponimoa desagertua denean, haren aspaldikotasuna eta maiztasuna kontuan hartuta. Biek pisu bera dutenean, apofoniadun aldaera nagusitu da. Adb. *Bidaburu* eta ez *Bideburu*.

— Toponimoa izen + izenondo osatua dagoenean loturik idatzi dugu. Adb. *Solosakona*, *Labazatarra*,...



#### 1.4. Toponimoen kokapena eta planoak

Egiteke geratzen zitzaigun lana jaso eta normalizatutako toponimoak lekutzea zen. Hori ez zen egiteko erraza izan, zenbaitetan toponimoa bildutako agirian bertan kokapena argi azaltzen bazen ere, hori gutxienetan gertatu baitzen, eta gehienetan aparteko ikerketa baten ondorioz lortu genuen izenon kokapena finkatzea.

Informazio hori isladatzeko bi plano erantsi dizkiogu liburuari. Bata 1903koa, non sasoi horretako hirigunea eta aurkitutako lekuizenak ematen diren. Bestea 1988koa, bertan gaurko hirigunea eta inguruak agertzen dira, eta hirigunetik kanpoko tokizenak azaltzen ditu.

Aipagarria da bildutako toponimoetatik 330 kokatu direla soilik planoetan, bestela zaila litzateke irakurri ahal izatea.

#### 1.5. Zenbait toponimo

Etxe-izenak: *Ategorrikoa, Banakanekoa, Bolinbekoa, Elizostekoa, Erdikoa, Errikoa, Flamenkokoa, Foterokoa, Fraiskoantongoa, Ikatzerre, Izotzanekoa, Kapitantx, oanekoa, Konejoeneko laba, Konfitekoa, Lekianekoa, Makatzanekoa, Malenkarajonekoa, Milloitxoanekoa, Otsoerrota, Otxabina, Sutegizarra, Txispagingoa, Txokolaterokoa, e.a.*

Kale-baserrien izenak: *Bolingoa, Buztinzuri, Eltzartzaga, IsasiOlagizongoa, Kapagingoa, Legarra, Makalarrokoa, e.a.*

Errotak: *Apalategi, Arkaxpe, Arrietarras, Balerioneko errota, Barrenazarra, Portalekoa...*

Bideak: *Aldatzako estratabidea, Arrovide, Errelkaldeko bidea, Ultsagako estrata...*

Errekatxoak: *Arlastako erreka, Burukain, Errekabartetxikia, Juandeatxaerreka, Kortatxoerreka, Lisibaerreketaketa, Txapardetako errekatxoa, Ubergako erreka.*



## EIBARKO HIRI-TOPONIMIA LIBURUA DELA ETA

*Eibar, 1995-03-26*

*Patxi Salaberri*

Jaun-andreok eguerdi on:

Iragan astean Nafarroako Unibertsitate Publikoko euskara-teknikaria eta biok gure hizkuntzaren zenbait kontuz ari ginela, Unibertsitatearen ondoan-ondoan dagoen *Sadar* toponimo hizkuntzaz kanpoko arrazoiengatik ezaguna hartu genuen hizpide. Izan ere, Iruñeko Udalak bertan jarri berri dituen bide-seinaleetan *Zadar* ageri da, hasieran z-duela, orain lau mende eta erdi arteko dokumentazioan –*Zaadar*-ekin batera– azaltzen den aldaera, nahiz egungo egunean horrelakorik erraten duen iruindarrik ez kanpotarrik ez dagoen.

Toponimia normalizatzeko orduan, gure irudiz, “historizista”-tzat jo dezakegun jokatibide hau alde batera utzi beharra dago, erabat zaharkiturik dauden aldaerak artifizialki biziberrituko ez baditugu. Zaharkitua egotea edo ez egotea, halaz ere, ez da berdin neuritzen Euskal Herriko herrialde eta alderdi guztietan. Gipuzkoan eta Eibarren, adibidez, zaharkitutzat XVIII. mendeko aldaerak har ditzakegu, euskara oraindik bizirik egonik toponimoek jasan duten itxuragabetzea (oso) arina baita kasu askotan, beste eskualde batzuetan gertatu denarekin alderatzen badugu, behintzat. Nafarroako alderdi zabal batean, ordea, euskararen galera mende horretantxe –XVIII.ean– burutu zen, eta beraz, forma desitxuratuak berritxuratzekotan mende horretara eta baita atzerago ere itzuli beharko dugu. Hortaz, eta ondorio moduan, zera esan dezakegu, *zaharkidura* parametroa diferentia dela hemen eta han.

Nolanahi ere, toponimia normalizatzerakoan atzera, iraganera begiratu behar dugula gauza argia da, leku-izenek beren baitan biltzen duten kultur ondarea atxiki nahi badugu behinik-behin. Gaur aurkezten den lan honetan, adibidez, agirieta arruntena den *Abauntzaga* aldaera hobetsi da, ez XX. mende arte azaltzen ez den *Abaunza* edo oraingo eratorrietako *Abontza* monoptongatua. Orobat, XIX. mende arte dokumentazioan bakarrak diren *Anbeña*, *Anbeñaburu* hobetsi dira, ez forma asimilatua biltzen duten 1860tik aurrerako *Amaña*, *Amañaburu*. Bide beretik, 1869 arteko *Arkiskadi* hautatu da, ez egungo *Arkiski(n)di*, 1584rako azaltzen den *Artegieta*, ez oraingo *Arteitxa*, *Eztiaga* (txistukaria gorabehera), ez oraingo *Estixa*, dokumentazioan ia bakarra den (1846

arte bakarra) *Ipuruaga* (eta eratorriak: *Ipuruagabarren*, *Ipuruagaburua...*), ez *Ipuru*a laburtua (toki-izen honek aparteko arazoak sortarazten ditu, halaz ere); *Irarragorri*, ez *Iragorri* laburtua, *Legarra* (1812 arte), ez data horretatik aukerako *Legarre* (*Legárre*), *Olaerreaga*, ez *Olárria...* eta egoera berean dauden beste hainbat.

Toponimoak normalizatzeko orduan aintzat hartu behar den beste puntu bat izen batek dituen aldaeren —toponimo gehienek izaten dituzte aldaerak— *maiztasuna* dugu. Alegia, dokumentazioan aldaera bat zenbatetan agertzen den ikusi eta kontuan hartu behar dugu, eta honekin batera noiztik noiz arte agertzen den. Aldaera bat askotan azaltzen bazaigu, eta nahiz egun bizirik dagoenarekin bat ez datorren, hobetsi egin beharko dugu —egungo hitzunei zenbaitetan gogortxo egingo bazaie ere— bereziki hitzaren jatorria argiago islatzen badu, etimologikerietan erori gabe ordea, bestela berriz ere gogo aitatu forma zaharkituetara hurbilduko baikinake, kasurik hoberenean.

Leku-izenen normalizazioa egiterakoan oso garrantzi handikoa den beste puntu bat tokian tokiko *ezaugarri dialektalak* zein neurritan errespetatu behar diren erabakitzea eta zehaztea da, eta zer sarrera eman behar zaion oraingo euskara normalizatuari, bai ortografiaren aldetik, eta bai —batez ere— fonetika eta morfologiaren aldetik. Lan honetan ikusten den bezala, eta ortografiari dagokionez, generikoetan *h-k* nolabaiteko sARBIDEA izan duela esan daiteke. Cf., *Békoláua* → *Beheko laua*, *Beco-solua* → *Beheko soloa*, *Gorostadiko hegía*, *Or-ezpengo* → *Hor ez bahengo*, *Kanterako gaztañako hegía...*

Fonetikari eta morfologiari buruz, Eibarko hizkeraren ezaugarri diren zenbait gertakari alde batera utzi dira, nire ustean irizpide onez gehienetan (cf. *Arotzanekua* → *Arotzanekoa*, *Barrenatxikixa* → *Barrenatxikia*, *Barrenengo subixa* → *Barrenengo zubia*, *Barrenkália* → *Barrenkalea*, *Basatei* → *Basategi*, *Bizar'eneko eranteixa* → *Izarreneko edantegia...*

Bestalde, zuzena iruditzen zait bikoiztasuna dagoenean soinurik zaharrenaren alde, jatorrizkoaren alde, egitea: *Bittoraundiarena*, ez *Bitxor-*, *Katamengako iturria*, ez *Katamíngako iturrirra...*

Generikoetan batzuetan orokorra den bertako aldaera hobetsi da, arestian aipatu adibideetan ikus daitekeen bezala: *Bidebeko soloa*, *Etxeburuko soloa*, ez *Bidebeko soroa*, *Etxeburuko soroa* (toki-izen hilak dira, horratik), *Konejoeneko laba*, *Osteko laba...* Ez beti, halaz ere: *Ibarreco curucea* (dok.) / *Ibárkurutzían* (sic. ahozkoa) → *Ibarreko gurutzea* (nahiz gero *Kurutzegain*, *Kurutzekoa...* eta abar normalizatu).

Inoiz edo behin generikoa “garbitu” egin da: *Isasiko palasua* → *Isasiko jauregia*, *Ospitalosteko kantería* → *Ospitalosteko harrobia* baina ez beti: *Isasiko presía* → *Isasiko presa* (ez uharka), *Otaolako kanteria* → *Otaolako kantera* (hemen, halaz ere, *Otaolako kanteraldea* ere bada, eta honek *Otaolako kantera* hobestera bultzatu du).

Beste batzuetan ez dakit asmatu dugun, batik bat *Baster-Bazter*- bilakatu dugunean, edo *Bustin-Buztin*-; noiz edo noiz, azkenik, oker jokatu dugula uste dut, *Eskorta* → *Ezkorta* bihurtaraztean, konparaziorako, eta beste maila batean dokumentazioan -s-z edo -ch-z agertzen den *Insauredieta*, *Inchaurdieta*-k *Intsauredieta* behar lukeela iruditzen zait, -ts-z, ez *Intxauredieta*. Orobat, *Luberria*-k *Lubarria* (*Lubarrixa* egun) behar zuela uste dut, eta agian *Matsaria* → *Matxaria*, ardantzea zela erabat garbi ez baitago, oker ez banago.

Bukatzeko, gaur aurkezten den lan hau nire ustean lan ederra dela esan nahi dut, euskara hobeki ezagutzeko tresna baliagarria, eta Eibarri berari kalterik ez, baizik mesede egingo diona.



**EUSKAL GRAMATIKA. LEHEN URRATSAK-IV  
(JUNTAGAILUAK) (EGLU-IV)**

*Miren Azkarate*

Aurkezpen ofizialik egin ez arren, 1994. urteko Durangoko Azokan jarri zen salgai Gramatika batzordearen azken lana: *Euskal Gramatika. Lehen urratsak-IV (Juntagailuak)*. Aurreko liburukiak, lokailuak aztergai zituenak, eta oraingo honek osatzen dute koordinazioari dagokion atala. Eta aurrekoan bezalaxe, oraingoan ere, berrehun eta hogeitortzi orrialdetan zehar, euskal juntagailuez inoiz eman den informaziorik zabal eta aldi berean xehena eskaintzen da. Hona nola banatu den liburua: *juntagailu, menderagailu eta lokailu*-en arteko bereizkuntza argitzen duen lehen kapituluaren ondoren, hiru sail nagusitan bildu dira juntagailuak, sail bakoitzari kapitulu mardula eskainiz: *emendiozkoak, hautakariak eta aurkariak*.

**EUSKAL GRAMATIKA  
LEHEN URRATSAK - IV  
(Juntagailuak)**

**GRAMATIKA BATZORDEA  
EUSKALTZAINDIA  
1994**

Kapitulu bakoitzean, modu bertsuan antolatu da juntagailu-mota bakoitzari buruzko informazioa: forma-kontuak, juntagilu bakoitzaren funtzioa, balioa, juntagaien ezabaketa nola gertatzen den, eta, azkenik, zein den juntagailuaren tokia.

Irakurlea berehala ohartuko da orain arte aipatu ere egin ez diren auziak aztertzen direla juntagailu bakoitzaz, sistematikoki; hala nola, zein kategoriako juntagailuak elkartzen diren, zein perpaus-motatan azaltzen den juntagailua, zein balio edo esanahi hartzen duen... Geure aldetik, eta gaurko hizkuntza estandarrean duen garrantzia kontuan izanik, liburuan sistematikoki aipatzen den alderdi bat azpimarratuko genuke: juntagailu jakin batek izenak ala sintagma osoak elkartzeko joera duen aztertzen duena, alegia. Argiago esanda, zein da jatorrago euskaraz, *irakaslea eta zuzendariaren arteko liskarra* ala *irakaslearen eta zuzendariaren arteko liskarra*? *Aita* edo *amarekin* ala *aitarekin* edo *amarekin*?

Galdera horien eta beste batzuen erantzuna ere aurkituko du hemen irakurleak. Azken batean, hemen aurkituko baitu juntagailu bakoitza non eta nola erabili den azken mendeetan zehar.



## OIHENARTEN IV. MENDEURRENA

IKER 8

Donostia, 1994-11-18

Oihenarten laugarren mendurrena zela eta egindako XII. biltzarrean aurkeztutako txostenak biltzen dituen *Iker-8* liburua aurkeztu du Euskaltzaindiak.

1992.aren irailean Oihenarten IV. mendurrena zela eta Maulen eta Donapaleun egin zuen XII. Biltzarrean aurkeztu ziren txostenak biltzen dituen Iker bildumaren 8garren alea aurkeztu du gaur Donostian Euskaltzaindiak.

Jean Haritschelhar eskaltzainburuak adierazi duenez, Akademiaren helburuetako bat betetzen da 700 bat orrialdeko liburu mardul honekin, "euskal idazle zaharrak oho-atzea, beste herri batzuk egiten duten bezala, horiek egin baitute gure literatura".

OIHENARTEN LAUGARREN MENDEURRENA  
CUARTO CENTENARIO DE OIHENART  
QUARTIÈME CENTENAIRE D'OIHENART

OIHENARTEN LAUGARREN MENDEURRENA  
CUARTO CENTENARIO DE OIHENART  
QUARTIÈME CENTENAIRE D'OIHENART



OIHENARTEN LAUGARREN MENDEURRENA  
CUARTO CENTENARIO DE OIHENART  
QUARTIÈME CENTENAIRE D'OIHENART

OIHENARTEN LAUGARREN MENDEURRENA  
CUARTO CENTENARIO DE OIHENART  
QUARTIÈME CENTENAIRE D'OIHENART

**iker - 8**

Oihenarten garrantzia kontuan izanik, Maulen jaiotako euskaltzaleari eskainitako omenaldia “laudorio soil bat baino gehiago izan zedin nahi zuen Euskaltzaindiak, eta bere XII. Biltzarra eman zion ospakizunari, bost egunetz Oihenarten bizitzaren eta lanaren inguruan 27 hizlari bildu zirelarik”.

Euskaltzainburuak azpimarratu duen bezala, “Euskaltzaindiaren ohorea Biltzar hartan, oraindik orain Leioan egin duen XIII.ean gertatu den modura, zortzi unibertsitatetako irakasleak biltzea izan zen”. Baiona, Deustu, Bordele, Madrilgo UNED, Pariseko bi unibertsitatetik eta Euskal Herriko Unibertsitatetik bertaraturako irakasleek, hainbat euskaltzainekin batera, ikuspuntu desberdinetatik eta ikuspegi kritikoz aztertu zuten Oihenart emankorraren lana. Lege-gizona, historigilea, hizkuntzalaria, gizon publikoa, atsoitiz biltzailea eta olerkaria izan zen Oihenarti eskainitako hau da, Jean Haritshelharren hitzetan, Euskaltzaindiak euskal idazle baten inguruan prestatu duen iker-lanik osatu eta garrantzitsuena eta, Oihenarti dagokionez, “orain arte egin dena, baino hamar aldiz gehiago” 1980.ean iker-lan bereziak argitaratzeko sortu zen sailaren ale berri honetan biltzen dena.

Patxi Altunak ere Oihenarten lanaren zabaltasuna aipatu du Iker-8an jasotzen diren txostenak aurkezterakoan:

“Txostenen erdiak hizkuntzari buruzkoak dira, izugarrizkoa izan baitzen alor honetan Oihenarten ekarria. Poeta bezala ere garrantzi handikoa izan zen Oihenart, Europan egiten zen poesia garaikidea ongi ezagutzen zuelarik, berak jarri zizkion eta lehenengo aldiz lege jakin batzuk euskal olerkigintzari kaskarra iruditzen zitzaion bertsolaritzatik poesia berri, dotore eta ederrago baterako bidea prestatzeko, nahiz eta ez zuen jarraitzailerik izan”.

## **IX. KORRIKAREN AURKEZPENA** **Euskaltzaindiaren egoitzan**

**MIKEL LABOAREN OMENEZ LIBURUA**

1995-03-04

*José Antonio Arana Martija,*  
*euskaltzaina*

Eguerdi on!

Euskaltzaindiaren izenean bi hitz: Lehen Angelus-eko kanpaiek errezurako deitzen bazuten, oraingoan kanpai hotsek, eguerdi honetan, euskararen aldeko oihua dakarkigute belarri eta bihotzetara.

Mahai inguru honetan gaudenok, eta entzuleok, jakina, oihu hori Euskal Herri osoari nahi diogu zabaldu. Gure hizkuntza nazionala aldarrikatu nahi dugunok Euskaltzaindiaren areto honetan bildu gara, erakunde honek, nolabait, Euskararen ardura nagusia baitarama.

Angel Olalde duzue hemen, mahaian, *Korrikaren* izenean. Pello Urzelai *Eusladunon Egunkariaren* kazetaria, Mikel Laboaren biografia prestatu duena. Mikel Laboa, bera, zeini omenaldi gisa eskaintzen zaion aurkezten den liburua. Eta Jose Maria Sors, Elkar argitaletxekoa.

“Kalera gaitezen euskaraz!” da aurtengo Korrikaren mezua. Baserriko txokotik irten eta hiritara euskara modernoa egin eta atera behar dugu, edozein gai erabiltzeko hizkuntza nazionala, hain zuzen.

Eta horretan ari da AEK: euskara irakasten eta hedatzen, gure Herriaren sentipenak gartsuki adierazteko hots ozena, deiarar itxaropentsua iragarri eta aldarrikatu nahi duena. Mila esker AEK-ri euskaldunon aldetik.

Mikel Laboaz zer esan! Musikan ildo zaharretan gerorako ereiten ari den kantaria, lehengo eta oraingo herri-musikaren zubia, herri-musikaren erroetatik gure oraingo eta geroko arbolaren lorak ernetzen ari dena. Zuri ere, Mikel, bihotzez agurra eta eskerra.

Besterik ez. Ongi etorriak zaretela atea zabalik dituen Euskaltzaindira.




## AZKUE BIBLIOTEKA: DURANGOKO AZOKAN ERAKUSKETA

*Durango, 1994-12-07*

*Jose Antonio Arana Martija*

Aurtengo Durangoko Euskal Liburu eta Diskoen Azokan (abenduak, 7/11) Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekak Gerediaga Elkartearekin erakusketa bat antolatu du, aurreko hildako euskaltzain oso (Antonio María Labaien) eta ohorezko (Justo Garate eta Jon Bilbao) jaunei omenaldi gisa prestatua.

Bitrinetan erakutsi diren liburuak Azkue Bibliotekatik eramandakoak izan dira, eta paneletan agertu diren argazkiak eta dokumentu (gutunak) handituak ere gure artxibotik atararikoak.





**ADIERAZPENAK**





## **DECLARACION DE LA REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA/EUSKALTZAINDIA ACERCA DE LA RESOLUCION PARLAMENTARIA SOBRE LA LEY FORAL DEL VASCUEN-CE DE NAVARRA Y ACERCA DEL DECRETO FORAL RE-GULADOR DEL USO DEL EUSKARA**

La Real Academia de la Lengua Vasca ha tenido conocimiento de los debates en el Parlamento de Navarra acerca de la posible modificación de la Ley Foral del Vasconce, que han concluido sin haberse propuesto cambio alguno en el texto anterior. Asimismo, Euskaltzaindia es sabedora del Decreto Foral 70/94, del 21 de marzo, regulador del uso del euskara en las administraciones públicas de Navarra, y de las reacciones de algunos sectores ante esta medida. Sobre ambos asuntos, esta Academia, reconocida como Institución consultiva oficial por dicha Ley, y entre cuyos fines, sancionados por el Decreto Real de 26 de febrero de 1976, está establecida la tutela de la lengua vasca, desea manifestar ante la opinión pública lo siguiente:

1.º Euskaltzaindia lamenta profundamente que se haya perdido la oportunidad de ampliar el estrecho marco de uso atribuido a la lengua vasca en la enseñanza, la administración y los medios de comunicación en Navarra más allá de lo dispuesto en el artículo 9 de la Ley de Amejoramiento de 1984, texto acerca del cual la Academia mostró su disconformidad durante el trámite parlamentario, en la declaración de fecha 17 de julio de 1982.

2.º Nuestra Institución deplora igualmente que en un tema capital como en éste no se haya producido la necesaria generosidad por parte de todos los grupos parlamentarios y que se haya cerrado el camino a unos avances que, aunque no hubieran sido totalmente satisfactorios desde el punto de vista del derecho de las lenguas, sin embargo habrían reportado notables mejoras para el tratamiento jurídico de la lengua vasca en todo el territorio navarro, con una consideración legal más favorable. No se comprende que el bien de la lengua vasca se haya subordinado a intereses políticos partidistas.

3.º Euskaltzaindia desea mostrar su apoyo al Decreto Foral 70/94, de 21 de marzo, regulador del uso del euskara en las administraciones públicas de Navarra, por el avance significativo que aporta para el empleo del euskara, fuera de declaraciones meramente retóricas de estima hacia la lengua vasca. Al mismo tiempo, la Academia manifiesta su inquietud ante algunas reacciones contrarias a la aplicación de dicho Decreto Foral.

4.º Esta Real Academia reitera la necesidad de mantener a la lengua vasca fuera de los avatares de la política de los partidos, como patrimonio que es de todos los navarros, por encima de credos e ideologías, y al mismo tiempo recuerda que el euskara se encuentra aún discriminado en las diversas esferas de la vida social, sin que se hayan

resuelto graves injusticias como las inferidas en el reparto de las emisoras de modulación de frecuencia y otras.

5.º Esta Institución no puede permanecer callada ante alguna expresiones orales y escritas de representantes políticos y otras personas acerca de la lengua vasca y sus variedades en Navarra, la extensión anterior y actual del euskara, la norma literaria unificada, etc., en que se han vertido conceptos en abierta contradicción con la verdad y también en no pocas ocasiones con grave incumplimiento de lo dispuesto por la Constitución española en su artículo 3.º, párrafo 3, sobre el especial respeto y protección debidos a las otras lenguas distintas del castellano.

Pamplona, 4 de julio de 1994.

## **NAFARROAKO EUSKARAREN FORU LEGEAREN GANEAN PARLAMENTUAK ERABAKI DUENAZ EUSKALTZAINDIA- REN ADIERAZPENA**

Euskaltzaindiak jakin du Nafarroako Euskararen Foru Legea parlamentuak aldatzeko egin dituen bilkuren berri. Hauek legea zegoenean utzirik bukatu dira. Akademiak, lege horrek aholku-emaile ofizialtzat aitortuak, eta zeinen helburuen artean, 1976ko Erret Dekretuaren bitartez, euskararen zaintze eta jagotea duenak, honako hau nahi du jendaurrean adierazi:

1. Euskaltzaindiak zinez deitoratzen du irakaskuntzan, administrazioan eta komunikabideetan euskarari egozten zaion eremu meharra zabaltzeko aukera ona huts egin izana, 1984ko Foru Hobekuntzaren Legearen 9. artikulua agintzen duenetik harat. Puntu honi datxekola, oroitarazi behar da testu hori onartzeari buruz parlamentuan erabiltzen ari zenean Euskaltzaindiak ados ez zegoela adierazi zuela, 1982ko uztailaren 17ko agerpenaren bitartez.

2. Berrito ere erraten du Euskaltzaindiak euskara alderdikeria guztietatik kanpo eduki behar dela, nafar ororen ondarea denez, iritzi eta ideologia guztien gainetik, eta, denbora beran, gogorarazten du euskarak bereizkeriazko tratamendua jasaten duela oraindik Nafarroako gizartearen hainbat alorretan. Besteak beste, FM-ko irriak bantzean egindako bidegabekeria larria ez da konpondu.

3. Euskaltzaindia ezin daiteke inola ere isilik gelditu zenbait politikaririk eta beste-lako gizabanakok euskararen gainean, Nafarroako euskalkiez, hizkuntzaren lehengo eta oraingo hedaduraz, literatur euskara arautuaz eta abarrez esan eta idatzi dutenaren aurrean. Egia ez diren gauzak izan dira guztiz, eta, gainera, Espainiako Konstituzioak, bere 3. artikuluan, 3. parrafoan, "gaztelaniaz landako beste hizkuntzen begirune eta zaintze bereziaz" dioena erdeinuz era ezjakintasunaz erabili dute halakoek.

Iruñean, 1994ko uztailaren 4an

## **DECLARACION DE LA REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA/EUSKALTZAINDIA ACERCA DE LA RESOLUCION PARLAMENTARIA SOBRE LA LEY FORAL DEL VASCUEN-CE DE NAVARRA**

La Real Academia de la Lengua Vasca ha tenido conocimiento de los debates en el Parlamento de Navarra acerca de la posible modificación de la Ley Foral del Vasconce, que han concluido sin haberse propuesto cambio alguno en el texto anterior. Sobre este asunto, la Academia, reconocida como Institución consultiva oficial por dicha Ley, y entre cuyos fines, sancionados por el Decreto Real de 26 de febrero de 1976, está establecida la tutela de la lengua vasca, desea manifestar ante la opinión pública lo siguiente:

1. Euskaltzaindia lamenta profundamente que se haya perdido la oportunidad de ampliar el estrecho marco de uso atribuido a la lengua vasca en la enseñanza, la administración y los medios de comunicación en Navarra más allá de lo dispuesto en el artículo 9.º de la Ley de Amejoramiento de 1984, texto acerca del cual la Academia mostró su disconformidad durante el trámite parlamentario, en la declaración de fecha 17 de julio de 1982.

2. Esta Real Academia reitera la necesidad de mantener a la lengua vasca fuera de los avatares de la política partidista, como patrimonio que es de todos los navarros, por encima de credos e ideologías, y al mismo tiempo recuerda que el euskera se encuentra todavía discriminado en las diversas esferas de la vida social, sin que se hayan resuelto graves injusticias como las inflingidas en el reparto de las emisoras de modulación de frecuencia y otras.

3. Esta Institución no puede permanecer callada ante algunas expresiones orales y escritas de representantes políticos y otras personas acerca de la lengua vasca y sus variedades en Navarra, la extensión anterior y actual del euskera, la norma literaria unificada, etc., en que se han vertido conceptos abiertamente falsos y también en no pocas ocasiones con desprecio e ignorancia de lo dispuesto por la Constitución española en su artículo 3.º, párrafo 3.º, sobre el "especial respeto y protección" debidas a las otras lenguas distintas del castellano.

Pamplona, 4 de julio de 1994

## **EUSKO IKASKUNTZAREN ETA EUSKALTZAINDIAREN ADIERAZPENA IRITZI PUBLIKOAREN AURREAN 1994ko AZAROAREN 19an NAFARROAKO JUSTIZIA NAGUSI T.G.eko ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ARETOAK EMANDAKO EPAIARI BURUZ**

Ez dagokie ohar hau sinatzen dugun Erakundeoi oraino irmoa ez den Epaia-  
ren, Auzitegi Gorenaren aurrean kasasiaz errekurritua baita, balioztatze juridikoak egitea.  
Hala eta guztiz, euskararenganako sentiberatasuna dutenen artean Epaia horrek sortarazi  
duen gizarte-asaldura larriaren aurrean eta hartan Nafarroako berezko hizkuntza bati  
ematen zaion trataera laidogarria ikusirik, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari pro-  
testa bat egiteko beharrean aurkitzen gara, euskararen eskubidean babesteko eginbeharra  
duten Erakundeak garenez (Eusko Ikaskuntzaren Estatutuak 2. art.; Euskararen Erret  
Akademia Euskaltzaindiaren aitortenezko E.D. 573/1976, 4.8 art.), eta hartarako ondo  
doko arrazoieta oinarritzen gara:

1. Ignacio MERINO ZALBA Magistratua txostengile den Epaian esaten denez,  
Iruñean ez dago "bertan sorturiko euskaldunik", datu guztiz faltsua dena zeren eta hiriko  
euskaldunen kopurua hamarnaka milakoa (35.000) baita, estatistika ofizialen lekuko-  
tasunaren arabera.

2. Epaia horretan erantzen da "euskara hutsezko irriti programazio bat kaltegarri  
litzateke kultur garapen orokorrerako eta pertsona gehienentzat" bai eta "baztergarria  
gehiengoarentzat gutxiengoarekin alderatuz". Seta okerreko iritziak, gehiengoak gaz-  
telaniaz baizik aritzen diren 19 irriti bere esku dituela eta gutxiengoak batto ere ez duela  
kontuan hartzen ez dutenak.

3. Irratien kudeaketarako emakida, horren erabakia hemen izendatuki aipatzen den  
epaia ekarri zuena, arautzen zuten oinarrietan argiro adierazitakoaren arabera, "Nafa-  
rroako balio linguistikoak sustatu eta indartzeko konpromezua beregain hartuko duten  
proiektuak begi onez ikusiko ditu" (Foru Dekretua, 37/1990, 4.1 art.). Baloratzeko iriz-  
pide hori, alabaina, ez da ezertarako kontuan hartu emakidak erabakitzerakoan, ez eta  
aztertzen ari garen Epaian, eta hori guztia LORAFNA edo Autonomi Estatutuak euskara  
Nafarroako berezko hizkuntza aldarrikatzen duela jakinez.

4. Orobat, 1986ko abenduaren 18tik indarrean dagoen Nafarroako Euskararen Le-  
geak 27.1 artikuluan xedatzen duenez "Administrazio Publikoek bultzatuko dute eus-  
kararen mallaz mallako presentzia komunikabide sozial publiko edo pribatuetan. Ho-  
rretarako eta komunikabideek euskara gero eta gehiago eta ohizko moduan erabil  
dezaten, Nafarroako Gobernuak ekonomi eta materiale laguntza-planak gauzatuko ditu".  
27.2 artikulua ere ildo beretik mintzo da, "Foru Komunitateak gestionatzen dituen te-  
lelibista eta irriti emisora eta gainerako komunikabideetan, Nafarroako Gobernuak eus-

kararen presentzia egokia begiratuko du". Argiro ikus daitekeenez, printzipio arauemaileok ez dira ezertan kontuan hartu, edo ez dira kontsultatu ere egin, aipatzen ari garen epaian.

5. Gainera, esan beharra dago Konstituzioak 20.3 artikuluan "gizartearen aniztasunarekiko" begiramenari xedatzen duela, eta izendatuki ezein erakunde publikoren mende dauden gizarte-komunikabideetan "Espainiako hizkuntzekiko" izan beharreko begiramenari, eta hori gure iritziz eta epailetzari zor zaion begiramen guztiarekin, erabat juridikoaren arauak, bai eta haien bidezko euskarriak izan behar duten arau juridikoak —Konstituzioa, Euskararen Legea, Foru Dekretua— alde batera uzten diren, haien ordez balorazio ideologikoez kutsaturiko iritzia emanez, euskal hizkuntzarekiko eta sentiberatasun demokratiko xumeenarekiko mespretxua erakusten dutenak. Hori guztiagatik organo goren horrengana jotzea noraezekoa dugu.

6. Arazo honi buruz, oroitu beharra dago Euskaltzaindiak 1992ko apirilaren 24an plazaratu zuen protesta-adierazpena, Nafarroako Gobernuak Frekuentzia Modulatuan aritzeko baimenduriko 7 irratietatik euskal irratientzat bat ere ez zuela eman jakin ondoren.

Azaldu denaren ondorioz, Adierazpen honen sinatzaile diren bi Erakundeok, epaileei zor zaion begiramenari kalterik egin gabe, Auzi Aretok emandako Epai iraingarri eta bidegabe hori bete-betean arbuiatzen dute, eremu urriko hizkuntzen babesari begira Espainiako Estatuak sinatu dituen nazioarteko itunen (NBE, Europako Parlamentua, etab.) erabateko mespretxua eta soziolinguistikari buruzko dokumentazioan edo zientzia aholkularitzan guztizko gabezia adierazten baitu.

Aldi berean, Auzitegi Gorenak gure jarrerari eusten dioten arrazoiak aintzat hartuko dituelako eta aipatu Aretok egindako huts gaitza zuzenduko duelako uste osoa adierazten dugu.

Iruñea, 1995.eko urtarrilaren 13an

## **DECLARACION DE EUSKO IKASKUNTZA/SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS Y EUSKALTZAINDIA/REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA ANTE LA OPINION PUBLICA NAVARRA EN RELACION CON LA SENTENCIA DE 19 DE NOVIEMBRE DE 1994 DE LA SALA DE LO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO DEL EXCMO. TRIBUNAL SUPERIOR DE JUSTICIA DE NAVARRA**

No corresponde a las Instituciones que suscriben la presente nota hacer valoraciones jurídicas de una Sentencia en principio no firme, ya que ha sido recurrida en casación ante el Tribunal Supremo. Sin embargo, ante la grave alarma social creada entre las personas con sensibilidad hacia el euskara y dado el ignominioso tratamiento dispensado en dicha Sentencia a una de las lenguas propias de Navarra, nos vemos en la obligación de elevar una protesta formal ante el Consejo General del Poder Judicial, en tanto Instituciones que deben velar por los derechos de la lengua vasca (Estatutos de Eusko Ikaskuntza/Sociedad de Estudios Vascos, art. 2; R.D. 573/1976 de reconocimiento de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia art. 4.8) y hacerlo con fundamento en las siguientes razones:

1. En la Sentencia, cuyo ponente es el Magistrado Ignacio MERINO ZALBA, se afirma que en Pamplona no existe “ningún vasco-parlante de origen en la ciudad”, dato evidentemente falso ya que su cifra se eleva a varias decenas de miles (35.000), tal como lo atestiguan las estadísticas oficiales.

2. Se añade en dicha Sentencia que una programación de radio “sólo en euskara pudiera considerarse perjudicial para el desarrollo cultural general y de la generalidad de las personas”, y sería “discriminatorio para la mayoría de los ciudadanos en relación con la minoría”. Juicios de valor contumaces que además desconocen en dicha argumentación que la mayoría tiene a su disposición 19 emisoras que emiten de forma exclusiva en lengua castellana y la minoría no tiene ni siquiera una que emita en euskara.

3. En las bases que regulaban la concesión para la gestión de las emisoras de radiodifusión, cuya ejecución tiene por causa la sentencia comentada explícitamente, se determinaba que se “valorará positivamente los proyectos que asuman el compromiso de fomentar y potenciar los valores lingüísticos de Navarra” (Decreto Foral 37/1990, art. 4.1). No obstante se hace caso omiso de dicho criterio valorativo tanto en la ejecución de las concesiones como en la Sentencia analizada, y todo ello aún a sabiendas de que la LORAFNA o Estatuto de Autonomía declara el euskara como lengua propia de Navarra.

4. Asimismo, la Ley del Vasculence de Navarra en vigor desde el 18 de diciembre de 1986 establece en su art. 27.1 que “Las Administraciones Públicas promoverán la

progresiva presencia del euskara en los medios de comunicación social públicos y privados. A tal fin el Gobierno de Navarra elaborará planes para que se emplee el euskara de forma habitual y progresiva". Incluso el art. 27.2 en este mismo sentido declara que "en las emisoras de televisión y radio y demás medios de comunicación gestionados por la Comunidad Foral, el Gobierno de Navarra velará por la adecuada presencia del euskara". Principios normativos evidentemente ignorados, cuando no consultados, en la sentencia comentada.

5. Hay que añadir que, la Constitución en su art. 20.3 dispone como derecho fundamental el respeto "al pluralismo de la sociedad" y explícitamente "a las diversas lenguas de España", en los medios de comunicación social dependientes de cualquier ente público, lo que con todos los respetos a la judicatura entendemos que viola flagrantemente la Sentencia de 19 de noviembre de 1994, ya que en ella se omiten los criterios de valoración jurídica y, por supuesto, las normas jurídicas que rectamente le deben sustentar —Constitución, Ley del Vasuence, Decreto Foral— para por el contrario, dar rienda suelta a un juicio teñido de valoraciones ideológicas, despectivas hacia la lengua vasca y hacia un mínimo de sensibilidad democrática, por lo que se nos hace obligada elevar esta protesta ante tan alto órgano.

6. Sobre este asunto, es preciso recordar que la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia, con fecha 24 de abril de 1992 hizo pública una Declaración de protesta, tras conocerse que de las 7 concesiones de emisoras de Frecuencia Modulada aprobadas por el Gobierno de Navarra ninguna de ellas fuera otorgada a radios vascofonas.

Por todo lo expuesto, las dos Instituciones firmantes de esta Declaración, sin perjuicio del respeto debido a los jueces, rechazan abiertamente la injuriosa e injustificable Sentencia de la Sala de lo contencioso que denota un total desprecio de las convenciones internacionales suscritas por el Estado Español respecto de la protección de las minorías lingüísticas (ONU, Parlamento Europeo, etc.) y una completa falta de documentación o asesoramiento científico en materia sociolingüística.

Al mismo tiempo, manifestamos completa confianza en que el Tribunal Supremo atenderá las razones que abonan nuestra postura y corregirá el grandísimo error cometido por la citada Sala.

Pamplona, 13 de enero de 1995



**BESTE BERRI BATZUK**



## 1995. URTERAKO EUSKALTZAINDIAREN EGUTEGIA (\*)

J.L. Lizundia,  
idazkariordea

Urteoro bezala, Zuzendaritzak onartuz gero, hemen dakartzet batzar-egutegia 1995. urterako. Ohi bezala euskal bibliografiari begirada bat eman diot: *Euskera* agerkaria, Luis Villasante, Santi Onaindia, *Egan*, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren "Klasikoak" bilduma eta nola ez, Jon Bilbao zendu berriaren *Eusko Bibliographia*.

Akademiaren 75. urteurrenaren ostean, Zuzendaritzan aipatu nuen eta kide guztiek, aho batez, onartutako irizpen bat ere kontuan izan dut, hau da: 1995. urtean nolabaiteko "urte sabatiko" bat hartu behar duela Euskaltzaindiak, beraz, ondorioz, ez dugula Bilzarrik izango, ez eta tokatzen diren Barne-Jardunaldiez kanpoko jardunaldirik ere. Amaitzeaz dagoen urte hau oso neketsua, astuna eta bete-betea izan da denontzat. bai euskaltzain osoentzat, bai batzordekide diren euskaltzain urgazle eta besterentzat, eta, nola ez, eragile eta langile ororentzat.

Horregatik bada, Barne-Jardunaldiak bakarrik izango dira ildo seinagarrienak. 1979. urtean, Bizkaiko Foruan; 1981ean, Gipuzkoako Loiolan; 1983an, Arabako Angoston; 1985ean, Nafarroako Lekarozen; 1987an, Iparraldeko Angelun; 1989an, Euskal Herriari bigarren itzulia hasi genuen, Gipuzkoako Lazkaon; 1991n, Iparraldeko Ziburun; 1993an, Bizkaiko Zornotzan. Datorren urtean Araba hautatzen dugu, oso komenigarria herrialde horretan euskarari sortzen zaizkion arazoak ikusita. Horretarako euskara galzorian duen udalbarruti baten, Legutianon, edo euskaldun zaharrok deitzen dugun bezala, Billerlen. Manu Ruiz Urrestarazu gure ordezkariak leku apropos bat bilatu du: Larrabea jauregian jarri berri duten golf zelaia. Bestalde, arabar euskal idazle baten mendeurrena ere betetzen da datorren urtean, Gabriel Jauregi Uribarrenena. IX. Barne Jardunaldi horien xede nagusia, Euskaltzaindiaren baliabideak aztertzea izango da euskaltzainburuak Barakaldoko Udaletxean proposatu bezala (bertan bildu da egun batez Zuzendaritza, Euskal Herriko udal bakarra baita, eta, ez herri txikia, 110.000 bizilagun dituelako, Akademiari hiri-izen bat eskaini diona, "Euskaltzaindia plaza" hain zuzen). Euskararen Akademia hau erronka berriei erantzun beharrean aurkitzen da, eta, gaur egun dituen baliabide eskasak, bai giza baliabideak eta bai diru baliabideak, ez dira inondik inora aski euskal gizartearekiko dituen eginkizunei aurre emateko.

Mendeurrenetan, ez dugu heldu den urtean lehen mailako ospakizunik. Hiru atzeman ditut ordea: aipaturiko Jauregiz gainera, Mixel Elizanburu "Anai Inozentzio" eta Juan Jose Alkain Iruretagoitiena "Udarregi".

---

(\*) Durangon, 1994.eko abenduaren 7ko Zuzendaritzan onartua. Otiartzunen, 1994.eko abenduaren 29an, hileroko bilkuran, aurkeztua.

— Gabriel Jauregi Uribarren Aramaio ibarreko Etxaguenen jaio zen 1895.eko maiatzaren 27an. Karmeldar honen berri bat A. Villasante eta baita A. Santi Onaindiak ematen digute, eta ez gara hemen luzatuko. *Karmengo Argia* aldizkarian sarritan idaztetik landa, bi liburu interesgarriren egilea da: *Pisia* eta *Kimia*. Hara zer dioen Villasantek: “Queremos destacar a este carmelita, porque es autor de dos meritorios libros sobre temas científicos temas muy poco abordados en euskera”.

Jakin badakigu, bestalde, bai bere lehengusuaren semea den Patxi Uribarren euskaltzain urgazlea eta baita Julen Urkiza, *Karmel* aldizkariaren zuzendaria Jauregiri buruzko ikerketa eta bilduma batzuk egiten ari direla mendeurrenari begira. Hiztegi zientifikoaren alorra jorratzen ari diren erakunde, elkarte eta batzordc, Euskaltzaindiarena barne, gizon honi zorretan daudela, eta denen artean ospakizunen bat antolatuko dutela/dugula. Barne-Jardunaldiak ere, Araban izanik, hain zuzen albo herrian, Aramaioko Udal, Karmeldar Ordena, erakunde eta elkarte arteko ospakizun bat eskaintzeko asmoa dago.

— Michel Elizanburu, Nafarroa Behereko Heletan jaio zen 1928an eta Lapurdiko Hazparden hil, haren ordenakide Anai Iñaki Olabeagak dakarrenez, 1895eko urtarrilaren 3an. Lasterregi dugu egun hori, data hori ziurtatzen badu Pierre Charriton euskaltzainak, baina udaberrirako edo uda alderako utziko dugu ospakizuna, horrela Iparraldeari dagokion urteko bilkura Oztibarreko herri xarmant horretan egingez. Euskal idazle honen berri aspaldi eman zigan, 1959ko 5-6 *Egan* aldizkarian arestian aipaturiko Anai Iñaki Olabeaga lasalletarrak, bertan dakartzalarik xehetasun ugari. Horrez gain, Gabriel Fraile gure *Orotariko Euskal Hiztegiko* lankideak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko “Klasisikoak” bildumako zenbakian ikerketa trebea eskaini digu, baxenafar idazle hau eza-gutzeko interesgarria: *Frantziako hirur Errepubliken ixtoria laburzki* deritzan lana paratuz eta egilea ezagutzeko xehetasun jakingarriz ongi hornituz. Jo beza nahi duenak aipamen bi horietara.

— Juan Jose Alkain Iruretagoiena, “Udarregi” bertsolariaren mendeurrena ere datorren urtean betetzen da. Usurbilgo herrian jaioa eta bertan 1895.eko urriaren 2an hila. Maiatzetik gaude Udalarekin harremanetan, eta horretarako izendatutako batzordean Euskaltzaindiko hiru kide daude ordezkari: Juan Mari Lekuona, Literatura batzordeburua, Antonio Zavala Herri-Literaturako arduraduna eta Pello Esnal azpibatzorde horren idazkaria. Azaroan izan ditugu beste harreman batzuk eta bere datekin bat eginda Euskaltzaindiaren iraileko ohiko bilkura eta arraltsaldeko agerikoa eskaintzeko aukera dago.

Eskabide zehatza ere badugu, urriaren 20an Luis Alberto Aranberri “Amatiñok” Euskal Telebistako Zuzendariak egina eta hau da:

“Euskaltzaindiak urtean zehar Donostian izan ohi dituen Osoko Bileretako bat Euskal Telebistaren Miramongo ekoizpen-zentruan izan dadin. Gure eskaintzari ontsa bazereritza, gure ekoizpen-gune nagusia bertatik bertara ezagutzeko aukera izango lukete euskaltzainek eta baita euskarazko produktioaren bat zuzenean ikusteko ere. Uste dugu ETB dela, besteak beste, euskalgintzan ari diren egitasmorik handienetakoa eta merezi luke Euskaltzaindiak begibistako informazio zuzenaz jabetzea”.

Horrez gain, Gipuzkoako Diputazioak Probintziaren Urrezko Domina Euskaltzaindiari emateko eguna hautatu beharko da.

Jean Haritschelhar euskaltzainburuak, 1992. urterako Egutegia egikeran agindu hau eman zidan: 4-4-3 delakoa begiratzea, alegia, urteko hamaika hilabeteetako bilkurak, abuztua salbu, noski, honela banatuz: Lau Bilbon, egoitzan egitea, beste hainbeste Donostia edo Gipuzkoan, eta bana Araban, Iparraldean eta Nafarroan. Heldu den urtean ez dugu, nik dakidala eta iritsi zaizkidan xehetasunen arabera, Nafarroan ospakizun bezirik.

Guzti horregatik, 1995. urterako, egitasmo hau izango litzateke:

### 1995. URTERAKO BATZAR-EGUTEGIA:

Urtarrilaren 27an, hilerolio bilkura arrunta eta Gipuzkoako Urrezko Doina jasotzea, Diputazioan, Donostian.

Utsailaren 24an, hileroko bilkura arruntak, Bilbon, egoitzan.

Martxoaren 31an eta apirilaren leian, hileroko bilkura eta IX. Barne Jardunaldiak, Legutiano/Billerleko "Larrabea"; apirilaren leian, eguerdian, Aramaion, erakunde-elkarte arteko omenaldia Garbiel Jauregiri.

Apirilaren 28an, hileroko bilkura arrunta eta ETBk deiturik, Donostiako Miramonen.

Maiatzaren 26an, hileroko bilkura eta Mixel Elizanbururen mendeurrena, Heletan.

Ekainaren 30ean, hileroko bilkurak Bilbon, egoitzan.

Uztailaren 28an, hileroko bilkura arruntak, Donostian.

Irailaren 29an, hileroko bilkura eta Udarregiren mendeurrena, Usurbilen.

Urriaren 27an, hileroko bilkura arruntak, Bilbon, egoitzan.

Azaroaren 24an, hileroko bilkura arruntak, Nafarroan.

Abenduaren 29an, hileroko bilkura arruntak, Bilbon, egoitzan.



**1994.URTEAN, HILEROKO BATZARRETAN  
IZANDAKOEN ZERRENDA**





## EUSKALTZAIN OSOAK

P. Altuna .....	12
J.A. Arana Martija .....	13
M. Azkarate .....	11
P. Charritton .....	13
J.L. Davant .....	10
X. Diharce .....	6
J. Haritschelhar .....	13
A. Irigoien .....	13
X. Kintana .....	12
E. Knörr .....	13
F. Krutwig .....	11
A. Labaien .....	0
E. Larre .....	10
J.M. Lekuona .....	13
B. Oihartzabal .....	12
F. Ondarra .....	9
Tx. Peillen .....	10
P. Salaburu .....	13
J. San Martin .....	2
I. Sarasola .....	8
J.M. Satrustegi .....	11
L. Villasante .....	13
P. Zabaleta .....	5
A. Zavala .....	0

## EZIN ETORRIA

P. Altuna .....	1
M. Azkarate .....	1
J.L. Davant .....	2
X. Diharce .....	5
X. Kintana .....	1
F. Krutwig .....	1
E. Larre .....	3
B. Oihartzabal .....	1
F. Ondarra .....	4
Tx. Peillen .....	3
J. San Martin .....	3
I. Sarasola .....	3
J.M. Satrustegi .....	2

**EUSKALTZAIN URGAZLEAK**

R. Badiola Uriarte .....	10
A. Eguzkitza .....	1
J.L. Lizundia .....	13
A. Urrutia .....	1
M. Zalbide .....	1
J.J . Zearreta .....	10

## **KARGUAK ETA BATZORDEBURUAK**



Jean Haritschelhar	EUSKALTZAINBURUA Argitalpenak Lege-Ekonomia
Juan Mari Lekuona	EUSKALTZAIN BURUORDEA Literatura
Endrike Knörr	IDAZKARIA Onomastika
Jose Antonio Arana	DIRUZAINA Azkue Biblioteka
Patxi Altuna	IKER Sailburua Gramatika
Miren Azkarate	JAGON Sailburua Hiztegi Batua
Ibon Sarasola	<i>Orotariko Euskal Hiztegia</i>
Beñat Oiarzabal	Dialektologia - EHHA
Lourdes Oñederra	Ahoskera
Pello Salaburu	Euskara Batua



## **HIL BERRIAK**





## ANTONIO M.<sup>a</sup> LABAYEN TOLEDO (1898-1994)

Iragan urriaren 12an hil zen Tolosan Antonio Maria Labayen Toledo, euskaltzaina. Herri berean sortua zen 1898ko abenduaren lean. Tolosako Eskolapioetan egin zituen lehen ikastaroak, Zaragozako Komertzio Eskola Nagusian bukatzeko. Ondotik familia-  
ren lantegian sartu zen. 1931. urtean Tolosan zinegotzi hautatu zuten Eusko Alderdi Jeltzalearen izenean, eta handik bi urte barru, alkate. Alkatetzan iraun zuen 1936ko gerra arte, eta ondorenez, erbesteratua ikusi zuen bere burua, familiarekin batean, Lapurdiko Saran zortzi, urtez exiliaturik bizitzeko.

Ondoko belaunaldikook euskal idazle ezagutu genuen, bereziki antzerkigintzan, baina beste era askotariko lanak egin zituen saio eta artikuluz, beharbada hain ezagunak ez direnak, baina horregatik ez uste izan garrantzi gutiagokoak direnik.

Izenorde anitz erabili zituen bere idazkietan, gazterik hasita barreiatu aurkituko ditugunak; besteak-beste honako, aldizkarietan: *Euskal Esnalea*, *Euskal Erriaren Alde*, *Yakintza*, *Argia*, *Euzkadi*, *El Día*, *Gure Herria*, *Herria*, *Euzko-gogoa*, *Gernika*, *Eusko Jakintza*, *Egan*, *Zeruko Argia*, *Karmel*, *Oleriti*, *Agur*, *Goiñ-Argi*, *Munibe*, *Bol. R.S.V.A.P.*, etab. Hortik ikus dezakegu erbesteraturik egon zen garai hartan ere, bizi-beharraren larrialdiak gorabehera, etengabe jarraitu zuela kultura lanetan euskaraz.

Antzerki lanean berriz zer esan? Euskal literaturan lehen mailan jarriko nuke egile eta eragile zen aldetik.

Inoiz bere lanak bildu nahi dituenak kontuan hartu beharko ditu honako izenorde hauek, hain sakabanaturik eman zituen idazlanak biltzean: "Matxingorri", "Aspaldiko", "L. Ayanbe", "Ibalan", "Etxekorena", eta besteren bat.

Meriturik aski bazuen gizonak euskaltzaina izateko eta, Euskaltzaindiak euskaltzain osoen kopurua hamazortzitik hogeita laura jaso zuenean, usterik edo ustegabeen, 1832. urtean, J. P. Ullibarrik gutunez P. Novia de Salcedori agertu zion gogoa betetzera auzartu zirela esango nuke. Une hartan heldu zitzaion Labayeni aspalditik merezia zuen alkali hartzea. Beste batzuek ez genuen horrenbesteko merezimendurik eta hara hor, kopuru berria osatzean, 1964. urteko abenduaren 18an, euskaltzain berri nola izendatu gintuzten: A.M. Labayen, ni neu eta A. Zavala. Hirurotarik inork, legez behinik behin, ez genuen beste inoren hutsarterik betetzen, kopuru berria betetzera gentozen aldetik. Hirurok ginen literatura alorrean genbiltzanak eta hirurok gaztaroan mendizale. Egia esan, nik Antonio baino lehen ezagutu nuen bere anaia Frantzisko (Pantxo) mendi-kiroitzale bezala, artean Antonio Saran zela eta elkarren artean hautsi ezinezko muga. Antxon Zabala, ordea, Aizkorri gailurretan ezagutu nuen, baina Euskaltzaindiak 1958. urtean Bilbon eratu zuen Biltzar Nagusian euskaltzale gisa elkarrekin topo egin genuenetik etengabeko harremana dugu.

Hala ere, aitortu behar dut Antonio Labayenen lehen berria ni euskaltzale izatera heldu baino lehenagokoa dudala. Gerra ondoan oraindik mutikoa nintzela Eibarko Club Deportivo delako elkartearen zegoen biblioteka hartan ordu asko pasatzen nuen irakurketan, han zeuden era askotariko liburuak miatuz. Behin, *Pyrenaica* aldizkari zaharrak begiztatzean, han aurkitu nituen lehen mendizale kiroletan aritu zirenen kontakizunak eta horien arteko bat zen Antoniok Patxi Tudurirekin 1926. urteko ekainaren 26an Zuberoko Orhi mendiaren gailurrera igon zirenekoa, ibilaldiaren berri emanez. Larrañetik Erromendi zehar, eta aldi berean doinu politaren jabe den kanta hura gogoratuz eta aipatuz: "San Josefen ermita, desertian gora da...", denbora haietarako oso egoki adierazia, 2 oren eta 42 minututan oinak gailurrean jartzeko. Gero, nik dakidanez, Antoniok ez zuen izan mendi ibilietarako beta luzerik. Baina, urteak igaroaz ere, zuberotarrek esan ohi duten bezala: "Orhiko xoriak, Orhi laket". 'Aralarko Adiskideak' elkartekoa zen Antonio eta aldi berean Aralarko Igaratza babes-etxearen sortzaileetakoa eta ez errefujio hartara bidaia guti egindakoa. Horregatik, elkartearen berrogeita hamar urte betetzeaz bat, 1978an, autikulu ederra eskaini zigun ospatzearen oroitzapenetan Donostian argitaratu zen liburuxkan *Aralar'ko goraberak* izenpean.



Antonio M.<sup>a</sup> Labayen

A.M. Labayen zenak musika zuen beste zaletasunetarikoa bat, atsedenez hartzen zioten txolarteetan biolina jotzea gogoko zitzaion. Idatzi ere zenbait aldiz idatzi zuen musikaz, 1949an *Eusko Jakintza*-n eman zuen "Bibliografía musical vasca" eta Eduardo Mokoroa Arbillagaren heriotzea gertatu zenean, saio bikaina agertu zuen "Mocoroa, apóstol de la música" izenburuaz *Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País* buletinean (XV. urteko 2. kuadernoan). Gainera, buletin berean daude 1979an Cremenio Galicia Arrue biolin-jotzaileari buruz egindako idazlana eta "Pequeña historia del violín en Tolosa" izenburua duena

Antonio M.<sup>a</sup> Labayenek idatzi dituen liburuen artean balio handikoa dugu *Escenas papeleras* (1947), non aztertzen duen papergintzaren historia Euskal Herrian. Gainera, balio berezia du paper filigranak eta hauen noiztikakoa biltzean, eskuizkribuak iker-tzaileen eskuan jartzen baititu, lekukotasun agirien lagungarri. Honen berri zer baita-daki gure euskaltzain Frantzisko Ondarra jaunak. Aipatu beharrekoa iruditzen zait pa-peraren ikerketaz gure mugetatik haruntzago lortu zuen ospea irabazi zuela *Investigación y técnica del papel* agerkarian kolaboratuz. Ikus bertan 1970. urteko urrian idatzi zuen “En un lugar llamado Erasote”, Leitzako papergintzari buruz egin zuen ikerketa.

Beste saiakera aipagarri bat *Compendio del Poema Euskaldunak de Orixe* (1951) deritzana dugu ezpairik gabe, zeren adierazpen honen irakurketaren ondotik hobeto uler-tzen baitugu Orixeren poema mardula. Denok dakigunez, poema honek batez ere gure artzaintza eta nekazaritza mundua erakusten digu, une labur batean olazaharren zatitxo bat jaso arren. Orixeren *Euskaldunak* poema mardula hizkuntzaz eta bertsoz aberatsa dela uka ezinezko da. Hala ere, noizbait esan nuen poesia inspirazio edo etorri liriko aldetik ez zitzaidala hain ona iruditzen. Aburu hau beste askok ere azaldua zen. Baina nik ez dakit nondik eta zelan asmatu edo nahastu zuen Labayen zenak nik *Egan-en* argitaratu nuen “Zeren billa” narrazioa *Euskadunak*-en kritika zela, *Orixe* (1965) ome-naldi liburuaren 22. orrialdean datorrenez. Hemen publikoki argitu eta aitortu beharra dut, berari ahoz agertu niona: umorezko narratiba hura idatzi nuenean ez zitzaidan bu-rutik pasatu Orixeren poema. Are gehiago esango dut, Orixeri, euskaltzalerik gehienek bezala, beti gorde diodala ongi merezirik zuen ospea eta itzala. Gainera, euskararen etorkizunaz aski etsipendurik geunden garai ilun haietan zenbat aldiz ez ote nituen, ai-patu ez ezik, errepikatu ere egin poemaren hasierako bertsoak, gure sentipenen eredu-tzat: “Zatozkida goi arnas...”.

Biografiagintzan ere ahalmen berezia erakutsi zigun Labayenek eta hor dugu lekuko *Muñagorri eskribaua, pakegille ta fuerozale* (1976), agiriz nahiz garapenez ongi hor-nituriko liburua, gatzelerazko laburpenak eta guzti.

Saiakeran orotariko gaiez anitz artikulu idatzi zituen eta liburuxka bat ere bai Txi-lardegiren *Huntaz eta hartaz* kritikatu argitara eman zuen *Tajuz eta zentzuz* (1967) deritzanean.

Baina, aipaturiko gai eta lan guzcion gainera, nabarmen azaldu zen antzerkigintzan. Hor izan zituen bere biziko emaitzarik oparoenak. Ariztimuño “Aitzol”ek eta bere in-gurukoek Errepublikara garaietan zuten “Euskaltzaleak” zeritzan mugimendu hura baino askoz lehena gertatu erakutsia zuen teatrogintzarako lehia autore bezala, baina “Euskaltzaleak” sortzeaz egile eta eragile bihurtu zen. Hain urte gutxitan agertu zuten ekintzaz bazirudien euskal literaturak historian inoiz lortu ez zuen urrezko aldia zeto-rrela, baina gudu madarikatu hark eten eta etorkizunaren itxaropen guztia hankazgora jarri zuen, eta gure gizon langile zintzoa, deserriratu. Hala ere, historiak zentzurik gabe zatiturik utzi zigun Euskal Herriaren mugaz harandian erori zen eta elkarlaneko mu-gimendu hartatik berezirik; gainera, buruzagi agertu zen Aitzol bea ere armaz hila zen. Haatik, zoritxarra gairatuz jarraitu zuen euskal lanean. Ordukoak ditugu *Gernika* eta *Eusko Jakintzan* argitaratu zituenak. Bestalde, Lapurdiko egoera hartan hurbilagotik ezagutu zuen hemen baino lehena gertatu zuten hango literatur tradizioa, eta euskararen erabilera aberastu zuen. Baina, hala eta guztiz ere, aberaste hori baino galera handia-gokoa izan zen anaiarteko gerra hura; utzitako ondoreak oso latzak izan baitira, urteetan zehar, gure egunotararte.

Euskaltzale mugimenduan antzerkiaren sustaketa bere ardurapeko hartu zuen Labayenek. Antzerkian, "Txikia baina gurea" erabili zuen lema bezala. Gabriel Arestik zerbait handiagoaren nahiaz zenbait kritika egin zion lema horri, baina nire ustez, Gabrieli esaten nion bezala, esaldi horrek egiazko izate edo errealtatea erakusten zigun, berez herri txikia izateak zerbait kondizionaturik geundenez, eta Bizkaiko esaldiari lotuko diot: "garean gareana legez", harrokeriarik gabe, ez gehiago eta ez gutiago. Beraz, Labayen ez zebilen hain oker. Gainera, bazekien Sarmientok zer esan zien *Teatro argentino* liburuan bere garaiko antzerkigileei. Ikus aburu hori *Teatro euskaro* delakoaren lehen liburuarren 95-96. orrialdeetan Labayenek jaso zuena. Kontseilu hartako jokabidea eskatzen zuen "Txikia baina gurea" esaldi horren bidez, bai baitzekien Argentinan zer ondore lortu zen antzerkigintzan. Horregatik zioen: "Las obras, señores, no se producen por generación espontánea, sino vienen aprovechando enseñanzas ajenas y tentativas anteriores, cuando llega el momento oportuno".

Bi liburukitan agitarra eman zuen *Teatro euskaro* (1965), lehen liburukian teoria agertu zigun eta bigarrean aburuak, kronika eta obren katalogoa. Obra horretan agertzen zuenaren funtsezkoa, laburki, euskaraz ere agertu zuen *Teatrogintza eta yakintza* (1973) liburuan. Hiru zati nagusitan banatzen da liburu hau: lehenik, Biblian oinarrituriko bere sorberatik antzerkia, *Agar'en seme ... Ismael* (1970. urtean "Agora" saria irabazia); alde batetik antzerkigintzaren erudugarria dirudi eta bestetik, horrez gainera, liburuarren betegarri, antzerkigintzaren eredu edo erregelaz gainera hiru ekitaldidun obra bat aurkeztuz; bigarrenak, oraingo teatroaren aurrean (1965eko irailaren 25ean Donostian Euskaltzaindiak eraturiko jardunaldietan eman zuen hitzaldia da) bere iritziak agertzea du oinarritzat, eta hirugarrena, *teatroa erbeste eta gurean* saiakera, nori eransten dion azkenez "teatroa gurean" soil-soilik, Zuberoako pastoraletatik hasi eta orain arteko emaitzak aurkezten dituena.

Hitzaldi eta saio horietan bere iritziak agertzen ditu, antzerki eta bete beharreko arauak zertan diren azalduz. Publikoari begira, orotariko gai eta erak behar omen ziren, ez klasistak, entzun-ikuslea orotariko denez gero. Arte-legeak, antze-lana eta argitasuna bitez aintzindari, politika, soziologia eta gainerako ideologiak beren lekuan utzirik. "Zeren teatroari larregi eskatzen baldin badiozute alperrik galdu eta fin gaizto eginen dugu", gomendatzen zigun Antonio M.<sup>a</sup> Labayen zenak. Azkenik beste honako aburu hau: "Teatroan gizonaren problema guziak sar ditezkeela: gizarte auzi, griñak, garratzasunak. Teatroak justiziaren alde jokatu behar du, bai. Egiaren alde teatroaren eremuan, poz, atsegina eta zoriona billa behar da. Gazteak!: Zuek ikus zer bidentatik jo! Zeon eskuetan dezute aukera. Baina kasu eman! Ibil zaitezte arduraz, teatroaren lege, neurri eta araupeetan" (87. orr.).

Alabaina, fedea obrekin erakusten zekien gizona zen Antonio, gainera egile eta eragile antzerkiaren esparruan. Antzerti liburuxka saila sortu zuen, bereak ez ezik, beste-renak ere agitarra emateko. Bestalde, antzezleri taldeak suspertzen eta bultzatzen egin zuen lana ez zen makala izan. Baina lanik garrantzitsuena, euskal literaturan beti kon-tuan hartu behar duguna, antzerkigile eta antzerki itzultzailetzan datza. *Teatro euskaro*-ren bigarren liburukiaren bukaeran euskarazko obren katalogoa agertu zuen, 153-183. orrialdeetan, lehendik Jose Aranak egindako 1880tik 1928 bitartekoari, urte horretatik 1965.erakoa bere lumaz erantsiz.

Katalogatze horretan bere lanak 171-172. orrialdeetan datoz, sortuak eta itzuliak, gutzira 25. Askok izanik ere, 1965.a ezkeroko beste zenbait gehitu behar zaizkio.

1977an Bilboko La Gran Enciclopedia Vasca argialetxeak hiru liburukitan argitara eman zuen A. M. Labayenen *Teatro osoa euskeraz*, itzulpenak alde batera utziz, Jose Lasa zenaren aurkezpenaz. Baina hutsegiterik bada hor, zeren *Maya*, *Mateo txistu* eta *Jostuna* falta ditu Labayenek berak aipaturiko katalogoan jarri zuen zerrendatik. Geroztik egindako beste hiru antzerkiren izenburuak ere falta dira. Laugarren liburuki batean sartzeko asmoz edo utziak ote? Bestela ulerkaitza baita.

Dena dela, hona hemen hatzeman ditudan guztiak zerrendan: *Txinparta buruzagi*, 1921 (Donostiako Udalak 1920. urtean saritua; *Ostegun gizona*, 1930; *Euskal Eguna*, 1931 (1930.ean Donostiako Antzerki-batzaldian lehen saria); *Maya*, 1932; *Mateo txistu*, 1932; *Iparragirre*, 1933; *Gizon bizarpeituti eta emazte bizartsuti*, 1935; *Irunxeme*, 1935; *Muga*, 1954; *Lurrikara*, 1955; *Jostuna*, 1956; *Petrikillo*, 1956; *Jokua ez da errenta*, 1960; *Galtzaundi*, 1961; *Malentxo, alargun!*, 1962; *Domejon de Andia*, *Gipuzkoako erregia*, 1965; *California ku-ku!*, 1967 (1967an "Agora" saria); *Agar'en seme... Ismael*, 1973 (1970ean "Agora" saria); *Perretxiko jatea*, 1967; *Pestaburu*, 1967; *Lapikoa*, 1969 eta *Muñagorri?*

Itzulpen lanean ere saiatu zen. Bere aburuz: "Euskal-teatro argala indartzeko ez dago, apika, gure enbor zaharrari txerto berriak itsastea bezelakorik" zioen japoniar *Taniko* antzerkitxoia itzultzean *Bai esalea eta Ez esalea* izenburupean (1960) Bertold Brecht-ek alemanierara egin zion aldaeran oinarriturik, "Der ja Sager" eta "Der nein Sager".

Baina itzulpen gogoia aspaldiago erakutsi zuen, artean aski gazte zelarik. Adibidez, 1933an Henriette Charasson-en "Sermon de mariage" itzuli zuen, *Irri Itzaldia* izenburuz eta egile beraren "Separation" hurrengo urtean *Berezi* titulatu.

Geroztik, absurdoa ez zuela maite aitortu arren, era horretako saioen aukera ere eskaini zigun honako hauekin: Durrenmatt-en *Gizona eta kidea*, "Der doppelanger" 1963an, eta Ionesco-ren *Neskatilla ezkongai* "La jeune fille a marier" 1964. urtean euskaraturik argitaratu. Bide horri jarraitu zion Max Frisch-en "Die brandstifter", *Su-emai-leak* 1966an argitara emanaz eta, gainera, J. J. Rousseau-ren "Le devinder village" Mozart-en operarako prestaturiko liburuxkan oinarriturik, eta "Les assureurs", *Bastian eta Bastiane* eta *Mesner*, argitara gabeak nonbait. Azkenik, H. Ibsen-en "Gengangere", *Mamuak*.

Zahartzaroan etxetik irten ezinik aurkitzen zelarik, urtean behin bederen bisita egiten hasi nintzen, horrenbeste lan burutu zuen gizon zintzo bezain apalak ondo merezia zuelako. Libururen bat edo beste eramaten nion, baina azkenaldira irakurketarako gogoia urritu zitzaion. Inoiz biolina jotzeari ematen zion eta azkenengo batean, Alarcón kardenalaren artikulu bat irakurtzen aurkitu nuen eta gauza zen irakurria adierazteko. Aldi honetan beti galdetzen zidan Justo Garate eta Teodoro Hernandezenaz, jakitun zenez beste biokin nituen harremanak. Besteengandik ere izaten nituen galderak. Beraz, adin berdintsukoak, nolabait zubi hartu ninduten. Eta hirurok 1994. urte berean zendu dira. Goian beude.

Juan San Martin



**PEDRO DIEZ DE ULZURRUN,**  
**sendagilea**  
**(1924-1994)**

Euskararen ilunpeko lozorroan Nafarroak izan zuen suspertzaile aipagarrienetakoa galdu du gure herriak. Etsairik ez zuen gizon apal hau agertzen zen beti hizkuntza zaharren aldeko ekintza guztietan arduradun eta gidari etsaigai berldurgarrien aurrean. Bere izenaren ondoan sendagilea zelako aipamena ez da ajola gutxiko betegarria, ez eta ere ohorezko itxurakeria. Baziren bi Pedro Diez de Ulzurrun gerra ondoko garai hartan Nafarroako euskaltzaleen mundu txikian. Biak nahita ez ekintza beretan sartuak, eta euskaltzain urgazleak biak. Apaiza bata, eta sendagilea bestea. Hori dela eta, ezinbestekoa gertatzen zen lanbidearen ezaugarri elkarrengandik berezi beharra. Zeresanik ez etorkizunari begira, ilunpeko mamuak argitasunarekin desagertzen baitira, beharrezkoa da bereizketa.



Pedro Diez de Ulzurrun

Iruñean, 1994ko urriaren 20an hil zen hesteetako minbiziarekin Pedro Diez de Ulzurrun sendagilea. Irunsheme euskaltzale honen familia inguruan bazen abertzalerik eta hartzarotik piztu zitzaion Euskal Herriarekiko atxikimendua eta maitasun sakona. Beto bizileku izan zuen San Anton karrikako etxe eder handian etorri zen mundura Pedro 1924ko abenduaren 27an. Hiriburuko Maristen ikastetxean egin zituen lehen eta bigarren mailako ikasketak. Hauek bukatzean hamasei urte zituen eta ezin zen adinagatik

Unibertsitatean sartu. Aleman edo deutexera eta mekanografia ikasten saiatu zen urte osoan etxetik.

Zaragozan egin zuen Medikuntza ikastaroa, eta amaitu bezain laster Basurtuko eritetxean eman zituen bi urte barne-mediku lanetan. Han egindako ezagupenetatik zetorkion, gero bere emaztea izango zenaren adiskidantza. Prestakuntza burutzeko endokrinologia eta elikadura espezialitateak egin zituen.

Nafarroa mendialdeko euskaldun askok ikasi zuen gaisoaldian Iruñea zaharreko Pedronen etxera bidea. Elkarriketan apala eta izaeraz alai, lasaitasuna pizten zien eriei edozein egoeratan. Lanpeturik bizi zen beti. Bere gizamaila irekia eta jatorra irribarre atsegin batekin agertzen zuen. Ez zuen inoiz adiskide bat iraindu, eta iritzi desberdinekoekin bazekien, giza legez, amor eman gabe bere eskubideak zaintzen. Itzal handiko duintasuna zen berea.

Euskararen alde baliatu zuen bere izen ona. Aurrezki Kutxa Munizipaleko zuzendari zen orduan Miguel Javier Urmeneta, eta beronen bultzadaz, herriz herri haur euskaldunak saritzeari ekin zitzaion 1956an. Oroitzen naiz Jose Agerre zenaren etxean lehenbiziko aldiz egon nintzen bileraz. Liburuz kokahala betetako gela ilunean sartu ginen. *La Voz de Navarra* egunerokoaren zuzendaria zen 1936an falanjeko morroi udinak bulegoan sartu eta atxiloturik eraman zutenean. Norbaiten medioz ez zuten hil, baina Sevillara baztertu zuten atzerriraturik. Euskaltzain oso izanik kargua kentzea, ez zen zigor txikiagoa izan Agerre jaunarentzat.

Haur euskaldunei sariak ematearekin helburu bat lortu nahi zen batez ere: euskarari egotzitako madarikazioa desagertzea: "Orain arte debekatua zen eta orain saritu behar al duzue", esaten zigun jendeak harriturik.

Hamar urtez (1956-1966) burutu zen lan hori eta bigarren ekintza bat etorri zen ondotik: "ez da aski euskara zaindu behar dela errepikatzea, irakurtzeko modurik ez badute", esan zen bilera batean. Honela sortu zen hileroko aldizkari bat, lehenik "Roncesvalles" izenarekin abiatu eta berehala "*Principe de Viana* euskal orria" izan zena. Pedro Diez de Ulzurrun zen zuzendari eta arduradun erabatekoa. Hamahiru bat lagun-tzaile biltzen ginen bere inguruan eta zazpi mila ale banatzen ziren Nafarroan.

Bidea irekirik zegoen, giroa nagusitzen zihoan, eta betiko miruak agertu ziren oitategian. Modu txarrean eta inolako esker oneko hitzik gabe baztertu zuten Diez de Ulzurrun, eta berarekin desagertu zen hasierako taldea. Aitzakia, "Txomin Agirre" nobela sariaren iragarpena erdarazko itzulpenik gabe plazaratu zela. Ez zen lehen aldia; urtero horrela egiten zen. Baina, azalpen ofizialaren azpian bazegokeen beste zerbait. Zurrumurrua alegia, "Ez dok hamairu" taldeak Larraitzen antolatutako gaupasa zaratsuaeren aipamena ez omen zen norbaiten gogokoa gertatu.

Pedro Diez de Ulzurrun buru apal itzuli zen etxera, zaratarik gabe, euskaltzaleon amets ederretako umetxoa nola hiltzen zen ikusteko, ustezko abertzaleen eskutan itorik.

Urteotan beste ekintza asko berreskuratu ziren Nafarroan, hala nola Euskal Festak eta Bertsolari txapelketak, azken saioa Iruñeko "Gayarre" antzoki nagusian egin ohi zelarik.

Aita Murieta batzordekidearen "Umeen Deia" eta "Mendiz" baso-gizon euskaldunei zuzendutako orriak ere taldearen dirulaguntza eta bultzadaz plazaratzen ziren. Gutxi aipatu ohi den lana da euskararen irakaskintza euskaldun herrietako eskoletan sartu izana. Ordu erdiko ikastaroak ematen ziren egunero, Diputazioak berak maisuei sari bat



emanenez. Eta 1973an Urmeneta Diputaziotik atera aurreko lorpen nagusia Erakunde honek "Euskararen aldeko legea" onartzea izan zen, atzetik etorri ziren agintariak denbora luzean zokoraturik gorde bazuten ere. Ofizialtasunaren mailara iritsi zen horrela Nafarroan euskara. Denbora berean sortu ziren lehen ikastolak gurasoen eskutik eta, bere sei seme-alabetan txikiena eskolako adinean baitzen, han zegoen Pedro San Fermin ikastolako gurasoetan.

Diez de Ulzurrun sendagilearen aita Legardakoa zen eta ama Iruñekoa. Galdera da noiz eta nola ikasi zuen euskara hain ongi gizon honek. Nafarroako Diputazioak euskara ikastaroak antolatu zituen Iruñean Francisco Tirapu irakaslearen eskutik, eta hara jo zuen Pedrok 1951an. Lehen kurtsoan hasi omen zen euskara mintzatzen, ordu asko eta ahalegin handiaren bidez.

Aitona Ezkabartekoa zuen Iruñerrian eta hark bai mintzo zuen bertako euskara. Zil-dotz herriko "Perutxena" bere aitonaaren sortetxean euskal sermoien bilduma handia agertu zen. Hogei bat zituen berak eta beste asko A.Irigaraik jaso zituen. *Euskera* aldizkarian argitaratu zuen lan bat "El Catecismo manuscrito de Maquirriain de 1828" izenburuarekin (V, 1960, 377or.).

Hitz gutxitan laburtzekotan bizi oparo baten irudia, euskararen ordu ilunetako mezulari argi eta alaia izan zela esan daiteke. Ez zuen ahoz bakarrik edo egunkarietan arrabots handiko ohiartzuna zuten argazkien ondotik lan egin, isilean eta musutruk baizik. Ezin zitzaion inola ere zalantzatu euskararekiko atxikimendua. Iruñeko egunkaririk zabalkunde gehienekoan asteroko "Nafar Hizkuntzan Orria" zuzendu zuen hainbat urtez. Baina ugazaben euskararenganako zitalkeria sumatu zuenean aurpegia atera zuen eta, giro txarra ikustean, dena bertan behera utzi eta desagertu zen handik.

Nafarroako euskarari dagokion berpizkundean gerra osteko oinarri sendo eta zutabe nagusietakoa izan da Diez de Ulzurrun sendagilea.

*Jose M. Satrustegi*



## NILS M. HOLMER (1904-1994)

Suediako egun luzeetako batean zendu zen, 1994ko ekainaren hamarrean, Nils M. Holmer hizkuntzalari ospetsua. Frenninge hiriko bere etxean itzali zen, bere seme Arturok idatzi didanez, eta bat-bateko heriotzea izan omen zuen inolako larritasunik gabe.

Gotemburgen jaio zen 1904ko otsailaren 5ean. Laurogeita hamar urte beteak zituen, beraz, iragan neguan. Lund hiriko Unibertsitatean eginik goi mailako ikasketak, 1925ean burutu zuen Arte arloko batxilergoa, eta sei urte geroago, 1931an, lortu zuen lizentziatu titulua.

1948an hasi zen Lunden bertan hizkuntzalaritza konparatua irakasten, eta 1950etik 1969ra gai horretako katedraduna izan zen adinagatik irakaskuntza utzi arte.

Euskararen ikerle eta Euskaltzain ohorezkoa zen.

Munduko hizkuntza zaharren ikerle eta maisu handiari galdetu nion behin neure etxean zenbat mintzaira ezagutzen zituen. Ez zidan erantzun, baina bere emazte Vanyak azalpen hau egin zidan albotik:

— Hamabiren bat mintzo ditu, behar bada, hamalau. Orohar 32 bat irakur ditzake. Geroztik ibilia da Ozeaniako beste herri batzuk ezagutzen.

Hiru une edo saio desberdin bereiz ditzakegu nagusiki suediar jakitunaren lanetan:

- 1) Gaelieraren jarraipena,
- 2) Amerindiarren hizkerena eta
- 3) Ekialdeko aztarna zaharren sailkapen oinarritzkoa.


1. *Gaeliera* ikasteko Eskozia eta Irlandan bizi izan zen 1935etik aurrera. 1937 eta 1938 . urteetan *Todd lecturer* edo atzerriko irakasle izan zen Irlandako Akademian.

Denbora honetako bi ekintza azpimarra daitezke: Norvegiako Carl Marstrander ikerlearekin gaelieraren dialektoak sailkatzen egindako lana, eta 1941etik 1948ra Uppsalako Unibertsitatean zeltiar hizkuntzak irakatsi izana.

2. *Ameriketako indioen mintzairak* lantzen hasi zen aurreko saioekin batetsuan. Gotembergo S. Henry Wassén etnologiarekin Panamako *cuna* hizkuntza, edota Kolonbiako *kaggaba* eta *sanká* landu zituen 1947an.

Kanada eta Estatu Batuetan ibili zen hurrengo urtean, eta Hegoameriketako hizkuntzei jarrai zien 1954a arte.

3. *Australia* izan zuen lantegi 1964tik aurrera. Orduan berak ikertutako *kattang* eta *thangatti* desagertuak dira geroztik. Australiako Jatorri Hizkuntzen Institutuaren eskariz, *waka* eta *gunggari* herrialdeetan ibili zen, bost lengoia baino gehiago zituelarik bakoitzak.



Nils M. Holmer

## HOLMER ETA EUSKARA

Ibero-kaukasieraren susmoz ikasi zuen euskara. 1950ean hasi zituen Euskal Herriarekiko harremanak eta hil arte zaindu du lotura.

Artxiboa begiratu, 1959koak direla neuk jasotako lehen eskutitzak lkusten dut eta beste lau izkribu urte horretakoak. Luzaiden ateratzen genuen aldizkaritxoaz interesaturik agertzen zen. Niri beti euskaraz idazten zidan. Mintzatzeko bazuen zailtasun gehiago.

Hogeita bi hilabete zituen Arthur semeak Holmer familia lehen aldiz Urdiainera etorri zelarik. Nafarroako Unibertsitatean zenbait hitzaldi ematera deitua izan zen. Bertan agurtu nuen pertsonalki, baina jendez inguratutik zegoen eta ez zen nire izenaz jabetu. Gau hartan bertan neure atzetik iritsi zen herrira. Elurra ari zuen. Etxeaz gustatu zen eta bereziki lurreko suaz, horrelako etxe bat erosteko gogoaz azalduz. Euskara erakutsi nahi zion semeari txikitatik:

— “Bost lengoia moderno ikasiko ditu Suediako eskoletan, baina indoeuropear aurrekorik ez noski, esan zidan. Horregatik nahi dugu euskara ikas dezan. Hizkuntzalari izatea erabakiko balu lagungarri izango du”.

Bermeon bizitu ziren epe luzean ama-semeak.

Aurkipen garrantzitsuenetakoa, munduko hizkuntzak lau (edo bost) oinarritzko multzotan biltzea izan zen, hala nola, *Paleo-Eurasian-American Prefix type* delakoa.

Bertan sartzen zituen, euskara, kaukasiera (georgiera etab.), sumerioa, burushask eta *paleosibiriko* beste batzuk. Euroasialdeko biztanle zaharragoen aztarnak liriateke multzo honetakoak, toki isladatu eta Kaukaso edo Pirine mendiak bezalakoetan geldituak.

Altaiko eta finnougariar *Eurasian suffix type* multzoa gero etorritakoa da.

Indoeuropear multzoa da Europan berriena, eta tipologia aldetik nahasketa bat omen da, *suffix type* delakoaren zenbait elementu dituelarik eta Ipar-Afrikakoen bokal aldaketa moduko beste zenbait. Ez dira, bere ustez, multzo genetikoak bi osaki horien iturriak, morfologikoak baizik. Esan nahi da, hitz guztiak aldatu ere beste hizkuntza batzuetatik hartutakoekin, hizkuntzaren ardatza ez dela hiztegia bezain laister aldatzen. Adierazgarriagoa da beraz lurralde bateko hizkuntz historiarentzat morfologi ardatza, hizkuntzalaritza edo linguistika genetiko bano.

Azken urteotan semearen bidez erantzuten zien gutunei eta hil baino hilabete batzuk lehenago bidali zizkidan Koldo Mitxelenak berari idatzitako izkribuen fotokopiak, hark Errenteriarri bidalitakoekin parekatzeko. Benetan aberatsa da altxor hori. Behin eta berriro aitortzen du Mitxelenak zertan izan zaion argibide haren esana. Gutxitan egin ohi dituen laudorioak irakur daitezke gutun hauetan. Suediarrak bidalitako lan bati buruz, honako hau dio:

“... Tenía alguna idea de sus métodos por las conversaciones que hemos sostenido y también por la introducción teórica que puso Vd. a aquel trabajo comparativo sobre lenguas norteamericanas cuya separata me dejó, pero ha sido en éste donde he podido verlo mejor. Puede Vd. creerme que me ha parecido una de las cosas más interesantes y orientadoras que se han escrito nunca sobre nuestra lengua, dejando aparte las otras” (Carta de 01-03-1951)

Munduan zehar Asia eta Ozeanatik, Europa eta Ameriketara banaturik daude bere idazlanak. Bildua dugun bibliografia osoa aipatu gabe, euskarari dagozkionak Euskalerriko aldizkari hauetan aurki daitezke: Donostiako *BAPen* lehenbiziko hiruak (1950-1959). *ASJU*n bi, 1969 eta 1977an. Koldo Mitxelenaren omenez argitaratutako *Symbolae* bilduman ere jaso da haren lan bat. Halere, *Fontes Linguae Vasconum* Iruñeko aldizkariarekin izan zituen hartu-emanik iraunkorrenak, bertan argitaratu direlarik hizkuntzalarari ospetsuaren zortzi izkribu.

Euskalariatzat aipagarriena, halere, “*El idioma vasco hablado*. Un estudio de dialectología euskérica” izeneko liburua da. 1964an plazaratu zuen Donostiako “Julio de Urquijo” Mintegiak, Suediako Errege eta hango Giza-ikerketen Kontseiluaren diru laguntzaz.

Euskal Akademiaren ohorezko izendapenez bestalde, hau da munduan zehar kideztzat hartu zuten erakundeen zerrenda:

- Linguistic Society of America.
- American Anthropological Association.
- Humanistika vetenskapssamfundet (Lund-ko Giza Zientzien Elkarte).
- Polynesian Society.
- Linguistic Society of New Zealand.

- American Name Society.
- An Comunn Gaidhealach (Gaelieraren Eskoziako Elkartea).
- Australian Institute of Aboriginal Studies.

Inorentzat ohore izatekotan, jakitunak Euskaltzaindiari eta euskarari bere jakintza-rekin emandakoa izan da.

Eta txostena amaitzeko, azken berri pozgarria. Aitaren bidetik oso aurreraturik doan Arturo gazteak egun hauetan idatzi didanez, Taiwango Seedig hizkuntzari buruz amaitzear daukan tesia irakurri bezain laster beste Holmer baten izena gehituko zaio euskalarien etorkizuneko zerrendari. Aspaldi emandako hitza beteko da beraz.

*Jose Mari Satrustegi*

## DR. JUSTO GARATE ARRIOLA (1900-1994)

Justo Garate, aspalditik urgazle genuena eta 1978ko otsailetik ohorezko euskaltzaina, aurtengo uztailaren 2an hil zen Mendoza hirian (Argentina). Bergaran jaio zen mende honen hasierarekin 1900. urteko abuztuaren 5ean. Medikua, Madrilen eta La Platan doktoratua, baina lehenago Freiburg, Paris, Heidelberg eta Berlinen medikuntzako espezialitateak osatua zen.

Egia esan, zuotarik nork ez zuen ezagutzen jakitun hura nik adina? Gutariko nori ez dio idatzi zenbait agiri eskatuz edo berak zituenak ziurtatzeko xehetasun eskariz? Azken urteotan, halabeharrez, bere anaia Elias hartzen zuen ordezkarri gisa. Nik ere, nire ahalmenaren neurria laguntzen nion bere eskariei argibideak ematen. Zor nion, 1959. urtean Juan Antonio Mogeli buruzko lana egin nuenean beragandik jaso nuen laguntzaren ordainez.

Bai, Justo bera ere laguntzen zekiena zen eta guztiok badugu horren lekukorik. Adibidez, begira argitara berri den *Cancionero Vasco-P.Donostia*, VIII. liburukia, 1529. orrialdean "Papeles de Humboldt", non ikus daitekeen prusiarrak hemen bildu zituen kanta eta doinuak Berlingo bibliotekan begiztatu eta 1934. urtean Aita Donostiari nola aditzera eman zion. Horren ondoriozkoa dugu liburuki horretan datorren azken zatia, gure kulturaren aberasgarri.

Euskaraz ez zuen asko idatzi, baina bilduma ederra osatzeko adina bai, eta merezi luke hainbeste alor landu zituen gizon honen euskarazko liburu bat osatzeak, han-hemenka argitaratutako lanok bildurik. Hogeita bi urterekin hasi zen Bilboko *Euzkadin* idazten. Geroztik, *Eusko Deya*, *Gernika*, *Euskera* eta beste zenbaitetan argitaratu zituen euskarazko idazkiak, batzutan Elorregi, Eneko Mitxelena, Eneko Zilueta eta Txeru Arriola izenordeez. Zer esanik ere ez: euskaltzale uka ezina genuen gure gizon hau.

Jakina denez, medikuntzaz hainbat lan egin arren, inoiz ez zuen utzi euskal kulturaren alorrik. Hori gainera kontuan izanik bizitza berez gogorra gertatu zitzaioela. Hogeita hiru urterako lortu zuen mediku lizentziatura, eta ondotik Unibertsitatea eta bidaiak zituen gogoko. Mende honetako Euskal Unibertsitatearen sortzaileetariko genuen. Gerra zibilak erbesteraturik, lehendik hain zale zituen bidaiak, ahal bezala, erromes gisa ibiltzera beharturik aurkitu zen. Baina, nonahi eta beti, tinko. Gainera, bere eraginaren itzala utziaz igaro zen toki guztietan.

Bere ikasbidearen xehetasunez honako ohar hau egiteari beharrezko deritzot. 1917an Valladolid-eko Unibertsitatean hasi zituen medikuntzarako ikastaro nagusiak. 1921. urteko urtarrilean Basurtuko Ospitaleko Medikuntza Eskolan sartu zen. Handik urtebetera Basurtuk beka eskainiz Freiburg-era joan zen eta 1923an lizentziatu. Doktoradutza Madrilen 1927an eta berehala laguntzaile gisa Basurtura, 1933an bertako Me-

dikuntza Eskolan irakasle eta 1936an bertako kideekin Euskal Herriko Unibertsitatearen sortzaile Medizina Fakultatearekin.



Justo Garate

Espainiako Kotsuladuak 1989an liburu bat argitaratu zuen, *La inmigración española en Mendoza. Cuatro estudios monográficos* deritzana. Hor dator Jaime Correasek idatzitako kapitulu bat, "Justo Garate. El espíritu polémico" deritzana, bereziki 73-97. orrialdeak dira soil-soilik gure gizon honi eskainiak, bere bizitza eta lanak orokorki hartzen dituelarik. Hor bertan, 94-97 orrialdeetan dator bere lanen bibliografia. Baina bada beste liburu interesgarri bat, bere ikasle Roberto M. Aprá-k 1993an argitaratu zuen *Educación y medicina. Entre médicos y pacientes*. Alde batetik, XV. kapitulua, medikuaren esistentzialitateari buruzkoa eskaintzen dio J. Garate maisuari eta, bestetik, XVII.ean Garate eta Marañonek elkarri idatzi zizkioten gutunen berri ematen du, bi mediku ospetsuen bibliografiarekin bukatzeko. Ikus, 163-189. orrialdeak.

Beraz, guk euskal kulturaren ezagunagoa dugun Justo Garatek bere medikuntzako ofizioan ere badu ospea.

Eusko Ikaskuntzaren lehen alditik *RIEV* aldizkarian badu lanik aski, baina era berean aurkitu genitzake ikerlanak Euskal Herriaren Adiskideen *Boletín de la R.S.V.A.P.*en, Aranzadi Zientzi Elkartearen *Muniben*, *Príncipe de Viana* aldizkarian edo *Boletín Americano de Estudios Vascosen*.



Euskal gaien liburuak, berriz, huts egiteko arriskuarekin, honako hauek aipatuko nituzke: *Viaje a Navarra de Chaho* (1933), frantsesetik itzulpena edizio-kritiko gisa; *Guillermo de Humboldt. Estudios de sus trabajos sobre Vasconia* (1933); *Ensayos Euskarianos* (1935); *La época de Astarloa y Moguel* (1937); *Viajeros extranjeros en Vasconia* (1942); *Cultura biológica y arte de traducir* (1943); *Cuatro ensayos sobre España y América* de Guillermo de Humboldt, traducción y notas en colaboración con Miguel de Unamuno (1951); *El carlismo de los vascos* (1980). Horiez gainera, hainbat itzulpen, hitzaurre eta kritikaz beste zenbait liburu. Elkarlanean osaturik Euskaltzaindiak argitaratu zuen *Iparragirre* (1987) liburuan bertan ikerlanik luzeena zen berea, "Iparragirre en América" izenburuduna. Duela urtebete, ordea, bere azken liburua, *Un crítico en las quimbambas*. Bere lanen bibliografiarik zehatzena Jon Bilbaoren *Eusko bibliographiaren* III eta IX. liburukietan 577-580. eta 402-404. orrialdeetan (Añamendi argitaletxea, Donostia, 1973 eta 1975. urteetan), ondotik, jarraipenez *Eusko bibliographia*, II. liburukia (1976-1980), (Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 1986). Azkenik, *Un crítico en las quimbambas*en osatuago aurkituko dugu 291-312. orrialdeetan.

Baina, bereziki, Justo Garate, maiz "Zuzen Garate", polemista bezala ere ez zen gizon txarra. Besteen hutsak salatzen bazekien ere, gehienetan bereak laster aitortzen zekiena zen. Bere jakintzaz ez zen oharkabea eta lehenik harro itxurazko gizona idurituko zitzaigun, baina berarekin harremanak izan zituen nornahi erraz ohartzen zen bere bihotz onaz eta umiltasunaz. Gainera, beti nornahiri mesede egiteko gertu. Antzinatek elkarren artean izan dugun harreman estua dut diodanaren lekuko.

Jakintza bideetan orotariko gaiez interesatu zen, bereziki XVIII. eta XIX. mendeetako ikerketaz, historiarako G. von Humboldt-enganetik hasi eta karlisten gerratetik Iparragirre arte bereziki. Ahantzi ezinezkoak Humboldt-i buruz egin zituenak, luze bezain sakonak, bizitzaz, bidaiez eta euskal lanez. Haiek izango zituen, *Ensayos Euskarianosekin* batera, bere gaztaroko lehen lanak. Ondorenez etorri ziren gainerakoak.

Langile bezala, zer esan? Bizi guztian eten gabe aritu zen, han eta hemen, hartaz eta honetaz. Medikuntzaz, biologia eta psikologiak berrehunen bat lan idatziak ditu eta beste hainbeste edo gehiago filologiak, etnografiak eta euskal historiak. Toponimiaz lanik ugari agertu zuen eta, beraietan etimologiako iritziak beti zuzenak izan ez bazituen ere, saio gogoangarriak dira. Edozein gai hartzen zuelarik ere, maisuki agertzen zen gehienetan. Bere intelektu ahalmenen adierazgarri hor dugu *Cultura biológica y arte de traducir*. Zernahitarik bada hor eta, niri behintzat, ordu atseginak eskaini dizkit, batez ere gizonaren dimentsioa eta adimenaren neurriak erakusten dizkigulako.

Ikertzaile paregabea. *Los colegios de las vizcainas y Vergara en el siglo XVIII* (1972) lana 1992. urtean Eusko Jaurlaritzak, lehendakariaren eskaintzaz, argitaratu zuen J. Ig. Telletxea Idigorasen gehigarri. Baina, halaber, bada beste alderdi guti ezagun bat Justo Garategan: hitzaurregilearena. Liburu askoren hitzaurregile. Nik lehenengoetarik ezagutu nuena Migel Pelay Orozko adiskidearen *El ritmo de la época*rena izango da noski. Liburua bera ederra bazen ere, hitzaurrea ez zen makala.

Ez nuke ausartegia izan nahi pertsoneri buruz iritziak ematen. Sokratek antzina zioenez, gauzek gizaki bakoitzagan era desberdinezko ikuspegiak dituzte; gure esaldiak dioen bezala, buru haina aburu; eta nekeza da Justo bezalako humanista bati buruz aburu zehatzak agertzea, hain zabala denez gizon honen kultura eta honen barnean landu zuen alorra.

Justok, bere polemiketan, etxekoekin zalapartarik aski atera bazuen ere, erbesteko zenbait kultur gizonekin izan zituenak nabarmenagoak ziren, gehienetan gure Herriaren izen onaren alde bere luma ezpatatzat hartuz. Bere garaian “barapalo” ondo merezia eman zion Salvador Madariagari eta geroxeago Sánchez Albornozi. Jorge Luis Borges idazlea ere ez zen libratu ondo merezia zuen zigorretik. Borgesek uste bazuen euskaldunok soilik esnedunak (esneketariak) ginela, hemengoen “esnea” probatu beharra izan zuen “Zuzen Garate”ren eskutik. Sánchez Albornozek, ordea, Ameriko Castroren arabe zaletasuna onartzerik nahi ez, eta horren kontrako arrazoi bidez uste zuen erromantziak bakarrik zirela zibilizatuak, eta amaren semeak nonnahi sortzen zirela ikusi zuen “albornoz” ordez “tunikaz” behar zuen hark. Madariagari nonbait ahantzi zitzaion zumarrek ez duela frutatatzat madaririk ematen, bere jatorrizko lurreen behar bezala errotua denean, eta madarikatu hari adierazi zion gauzak zuzen nola ziren.

Izugarria benetan gure gizonaren kemena. Baina bere luma su bihurtzen zenean, berezko seta indartzen zitzaion gauzak bere neurritik atereaz. Biarnoko “convade” hitza Strabón-ek kantabriari buruzkoan erabili zuen ala ez, XVII. mendean Rochefort-engandik hasita era askotako iritziak barreiatu ziren; baina iritziak iritzi. Berez iluna zen gai horretan gogorregi sartu zen J. Caro Barojaren aurka Aranzadi Zientzia Elkarteak Telesforo Aranzadiri 1962an omenez eskaini zion *Munibe* zenbaki berezian. Ondoko urteetan ere setati jarraitu zuen agiri zehatzik eskaini ezinezko auzi hartan. Etnografo autoritate kendu nahi zion gai horietan zerbait egin dugunon aurrean, baina, hala ere, hutsegiterik bada edo ez bada, guretzat Caro Baroja izan da etnologia eremu horietan izan dugun maisu gorena. Baina, hala ere, XVIII eta XIX. go gaietan hain aditua zen J. Garatek aitortu zuen J. Caro Barojaren *La hora navarra del s. XVIII* liburu bikaina zela.

Antzera aritu zen K. Mitxelenarekin ere, hizkuntzalaritza gramatikaren maila soiletik ikusten zuela esanez. Hor ere badakigu Mitxelena dela gure historian izan den hizkuntzalaririk bikainena. Hortik ote zetorkion euskara batua onartu ezina? Justo eta biok elkarren artean idatzizko eztabaidarik aski izan genuen. Behin azaldu zidan 1968an Arantzazuko bileretan Mitxelenak eztabaida sutsu eta gogorrak izan zituela Jose Miel Barandiaranekin, Elias Amezagak esan zionez. Erantzun erraza nuen, esanez, Arantzazuko bilera haietan Euskaltzaindiko idazkari nintzenez, edozeinen aurrean aitortu ezazkeela J.M. Barandiaran ez zela agertu Arantzazuko bilera haietara eta ezinezko zela horrelako eztabaidarik. Medikuz bezala, bere eztabaida horietan besteen diagnostiko psikikoa egiteko zaletasuna agertzen zekienez, ia ez zen ohartu Elias Amezagaz, zeren buruz elbarritua ez bazen, nire ustez, zentzu-oreka zalantzagarrria nabari zuelako.

